


MORROIA

ZUBIRI'TAR IÑAKI
(EUSKERAZAINTZAKOA)



Chiscentos

MORROIA

ZUBIRI'TAR IÑAKI
(EUSKERAZAINTZAKOA)

MORROIA

AURKIBIDEA

ATALBURUAK

ORRIALDE

MIKEL	11
INTXALDE	17
OKERKERIAK	35
EDURNETXU	45
BEKAITZA	51
OROITZETAN	61
GUDARI-ALDIA	71
BIURPENA	101
MAITASUNA	111
ETXEKALTEA	131
INTXALDE'KO LOREA	137
ANDEREIÑO LAGUNTZAILLEA	141
MIKEL'EN IGESA	149
AZKEN NAIA	169
IDAZTOSTE	177

© EGILLEA

Legezko gordailua: BI-1276-89
Irarkola: Flash Composition, S.A.

SARRERA BESTE ELEBARRI BAT EUSKERAZ: MORROIA

Zubiri'tar Iñaki adiskideak beste elebarri eder bat idatzi dau eta irarkolara daroa. Orain-arte idatzi dauzan olerki eta elebarri ederren artean, gogoratu esaterako **Bordazuri** eta **Galdu** elebarriak, toki berezia izango dau onek be gure liburutegietan.

Olako lan luze ta ederra egitean, asmo bi dauz, zalantza barik, gure Iñaki idazleak: Alde batetik, gure euskerea zabaldu eta indartu eta beste alde batetik, errikideentzat onuragarri izan daitekezan irakurgai atsegingarriak eskiñi.

Eta elebarri onek elburu biak beteten dauz ezin-obeto: euskera ederra eta ariagaitik naiz gaiagaitik, irakurgai atsegingarria ta eredugarria.

Eredugarria esan dot, eta alan da izan be. Elebarri onetan agertzen diran noriak gizarte zorionsua osotzeko egokiak dira. Erritar elduak eta batez be gazteak, asmauriko jazokizun orreitan jokabide onaren ereduak aurkituko dabez: Maitasun garbia, zintzotasun aundia, batez be Mikel Nagusiaren jokabidean, zitalkeria azpiratuta Txomin'en jokabidean eta, beste elebarrietan lez emen be, erlejiño-giro egokia.

• • •

Ardatz biren inguruan garatzen da elebarriaren arazo guztia: Enkarterrian eta Garnikaldean, eta or bitartean elebarriaren lur-iru-

diak urtenaldi batzuk agertzen dauz, Edurne Bilbo'ra doanean, Txomin Arjentina'ra doanean eta soldadutza egiteko, Mikel Madrid'era doanean.

Toki-Aldetik errez jarraitzeko elebarria da ba MORROIA.

• • •

Elebarrietan gaur egun garrantzi aundi emoten jako aldiari eta eragiñaren neurketeari edo "ritmo"ari.

Elebarri onetan aldia beti doa ariaren parean eta egokiro neur-tuta, bear ba'da Edurne'ren eziketa-arazoak laburregi agertzen dira. Soldadutzako arazoak ostera zeatz eta aldi luzea eskiñita.

• • •

Irakurgai au irakurten dauanak aiztu-eziñeko noriak sartuko dauz bere gomutamenera: Martin, Errose, Edurne aingeruen jokabi-deko nori osasuntsuak doguz, Txomin be azkenean onera biur-tzen da, Mikel eta etxeoak... eta beste guztiak egokiro zeaztuta dagoz, bai esaldien bidez eta bai, batez be, egiteetan agertzen dirala.

Ez da euren artean politika-arazo mingarririk agertzen, baiña bai abertzaletasun garbia ta osasuntsua. Bear ba'da, euskera egi-ten dogun alderdikoak pozez artuko dogu olako jokerea gitxi eza-gutzen doguzan Enkarterrikoen artean. Or agiri da idazlearen elburu bat, Bordazuri'n Naparroa'ko euskalzaletasuna agertu ebanean ikusi zan antzera.

• • •

Elebarri onetan erriak dauzan beste arazo batzuk be sartzen eta aztertzen dira bildur barik.

Soldadutza edo gudaritzaren arazoa, len esan dogun lez, Ar-jentina'ko erbesteratuena, ikastetxeena, aberatsen etxeetako ara-zoa, au garraztasun barik eta egokiro, baserri-arazoa be bai, arazo larria baiña zurtasunaz lan egin ezkeru urtenbidea daukona.

• • •

Eta euskera-arloan, beti lez lñaki'k iztegia aberastu egin nai dau eta orregaitik itz barri batzuk aurkituko dozuz irakurle, baiña elebarriaren joanean errez ulertuko dozu euren esan-naia edo adie-razpena.

Aditz-joko batzuk be arrigarri egingo jatzuz, baiña azterketa zeatza egin ezkeru, laster ikusiko dozu zuzenak dirala.

• • •

Geiago barik, aurkezpen au amaitu egingo dot. Ez neureari begira egon zaitezen, baiña bai irakurle zurra izateko, eskari bat egingo neuskizu: Elebarria irakurri-aurrean irakurri egizuz, lenengo, lerro labur oneik eta amaitzen dozunean, barriro. Irakurri dozuna obeto ulertzeko ta bururatzeko lagungarri izango jatzuzala uste dot. Eta irakurgai au aztertzeke be bai.

OLAZAR'tar Martin'ek.

MIKEL

Bizkai'ko Enkarterriko basetxe bakarti aretan, senar-emazteak suntondoan jesarrita, autu mingots bateri emotsoen. Neguko azkena zan, eta egunak luzatu baziran be, giroak oraindiño ots zirauan. Senar-emazteak bakarrik egozan, seme-alabak ordubete bat lenago oeratuak ziralako.

“Andelu” eritxan basetxe aretan, erderaz egiten zan, zoritxarrez, Enkarterri guztian aspaldiz gertatua zana. Etxe aretakoak txiroak ziran, eta oraingo maisterrak, Jose Aretxalde eritxanak, txarto ikusten eban bere burua Tomas Deunaren egunean etxeko urtesaria ordaintzeko. Lau seme-alaba ebazan, mutil bi ta neskatilla bi, mutillak zaarrenak izanik. Etxeko irabazpide nagusia, esne-beien azkuntzea zan. Baebazan bost bei, eta oneik emotsiezan esneaz eta etxaurreko ortuan batutakoaz bizi izaten ziran, estu ta larri bazan be.

Etxaguntza, lerdoiz edo piñudiz inguratuta egoan, eta au zala-ta, egokiozan larradiak urriak ziran. Antxiña baten, bedartzea andi-goza zan, baiña urte batzuk lenago onura andi-goza ataratarren, ugazabak lerrak sartu ebazan. Oraingo maisterrak, besterik ezean, aldakuntza barriaz etsi bear izan eban.

Gau aretan sutondoan berbetan ziarduela, Jose'k emazteari auxe iñotsan:

—Arazoak gero ta larriago ikusten dodaz, Yosune. Gure beiek zaartasunagaitik gero ta esne urriago. Kortan doguzan iru bigantxak etxerako gorde bear izango doguz, zaarrenak ordezteko, eta au dala-ta, areikaitik artuko genduken diruari uko egin bear izango dautsagu. Augaitik estu ta larri ikusiko dogu gure burua. Dirua bearezkoa yaku, etxerako luza-eziñak diran gaiak erosteko, au da, tei-

Ila barriak oraingo itogiñak kentzeko; oi barriak zerenak jandakoak ordezteko; sukalderako aulki batzuk erosi; mai-ontziria osotu; seme-alabentzako oiñetakoak erosi, ia ortotsik dabiltz-eta...

Etxejojauna une batez isildu zan, eta gero,

—Bai, Yosune —jarraitu eban—, Tomas Deunaren eguna arin baten barriro etorriko yaku, eta orduan nekez irabazitako berrogei ta amar ogerlekoak, ugazabari emon bear izango yakoz. Bai, bear-tsuen etxean alaitasun urri ta gose ugari.

—Zer egingo dogu ba, Jose —erantzun eutsan emazteak—, Jaungoikoak osasuna emon dagiskun bitartean lanari ekingo dau-tsagu, eta gero geroak esango...

—Gaur baizen larri iñoiz ez, Yosune. Etxe onek bearrizana eguneroko bide-laguna dau, eta gure umeez gosearen aurpegi gorrotagarria sarri askotan ikusten dabe. Aspaldi onetan buruan yabildan asmoa, ezin dagiket uxatu.

—Zein asmo, Jose...?

—Gure semetariko bat morroi sartu.

Emaztearen begiak malkoz laiñotu ziran, naibagearen esku la-tzak biotza zapaltzen eutsala. Gero, abots kolokaz,

—Ai ene, Jose —esan eban—, ori neurri baten gure semetariko bat galtzea lez izango litzake. Urteak igaro, eta noizean bein soillik ikusi. Ez dau iñork geuk lez maite izango, gure seme laztana...

Negarrak jabetu eziñik, Yosune isildu zan, aurpegian beera malkoak eriozala. Gauzarik esateko gai ez zala, senarrak isillik ziruan emaztearen naibagea zelan arindu ez ekiala. Noizbait Yosune'k malkoak txukatu ebazan, eta,

—Aizu, Jose —esan eutsan—, uste al dozu gure seme nagusia, Josetxu, egokia izango ete morroitzat jarduteko...?

—Oraingo onetan, ez daukat gogoan Josetxu, Mikel baiño.

Au entzutean, Yosune'ri biotza iraulkatu yakon. Mikel, bere seme kutuna galdu...! Seme-alaba guztiak maite-maite ebazan, eta beti iñorentzat lentasunik ez agertzearren saiatu izan zan, baiña biotz-txokoren baten bere seme Mikel kutunena eban, eta au bere senarrak ondo ekian gauza zan.

Josetxu, seme-alabarik nagusia, amalau urteko morrosko sendo ta esanekoa zan. Mikel, amabi urteko semea, bere anaia bai-zen sendoa etorren, eta garapen osoa jaritsi orduko, benetako mutil lerdan eta ederra biuruko litzake. Begiak eta billoak gaztainarak ebazan, eta aurpegi benatsuan ontasun eta irmotasuna irakurten zan era berean. Begien so ameskor eta gozoek barruko dendu ta baretasuna adierazoten ebezan. Gogoko sentipen miñak, agertze-ko emona ez bazan be, amari maitasun bizia eutsan, eta au Yosune

ne'k ondo ekian gauza zan, barruko sentipenak nekez ezkutatu dai-tekez-eta.

Seme bietarik Mikel aukeratu izan zala jakin ebanean, atseka-be larria ezkutatu eziñik, mintzo dardartsuz senarrari,

—Baiña, Jose, ez ete da Josetxu Mikel baiño egokiagorik morroitzarako...? Indartsuago ta egiñagoa da. Mikel, ostera, erabeti-ago ta nire ustez etxerako zaletuagoa izanik, gugandik urrun nai-bage itzela jasango dau.

—Begira, Yosune, zuk diñostazuna egia izan arren, etxe onek seme baten laguntza bear dauala kontuan artu bear dozu, eta gure Josetxu orretarako egiñago ta oituagoa dogu. Onezaz gaiñera, arazo onetan uste on andiagoa dot Mikel'egan Josetxu'gan baiño, eta ziur naz, morroitzari ori neketsua azalduko balitzakio be, jarraitzeari eutsiko dautsala, oso zintzotzat daukat-eta. Morroitzaren saria ezin-bestekoa dogu etxe onen alogerea ordaindu aal izateko, eta onetan Mikel'ek ez dausku utsik egingo.

Au entzun bitartean, Yosune'ri malkoak mara-mara eriozan. Ain zuzen be, senarrak zirautsana egia zan, eta zelan edo alan Mikel'ek betekizunari eutsiko leuskio, mutil zintzo-zintzoa zalako.

Une batzuk isillean igaro ziran, eta noizbait Andelu'ko etxejo-jaunak,

—Aizu, Yosune —esan eutsan astiro—, erririk-erri dabillan tra-tulari batek, Gernikalde'ko baserritar batek morroi bat bear dauala esan eustan araiñegun, eta au jakitean eskatu neutsan, baserritar areri esan egiola dalako jardun orretarako seme bat gerturik dodala, eta au onartzekotan, mutilla ta biok gora-beera guztiak atontzeko aren etxean azalduko gintzakiozala. Baleiteke, beraz, luzaro barik arazo orreri buruz zeozer jakin dagigula.

Senar-emazteek autuari jarraitu eutsoen, eta noizbait beraundu samar izanik oeratu ziran. Gau aretan Yosune'k nekez lo egin aal izan eban, seme kutuna burutik kendu eziñik.

Andik aste bitara-edo, Andelu'ko etxejojaunagana tratularia bera azaldu zan, semearena atondu izan zala esanez. Baserrira, Gernikalde'ko Mendibe errian egoala, eta aren izena Intxalde zala. Erritik iru bat kilometrora aurkitzen zan mendian gora. Etxejojauna Martin eritxan, eta gerturik egoala urrengo Igandean aita-semeak etxean artzeko, morroitzaren gora-beerak argitzearren.

Mezu au artu ebanean, Yosune'ri biotz-taupadak arindu yakozan. Iru egunen buruan semea joango litzakio, nora ez ekiala. Une batez senar-emazteek isillik iraun eben, eta gero,

—Aizu Yosune —esan eutsan senarrak—, jazoten dana, Mikel'eri esan bear yako, eta iñor ez zu baizen egokia orretarako.

Ikastolatik laster etorriko da, eta orduan ereti egokia izango dozu jakiñaren gaiñean ipinteko.

Ondo ekian Jose'k bere emazteak samurtasunik andienaz, semeari esatekoa jakiñerazoko leuskiola, eta izan be, zuzen egoan.

Andik laster, Mikel eta bere arreba biak erriko ikastolatik biurtu ziran, eta neskatoak kanpoan bazkatzen ziarduen beien billa joan ziranean, illuntzea zan-eta, amak seme kutunari auxe esan eutsan:

—Geratu zaitetz apur baten nirekin, Mikel, zeozter esan bear dautsut-eta...

Une batez Yosune isildu zan bere oldozkunak taiutzeko, eta gero,

—Aizu, Mikel —semeari maitero esan eutsan—, aspaldi onetan zure aita ta biok arrenkuraz beterik izan gara gure etxeko egoereari buruz. Beien ekarriaz, eta ortuari ataraten dautsaguzan apurrakaz estu ta larri bizi izaten gara. Augaitik, urteko etxe-alogerea ordaintzeko txarto ikusten dogu gure burua. Azken urteotan gaiek gorakada itzela artu dabe, eta gure sarrerak ozta-ozta etxerako bearrezkoena ordaintzeko gai izan dira. Au dala-ta, zure aitak eta biok, gogoko ez bayaku be, zu beste iñoren etxean morroi sartzea baiño ez dogu ikusten.

Arrituta geratu zan Mikel amaren itzok entzutean. Ez yakon iñoiz burura etorri, egunen baten jaiotetxea, etxekoak eta maite-maite eban ama batez be, itzi bear izango leukezala. Isillik egon zan une batez, malko lodi bi aurpegian beera eriozala. Alako baten,

—Ama —esan eutsan—, nik ez dot etxe au itzi gura, ezta zeuok be.

—Baiña, Mikel, ori bearrezkoa da. Begira, seme, nekez ordaindu dagikegu etxe onen urteko alogerea. Abo bat kenduz eta zuk morroitzat irabazi dagizunaz, gure egoera larriari aurre egin aal izango dogu...

—Eta zergaitik neu, eta ez Josetxu...?

—Begira, Mikel, aitak eta biok arazoari astiro begiratu dautsagu, eta zu egokiagotzat zaitugu orretarako. Ara... gure ustez morroitzat ori beteteko iñor ez zu baizen egokia, zintzo-zintzoa zaralako, eta gaiñera, edozein egoera larriari aurre egiteko gaitzat zaitugu.

Une batez Mikel'ek isillik iraun eban, eta gero,

—Ama —itaundu eutsan—, noiz joan egin bear dot...?

—Datorren Igandean, seme, au da, iru egunen buruan. Azken egunotan ikastolara joan barik etxean geratuko zara, aalik eta ondoen igaro dagizuzan, beste iñora joan baiño len. Badakit larri zagozala, seme, baiña Jaunak lagunduko dautsu.

Arrezkero ez zan besterik aipatu arazoari buruz, eta noizbait

Igandea eldu zan. Epaila'ko goiz aretan, ortzia odeiez estalita egoan.

Mikel goizean goizik jagi, eta sukaldera jatsi zan. Amak gosaria gerturik eukan, eta aitak abiamenak egiten ziarduan, bidaia luzea izango litzake-ta. Etxetik urten baiño len, anai-arrebai besarkada bana emonda gero, amak ateraiño lagundu eutsan, eta negar-anpu-luak eriozala, estu-estu besarkatu eban. Jarraian, zorro bete gaztain emon eutsan auxe iñotsala,

—Aitak badaroaz ogi-tarteko batzuk biderako, baiña eutsi bero-bero dagozan gaztain erreok otza uxatu dagizun. Badakit ondo jokatu dozula, baiña ez aztu gabero oeratzean, Gure Aita bat eta iru Agur Miren esatea, zintzo ta garbi iraun dagizun...

Negarrari eutsi eziñik, Yosune atadian geratu zan, aita-semeari bide-okergune batetik ostendu arte. Gero etxera sartu zan negar baten. Esaera zaarra diñoanez, agur esatea zerbait iltea da... Aurpegia eskuen artean estalduta, aulki baten gaiñean jesarri zan, bere seme kutuna burutik kendu eziñik. Berarentzat, Mikel'en joatea, oparizat emoten dan bildots errubage antzekoa zan. Bai, bere seme zintzo ta esanekoa, iñoiz naibagerik txikiena be emon ez eutsana, beste iñora bialtzen zan, etxeko kinka larria arintzearen. Yosune, neurri baten, errudun sentitzen zan, eta iñoizkorik atsekabetuen negar egin eban. Bere seme kutunaren urrutiratzeak zauri bat biotzean zabalduko leuskio, urteen igaroteaz arinduko litzakiona, baiña beti bizirik iraungo leuken atsekabea.

Begiak malkoz laiñoturik ebazala, Mikel aitaren atzetik bidean beera abiatzen zan. Etorkiari bildur andia eutsan, eta areago, berez mutil lotsatia izanik. Ezaugua bildurgarria da, eta morroitzak nairgabe andiak ekarriko leuskiozala somatzen eban. Gaiñera, arrezkero, maite-maite eban amak ezin legikioz bere atsekabeak arindu. Ordurarte estu ta larri bizi izan bazan be, etxekoen maitasunak egoera arindu eutsan. Aurrerantzean, baiña, beste iñoren agintzapean, morroi ezain bat izango litzake.

Oldozkun itun oneik buruan erabillezala, Mikel erriko geltokira sartu zan, eta trena eldu orduko, irugarren maillako gurdi baten aitaren ondoan egokitu zan, eta andik laster Bilbao'rantz abiatu ziran. Leiatillan zear ikusi zeitekean zabaldiak Mikel'en aldarte ituna zerbait arindu eban, eta burni-bidez bere lenengo bidaia zan ezkerero, oartu barik ordu ta erdiko txangoa igaro zan. Bilbao'k, uri zarata-tsua, zirrara andia eragin eutsan, eta ibai-gaiñeko zubia zearkatzean, lenengoz ikusten ebazan itsasontziak mamu izugarritzat artu ebazan.

Gero, Atxuri'ko geltokira elduta, beste tren batera aldatu, eta

eguberdia barik Gernika'ra eldu ziran, eta emen bearrezko argibideak eskatuta gero, zortzi bat kilometrora egoan Mendibe'rantz bideratu ziran. Erri onetara eldu ziranean, gose andiaz ogi-tartekoak irunsi ebezan, eta Intxalde buruzko zuzenbidea eskatuta gero, astirik galtzeke aldapan gora abiatu ziran. Andik iru kilometrora-edo, muru baten egian kokatuta egoan Intxalde basetxea aurkeztu yaken.

INTXALDE

Leku garai baten eraikita egoan ezkerro, Intxalde basetxetik ia Gernikalde osoa ikusi zeitekean. Itxuraz etxe ederra ta aberatsa zan, eta ain zuzen be, Mendibe erriko etxaguntzarik onenetariko, lurren zabalera ta ontasunagaitik.

Beetxea eskaratz eder-ederrak eta korta zabal batek, baita txoko baten egoan irolak osotzen eben. Goikaldean lau lo-gela egozan eder eta zabalak. Sapaillio bikain batez ornitutako oe bi ebazan andiena, etxeko senar-emazteai egokien. Beste iru logelak be andi samarrak ziran. Bata, etxeko mutil bientzat, eta orain utsik egoan beste bat, bere garaian alaba kutunarentzat izango zana, eta laugarrena badaezpadako aidereen bat kokatu zeiten. Mailla onetako txoko baten mailladi txikia egoan goiko ganbarara igon aal izateko. Etxeko sorua, ate, leio ta ormak egoera bikaiñean aurkitzen ziran.

Etxeko albo bateri eratsita, orain artoa erretoko soillik erabilten zan labea. Bestaldean, baiña, etxetik tarte-une txikiz alhenduta, garaotegi zabala, lau arrizko zutoiñen gaiñean, marrazkariak jan ez egien barruan gordeten zana. Esku-eskillara ariña garautegira sartu ta emendik urteteko erabilten zan, eta zeregiña amaituta, esku-mailladia kendu egiten zan.

Aldetxe zabal baten, gurdiak, lera, goldea, nabasaia, aitzurrak, kakoak, igitaiak, eskuareak, etab. gordeten ziran. Ataditik eta goiko sapaillotik batez be, ikusmen-mugaraiño zabaldi bikaiña edatzen zan. Izan be, Gernikalde guztia erri ta basetxex zipristinduta, begientzat ikuskai zoragarria zan.

Aurrekaldean, alor batzuk ikusten ziran laster ereintza artzeko, udabarria laster asteko zan-eta. Erritik etxerako bidean azken okergunea igarotean, mendiko bitxi yaukala bai'litzan, Intxalde bere

edertasun betean agertzen yakon bidariari. Munabe'ko iturria eritxanaren ur suzmurlariak leku onetan sortzen ziran, eta bidea zear-katurik, Arresibe'ko bedardi ezo ta aberatsaren zear, egi leunean beera, troka bateraiño joiazan. Bedardi onetan etxeko zortzi bei, euren txalekin alatzen ikusi zeitekezan.

Etxe-ostean, intxaurrondo-talde baten adaburuak ikusten ziran, eta onein atzetik muruko bizkarreraiño, otadi zabala, eta onen bestaldean, erriko sute guztiak areitz-egurraz ornitzen ebazan erribasoak. Intxaurrondo z gaiñera, etxaldea mota guztitariko igaliondoz aberastuta egoan.

Garai aretan, Martin eta Errose senar-emazteak iru seme-alabak ebezan. Nagusia, amar urtekoa zan Txomin, gero Andoni zazpi ureteduna, eta noizbait, etxeko kutuna zan urte biko Edurnetxu zoragarria. Ez dogu aipatu bear, etxekoek abizentzat etxe-izena erabilten ebela. Eta zelangoak ziran Intxaldetarrak, irakurleak berak, edesti onen zear ezagutuko dau arein gora-beerak irakurri dagiazanean. Ekin dagiogun, beraz, Mikel'eri dagokionari, lenengo aldiz bere aitarekin Intxalde'n agertu zanean.

Maitik jagi barriak ziran Intxalde'koak, Mikel eta bere aita eldu ziranean. Onen olesari erantzuna emonez, Martin etxekojauna atadian azaldu zan, eta aita-semeak ikustean,

—Mutil ori al-da —esan eban agurtu ondoren— Pruden tratulariak, morroitat etxera bialtzen daustan mutilla...?

—Bai, auxe da.

Mikel'ek, Intxalde'ko etxeko jaunari lotsakor begiratzen eutsan. Martin gizon garai ta ederra zan, lerden-lerden bere berrogei ta bost urte eroiazana. Txapel batek ozta-ozta estaldu egikeazan aren ule gaztinkara naroak. Begi sarkorren pean, karantz irmotako aurpegia erakusten eban. Izan be, izatez olde aginkor eta zorrotzekoa zirudian. Eta soiñari egokion aldetik ez eban makalago emoten, aren gorputz sendo ta irmoak adierazoten ebanez.

Bitartean, Mikel'ek etxekojaunari lotsakor eta begirunez so egi-ten eutsan, bere baitan bildur antzeko zerbait oartzan ebala. Alako baten, Martin urreratu yakon, eta,

—Mutil, mutil —garratz esan eutsan—, ez yok beste munduko gauza emoten, eta ain zuzen be, ez yakiat gai izango ete azan etxe onetako bearrak egiteko.

Jarraian, aitari itz egiñez:

—Pruden'eri, gure ezagunari, morroi bat idoro egidan eskatu neutsan, baiña ez onen itxurako mukizua.

Jose'k orduan eten egin eutsan onetaraxe:

—Begira, lagun, nire semea dirudian baiño indartsuagoa da,

baiña esaneko ta borondate andikoa batez be. Etxerako artzen ba'dozu, ziur naz ez zarala damutuko.

Orduan etxekojauna Mikel'egana joanda, besoak eta sorbalda aztatu eutsazan. Lotsezko sentipen batek menperatu eban mutikoa, merkatura daron zamari baten antzera sentitzen zala. Azterketea amaituta, Martiñ'ek auxe esan eban:

—Argal izanez gaiñera, umea baiño ez aut. Zein adiñekoa az...?

—Amabi urtekoa, Jauna.

—Baiña zelan otu yakon Pruden'eri ba, olako mukizua niri bialtzea...? Argi ta garbi esan neutsan morroi bat bear izaten nebala, etxe onetan amaika gauza egin bear dira-ta... eta beste ume bat bialtzen daust. Naikoa dodaz etxean, laugarrena zaintzeko. Eta gaiñera, euskeraz ez daki, eta ikasi arte amaika buruauste jasan bear izango doguz.

—Barkatu, adiskide —eten egin eutsan Jose'k—, baiña nik neuk ondo baiño obeto ezagutzen dot nire seme au, eta esan dagikitsut lan astunak egiteko oitua dala, eta gaiñera iñongo atxaki barik. Barrero diñotsut: ez zara iñoiz damutuko.

—Jakiña, aita batentzat bere seme lakorik iñon ez. Dana-dala, jarraitu eban Martiñ'ek abots asarratuaz—, orain baserrian lan egiteko garaia asten da, eta beranduegi, beraz, beste bat idoroteko.

Une batez Martin isildu zan, eta,

—Zenbat kenduko daustazu onen urteko saritzat...?

—Ba... dabillan prezioan... ogei ta amabost ogerleko urtean...

—Zoratu ete zara, lagun...? Onek ez dauz merezi ogei be ez.

Jarraian, Martin eta Jose gangaillenez asi ziran, eta noizbait urteko saritzat ogei ta amar ogerleko itundu ziran.

Egia esateko Jose pozik egoan; urte-sari orren laguntzaz aisa ordainduko leuke etxeko alogera, eta ainbat errazago abo bat gixi-ago janaritzeko izanik.

Gora-beera oneik itunduta, eta gautu baiño len etxera eldu nai eban ezkerro, Jose agurtu, eta semea besarkatu ostean, Gernika'rantz biurtu zan. Munabe'ko iturrira eldu zanean eta Intxalde begimenetik galtzeko zorian zala, atzera begiratu eban. Atadian geldi-geldi, bere ankatxu argalen gaiñean, Mikel azkenengoz ikusi eban. Pozik biurtzen zan etxera Jose egindako itunbena zala-ta, baiña semearen irudi geldi ta isilla azkenengoz ikustean, damuzko zirrara batek menperatu eban. Ain zuzen be, Mikel, bere semetariko onena, ogei ta amar txanponen ordaiñez saldu izan ebalaren sentipen mingarria zan...

Mikel'ek begiak naibagezko laiñoz lausotuta ebazala, bere aita Munabe'ko biurgunearen atzetik ostendu zan. Baekian mutikoak

aurrerantzean gauzak lengora ez zirala iñoiz biurtuko. Noiz ikusiko leukez etxeakoak, ama batez be...? Olan egoala, Martiñ'en abotsak bere senetara ekarri eban auxe iñotsala:

—Aiko, mutil, artu egik orko ormatik eskegita yagokan aizkora ori, eta ator nirekin, ire aparia irabazi bear yok-eta.

Etxeko labe-ondoan egoan egur-meta bateraiño eroanda,

—Txikitu egistazak egurrok —esan eutsan mintzo aginkorraz—, gabean aparia egiteko bear yoaguz-eta.

Samean naibagezko korapillo bat eratuta, Mikel'ek egur-ebateari emon eutsan, etxejoaunaren begirada zorrotz-pean. Lanari ekiten eutsala, Martiñ'ek bere buruari esan bear eutsan, mutillak ondo samar ziarduala, onen itxurak adierazoten eban baiño askoz obeto, ain zuzen be.

Etxera biurtzen zala, Martiñ'ek abopean auxe iñoan:

—Arraioa...! Ebagiereari dagokion aldetik mutil orrek ez dau makal emoten. Bere itxura auskorra ta guzti, badirudi beragandik zoezer jaritsiko dogula.

Mikel'ek ebateari jarraitzen eutsala, zortzi bat urteko mutiko bat urreratu yakon. Andoni, etxeako bigarren semea zan. Onen aurpegi begikoak irribarre bat erakusten eban. Ur samar egoala, auxe esan eutsan:

—Iri zelan yeritxak...?

Mikel'ek baiña, erdelduna izanik, ulertu ez aren itauna, eta besterik ezean, irribarrez erantzun eutsan. Orduan etorri-barria Mikel'ek euskeraz ez ekiala konturatu zan, eta atzamarraz bere bularra ukutuz,

—Ni Andoni naz —esan eutsan— eta i nor...?

Mikel'ek orduan argi-argi ulertu eban, eta,

—Ni Mikel naz - erantzun eutsan erderaz.

Jarraian, eta irribarreari itzi barik, Andoni'k itzaldi luze bateri emon eutsan. Mikel'ek baiña tutik be ulertzen ez eutsan ezker, irribarrez erantzun eutsan. Olan ziarduela, urte bi inguruko ume zoragarria, anka loditsuak aalik ariñen eragiñez urreratu yaken, eta besotxu potxoloak Mikel'eganantz luzatu ebazan. Aizkoreaz joteko bildurrez, gure mutillak ebateari laga egin bear izan eutsan. Umeak orduan, besotxuakaz anka bateri oratu eutsan auxe iñotsala,

—Aupa, aupa...!

Mikel'ek besoetan artu eban, eta orduan umeak eskutxu samurkakaz idunea inguraturik,

—Pa emon, pa...! - esan eutsan.

Mikel'ek beste apa-laztanaz erantzun eutsan, eta besoetan ebala, aren aurpegiñoa berenagandik urrunduz eban umea ondo

ikustearren. Mutillak, orduan, uste izan eban besoetan aingeru bat ebala. Izan be, umea zoragarria zan bere urrezko billo eta begi oztin garbiakaz. Matrail zuri-gorri lodiak eta ezpan beteak ebazan. Umeak mintzo totelaz itz egiten eutsan lotu barik, eskutxu bigunakaz aurpegia laztantzen eutsala.

Umea besoetan ebala Mikel'ek geldi-geldi zirauan, bere lengo zorrigatxaz aztuten zala, eta ume zoragarriagandik begiak kendu eziñik. Olan egoala, ondoan abots ozipintsu batek bere senetara ekarri eban, onetaraxe iñotsala:

—Itzi egik bertanbera umea zikindu ez yaikan, zorritsu orrek. Uste al-yok, morroi zantar orrek, iretzat jaio dokanik nire arrebatxu polit ori...? Etxe onetara ez az etorri seiñak mosukatzeke ire abotzar ugertiaz, ogia irabazteke baiño, alperkeritan ibilli barik.

Au esanik, umea besoetatik kendu eutsan, eta Mikel alde batera bultzatuta, umearekin urrunduz zan.

—Ireak egin yok, mutil —esan eutsan Andoni'k—. Ondiñokarren ez yok Txomin ezagutzen, gure etxeako oiñordea, baiña ereti ugariak izango yozak ondo ezagutzeke. Kontuz ibilli, gero...!

Mikel'ek ez eutsan ezer ulertu, baiña gauza onik ez zala, ondo somatu eban, ebateari erraikiola. Txomiñ'en itxura asarrekoia ezin egikean gogotik kendu, eta aren betosko illun eta gogorrek, etorkirako gauza onik ez eutsan iragarri.

Ederra etorren etxeako oiñodea, amar urteko mutil lerdin eta sendoa zan, baiña aren aurpegi lirañean, bere aitaren zorrotzasanaz gaiñera, gaiztakeria adierazoten eban zerbait igarten yakon, izan be, bekaitz edo iñartsiarene zantzua. Eta au, egunen bidean Mikel'ek ondo bai ondo egiztatuko leuke.

Egur-meta txikitu ondoren, sukaldeko egurtegian egokitu eban, eta lan au amaituta, Martiñ'egana joan eta onen aurrean isillik geratu zan, beste agintzaren begira.

—Aiko, mutil —esan eutsan etxejoaunak, suil batzuk erakusten eutsazala—, gaiozak orain kortara beiak jaisteko.

Kortara sartu ziran, eta orduko illunabarra izanik, Intxalde'ko nagusiak argiak piztu ebazan. Leku ederra zan; ormaren luzerean eta aska edo ganbelai lotuta, zortzi bei eder, idi pare bat eta lau txal ikusten ziran. Txalak amakandik txoko baten baztertuta egozan, eta beste txoko baten, zaldi gorri ertain bat ikusi zeitekean.

Jaisketea asi baiño len, bedar-onduko pillo bat erakusten eutsala, Martiñ'ek auxe esan eutsan:

—Jaisketea errazagoa azaltzen dok beiak nasai yagozakanean, eta au dala-ta, orko pillotik beiak besokada bedar bana ganbelan ipiñi bear yakezak. Begiraik zelan.

Laster ulertu eban Mikel'ek etxejoaunak esan gura eutsana, eta bedar banaketea bien artean eginda, orman eskegita egoan olezko aulkitsu bat Martiñ'ek emonda, morroi barria jesarri-erazo eban, eta gero keiñuka, jaisketeari emoteko agindu eutsan.

Errapearen azpian suilla jarrita, Mikel'ek lenengo beiarri ekin eutsan, eta laster egiztatu aal izan eban etxejoaunak, eginkizun orretan mutillak ez ebalatzen irakasketaren bearrik. Martin ba, morroia bakarrik itzi, eta beste iñora joan zan. Ordubete bat inguru igarorik, Mikel'ek sei suil bete esne batu, eskaratzera eroan, eta leio baten pean ipiñi ebazan oztu zeitezan.

Betebearra amaitu zaneko, apalordua zan, eta senar-emazteak, seme biak eta morroi barria, mai-inguruan jesarri ziran. Edurnetxu zoragarria, goian, gurasoen gelan loak artuta egoan bere askatxuan.

Gure artean oi dan lez, banaketea egitean, Errose'k, etxejoandreak, etxejoaunari lentasuna emon eutsan, gero, seme biai, eta Mikel'eri berea banatzeko zorian zala, Martiñ'ek keiñu bat egin eutsan. Etxekoandreak bereala ulertu, eta bere azpilla beteta gero, Mikel'eri txandea etorri yakon. Onek be, ulertu eban keiñuarena: edozein gauzetan morroia azkena izango litzake beti.

Gau aretako jakia, saieski ta ziztorrez apaindutako porrusalda gozo-gozoa izan zan. Lursagar eta porruak, baita txarrikiak be, etxejoak ziran, eta gose itzelak eraginda, Mikel'ek bere zatia laster garbitu eban, eta begira geratu zan. Beste guztiai bigarrenez banandu ondoren, Mikel'eri berea emon eutsan Errose'k. Aurrerantzean etxe aretan auxe izango litzake mai-aurreko legea, Mikel'ek iñoiz aztuko ez leuken araua. Jarraian, intxaurrak eta edontzi bete esne bana artuta gero, Martiñ'en zuzendaritzapean, errosario edo agurtza esan eben, eta etxejoandreak ontziteria garbitzen ziarduan bitartean, Mikel'ek sukaldia ta ataria isastu ebazan.

Lan onetan ziarduala, beste gora-beeren artean Mikel oartu zan, apainkeri andi barik, Intxalde'n ondo ta zenbat gura jango leukela, eta betekizunak gaberdiko auzaren estularen antzekoak ez izanik be, aurrerantzean goserik ez leukela jasango.

Oera joateko ordua egin zan, eta Errose'k, Mikel, Txomin eta Andoni, mutillen gelara eroan ebazan. Emen oe bi egozan: txiki bat Andoni'rentzat, eta andiagoa zan beste bat Txomiñ'entzat. Gau aretan Txomiñ'ek eta Mikel'ek oe andian lo egien erabagi izan eban Errose'k, eta olan adierazo eutsen.

—Nik, zorritsu orrekin lo egin...? —esan eutsan amari Txomiñ'ek—, ez orixe...! etxejo oiñordeak morroi batekin lo egin...? Ez ama, ez...!

—Aiko Txomin —esan eutsan Errose'k—, gaur ez yoat astirik izan beste oe bat atontzeko, baiña biar ori atonduko yoat.

—Ez, ama, ez; Andoni'rekin lo egin dagiala...

—Ago isillik...! Esan yauat biar danari begiratuko yakola, eta naikoa bedi oraingoz.

—Baiña, ama, au gosez ilda etorri da gurera, eta ez dakigu iñongo kutsurik ekarriko ez ete dauskun...

—Mutil onek goserik jasan ba'yok, errukigarria izango dok, besterik ez. Bestaldetik ziur nok, onen ama ni baizen garbia dokala, ekarri yokan janzkia guztiz garbia dok-eta.

—Baiña, ama...

—Naikoa bedi gaurko, eta ago isillik, matrailleko bat artu gura ez ba'yok...!

Ama-semeen aututik ez eban ezer be ulertu Mikel'ek, baiñan Txomiñ'en itxuraz eta asarrez, autuaren gaia berari buruz zala argi egoan.

Txomin isildu zan, eta gogo txarrez bazan be, oean sartu, eta ormaren aurka zapaldu zan. Mikel aren ostean sartuta gero, Errose'k mutiko biok burusiakaz estaldu bitartean, gabeko otoitzak esan ebazan, eta mutikoek berresaten ebezala, argia amatauta gero, urten egin zan.

Gau aretan nekatuta aurkitzen zan Mikel, eta oeko ertzean kizkur eginda, lo egiteko gertatu zan, gaixoak benetan bear eban-eta. Alako baten, eta lo egiteko zorian zala, ostikada batek iratzarri eban Txomiñ'en mintzoa onetaraxe aditzen zala:

—Ken ortik, ezkabitsu ori, lo egiten ez nok lagaten-eta...!

Mikel orduan, aalik eta urrunen jarri zan, ia oe-ertzetik jausteko zorian, izan be. Barriro Txomiñ'en abots asarratua aditu zan auxe iñotsala:

—Esan yauat urrunago jarri aitean, zorritsu ori...!

Jarraian, ormaren euspenaz baliaturik, anakaz bultzada itzela emon eutsan, eta Mikel soru-gaiñera jausi zan, Txomiñ'en barre-santzoak aditzen zirala.

Asarre bizipean, Mikel jagi, eta ukabillak estuturik, mukitzu arek merezitakoa emoteko gertatu zan. Eskutur bateri oratu eutsan, eta aren aurpegian joteko gertatzen zala, ustekabez, burura etorri yakon zertarako etorria zan etxe aretara, eta gogo txarraz bazan be, jareitu eban.

Gero, Errose'k len aulki baten gaiñean ipiñitako bere janzkia, illunpetan aztamuka idorota, jantzi zan, eta oe-ondoan egoan azpi-oiaren gaiñean etzanda jarri zan. Gau otza zan, eta solairu-gai-

ñean areago. Mikel dardarrez kizkurtu zan, eta noizbait loak artu eban amestxarren artean bazan be.

Oi eban lez, umeak iratzarteko Errose lo-gelara sartu zanean, Mikel soru-gaiñean lotan idoro eban otzez dardar. Jagi-erazo, eta eskutik artuta eskaratzera eroan eban, sutondoan jesarri zeiten. Aurpegia zurbilduta, mutiko gaixoa otzez ikara bizian egoan. Errukitsu ta so maitekorraz, Errose'k Mikel begiztatu eban sutondoan kukuriño jarrita egoala. Non edo nondik burusi bat atara eban, eta soin-gaiñean ipiñita, berba maitekorrakaz itz egin eutsan, katillu bete esne bero-bero taloz lagunduta eskuen artean ipiñita gero.

Errose ogei ta amabost urteko etxekoandre liraiña zan. Begi oztin maitekorrek aurpegi zuri-gorrian kokatuta, bere arimaren ontasun eta zintzotasuna adierazoten ebazan. Aren aboa irribarre egiteko gerturik egoan beti, ezpanen artean agin zuri garbiak igarten yakoza. Bautillapeko urrezko adatsak apaindutako buru txanbeliña, soin lerden baten gaiñean kokatzen zan. Gauzak arin eta trebetasunaz egiten ekiana zan, eta izan be, alako emakume bat etxean zorionik andiena da. Ez zan arritzekoa, beraz, Martiñ'ek bere emaztea bizi-bizi maite izan egiala, baita onek bere senarra be. Martin, lan-arazoetan zorrotza izanik be, arteza zan, eta bere aurpegi illunaren ostean, gizon zintzo ta zuzena ezkututzen zan. Ondo ezagutzen ebazan Errose'k bere senarraren onoiemen eta akatsak, eta batatz beste baekian, Intxalde'ko etxekojauna bere maitasunaren duin zala.

Sutondoan Mikel berotu bitartean, esne beroak eta taloak indartuta sentitzen zan, eta apurka-apurka aurpegiaren zurbiltasunak bere oiko itxureari bide egiten eutsan. Gosariari emoten eutsala, Errose'k itz egiten eutsan etenbarik aurpegi irribarretsuz, eta Mikel'ek ezer ulertzen ez baeban be, eskerronezko begiakaz Intxalde'ko etxekoandreari begiratzen eutsan. Emakume aregan egoan zerbaitek, urrutiko ama gogora ekartsan.

Olan ziarduela, Txomin eta Andoni sukaldera sartu ziran, gosaria artzeko erriko ikastolara joan baiño len. Bederatzietan Mendibe'ko ikastolan jarduna asten zan ordu batetararte, eta mutikoak izeko batenean bazkalduta gero, arratsaldeko bostak arte ez ziran biurtzen.

Leio baten pean egoan arraskan, Txomiñ'ek eta Andoni'k egunoroko garbiketean egin eben, eta ispillo baten aurrean uleak orraztuta, gosariari ekin eutsoen. Intxalde'n, gosaria esne ta talozkoa izaten zan. Goiz aretan gogoz irusten ebela, Errose'k auxe esan eban:

—Aiko, Txomin, zer jazo zolan bart...? Gure morroi barri ori

lurrean etzanda ta otzez ikara bizitan aurkitu yoat. Au dala-ta, esan egistak zer jazo dokan.

—Nik al-dakit, ama...! Oean bira egitean-edo, jausiko zan.

—Ez ete eutsan euk lagundu oetik kanpora...?

—Ez ama, ni lo geratu nintzan oera sartu ta bereala.

—Olan izango zolan euk yiñokan ezkerro, baiña gaixoak blaus-tada itzela artu bear izan yok.

Alkarrizketa onetan ama-semeen keifū ta begikadakaitik, euskeraz ezer ez jakin arren, berari buruz ziarduela Mikel gaixoak ulertu eban, baiña ezin egikean autuan tarteko izan.

Goiz guztietan, Martiñ'ek zalpurdiari Gorri zaldia buztartu oi eutsan, esne-pegarrak eta mutiko biak artuta errirakoa egiteko. Intxalde ta Mendibe arteko erdi-erdian, zortzi bat etxeko Iturbe auzunea aurkitzen zan, eta esne-jasotea auzune onetan egiten zan ezkerro, Martiñ'ek pegarrak emen itzi oi ebazan, eta erria ur samar egoan ezkerro, bideari jarraitzen eutsan Mendibe'raiño, mutikoak ikastolan lagateko. Gero, biurtzean, Iturbe'n aurreguneko pegar utsak artu, eta etxera. Arratsaldean ikastaldia amaituta, mutiko biak oiñez biurtzen ziran etxera.

Egun aretan, oi eben lez, mutikoek gosaria artuta gero, atadira urten ziran. Orduko, Martiñ'ek, Gorri zalpurdiari buztartu izan eutsan, eta esne-pegarrak gurdian jarrita, dana gerturik egoan bidean beera abiatzeko. Errose'k semeai musu bana emon eutsen, eta aitarren ondoan jesarri ziran. Egokitu ziranean, Martiñ'ek Mikel'eri auxe esan eutsan:

—Aiko, mutil, i be gurekin etorriko az, etxe onetako eguneroko bearrak ikasi yagikazan.

Mikel'ek ez eutsan tutik be ulertu, baiña etxekojaunaren keifūakaitik laster ulertu eban, eta aulkian berarentzat lekurik ezean, atzekaldean pegarren artean egokitu zan kukuriño jarrita. Abiatu baiño len, Errose'k burua laztandu eutsan, eta au ikusirik, Txomiñ'en aurpegia asarez illundu zan.

Bidea leuna zan, eta bilin-bolaka andi barik, aldapa bigunear beera abiatu ziran. Munabe iturriko biurgunea igarorik, Begietatik Intxalde ezkutatu zan, eta andik kilometro batera-edo, Iturbe auzunea agertu yaken. Bidea orain aldapatsuago biurtuta, arin baten eldu ziran Iturbe'ra, eta etxe batzuk eratzen eben enparantza antzeko zabalunean, areitz baten ondoan pegarrak lagata, bideari jarraitu eutsoen Mendibe'raiño. Erri txikia zan berau, baiña txukin eta atsegiña, auzune baserritar asko ebala, eta Gernika'tik zortzi kolometro-ra egoala.

Enparantzan eleiza andi samar egoan, udaletxea, neskato-

mutikoentzako ikastola zabala, saltoki batzuk, Erriko Tarbena, osagillearen etxea eta beste batzuk. Enparantza onetan bidezabal bi alkartzen ziran, Gernika'ra joiana, eta Markiña'tik etorrena. Ezkereskumatara kale labur gitxi batzuk edatzen ziran, eta oneitan, arotza, errementaria, otzarategia, oiñetako-konpontzaillea, bizargiña, burmetegia, etab. Enparantzako alde baten, "Baserrri" izenpurua izki andiakaz erakusten eban denda andi ta ederra kokatzen zan. Ain zuzen be, saltoki au Mendibe'ko sal-erosketen bilgunea zan, eta errian bala-bala ebillen, Pulkentzi, jaubea, gizon zintzo izanez gaiñera, oso aberatsa zala.

Intxalde'koak errira eldu ziranean, ikastaldia asteko zorian zan, eta mutiko biak itzita, Martiñ'ek eta Mikel'ek etxerakoa egin eben. Orain etxekojaunaren ondoan jesarrita egoanez, eta autuan jarduteko Mikel'ek euskeraz ez ekian ezker, biok isillik euren oldozkuntan murgilduta joiazan. Au zala-ta, Mikel'ek ereti ona izan eban aldamenak begiz aztertzeke, eta izan be, ekusana atsegingarria billakatu yakon. Gernikaldeko zati a eder-ederra zan benetan.

Iturbe auzunera eltzean, Mikel'ek aurreguneko pegar utsak gurdira jaso ebazan, eta andik laster Munabe'ko okergunea igarorik, Intxalde'ko ikuskai ederra aurkeztu zan. Ikusitako basetxerik ederrena zala Mikel'eri iruditu yakon, eta izan be zuzen egoan.

Etxera eldu ziranean, Martiñ'ek zaldia gurditik askatzen lagundu egiola agindu eutsan Mikel'eri, eta gurdia estalpean gordeta, bere aukeran alatu egian, zaldia jarei geratu zan. Aldiaren bidean ikasiko leuke Mikel'ek, Gorri, illuntzean berez kortara urreratzen zala, eta egokion lekuan lotuta, askan ipiñitako babak edo ologarauak jan oi ebazan gautu baiño len.

Jarraian, ugazabak Mikel'eri koraiñaren sorbatza mailluka zorrozten ete ekian keiñuz itaundu eutsan, eta morroiaren buruaz egindako baietza ikusirik, areitariko bi emon eutsazan, eta aulkitxu baten gaiñean, ingudetxuaren aurrean jesarrita, sorbatz-maillukateari emon eutsan. Lenengoak emon baiño ez, mutillak zeregin ori ondo ekiala konturatu zan Martin, eta Mikel bakarrik itzita, beste iñora joan zan.

Gure mutikoak zorrozteari buru-belarri emon eutsan, eta alako baten, arkondaratik teink egiten eutsoela, eta baten batek berba totelak zirautsala konturatu zan. Lanari itxita biurtu zan, eta Edurnetxu ikusi eban, besoetan artu egiala adierazoten eutsala. Mikel'ek lanari lagata, jagi, eta umetxua besoetan artu eban. Onek, aurregunean lez besotxuakaz mutillaren idunea inguratu eban, berba egiteari itzi barik. Aingeru batek besarkatzen ebala iruditu yakon mutillari, eta zorion bakan batek menperatuta, umetxuaren matrail

larroskara, leunean, musu bat ipiñi eban. Edurnetxu'k barre egin eban, eta jarraian eskutxu bigunakaz Mikel'en billoari oratu eutsan.

Olan egozala, Errose sukaldeko atetik agertu zan, auxe iñoala:

—Edurnetxu, barrabastxu orrek barriro be iges egin yon, ire jostailuak sukaldean itzita. Ator ona maitetxu ori, eta laga Mikel'ek lan egin yaianan.

Au esanik, etxekoandreak seiña besoetan artu, eta irribarretsu sukaldera biurtu zan.

Andik ordubete batera-edo, Mikel'ek zorrozte-lana amaituta, etxekojauna agertu zan, eta biok koraiña bana artuta, bide-ertzeke sasitzaraiño lagundu egitsan agindu eutsan, auxe iñotsala:

—Bideko ertze biak garbitu bear yoaguz urtero-urtero, bestelan sasitza madarikatuak bidea iruntsiko lleuskiguk.

Ekin eutsoen ba ugazaba-morroiak lanari, eta eguberdian etxeko ataditik bazkaria gerturik egoala aldarrikatu eutsen Errose'k. Bertanbera biurtu ziran, eta bidean gora joiazala, ordurarte egiztatuz, etxekojaunak bere buruari autortzen eutsan, morroia barrigandik onura letorkiokela, eta gazte izan arren oraindiño, langille on baten jasa erakusten ebala.

Bazkari gozo ta ugaria izan eben, eta oiko mai-bedeinkapena egiñik, saieskiz ondo apaindutako indiabazko lapikokoari ekin eutsoen irurok, eta zenbat-gura janda gero, mai-azkentzat sagar eder bana izan eben. Otordua nasai ta baketsua gertatu zan, etxeko mutiko biak, errian bizi izaten zan izeko batenean bazkaltzen eben-eta.

Sutondotik ur, seaska txukun baten, Edurnetxu'k oiko biagoa lo egiten eban. Mikel'ek noizean bein aren aurpegiño zoragarriari begiratzen eutsan.

Bazkalduta gero, bide-ertzeke sasitza-mozteari jarraipena emon eutsoen, Txomin eta Andoni erriko ikastolatik etorri arte, orduko illuntzen asten zalako. Etxeko mutiko biek ogitarteko bana jan ondoren, urrengo egunerako ikastolaren zeregiñai ekin eutsoen.

Etxekojaunak, aldetxetik burtxoi bat ekarri egian agindu eutsan Mikel'eri, eta kortako argia piztuta, satza aldetxeko txoko batera ataraten asi zan mutilla, eta era berean Martiñ'ek ira-meta andi bate-tik azpigarri barriaz, kendutako satza ordeztu eban.

Amaitu ebenean, eta biok eskuak garbituta, Martiñ'ek beiak jatsi egiazan agindu eutsan morroi barriari, eta onek lanari emoten eutsala, arek bedar-ondua aska guztietan banandu eban, zaldiarenean garagarra ipintea aztu barik.

Alako baten, eta Mikel bere zeregiñari buru-belarri emonda ebi-llela, atzetik zerbaitek ukutzen ebala oartu zan, eta biurtuta, Edur-

netxu'ren aurpegi irribarretsua ikusi eban, "apa-apa" iñotsala besotxuak beraganantz luzatuz. Mutillak umea jaso eban, eta aterantz abiatu zan sukaldera eroateko, lanari jarraitzeko asmoz. Umea baiña, onezaz oarturik, didarrez asi zan. Etxekojaunak oiuaq entzun, eta bere alabatxu kutun-kutuna zala oartu zanean, mutillari, oi eban lez keiñuka,

—Aiko Mikel —esan eutsan—, jarri egik barrabastxu ori zaldia-
ren gaiñean. Bein baten ori otu yatakan, eta arrezkero, aal yokanean kortara sartu eta zaldi-bizkarrean ipiñi bear yoagu.

Mutillak agindutakoa egin eban, umearen poz andirako. Gorri'ren bizkarrean "apatxe" esanez jesarri zan pozezko didarrak jaurtiten ebazala. Aspertu zanean, Mikel'en idunea besoakaz inguratu eban, eta Martiñ'ek aginduta mutillak sukaldera eroan eban, lo egin aurretik Errose'k aparria emon egitsan.

Jaisketea amaituta, aurregunean lez, esne-suillak sukaldoko leio baten pean ipiñi ebazan, eta otordua zan ezker, guztiak mai-inguruan jarri, eta apaltzeari emon eutsoen. Gau aretan berakatz-suku gozoa izan eban, eta mai-azkentsat esne ta gaztain erreak.

Amaitu ebenean, jarraitu egitsan eskatu eutsan Errose'k morroiari. Goiko maillatik zurubi aldapatsua artuta, ganbarara eldu ziran. Etxekoandreak ate kirrinkari bat edegi eban, eta argi-etenkiña eraginda, argi-ontzi aul bat piztu zan, eta onen argipean Mikel'ek ganbara zabal ederra ikusi eban. Oe-burua ormeari eutsita, burnizko oe zarra egoan, burusi ta izara zuri garbiakaz estalduta. Irribarre maitekorrak, axe izango litzakela aurrerantzean bere lo-gela, Errose'k mutikoari esan eutsan, eta "Gabon Jaungoikoak lagun" esanez, gela aretatik urten zan.

Aurreko gabean izaniko gora-beerakaitik, eta egun aretan buruturiko lana zala-ta, Mikel guztiz nekatuta egoan, eta etxetik urten baiño len amak aginduriko otoitzak ozta-ozta esanik, lo-zorro geratu zan.

Urrengo egunean goizean goizik, etxekojaunak iratzarri eban, eta arrapalada baten jantzita gero, sukaldera jatsi zan. Gelatik urten aurretik, egiztatu aal izan eban, etxaurrean jarritako leio biribil baten zear sartzan zan argipean, ganbaran kokaturiko bere lo-gelea, etxeko uztaren gordetegia zala. Soru zabalaren gaiñean, lursagarra eta indiak ikusi zeitekezan, eta teillatuko abeatatik eskegita urrezko artaburuak. Onezaz gaiñera, intxaur eta gaztain-otzarakada bete ugari ikusten zan, eta txoko bateko lastoaren artean Intxalde'ko sagar eta madari bikaiñak.

Sukaldera sartu zanean, suil utsak artuta Martiñ'ekin kortara joan, eta biok jaisketeari emon eutsoen. Onen ostean eta txalak

edoskita gero, etxekoandreak atondutako morokilla gosaldu eban. Jarraian, Mikel'ek etxekojaunari zaldi-buztartzean lagundu eutsan, eta esne-pegarrak gurdian jarrita, aurregunean lez, etxeko mutillekin Iturbe'ra, eta emendik erriko ikastolaraño. Biurtu baiño len, etxekoandreak aginduriko, etxean bear ziran gauza batzuk "Baserri" saltokian Martiñ'ek erosi ebazan, eta onen ostean etxerakoa egin eban.

Izandako lo atsedengarria, eta Intxalde'n izaten eban janari indargarri ta ugariagaitik, Mikel guztiz ondo ta adoretzu oartzen zan. Egundaren bideko sasi-kentzeari ugazaba-morroiak jarraitu eutsoen eguberdirarte, eta bazkaldu ondoren euria asi zan ezker, aldetxeko lanabes batzuen atontzeari emon eutsoen jaiste-ordurarte, eta oiko aparti gozoa izanda gero, danak lotaratu ziran.

Olako zeregifetan gora-beera andi barik aste aretako egunak igaro ziran, eta noizbait lgandea eldu zan. Mendibe'n jaiegunetan meza bi ospatzen ziran: bata goizeko 8'tan, eta bestea meza nagusia zana, 11'tan. Jaisketea eginda gero, Gorri gurdia buztartu eutsoen, eta oiko esne-pegarrak zalpurdian jarrita, Mikel eta etxekoandrea aulkian jesarrita, bidean beera oiko bidaia egin eban. Iturbe'n pegarrak lagata, erriko elizararaño joan ziran, eta enparantzako zugaitz batean zaldia lotuta, biok jauretsera sartu ziran, bakotxari egokion lekuan kokatzen zirala, au da, Errose ezkerreko aulkietan, eta Mikel eskumako aurrekaldean egozan mutillentzakoetan. Jakiña, mezea euskeraz izan zan, eta gure morroiak ez eban tutik be ulertu. Bere gurasoek erakutsi eutsoenari jarraituz, jaunartu eban.

Urten zanean, ordu-lauren batez-edo, Mikel'ek ugazabandreak itxaron egin bear izan eutsan, beste andrazkoekin autu bizi bateri emoten eutsalako. Gero, etxerantz abiatu ziran.

Bidean gora joiazala, oi lez irribarretsu, Errose'k Intxalde'ko morroiari bideko gora-beera ugariak emon eutsazan, baiña Mikel'ek nekez ulertu egikiozan.

Etxera elduta, biok gosaldu eban, eta goiz-erdian etxekojauna ta mutikoak errira abiatu ziran zalpurdiz meza nagusia entzutearren. Orduan Errose'k kutxa batetik prakak eta arkondara barriak atara, eta oiñetako pare batekin, Mikel'eri emon eutsazan auxe iñotsala:

—Eutso, mutil, gauza oneik, jaiegunetako mezatara erabil yai-zakan, egunoroko jantzia orretarako egokiak ez dozak-eta. Eroan egizak ire lo-gelara, eta oe-ondoan yagokan arasan gorde egizak datorren Domekararte.

Mikel'ek ugazabandreak esanikoa gitxi gorabeera ulertu, eta aginduta lez egin eban. Gero, eguberdirarte egur-txikitzeari emon eutsan, meza nagusitik etxekojauna seme biekien etorri arte. Jaiegun

izanik, bazkari bereizia gerturik egoan. Oiko lapikoko gozo-gozoa-
ren ostean, arrautz bana erregosita, eta mai-azkentsat, erratillu bete
arroz-esne gozo-gozoa. Mikel'ek ezin egikean gogora ekarri a lako
bazkari bikaiña noiz artu izan eban.

Bazkal-ostean, eguraldi ederra izanik Martin errira yatsi zan
oiko mus-jokaldiari erriko ardandegian ekiteko. Bidebatez, eta
euren mutiko lagunekin jolasteko, Txomin eta Andoni aitarekin joan
ziran. Mikel, beraz, zeregiñik ezean, Intxalde'n jaiegunetan lanik ez
zan egiten-eta, atadian jesarri zan, an beean edatzen zan Gernikal-
de zoragarria ikustatuz. Olan egoala, sukaldeko atetik Errose ager-
tu zan Edurnetxu'rekin, eta mutillagana urreratuz,

—Aiko, Mikel —irribarrez esan eutsan—, ezin yaiket lanari bear
dokan lez ekin, barrabastxu onek ez naiok bakean izten-eta. Mese-
dez, ia irekin baretzen dokan.

Mikel'ek umea besoetan artu eban, eta onek eskutxuakaz
morroiari laztan batzuk egin eutsazan aurpegian, eta gero kortako
atea erakutsirik, onetaraxe asi zan:

—Ani-ani, apatxe, apatxe...

Mutillak ez ekian esan gura ebana, baiña Edurnetxu besoetan
ebala kortara sartu zan. Leku au naikoa argitsua zan alde baten
egozan iru leioakaitik. Sartu baiño ez, umeak besoa luzatu eban
Gorri egoan lekurantz, eta Mikel'ek bereala ulertu eutsan. Umea zal-
diaren lepo-gaiñean ipiñi eban, eta pozaren-pozez txaloka ta dida-
rrez asi zan Gorri'ren griñeari oratzen eutsala. Aspertu zanean, eta
beti keiñuen bidez, txal txiki bategana eroan egiala adierazo eutsan
Mikel'eri, aren belarriak laztentzeko, eta noizbait nekatu zanean
Mikel'ek atadira eroan eban. Orduan seiñak onetaraxe asi zan:

—Ani-ani, ani-ani...!

Len lez Mikel'ek ez eutsan ulertu, baiña umeak jaisteko igiku-
nak egiten ebazan ezkerro, lurrean jarri eban, eta eskuari eutsita,
biok bidean beera abiatu ziran, mutillak ulertzen ez eutsan etenba-
ko bakarriketeari umeak emoten eutsala. Udabariaren zantzuak
nonai ageri ziran, eta bide-ertzetan txibirita ugari ikusten zan, eta
txorien txintek bazterrak alaitzen ebezan. Umeak loretxu-biltzeari
emon eutsan, eta batuketea amaitu zanean, umearen urrezko
billoen artean Mikel'ek loretxu batzuk sartu eutsazan. Umearen
poztasuna...!

Jarraian, Munabe'ko iturrira joan ziran, eta ara elduta, onen ur
bizietan, umeak guztitariko gauzak uretara jaurti ebazan, eta tirain
txikiak Arresibe'ko larradian beera eroiazala, txalo ta ikotika asi zan.
Gero, Mikel'ek paperazko ontzituak egin eutsazan, eta oxiiñean

zear aizeak eraginda joiazala ikustean, umearen poza neurribakoa
billakatu zan.

Olan ziarduela, Intxalde'ko ataditik etxeoandreairenen oiuk
aditu ziran mutil-umeai dei egiiñez. Orduko, Edurnetxu nekatuta aur-
kitzen zan, eta umea arrelepoan artuta, Mikel etxerantz abiatu zan.
Bidean gora joiazala mutillaren iduneari besarkatuta, Intxalde'ko
kutunak txoria baizen alai berba egiten eutsan lotu barik.

Etxera elduta, Errose'k umea artu eban eta eskaratzera sartu
zan, otz egiten asten zalako, eta gaiñera umeari askaria emoteko.
Illuntzean, eta Mikel'ek kortan jaisketeari emoten eutsala, eginkizun
au laga-eziña zan-eta, seme biekien etxejoauna azaldu zan.

Gau aretan oeratu baiño len, ganbarako leioan zear ikusmen-
mugaraiño edatzen ziran errietako argitxuak begiztatzen ebazala,
Mikel'ek ezin egikean Edurnetxu'ren sorgindurea gogotik kendu.
Baekian etxe aretan neke ta naigabeak iraungo leukiezala, baiña
onein artean Edurnetxu'ren irudi maitagarria zorionezko txinparta-
ren antzera agertzen yakon.

Urrengo goizean, oi eban lez, etxejoaunak Mikel iratzarri
eban. Jaisketea eginda, eta Gorri gurdiari buztartuta, Martiñ'ek
morroiari auxe esan eutsan:

—Aiko, mutil, aurrerantzean errirakoa euk bakarrik egingo yok,
onezkero bidearen gora-beerak ondo jakingo yozak-eta.

Beraz, pegarrak gurdian jarrita, eta mutikoak berarekin aulkian
jesarten zirala, Mikel'ek zaldiaren abo-ugalak artu, eta bidean beera
abiatu zan. Munabe'ko iturrira barik, baiña, Mikel'en ondoan jesarri-
ta egoan Txomiñ'ek, Andoni'ri auxe irautsi eutsan:

—I, Andoni, aldazak ire lekua nirearekin, morroi zorritsu onen
ondoan ez yoat joan gura-ta.

Andoni'k eskaturikoa egin eban. Mikel'ek, Txomiñ'ek esanda-
koa ez eban ulertu, baiña leku-aldatze arek zeozer iragarri eutsan.
Intxalde'ra eldu ta lenengo unetik, morroiak oartu izan eban Txomin
mutiko biurri ta eskuragatxa zala, eta orregaitik ardurarik aundienaz
erabilten eban, baiña alan eta guzti be, mutillari buruz guztiz kezka-
tuta aurkitzen zan.

Beste oztoporik bage bidaia amaitu zan, eta etxera biurtuta-
koan zaldia askatu, eta oiko lanai emon eutsan etxejoaunaren
agintzapean.

Egunak gora-beera andi barik alkarri erraikioen, eta Jorrailla
asita, alorak ereintzarako atontzen asi ziran, idien laguntzaz goldea
erabillirik, eta gero nabasaia ta area ustiatuz, alorak ereintza artze-
ko gerturik billakatu ziran, eta Ixidor Deunaren egunean arto ta
indiabaren ereintza amaituta egoan. Artoak eta indiabak batez be,

esnearen etorria alde batera itzita, Intxalde'ri onurarik andiena ekar-
kioen, eta au zala-ta, bakotxari alor-sail andi bana emoten yakon.
Gai bi orreik, artoa ta indiaba, Martiñ'ek egokien uste izaten eba-
nean, Mendibe'ko "Baserri" dendako nagusiari eroiatsazan, eta
onek, gaiok bere dendan gitxika edo Gernika'n andika saldu oi eba-
zan.

Martiñ'ek urtero irabazte polita ataraten eutsen bere alorrai,
indiabai batez be, Intxalde'ko lur samurak gai orretarako gain-gai-
ñekoak ziralako, eta au zala-ta, laster eta mozkin onean saltzen zan.
Indiabak gora egitean bearrezkoak ziran kaiñaberak, Arresibe'petik
igaroten zan latsaren ondoan zenbat-gura azten ziran.

Baiña Intxalde'ko diru-sarrerarik askozaz garrantzitsuena,
esne ta abelazkuntzea zan, eta ain zuzen be, etxeko zortzi beiek
esnetan oso emonkorak ziran. Martiñ'ek ardurarik andienaz abel-
gorria zaintzen eban, eta esan zeitekean Intxalde'ko bei-taldea,
Gornikalde guztiko onenarikoa zala. Etxekojauna ez zan aiko-
maikotan ibilten esne-beirik onenak azteko, eta onetan ez eutsan
diruari larregi begiraten. Erriko albaiteuarekin artu-emon estuak
izaten ebazan, eta onen aolkuz, Intxalde'ko abelgorria aalik eta asti-
rik luzeena Arresibe'ko larradian alatzen zan, eta augaitik, iñongo
geisotasunik bage ez eban makur andirik ezagutzen. Intxalde'ko
beiek, beraz, ez eben kortarik ezagutzen gaba emoteko baiño, edo-
ta edurra zanean. Goiz guztietan ba, jaisketea eginda, bei ta idiak
alatzera urteten ziran, eta antxe irauten eben gaberarte. Intxalde'ko
korteia, garbi, argitsu ta zabala zan, zimaurreta edo satsa sarri asko-
tan barrizten zala. Sorkaldean iru leio zabal, garbi ikusten ziran, eta
amaraunen zantzurik ez zan agertzen. Gabaz tximistargia piztu oi
zan, eta abere bakotxak zenbat-gura bedarrondua bere aukeran
jarrita askan idoro egikean.

Onezaz gaiñera, baegoan Intxalde'n buztarridi bikote ederra, gol-
dea, nabasaia etab., erabilteko ereintza-arroan batez be, orduan lan
ugari egiteko zan-eta. Bestalde, buztarridiak sarri askotan, egurke-
tea, iraketea, bedarketea ta beste lorratze-lanak egiteko erabilten
ziran. Errialde aretan idi-proba ugari gertatzen zan, eta Martiñ'en
idiak entzute andiko ziran ezkerre, Intxalde'ko etxekojauna askotan
zirikatzen eben idi-dematan tartekoa izan zeiten, baiña Martiñ'ek
bere idiak maite ebazan, eta ez yakon atsegin ezelan be, alako era-
bilte gogorra izan egien.

Gorri zaldiaz gaiñera, kortari eratsita txarritegi bat egoan, eta
urtero, udabarrarian txarrikume bi erosi oi ebazan Martiñ'ek, etxeko
janariaren ondakiñakaz, eta udagoiko gaztaiñaroan batez be lodi-
tzeko, ilketearen garaia urreratzen zanean. Ez da esan bear be,

etxean baegozala amabiko bi oillo, oillar zangar baten zaintzapean.
Jaiegunetan arrautz bana jaten zan etxean, eta enparauko arrau-
tzak, geienak, "Baserri" dendan saltzen ziran.

Etxeko albo baten intxaurrondo-talde ederra egoan, eta oneita-
tik etxeari Intxalde izena etorkion. Onezaz gaiñera, atzekaldean
madari, okaran, kereixa ta sagarrondotan etxerako ta saltzeko igali
asko azten zan.

Egunen jarraigo geldi-eziña aurrera joian, eta ereintza amaituta,
igitaldia asi zan. Koraiña bana ustiatuz, ugazaba-morroiak bedar-
mozteari emotsoen goizaldetik asita gaberarte. Arlo andia zan Arre-
sibe'koa, eta gaiñera bedarrondua metatan batu arte, euria orretara-
ko kaltegarria izanik, ontasunean galtzen zalako, lanari buru-belarri
emon eutsoen, erabatean lana garbitzearren. Arratsalde guztietan,
Mikel lerrenak eginda sentitzen zan, koraiña berunezkoa iruditzen
yakola. Au zorroztearren gelditu bear zanean, lanabesa zutunduta,
nasaitasuezko sentipenaz egitekoari emoten eutsan, bitarte oneitan
arnasa baretzen yokon-eta.

Martin, ugazaba, lan-arazoetan zorrotza zan, baiña ankerra ez,
eta batzutan morroiaren aalegin eta nekea oartzean, lanari eten egi-
tsan agintzen eutsan. Baiña aldiaren bidean Mikel artaratu zan, eta
gizon eldu baten aiña lan egiteko billakatu zan.

Noizbait igitaldia amaitu zan, eta eguzkipean zenbait egun
iraunda gero, sei meta eder korta-aurrean jagi ziran. Pozik egoan
Martin bere morroiaz, eta ain zuzen be, gero ta pozago. Asikerean
gogo txarraz etxean onartu eban, baiña egunen bidean, Mikel baiño
langille zintzoagorik, nekez aurkituko leukeala oartu zan. Mutil isil
eta erabeti a Intxalde'n ziarduanetik, etxeko betekizunak askozaz
erabilkorragoak billakatu yakozan ugazabari. Eta gaiñera, orduko,
Mikel bazan nor euskeraz ulertzeko, baita zeozer esateko be.

Udea asi zanean, arto ta indiaba-jorratzeari ekin eutsoen, baita
indiaba-landarai kaiñaberak ipiñi eutsiezan gora igon zeitezan.
Udea amaitu baiño len, Arresibe'ko bedardiari bigarren ebataldia
egin eutsoen. Eta beste gora-beera andi barik udea igaro zan.

Udagoian, indiaba ta arto-batzeari ekinda gero, Gorri'ren
laguntzaz Mikel'ek gurdi bete gaztain batzuk, erri-baso batetik etxe-
ra ekarri ebazan, etxekoan janaritzat, baita txarriak loditzeko be.
Egurketea, iraketea ta onelatsuko beste jardunetan, Gabonetako
jaiak eldu ziran. Toma Deunaren egunean etxekojaunak Mikel'eri
urteko saria emon eutsan, baita onezaz gaiñera, iru egun be, etxe-
koekin igaroteko baimenaz.

Iru egun zoragarri billakatu ziran. Aitari, arro-arro bere urteko
saria emon eutsan, eta amak besarkada maitekorraz agurtu eban,

bein eta barrero seme kutuna begiztatzan ebala. Izan be, orain urtebete bat etxetik joan izan yakon mutiko argal, erabetiak, ez eban antzik be ez, orain ikusten eban seme eder, indartsuarekin. Eta Yosune'k bedeinkatu eban Jaungoikoa barru-barrutik, bere seme kutuna orren ondo jagon izateagaitik.

Egubarrri igaro ta urrengo egunean, Mikel'ek intxalde'ra biurtzeko abiamenak egin, eta etxeakoak besarkatu ondoren, bidean beera ostendu zan. Ama atadian geratu zan bere kutuna ikusmenetik galdu arte, eta etxera sartzen zala, otoi gartsuz bere semea jagon egian Jaungoikoari eskatu eutsan. Erriko geltokitik trenan urruntzen zala, aitak biotz-biotzez semea bedeinkatu eban, oneri esker etxeako egoerea len baiño askozaz nasaiagoa zan-eta.

OKERKERIAK

Urte bi igaro ziran morroia Intxalde'ra etorri zanetik, eta orduko, mutillak euskerea euskaldun jatorrak lez menperatzen eban. Pozik egoan Mikel etxe aretan, eta janari ugariak eta baserriko jardunak mutil indartsu ta ederra biurtu izan eben.

Etxekojauna, betiko ugazaba zorrotza izaten bazirauan be, gero ta ederretsiago eban bere morroia, eta orain, mutikoa barik etxeako lanak nekez burutu leukezala argi ikusten eban. Errose'k Mikel semetzat maite izatera eldu izan zan, gozo ta maiteki erabilten ebala beti. Andoni'rekiko artu-emonak oi lez adiskidetsuak ziran, eta mutil esaneko ta olde maiteberakoa izanik, guztiz ondo alkar aritzen eben. Ain zuzen be, Andoni'k morroia kidekotzat erabilten eban, eta zer esanik ez, ordaintzat, bere aalmenean izatekotan, Mikel aren alde edozer egiteko gerturik egoan. Andoni amar urteduna zan, eta sarri askotan abade billakatu gura ebala iñoan.

Baiña Intxalde'ko morroiaren benetako buruaustea, Txomin, etxeako oiñoordea zan. Asikeratik, au da, Mikel Intxalde'ra lenengoz etorri zanetik, gero ta andiago biuritzen zan bekaizkeri edo iñartsiko sentipen zitalak jabetuta egoan Txomin. Berez bekaiztia zan, eta amak morroia semetzat erabilli egian ezin egikean jasan, ezta are gitxiago be, aitaren Mikel'ganako oneritxia, morroiak eginkizunak guztiz ondo beteten ebazalako.

Au zala-ta, aal eban giñoan asarrebideak baztertzen saiatzen zan Mikel. Alan eta guzti be, astegunetan etxeako mutil biak erriko ikastolara esne-pegarrak eta guzti, zalpurdian eroan bear ebazan ezkerro, ezin egikeazan Txomiñ'en itzezko ziztadak uxatu, baiña biderik onena jaramonik ez egitea izanik, isillik irauan, eta gauzak ez ziran urrunegi joaten.

Intxalde'ra lenengoz eldu ta sei illabetera, polito samar ziar-
duan Mikel'ek euskeraz. Ikastolara joiazan bein baten, eta isillune
astuna etentzearren, auxe itaundu eutsan Txomiñ'eri:

—Ta, gauza asko ikasten al-yok erriko ikastolan...?

—Iri bost ardura ori. Sartu egik ire suurra yagokiozan arazoe-
tan, eta ez beste iñorenetan. Gaiñera, niri be zuka esan bear yaus-
tak, aitari egiten yokan lez, morroitzar orrek. Gosez ilda etorri intzan
gurera, eta orain etxeko jaubea azala uste al-yok...?

Mikel, lotsaz gorri-gorri eginda geratu zan. Baekian etxeko jau-
nak zuka erabilten zirala, eta olan egiten eban berak be, mutillen
jarraibideak eraginda, baiña ez yakon otu etxeko mutillak gurasoak
lez erabiltea. Txomiñ'en purrustada artu ebanetik, etxeko guztiai
zuka esatea biderik onena izango litzakela uste izan eban, eta
aurrerantzean orreri beti eutsi eutsan, baita Edurnetxu be olan era-
bilten eban.

Igandeko arratsalde baten, oi eban lez, Edurnetxu'k eskatuta,
berau etxetik kanpora eroan eban, eta ordu batzuk zabalduan jolas-
tu ondoren, etxerakoan, nekaturiko umea Mikel'en besoetan lo
geratu zan. Sukaldera sartuta, umea ardura andiz seaskan jarri ta
burusiñoaz estaldu eban. Jarraian, txoko baten egozan esne-suillak
artu, eta kortara joan zan. Jaisketea amaiturik, atadian zear eskara-
tzera sartzeko zorian zala, Txomiñ'en asarre-itzok geldierazo eban
auxe iñoala:

—Ama, ez deritxat ondo gure morroiak Edurnetxu besoetan
artu dagianari, len ikusi dodan lez. Morroi arroputz zorritsu orrek
gutariko bat dala uste izango dau-ta...

—Isillik ago —amak asarrez eten egin eutsan—, mutil gaixo
orrek ondo bai ondo yaki zer yokan etxe onetan. Ez yok iñongo
eskubiderik olako zitalkeriak esateko, mutil garbi ta on-ona dok-eta.
Mikel gaixoa jaiegunetako arratsaldeetan, errira jolasteko joan bea-
rrean, ori bere eskubidea dok-eta, etxean geratzen dok gure kutuna
alaitzeko, eta ari esker neuk noizean bein atsedean apur bat artu yai-
keat. Jakin bear yok, bera morroi ta i oiñordea izan arren, alkar begi-
rune osoaz erabilli bear dozuela, eta ori oraiñarte beintzat, igan ez
yoat ikusi.

Asarrez gorrituta, purrustada bat jaurtikiz Txomin sukaldetik
urten, eta Mikel'ekin oztopo egiteko zorian, gorrotoz begiratu eu-
tsan.

Auxe zan Errose'ren benetako buruaustea. Ederto ezagutzen
eban bere seme nagusia, eta baekian olde berekoi ta arrokoa zala,
baiña uste izaten eban aldiaren bidean arteztuko, eta Andoni baizen
xalo ta ona billakatuko litzakela. Baiña, aitzitik, Mikel Intxalde'ra eto-

rri zanetik, seme nagusiaren olde okerra agiriago azaltzen joian. Zer
esanik ez, Errose'k seme-alaba guztiak bizi maite ebazan, eta
augaitik, euren onerako ezkuntza ona emoten saiatzen zan, baiña
egunen baten etxeko ugazaba izango zanaren jokaereak gero ta
kezkatiago biurtzen eban.

Martiñ'ek be aspaldiz ekian ori, eta berak be askotan arrenkura
baten itzala barruraino sentitzen eban. Bere emaztea lez, egunen
baten dana bere einera etorriko litzakela uste izaten eban. Izan be,
mutikoen gora-beerak ziran, eta urteen bidean Intxalde'ko oiñor-
deak eldutasun eta dendua irabaziko leukez ezpaibarik.

Baiña Txomiñ'en jokaerearen benetako zioa, iñartsia zan, eta
akats au, Mikel'en etorrereaz agiriago jarri zan. Morroiarekiko bere
aitaren oneritxia ezin egikean jasan, eta Intxalde'ko seme nagusia-
ren barruan, morroiari eutsan iñartsia andiago egiten zan. Onezaz
gaiñera, eta ez neurri txikian, bere amak Mikel beste semetzat era-
billi egian bere onetatik ataraten eban, eta zer esanik ez, Edurne-
txu'k, etxeko kutunak morroiarekiko erakusten eban eraspina.

Asieratik oartu izan eban Mikel'ek oiñordeak eutsan gorrotoa,
eta au zala-ta, eginbide guztiakaz Txomiñ'ekin eztabaidarik txikiena
bera be ez izaten saiatzen zan, arazo guztietan amor emonez eta
bere adiskidetasuna erakutsiz, baiña laster konturatu zan dana
alperrik zala, eta noizbait, oiñordeagandik aalik eta urrunen egotea
ebatzi eban.

Andoni'rekin, ostera, guztiz ondo alkartzen zan, eta aldiaren
bidean gero ta adiskideago eban alkar. Ikastolara zalpurdian joiazala
Andoni erdian jesarten zan, eta alboan eban morroiarekin alka-
rrizketa biziari emoten eutsan, eta bion arteko loturea etenbarik sen-
dotzen zan. Andoni'z beste aldean jarrita egoan Txomiñ'ek isil eta
betillun iraun oi eban, bere oldozkUNETAN baztertua.

Edu onetan urte batzuk igaro ziran, eta Txomiñ'ek amalau urte
beteteko zan egunerako, aitari aize-zizpa bat erosi egitsan eskatu
eutsan. Orduko, ikastola itzita, Txomiñ'ek etxean jarduten eban, eta
izan be, lanerako mutil fiña etorren. Semearen eskaerari amor
emonez, Martiñ'ek "Baserri"nean eskatutakoa erosi eutsan ama-
laugarren urteurrenerako. Zizpaz batean, kutxatxu bete berunezko
emon eutsan.

Aldi aretan, Edurnetxu zazpi urteko neskatoa zan, eta jaiegun
guztietan, Errose'ren eskaeraz Mikel'ek neskatoa errira eroian
emen bere laguntxuekin jolas egian. Illuntze barik, biok biurtzen
ziran etxera.

Areitariko arratsalde baten, eta Txomiñ'ek erositako aize-ziz-
paz batetik bestera Iturbe auzunean zear ekusan guztiari berunez-

koak jaurtiten eutsazala, Mikel eta Edurne etxerako bidetik andik igaro ziran. Alako baten, eta biok auzunea ozta-ozta atzean itzita, etxe bateko atadian Txomiñ'ek uso bat ikusi eban, eta eiza-irrikaz jabetuta, berunezko bat bota eutsan. Ur egoan ezker, buruan jota usoa illik amildu zan lurrera. Iñork ikusten ez ebalakoan, Txomiñ'ek egaztia jaso, eta errirantz bideratu zan, lagunai bere apararen bikaintasuna erakusteko.

Etxeko atadian egoan andrazko batek, baiña, alboko etxean gertatzen zana ikusi eban, eta erritik etorri zanean, uso-jaubeari gertaturikoaren barri emon eutsan. Astirik galtzeke, onek bide-ondoan begirari jarri zan, eta etxera biurtzen zan Intxalde'ko etxejoaunari, jazo izan zana edestu eutsan. Bere semearen biurkeria entzutean, Martin asarre bizian etxera abiatu zan, Txomin zelan zigortuko leuken buruan erabillega.

Illuntze aretan, aize-zizpaz egiñiko ekintzakaitik poz-pozik etxera biurtu zanean, aitak atadian geldi-erazo, eta,

—Aiko, Txomin —betillun esan eutsan—, egia al-dok nik emoniko zizpaz, Iturbe'ko Maxi'ri uso bat il egin yautsala...?

Mutilla isillik egoan bere buruan atxaki baten billa, baiña ez yakon ezer bururatzen. Orduan aitak aginkor:

—Ekarri egistak zizpa ori...!

Bildurak artuta, Txomiñ'ek eskaturikoa emon eutsan.

—Itz emon eunstan ez iñoren ez ezeren kaltetan erabiliko endukela, eta orra or nire lagun andi baten uso bat il yautsakala...?

Berba oneik esanda, Martiñ'ek zizpa artuta, mukur baten gainean zartada itzela emonez erditik autsi eban, eta zatiok urrun jaurti ondoren,

—Ire berba jan egin yok —esan eutsan asarrez— eta ona emen ondorioak. Ez yauat egundo be, onen moduko beste traman-kulorik erosiko.

Izan be, Intxalde'ko nagusia zorrotza zan baita zuzena be. Ezin egikean jasan iñork emondako berbea jan egian, eta are gitxiago bere semea izanik. Txomiñ'ek ondo ekian gauza zan au. Aita joan zanean, mutillak asarre gorriean bere buruari itaundu eutsan, nor zeitekean aitari usoarena esan eutsana. Buruari ekin eta ekin, Iturbe auzunean zizpea erabilten ziarduala, etxerakoan Mikel eta Edurne-txu andik igaroak zirala, gogora etorri yakon.

Auxe burura etorrita gero, asarrez irakiten jarri zan, eta zelan edo alan morroiak egiñikoa ordainduko leuskiola zin egin eban. Alako baten, kortan jaisketea egiten ziarduan Mikel, atadian zear laster sukaldera sartuko litzakela gogoratu eban, eta bereala egitekoa

asmatu eban. Egur-zati lodi bat kortako ate-aurrean etzanda jarri eban. Orduko gau beteja zan, eta atadia illunpe osoan aurkitzen zan.

Andik laster, suil bete bi esne ekarrezala, kortako atean zear, Mikel agertu zan. Doi-doi kortatik urtenda, jarritako egurrean soztor egin, eta lurrera jausi zan esnea ta guzti. Galduriko esneagaitik kez-kaz beterik jagi zan Mikel, eta suil utsak jasorik, txoko illun batetik Txomiñ'en mintzo asarratua aditu zan:

—Ire ordaiña artu yok, zorritsu orrek, aitari nik egiñikoa esatea-gaitik.

—Aitari, zer esan dausat ba...?

—Iturbe'ko usoarena.

—Usoarena...? Nik ez dakit ezer.

—Nok esan yautsak aitari ba, Iturbe auzunean aize-zizpaz uso bat il egin yoadala...?

—Nik ez dausat ugazabari ezer esan, ezer ez dakit-eta.

—Ez yakikala, e...? I betiko guzurti ezkabitsua izango az.

Itzok esanda, Txomin etxera sartu zan, Mikel'ek atadiko arlas-tetatik esnea kentzen ebala, kortara barriro sartu aurretik.

Gau aretan apaltzen ziarduala, etxejoaunak argitu eban, salaria, Maxi, usoaren jabea izan zala. Mikel'ek, buru-makur egoan Txomiñ'eri begiratu eutsan, baiña onek soak azpillean josita ebazan ezer esaten azartzeke.

Apalostean, zelan eban jantzia esnez bustita itaundu eutsan Errose'k Mikel'eri, baiña morroiak ez eutsan arazoari buruz beste argibiderik emon gura, jausi izan zala baiño. Txomiñ'en gorrotosuari ez eutsan egurrik jaurti gura. Egunen baten, ori mutil biurriaren kalterako gertatuko litzakela somatzen eban morroiak, eta izan be, ez egoan oker.

Andik illabete batera-edo, Igande bateko arratsaldean, zaldia buztartu egian Martiñ'ek morroiari agindu eutsan, erriko aide batzuen etxean zorro bete ereintza-lursagar jasoteko, egun batzuk baziran zorroa an zala-ta. Etxeko mutillak, Txomin eta Andoni, bazkaldu ta bereala errira joanak ziran jaiegunetan oi eben lez.

Arrasti-erdian, Mikel eta ugazaba errirantz abiatu ziran zalpurdiz. Iturbe'ra eldu ziranean, eta ango lagun batekin arazo bat garbitu bear ebala-ta, Martiñ'ek morroiari errira jarraitzeko agindu eutsan, eta gero errian bertan alkartuko litzakezala. Aginduta lez, mutillak bideari jarraitu eutsan agindutakoa egitearren. Errira sartzeko zorian zala, baiña, ezustean zaldiaren belarri-ondoan, sasi baten atzetik, baten batek jaurtitako ziziriko bat ler egin eban. Zoraturiko zaldia, bapatean tximista baten antzera aurrerantz oldartu zan, eta bideko arri andi baten oztopo egiñik, gurdia irauli zan. une batez,

Mikel aidean zear joan, eta gero lurreratu zan beso baten zauri mingarria artzen ebalá. Gorri gaixoa lurrean etzanda egoan zutundu eziñik.

Mikel urreratu yakon, eta aalik ariñen edeak kendu, jareituriko zaldia zutundu zeiten. Noizbait jagita, zaldia dardar baten egoan jazo izan yakona ulertu eziñik. Jarraian, Mikel'ek zeatz aztertu eban, eta zorionez egiztatu aal izan eban, lurra jotean artutako arramaska batzuk izan ezik, beste kalterik ez ebalá. Gurdiak, baiña, ezbearren zatirik andiena artu izan eban, idune bat autsita, ardatza okertuta eta ol batzuk zartatuak ebazala.

Abots maitekorraz Gorri baretzen aalegindu zan Mikel, eta gero gurdia aztertu eban zeatz, zaldia barriro buztartzeko eta errian ereintza-lursagarrak artzeko asmoz, ugazabak agindu eutsanez. Errira joaterik, baiña, ez egoan gurdiak artutako kalteakaitik. Orduan mutillak egitekoa arin baten ebatzi eban. Gurdia zutunduta, bide-ertzean laga, eta zaldia mustur-ugaletik artuta, errira joan zan.

Intxalde'ko morroiak baekian "Baserri"ko ugazabak zalpurdi bat ebalá, eta etxe bien arteko artu-emonak guztiz onak ziran ezkerro, "Baserri" denda ezagunera jo eban, eta onen jaubeari jazorikoa azalduta gero, zalpurdia eskatu eutsan egun batzutarako, etxeko gurdiak artutako kalteak errementariak atondu egiazan arte. Pulken eritxan dendariak baietza emon eutsan, eta bion artean Gorri barriro buztartu ondoren, eta eskerrak emonda gero, Mikel ugazabak agindutako lekura joanda, jazotakoa azaldu eutsen, eta ereintza-lursagarrak artuta, erriko errementariagana joan zan. Emen, gurdiezbearrena azalduta, lenbailen etxeko gurdia konpondu egian eskatu eutsan Mikel'ek errementariari, eta onen baietza lortuta, etxerantza biurtu zan.

Eldu baiño ez, Errose jakitun ipiñi ostean, lursagarrak gorde, eta zaldia kortara sartu eban. Jarraian, oiko jaisketeari emon eutsan, eta lan onetan ziarduala, suzmo txarrak artuta, gurdiaren ezbearausnartzeari emon eutsan, zelan edo alan Txomiñ'en ekintzaren bat izango ez ete zan burutik kendu ezin.

Izan be, zuzen egoan Mikel. Arratsalde aretan, Txomiñ'ek eta beronen lagunek ziziriko batzuk erosi izan ebezan, eta oneiri su emonda gero, ikusten ebezan txakur eta katu guztiai jaurti eutsiezan barre-santzo itzelen artean, abere arein izu gorria ikustean eztrandak gertatzen ziran. Olan ziarduela, erritik urten, eta Iturbe auzuneko bidean gora abiatu ziran jolasari jarraitzeko asmotan. Alako baten, baiña, Txomiñ'ek etxeko zalpurdia ikusi eban, eta morroia bakarrik etorrela ikusirik, bide-ertzako sasi baten atzetik ezkutatu

zeitezan lagunai agindu eutsen. Arin baten, ziziriko bat piztuta, len azalduriko gurdiaren ezbearra jazo zan.

Jarraian, Txomin-eta errira biurtu ziran, egindako biurrikeria karkar bizitan alkarri gomutatzen eutsiela. Baiña ur samar zizirikoen jaurtiketeari jarraitzen eutsan Andoni, ekintza zitalaren ziñaldaria izan zan, eta izu gorriak jabetuta, errira biurtu zan laguntza-billa. Luzaro barik, etxeko ezagun batzuk idorota aida baten ezbear-lekura joan ziran, baiña orduan ez eben besterik ikusi kalte artutako gurdia baiño, bitartean Mikel zaldiarekin errira joana zan-eta.

Intxalde'ko etxejoauna Iturbe'tik errira sartu baiño len, iraulitako gurdia ikusi eban, eta jakin-miñez jabetuta, erriko enparantzara abiatu zan. Klean zear joiala, Txomin urreratu yakon, eta semea ikustean,

—Aiko, Txomin —itaundu eutsan—, ze arraioa jazo yakek etxeko zaldi ta gurdiari...?

—Ez dakit, aita, baiña orrek ez nau arritzen bape. Gure morroiak zaldia zartada bizitan darabil, eta baleiteke bildurturiko Gorri ariñeketan asi, arri baten soztor egin, eta iraulketea edu onetan jazo zeitela.

—Egia al-dok, Mikel'ek gure zaldia orren zakar yarabikala...?

—Bai, aita, neuk beintzat sarri askotan ikusi dot ori.

Asarrezko zauskada batek menperatu eban Intxalde'ko etxejoauna, eta erriko senitartekoak ikertuta gero, errementariagana jo eban, zalpurdia lenbailen atondu egitsan eskatzeko.

Illuntzean etxera biurtzen zala, Martin sumiñaldi gorriapean aurkitzen zan. Izan be, gurdiarena sentitzen eban, baiña askozaz areago etxeko zaldia iñork ain basaki erabilli egian; abere-zale andia izanik, Martiñ'ek etxeko zaldia benetan ederresten eban. Olan eta guzti be, ezin egikean ulertu bere morroia orren anker azaldu zeitekeanik, maitebera ta zintzotzat eukalako... baiña gertaturikoa or egoan ziñaldari, eta bidean gora joiala, bere buruari esaten eutsan ezin egikeala zigorrik bage itzi gertaturikoa.

Arratsalde aretan, eta zizirikoena jadanik amaituta, Andoni etxera biurtu zan. Orduko, Mikel'ek kortan ziarduan, jaisketea aal eban giñoan egiñez, beso bat oso minduta eban-eta. Errose sukaldean egoan Edurnetxu'rekin, eta mutikoak bere esangurea jabetu eziñik, gurdiaren iraulketearena esan eutsan. Amaitu eban, amak auxe esan eutsan:

—Eta zergaitik ez intzan arindu Mikel'eri laguntza emoteko...?

—Jazorikoa ikusi izan nebala Txomin oartu zanean, iñor jakitun ipintekotan zigortuko nindukela esanez, eskutik artu, eta berarekin eroan ninduan.

—Ai ene Jaungoikoa...! Aitak gertaturikoa jakingo ba'leu, ez yakiat jazo lleitekena. Orain gitxi dala aize-zizparena gertatu zonan, eta oraindiño aztu barik yagokala, gaurkoa jazo bear be...!

Une batez Errose'k isillik iraun eban gogoetan, eta gero,

—Aiko, Andoni —esan eutsan—, mesedez, gertaturikoa aitari ez esan, bestelan gorriak ikusiko gaiendukezak.

—Ez, ama, ez dauzat aitari esango.

Illuntzean Martin eta Txomin etxera eldu ziranean, astirik galteke ugazabak emazteari jazorikoa edestu eutsan. Amaitu ebanean, esne-suillak ekarrezala, Mikel azaldu zan, eta ontziak lurrean jarri ostean, Martin itxura zemaikorraz urreratu yakon, eta,

—Aiko, morroi zital orrek —sumiñez irakiten bota eutsan—, bayakiat zalpurdiaz gertaturikoa, baita ori ire errua izan dokala, gure Gorri oso txarto yarabikalako, eta au dala-ta, esan bear yauat ezin yagikiadala eroan, etxeko zaldi otzana ta esanekoa, orren txarto erabilli yaian edozein mukizuk, eta are gitxiago etxeko morroiak.

Itz oneik esanik, Martiñ'ek egundoko matraillekoa emon eutsan Mikel'eri. Jasandako iraulketeagaitik, mutilla benetan makal sentitzen zan, eta ugazabaren zartako indartsua artzean, burua atzeko orman jo, eta kordebage geratu zan sukaldeko soruan. Begi-keiñu baizen arin jazorikoa ikustean, Errose morroiagana oldartu zan, eta onen burua eskuetan artuta, begi zorrotzakaz senarrari begiratu eutsan, auxe zirautsala:

—Ez dozu iñongo eskubiderik, gure morroi gaixo au era onetan erabilteko, mutil ona ta zintzoa baida, eta zeuk badakizu olako gaiztakeririk egiteko gai ez dala.

—Gure zaldia sarri askotan zartada itzeletan badarabillela esan dauste, eta olakorik ezin dagiket jasan.

—Nork esan dauzta olako guzurra...?

—Txomiñ'ek berak.

—Ori ezin daiteke egia izan.

Mikel'eri suuranean beera odola erion, eta bustitako zapiño batatz, etxekoandreak txukatu eutsan jarioa eten egin arte. Bitartean, Errose naibage andipean aurkitzen zan, errubako bateri zigorra emondakoa zala-ta, baita asarre era berean Txomiñ'en zitalkeriagaitik. Olan eta guzti be, bildur zan Martiñ'ek jazotakoa ezagutu egian, gai onek Txomiñ'eri ekarri leitekiozan ondorekaitik.

Bitartean, Mikel bere senetara biurtzen asten zan, eta noizbait aulki baten jesarri zan. Errose'k janari-zati batzuk nekez irunsi-erazo eutsazan, eta jarraian ganbarako mutillaren oeraiño lagundu eutsan. Bereala burusiakaz ondo estaldu eban, eta andik urten baiño len, auxe esan eutsan:

—Mikel, nire laztan ori, Andoni'k jazorikoa azaldu egin yaustak, baita erruduna Txomin izan dokala be. Baiña mezedez, ugazabari ez esan gertaturikoa, aize-zizparenaz gaiñera, gaurkoa ezagutuko ba'lleuk orain, ez yakiat zer jazo lleitekeken...

—Ez, Andrea, ez dauzat ezer esango.

—Agur, Mikel. Gabon Jaungoikoak lagun.

Mikel bakarrik geratu zan, eta oeratzean oi eban lez, bere amak eskaturikoari jarraituz, iru Agur Miren esanda, lo egiteko gertatu zan. Amatzat eban Errose, eta onen eskaerai jarraituz, ez leuskio ugazabari oiñordekoaren ekintza zitala salatuko.

Gau aretan, mai-inguruan etxekoek apaltzen ziarduela, Intxalde'ko ugazabak betillun eta isiltsu iraun eban, morroiari egindakoa barruko zerbaitek gaitzesten eutsala. Izan be, damu eban lengo bere jokabidea, eta gero ta errudunago sentitzen zan, bere emaztearen so salatariari aurre egin ezin egikiela.

Etxeko mutiko biak oeratu ziranean, Errose gelara sartu, eta,

—Txomin —seme nagusiari esan eutsan—, bayakiat gertaturikoa egia. Ire obena Mikel gaixoak ordaindu yok. Zizpaz jazo zonanaren ostean, aitak gaurkoa jakingo ba'lleukek, zure biziko astiñaldia artuko eunke, eta augaitik ez yaustat ezer esango. Baiña irekin lotsatuta naiagokala bayiñoat, eta gaurko jokabidea ikusirik, etxe onetan ik morroi izan bearke eunke, eta berak oiñordea. Ire izaera aldatu bear yok, bestelan egunen baten gorriak ikusiko, eta zoribakoa biurtuko az. Berba emon egistak bertanbeera, oba izaten saiatuko azala.

—Bai, ama, aaleginduko naz.

—Agur ba, eta Jaunak bedeinkatu zagiezala.

EDURNETXU

Intxalde'n biziareak beti lez zirauan, eta lan andia egiteko bazan be, morroiak ez eutsen betekizunai muziñik egiten. Intxalde'n jasaten eban buruauste bakarra, Txomiñ'ek eutsan bekaitza edo gorrotoa zan, baiña bide guztiakaz etxeko oiñordearekin iñongo eztabaidarik ez izateko aalegintzen zan, eta bazirudian gauzak baketsu samar joiazala, zalpurdiaren ezbearraren ostean batez be.

Baiña Mikel Intxalde'ra lotzen eban benetako indarra, Edurnetxu, etxeko kutuna zan. Asieratik, bion arteko lotura bereizi ta indartsua sortu zan, eta egunen bidean alkarrekiko erakarpen ori sendotzen joian.

Len esan dan lez, Mikel Intxalde'ra eldu zanean morroitza-jardunari emoteko, etxeko kutuna urte biko ume zoragarria zan, eta onen zoramena mutikoaren naimenaz jabetu zan, arrezkero Mikel aren otsein biurtzen zala. Etxeko guztientzat zorion andia azaldu zan ori, etxeko kutuna nork zainduko leuken, ezustean idoro ebela-ko, eta au jaiegunetako arratsaldeetan batez be, onura andikoa billakatu zan, Edurnetxu Mikel'ekin egoala jakiteak ardura andia kentzen eutsela-ta, Errose'ri batez be, Iturbe Auzuneko andrazko lagunekin nasai-nasai jardun egikealako.

Aldiaren bidean, etxeko kutuna Mikel anaitzat erabilten oitu zan, eta onek etxe aretan nor zan ondo baekian be, umearen alde, betseiñak emongo leukezan. Umeak be ederto ezagutzen eban morroiaren beraganako eraspena, eta zeozer nai ebanean, ereguz beterik Mikel'gandik baekian zelan jaritsi, eta jaiegun-arratsaldeen mutilla bere aukera eban ezkerro, sarri askotan,

—Aizu, Mikel —esan eroian—, zergaitik ez nozu Gorri'ren lepo-

gaiñean ipinten, osteratxu bat Munabe'ko iturriraiño egin dagi-
gun...?

Gauza bakana zan, ain zuzen be, Edurnetxu'ren Mikel'ganako
berbetearen erebiltea. Etxe aretan morroiari ika berba egiten eu-
tsoen, eta onek, ostera, guztiai zuka. Au dala-ta,, umeak be zuka
erabilten eban morroiari berba egitean. Etxekoak saiatu izan ziran
umeari adierazoteko, Mikel morroia zan ezkerreko ika erabilli bear eba-
la, baiña dana alperrrik, umea beti bere aretan.

Olan ba, Mikel kortara joian, eta laster mustur-edearren atzetik
Gorri otzan-otzan agertzen zan, eta umea bizkarrean jarrita, irurok
Munabe'ko iturriraiño joiazan, eta ara elduta zaldia edan bitartean,
umeak lotu barik amaika itaun egiten eutsazan morroiari, eta onek
aal eban ondoen erantzuten eutsazan.

Edurnetxu anditzen zan giñoan, bere kidekoen laguntasuna
billatzen asi zan, eta au dala-ta, jaiegunetako arratsaldeetan bere
amarekin Iturbe'ra joian eta emen beste neskatoekin jolasteari emo-
ten eutsan, eta illuntzean Errose'rekin etxera. Augaitik, Mikel aske
zan bere guraria beteteko. Geienetan Mendibe'ra jaisten zan, eta
emen beste mutikoekin pelota-lekuan ziarduan illuntzerarte.
Orduan ibillera ariñaz etxera biurtzen zan, apaldu aurretik oiko
beien jaisketea egiteko.

Neskatotxuak bost urte bete ebazan egunean, gurasoek
andrakil bat erosi eutsoen, eta izan be Edurnetxu'rentzat egun zora-
garria izan zan. Andrakilla, olezko kutxa baten sartuta, askatzat era-
billi oi eban, eta lokarri baten bidez batetik bestera eroian. Lorketa
onezaz aspertzen zanean, besoetan artuta janaria emoten eutsala-
koa egin, eta barriro kutxara oba-obak abesten eutsazala. Aska-
txua, baiña, azpiko laukoa izanik, ezin egikean kulunkatu. Au ikusi-
rik, urrango lganeko arratsaldean, Mikel etxean geratu zan, eta aal
eban eran seaska txukun kulunkakorra egin eutsan. Umea gabean
biurtu zanean, pozez ler egiteko zorian billakaturik, Mikel'en besoe-
tara oldartu zan, auxe iñotsala:

—Oi, Mikel, orain bai dodala benetako seaska nire seiñaren-
tzat. Iturbe'ko nire lagunak ikusi dagienean, abo-zabalik geratuko
dira. Jakingo ba'zendu, Mikel, zelan maite zaitudan...!

Eta mutillari beste musu bat emonda, oba-oba zaar bat abes-
tuz, kulunkatzeari emon eutsan. Izan be, une aretan Mikel umea bai-
zen zoriontsua edo areago sentzitzen zan.

Edurnetxu sei urte bete ebazanean, erriko ikastolara joaten asi
zan, eta onek benetako aldakuntza ekarri eutsan Intxalde'ko bizi-
reari. Orduko, Txomin amairu urteko mutiko ederra biurtu izan zan,
eta ikastola itzi eban, etxeko lanai bete-bete emotearren. Au dala-ta,

Mikel'ek Andoni ta Edurnetxu'rekin oi eban lez, errirakoa zalpurdian
egiten eban, esne-pegarrak Iturbe'n geratzen zirala. Arratsaldeetan
eguraldia ona ba'zan, Andoni'k eta Edurnetxu'k Mendibe ta Intxalde
arteko iru kilometroak oiñez egin oi ebezan, baiña txarra zanean,
zalpurdiari olanazko estalkia jarrita, etxeko morroia arratsaldeko
bostetan inguru errira jaisten zan neba-arreben billa.

Urrango urtean, amabi urte egitiñik, Andoni'k ikastolea laga
eban, eta bere deiari jarraituz, abadegaitzat gotzain-barrutiko minte-
gira sartu zan. Mutil on-ona zan, eta Mikel'ek benetan uts-emon
eban etxetik joan zanean, lagun on bat galtzen ebalaren sentipena
beragandik kendu eziñik.

Mutikoaren aldegitteak uts andia sortu zan Intxalde'n, baiña
egunen bidean gauzak euren einera etorri, eta danok egoera barrira
oitu ziran. Geien uts-emoten eutsana Errose zan, eta aldia igaro
arren, "Andoni gure koittedua" sarri askotan esaten eban, joanda-
koaren oroitzen bat burura etorkionean.

Orduko, Edurne zazpi urteko neskato argi ta polita billakatu
zan. Ikastolako bigarren ikastaro onetan, baiña, etxera egiteko ikas-
te-lanak ekarri eroiazan. Betekizun onek, asieran batez be,
buruauste itzela emotsan, eta askotan aspertuta aurkitzen zan bete-
bearrari nondik eldu ez ekiala. Bein baten, Mikel esne-suillekin
eskaratzera sartu izan zala, gogait-eragindako neskatoak berba
eregutsuz auxe esan eutsan:

—Mikeltxu, ez daustazu lagunduko zenbaketa oneik egiteko...?

Mutilla neskatoaren alboan jesarri zan, eta antxiña baten jaiote-
riko eskolan ikasitakoak gomutara ekarrita, ondo ta zeatz betekizu-
na egiteko lagundu eutsan, eta andik laster beste guztiak be, txu-
kun-txukun eta utsik txikiena bera be egin barik amaitu ebazan.
Arrezkero, nai-ta-ez Mikel neskatoaren irakaslea biurtu zan, eta
eguneroko jaisketea eginda gero, Edurnetxu'k morroia bere ondoan
jesarri-erazo, eta zenbakiziaz gaiñera, luteliztia, izadiztia etab.,
azaldu bear eutsazan, eta onen ondoren, mutillaren zaintzapean
betekizunak idatzi oi ebazan.

Ordubete bat-edo irauten eban lan onek, eta augaitik bere oiko
egitekoak burutzeko, Mikel arin baten ebillen, eta askotan mai-
ondoan jesarten zanean, aparia amaitu-agiñean zan. Augaitik, Erro-
se'k eraginda, Martiñ'ek morroiari arratsaldeko bearrak arindu eu-
tsazan, eta orduan, Mikel'ek nasaiago ta erosoago bere irakaskin-
tzari emon aal izan eutsan.

Izan be, egoera barriaz danek irabazi eben. Edurnetxu bere
maillako lenengotarikoa zan, eta onek zoriontsu egiten eban. Aita-
amak alabearen aurrerapenak, eta eskolatik etozan ikaste-agiriak

ikusita, arro-arro sentitzen ziran alaba orren urtena izateagaitik. Mikel be, poz-pozik oartzen zan, berak be ikaslearekin batera, aspaldiz ikasitakoak barrero gomutaten ebazalako, eta gai barri ta zudugarriak bere adimenean betiko tinkatzen ziran.

Onezaz gaiñera, bazan besterik. Irakasle ta ikasle artean sorzen dan lokarri bereziak, Mikel eta Edurne indar andiaz lotzen eban, eta ez-arian lez, eurok oartu barik, bakotxak bestearen barruan gero ta argiago ikusten eban. Mikel'ek neskatoa gur egiten eban, eta sarri askotan onen begi oztin garbiak eta adats urreduna begizatzean, aingeru baten aurrean egoala iruditzen yakon.

Oikoa zana, egunoro Mikel'ek neskatoa zalpurdian eroaten eban eskolara, eta txori baizen alaia zan Edurnetxu'k guztitariko autuai emoten eutsen morroiarekin, eta sarritan onetara iñotsan:

—Aizu, Mikel, noiz etorri zintzazan Intxalde'ra...?

—Orain lau urte gitxi gora-beera.

—Eta zergaitik etorri zintzazan gurera...?

—Begira... etxean lau anai-arreba gengoan, eta urteko alogera ordaintzeko, aita estu ta larri ikusten eban bere burua. Orduan, ni morroi joan neiten erabagi eban, abo bat kentzeaz gaiñera, nire urteko sariak etxeko alogera ordaindu aal izateko.

—Ez ete zenduezan ba, bizi aal izateko beste bei ta soloak, Intxalde'n doguzan lez...?

—Bai, baiña etxe-inguruan jaubeak piñu asko sartu eban, eta onen ondorioz, bedartza gitxitu zan bei bi baiño alatzeko gai ez zala, eta gaiñera gure ortuak etxerako beste ozta-ozta emoten euskun.

—Eta zure arreba zer egiten dabe...?

—Orain etxean dagoz, ikastaldia amaitu dabe-ta, baiña bi edo iru urte barruan, Bilbao'n neskame sartuko dira, ondiñokarren orretarako gazteegiak diralako. Nire anai nagusia, orain amazortzi urtekoa dana, Aranguren'go papergintzan lanean asi da, aita naikoa dalako etxeko bearrak erabilteko.

—Esaidazu, Mikel, gurera etorteko etxetik urten zintzazanean, negar egin zenduan...?

—Ez naz gomutaten, Edurne, baiña amak bai, malko ugariak bota ebazan alkargandik banandu gintzazanean.

—Begira, Mikel, andia egin naitenean, gizon aberats batekin ezkonduko naz, eta orduan diru asko emongo dautsut, zure etxea erosi dagizun eta gurasoekin bizi izan zaitekezan...

—Ori ezin da, Edurne; aita zaarra biurtu daitenean, etxea nire anai nagusiarentzat izango da. Egunen baten dirurik izango ba'neu aita ta amarentzat jaiotetxea erosiko neuke.

—Esan, Mikel, zein dozu maiteago: zure etxea ala Intxalde...?

—Biok maite dodaz —irribarrez erantzun eutsan mutillak—. Intxalde etxaguntza aberatsa ta ederra da, baiña nire jaiotetxea biotzean daukat. Baiña egia esateko, oba maite izango ez ba'neuz, niretzat iñoiz ez dira izango-ta...

—Aizu, Mikel, len esan dautsudanez, egunen baten aberatsa izango naz, eta orduan Mendibe'ko basetxerik ederrena erosiko dautsut, zugandik urrun ez dot bizi gura-ta.

Mikel'en ezpanetan irribarre bat sortu zan. Neskatoaren zoramena...! Baekian Intxalde'ko morroiak egunen baten etxetik joan bear izango leukela, Txomiñ'ekin alkarteziña zan-eta. Oiñordeak etxaguntzaren ugalka artu egiazanean, etxeko atea erakutsiko leuskio, ori baiño len, Mikel'ek bere kabuz erabagi ori artuko ez ba'eban.

—Aizu, Mikel —Edurnetxu'k barrero—, begituizuz goiko izarrok. Zergaitik ikusten doguz beti dardar...?

—Ez dakit, Edurnetxu... ba'leiteke arein argia oso urrundik datorrela-edo...

—Zer diran izarrak, Mikel...?

—Ez ete dozu gomutaten, lengo eguneko ikaskizunak iñoskuana...? Urrutiko eguzkiak dira.

—Nik beintzat, ez dot siñisten olakorik.

—Zer dirala, uste dozu...?

—Zeruko leiatillak dira, eta bakotxean aingeru bana begirari dago, geu umeak zainduz galdu ez gaitez. Begira: lengo egunean, ume bakotxak aingeru zaindari bat dogula esan euskun abadeak. Nik uste dot, beraz, zeruan leiatillak egon bear dirala, areik ikusi gaituen, eta an ortzian zear agertzen yakuzan dardar orreik, arein keiñuak dira auxe dirauskuela: "Ona izan, ona izan..."

Mikel'ek barre egin oi eban umearen burutapenakaz, baiña atsegin yakon Edurnetxu xaloagandik olako ataraldiak entzutea. Askotan, estu ta larri ikusten eban bere burua umearen ezbaiek uxatzeko, orain gertatzen zan lez.

Bein baten, Intxalde'ko sukaldean luteliztiari buruz ziarduela, umeak morroiari auxe esan eutsan:

—Mikel, nik ez dot uste lurra biribilla izan daitekenik. Ara... goian dagozanak, tira...! Baiña beekaldekoak buruz-beera izanik jausi egin bearko litzakez. Nire ustez lurra leuna da.

Bereak eta asto baltzarenak jasan bear izan ebazan ikastaldi aretan Mikel'ek, umeari adierazoteko lurrean goikalde ta beekalderik ez dagoala, lurraren erakarpen-indarrak ez dauala lagaten goikalde ta beekalderik izan daitez, eta augaitik, dana lurrari eratsita dagoala.

Egunoroko ikastaldi oneik Mikel'eri adimena aberasten eutsoen, eta igarri barik, aspaldi baten jaioterriko eskolan ikasitakoaz gaiñera, orain gai barri ta zudugarriak aurkitzen eben bidea bere adimenera. Gaiñera, bere ikasleari erasoten eutsoen ezbaiak argitzeko aalegindu bear izaten eban, eta onen ondorioz igartzeke, gauza askoren zergaitia ulertzen asi zan.

Baiña garrantzitsuena irakasle-ikasle artean sorturiko loturea zan. Mikel'entzat, Edurnetxu gizaki maitagarria zan, eta onen sorgindureak mutilla atxillo eban. Beste aldetik, umearentzat, Mikel erraldoi baten antzekoa zan, eta ez egoan ezer munduan mutillak jaritsi ez egikeanik. Neskatoak Intxalde'ko morroiagan jarritako uste ona neurribakoa zan, baiña gaixoari ez yakon bururatzen, egunen baten Mikel'ek etxetik alde egin bearko leukela.

Illabeteak eta urteak igartzeke aurrera joiazan, eta Intxalde'ko nagusiarentzat, zortzi urte lenago artutako morroia ordezteziña izateraiño billakatua zan; berba urrikoa izanik be, agiri zan Mikel gero ta maiteago ebala.

BEKAITZA

Intxalde'ko ugazabaren morroiaganako begirune ta ederrespenna, baiña, ezin egikeazan jasan Txomiñ'ek. Arazo geienetan, garrantzi andikoetan batez be, agiri zan etxejoaunak Mikel'eri lentasuna emoten eutsala, eta au etxeko oiñordeak ezin egikean eroan. Txomin mutil langillea zan, eta etxeko betekizunak ondo egin oi ebazan, baiña morroiak arduratsu ta zeatzago burutzen zituan. Onezaz gaiñera, Mikel, oiñordekoa baiño indartsuagoa zan, kontuan arturik batez be, zaarragoa zala, baiña onek be Txomiñ'en bekaitza edo iñartsia geitzen eban.

Onetzaz, Martin aspalditik oartua zan, eta Mikel'ganako ederrespenna ezkututzen saiatzen bazan be, nabari zan morroiagan jarten eban uste ona, gauza oneik gorde-eziñak dira-ta. Bein baiño sarriago, Txomin aitagana keixu joan izan zan, morroiari emotsan lentasunagaitik.

—Baiña, seme —esan oi eutsan Intxalde'ko nagusiak—, ez adi larritu, bera i baiño oituagoa dok-eta. Begira, Txomin, gudaritzatik etorri aitenean, etxaguntzaren erabilpena emongo yauat, eta orduan Mikel ire menpekoea izango dok, orain nire agintzapean yagokan lez. Orduko, bizi-ikaspen edo esperientzi geiago izango yok, eta beraz, etxeko arazo guztietan esku-sartze osoa etorriko yak.

Agintzari au ta guzti, baiña, oiñordekoa ez zan baretzen, eta aldiaren bidean, etxeko morroiarekiko gorrotoa anditzen joiakion. Ondo bai ondo, antz emoten eutsan Martiñ'ek semearen sentipen zital oneri, eta sarri askotan arrenkura bizipean atzituta sentitzen zan, semearen eta morroiaren arteko alkartezifia oartzean. Azkenean, etorkiak arazoa atonduko leukela, etxejoaunak bere buruari esaten eutsan, eta gauzak ondo urten zeitezana aaleginduko litzakela.

Errose be, seme nagusiak morroiari eutsan bekaitza oartzen asia zan, eta onek kezkatzen eban benetan. Aalegin guztiakaz semea ez mintzeko saiatzen zan, guztitariko ereguz erabilten ebalu, baiña alan eta guzti be, ezin egikean morroiari eutsan ederra ezkutatatu, eta Txomin bekaiztiak, bere asarrea amari edozein txikieria-gaitik adierazoten eutsan, esaterako, Mikel eta Edurnetxu'ren arteko eraspen eta alkarrekiko uste ona. Ezin egikean jasan, Intxalde'ko morroia etxeko kutunaren irakaslea izan zeiten, arazo onek bere otsein-baldintzatik gora jasoten ebalako, eta nai-ta-ez Mikel bera baiño jakintsuagoa zala, bere buruari autortu bear eutsalako. Au danagaitik Errose arrenkuretan bizi zan, baiña egunen baten, seme nagusiak etxeko arazozen zuzendaritza artu egianean, gauzak euren einera etorriko litzakezala pentsaten eban amak, semeak bere burua guztiaren jaun eta jabe ikustean batez be.

Bere aldetik, Mikel'ek baekian beste iñork baiño obeto, berarekiko oiñordearen ikusteziaña, eta besterik ezean, bide guztiakaz amor emoten saiatzen zan, eta Txomiñ'en irain eta berba zakarrai, ez eutsen iñongo erantzunik emoten, askotan barrutik sumiñez irakiten oartzen bazan be. Eta esaera zaarrak diñoanez, bien arteko eztabaidarik ez, batek nai ez dauanean.

Gurasoen aurrean, Txomiñ'ek ez eban bere gorrotoaren agerpenik erakusten, eta olan ba, aldiaren bidean bazirudian Martin eta Errose'ren arrenkurak baretzen joiazala. Mikel'ek baiña, Txomiñ'en gorrotoa beti bizirik oartzen eban, eta urteak igaro-ala, Intxalde'tik alde egin eta beste iñon morroitzat jardutea gero ta aginkorrago aurkezten yakon, baiña barru-barrutiko sentipen batek ori egiten eragozten eutsan.

Zortzi urte igaro izan ziran Mikel Intxalde'ra morroitzat sartu zanetik. Ogei urteko mutil eder eta indartsua billakatua zan orduko, eta etxeko lanen erantzukizunik aundiena beragan zetzan. Martiñ'ek baerakusan urteen bide uxaeziña, eta ez zan lengo langille neke-eziña, eta bearrak andienak morroi ta oiñordeari lagaten eutsezan, berak, ugazabak, etxaldeko ugalak galdu barik. Txomin amazortzi urteko mutil txairo ta kementsuak, baerakusan lanerako zale-tasun andia, eta gudaritzatik etorri zeitenean, orduan agintza ta aalmen geiago emongo leuskioz etxekojaunak seme nagusiari.

Bein baten, Intxalde'ko ugazabak sei illabeteko zekor ederra saltzea erabagi eban, eta ain zuzen be, Aratusteko Igandean Gernika'n ospatzeko zan abelgorri-azokan. Zekor ederra zan, ederra, eta etxekojaunak diruketa polita lortuko leukela uste izaten eban. Sasoi aretan zeozer nekatuta egoanez, Mikel'ek zekorra azokara eroan egian ebatzi eban.

Txomiñ'ek au jakin ebanean, asarre gorrian aitagana joan, eta auxe esan eutsan:

—Aita, zergaitik ez nozu neu bialtzen azokara zekorra saltzeko...?, beti narabiltzu ume baten antzera, eta ordua da dagokidan lez erabilli nagizun, amazortzi urtekoa naz-eta...

—Begira, seme, azoka orretarako jendea ta abelgorria ondo ezagutu bear dozak, eta arazo onetan Mikel eu baiño oituagoa dok.

—Baleiteke ori, baiña jakin bear dozu diru-arazotan uste on osoa neugan ipiñi bear dozula, morroi bategan baiño len.

—Entzun egistak, Txomin, gure morroia diru-arazoetan semeztat yakat... eta zortzi urte oneitan ez yaustak bestera pentsateko ziorik emon.

—Ez dakit —guzurrez esan eutsan Txomiñ'ek— baiña errian bala-bala dabil, gure morroiak diru asko darabilela.

Une batez etxekojauna oldozkor egon zan, eta gero, semeari tinko-tinko begiratzen eutsala,

—Ori guzurra dokala etxean danok yakigun gauza dok —esan eutsan—. Gurekin iraundako zortzi urteotan ez yautsaguk diru-erabilterik txikiena be somatu. Olakorik yiñoana, guzurti zantarra baiño besterik ez dok, eta euk ondo bai ondo ezagutu bear yok gure morroia, olako zitalkeriai ardurarik ez emoteko.

—Nik ez diñot egia dan ala ez, aita. Errian, batzuk ori diñoela aipatu dautsut, besterik ez. Baiña benetako egia dana auxe da: morroiari esku-sartze geiago emoten dautsazula semeari baiño, eta esames orreik nire izen onari kalte andia ekarri dagikioe.

Martiñ'ek une batzuk isillik iraun eban, eta,

—Aiko, Txomin —esan eutsan oldozkor—, olan uste izaten ba'yoat, gauza bat egingo yoagu, eta auxe izan be: datorren igandean Mikel'ekin azokara joango az, eta aurrerantzean berarekin jardungo yok olako eretietan. Era onetan, baserritar on batek ikasi bear yozakanak ikasiko yozak, eta orduan gai izango az etxeko lema edo agintza artzeko. Gaiñera, datorren urtean Mikel'ek gudaritzara joan bear izango yok, eta euk aren jardunak bete bear izango yozak.

Txomiñ'ek, baiña, ez eban gura ezelan be, Mikel'ekin azokara joan, eta,

—Aizu, aita —esan eutsan—, biok batera ba'goaz nire lagunek uste izango dabe iñude bat bear dodala ortik ibilteko. Zuk bera joan daitela gura ba'dozu, or konpon, joan daitela baiña neu barik. Nire lagunen artean naikoa txutxumuka dabil bera ta niri buruz.

—Tamala yoat benetan, Txomin. la urrengo baten i bakarrik joateko aukerea izaten yoagun...

Olan amaitu zan aita-semeen arteko autua, baiña barrutik Txomiñ'ek morroiari eutsan gorrotoak asperkunderantz bultzaten eban, guztitariko egitasmoai emotsela.

Gernika'ko azokara joateko aurregunean, Txomin atadietik sukaldera sartu-agiñean zala, autu bateko mintzoek geldierazo eben. Une aretan, Errose'k auxe iñoan:

—Aiko, Mikel, gure zekor ederra saltzearren, biar goizean Gernika'ko azokara joateko azala Martiñ'ek esan yaustak. Ori dala-ta, zizku bat atondu yauat zear-orratz baten bidez txirrikiñari lotu yagiokan, eta olan arkondarapean ezkutauta, ez yauk iñork ikusiko. Ez aztu gero, zekoraren ordaiñez artutako dirua zizku-barrura sartu, jende txar ugaría yabik ortik-eta.

—Bai, Andrea, olan egingo dot.

Entzundakoak burutapen itzela ekarri eutsan Txomiñ'eri, eta gau aretan oean batetik bestera iraulkatzen zala, egitasmoa biribildu eban, eta gero garaipena aurretiz txastatzen ebala, lo geratu zan.

Urrengo goizean egunsentia barik, zekorra mutur-edetik eroi-ala, Mendibe'ra abiatu zan Mikel. Etxetik urten aurretik, ugazabak guztitariko burubideak emon eutsazan, eta joateko zorian zala, auxe esan eutsan:

—Kontuz gero, zenbatean saltzen yokan zekorra. Ez adi arindu zelan edo alan saltzearren. Aurretik ikusi prezioak zelan yabiltzakan, eta gero goratxuago jo. Gure zekorak asko balio yok, gurean iñoiz izaniko ederrenetarikoa dok-eta. Dana-dala, amabost milla pesetatik beera ez saldu ezelan be. Ostantzean etxera saldu barik ekarri, entzun...?

—Bai, ugazaba, saririk onena lortzen saiatuko naz.

—Oa ba, Jaungoikoak lagun.

—Agur, ugazaba.

Iturbe auzunean zear joiala egunsentia asi zan, eta Mendibe'ra orduko, eguzkia jagi izan zan Illuntzar mendiaren atzetik. Errian, zekorra zama-berebil baten sartu, eta Gernika'ra bideratu zan.

Eldutean, azokarako goizegi zan, eta zekorra zutoin batera lotuta, arri baten gaiñean jesarri zan, jende-abelgorrien joan-etorriari begiratzen eutsala.

Eguberdiaren inguruan, erosle ta begirariak multzoka etorten asi ziran, eta Mikel'eri amaika bidar zekoraren salneurria eskatu eutsoen. Saltzeko iradurik ez egoala-ta, Intxalde'ko morroiak geiegitxu eskatzen eban. Baekian Mikel'ek bazkariaren ostean erosleak egoera baikorragoan aurkitzen dirala, eta augaitik ez zan salketea egiteko larregi arduratzen.

Otordua urreratu zanean, jendea azoka utsik lagaten asi zan,

eta Mikel'ek etxetik ekarritako ogitarteko mardoaren jateari emon eutsan. Arratsaldeko lauretan-edo, jendeak azokea barriro bete eban, eta bazkari onak sortutako adoreaz, sal-erosleen arteko autuek lekua zurrumuru zaratatsuz bete eben. Mikel'ek, orduan, azokatik osteratxu ariña egin eban, zekorak zenbatean saltzen ziran jakiteko, eta erraldea gitxi gorabeera laureun laurlekotan egoala egiztatu eban. Baekian Mikel'ek, etxeko zekorra berrogei ta amar erraldekkoa zala, eta beraz, aren salneurria ogei millakoa izango litzakela batatz beste.

Asi zan, beraz, ogeita bi milla eskatzen, baiña karutxua izanik, ez egoan saltzerik. Olan egoala, Anton, Bermeo'ko okelari ezagutua urreratzen zala ikusi eban. Ondoratzean, Anton'ek,

—Aizu, Intxalde'ko lagun orrek, zenbatean salduko zeunskit zekor ori...?

—Ogei ta bi milla pesetatan.

—Ken ortik, mutil. uste al-do zu urrezkoa danik...?

—Beitu, Anton: onek berrogei ta amarretik gorako erralde pisatzen dauz, eta gaiñera onen okelea primerakoa da, Intxalde'ko bedar gozua baiño besterik ez dau bazkatu-ta. pisuari bakarrik ez yako begiratu bear, lagun, okelearen ontasunak be zeozer esan gura dau.

—Amazortzi milla eta ez bedi besterik esan.

—Uste al-do zu, Anton, Intxalde'ko zekor bikaiñak duan emon bear doguzala...?

Biok gangaillenez asi ziran, eta azkenean, ondo merezitako ogei milla laurlekotan saldu zan zekorra.

Mikel benetan pozik egoan, eta okelariak emoniko ogei milla laurlekoak Errose'k atonduriko zizkura sartu, eta zear-orratzaz txirrikiñari josita, etxera biurtu zan. Gernika'ko urteerantz joiala, kaleak zantantzarez beterik ikusten ziran, iñauteri edo aratusteko lgan-dea zan-eta. Areitariko batzuk urreratu yakoan mutillari, neska-abotsez zirikatzen ebela, baiña mintzo lilluragarriai jaromonik egiteke, erritik urten eta Mendibe'rantz jo eban.

Izan be, poz-pozik joian Intxalde'ko morroia, zekorra ondo saldu izateak emotsan barruko atsegiñaz. Onezaz gaiñera, arratsalde aretako eguraldia zoragarria zan, eta laster amaituko litzaken neguak zabaldiari sorgindura bereizia emotsan.

Arratsalde aretan, jaiegunetan oi eban lez, Txomin errira jatsi zan lagunekin jarduteko. izketan eta pelota-jokoan astia emoten eben geienetan, eta gero erriko ardandegian zeozer edan edo jaten ziarden. Txomin ez zan ardaoazale, eta geienetan lagunekin erriko

enparantzan edo peloteari ekiñez emoten eban arratsaldea, neska-tillekin jarduteko oraindiño gezteegia zan-eta.

Igandeko arratsalde aretan errira eldu baiño ez, pelota-lekura jo eban, eta oiko lagunak ikusita, areikin alkartu zan. Txomiñ'ek ondo ausnartu izan eban ereti aretan egitekoa. Izketan ziarduela, alako baten,

—I, Txomin —lagunetariko batek itaundu eutsan—, non dok etxekò morroia? Geienetan pelota-jokoari ekiten yautsok, baiña gaur aren billa naiabik gure oiko jokaldia izateko, eta ez yoat iñon-dik ikusi.

Olan itz egiten ebana, Yokin, erriko amabiren edo ertzaiñaren semea zan; mutil zintzo berau eta Mikel'en lagun andia.

—Oba dok emen izan ez yaiten, Yokin —erantzun eutsan Txomiñ'ek—, erri onetakoan aurka beti gaizki-esaka yiarduk-eta.

—Ez yauat siñisten ori, Txomin. Nik neuk, beintzat, ez yautsat iñoiz iñoren aurka ezer entzun.

—Ez, e...? Lengo egunean ba, ire aita kokolo andia dokala esan yoan. Baiña okerrena, Braulio'ren aitaren aurka esan yoana dok. Ez yeustan esan ba, gure erriko maisuak irakasten ez yakiala, eta augaitik Mikel'ek berak, gure Edurnetxu'ri eskolan ikasten ez yokana, berak irakatsi bear yautsakala...?

An egoan Braulio'k, maisuaren semeak, asarrea jabetu eziñik, auxe esan eutsan:

—Egia al-dok ori, Txomin...?

—Ez dok izango ba...? Neronek entzun neutsakan.

—Madarikatu ori, agiñak apurtuko neuskiozak...!

—Ori gitxi dok. Jakingo ba'zendukie Yoseba'ren aurka esan-dakoak...! Ezin dagikizuedaz esan, itzelak dozak-eta.

Edu onetan jardun eban Txomiñ'ek, iñon diran iñondikoak Mikel'eri egotzirik.

Olako guzur zitalak esaten jarraitu eban Txomiñ'ek, eta lagun batzuen gogoak ondo sutu ziranean, Intxalde'ko oiñordeak areitariko iru lagun alde batera dei egiñik, aurrunean berak asmatu-eriko ekintzea guztitariko zertzeladakaz azaldu eutsen. Orretarako, Igan-de aretan mutillek oikoak ziran mozorroak erabilliko leukiez, eta onezaz gaiñera, illunabarko itzalak ustiatu...

Pozik biurtzen zan Intxalde'ko morroia, zekorraren ordaiñez artutako diruak ugazabari emongo leuskion atsegiña aurretik txas-tatuz. Gernika'tik urten eta ordubete bat igarorik, Mendibe'ra eldu, eta errian gelditu barik, etxerantz abiatu zan azkenengo iru kilometroak egiteko. Illunabarrak gabeari bide egiten eutsan, eta inguruko gauzak motel eta ezabatsuak ikusten ziran.

Alako baten, bidea mugatzen eban arresi batetik, aurpegia mozorro banak estalduriko, bost giza-irudik eraso eutsoen, eta itz bat bera be esan barik, egundoko astiñaldia Agiñalde'ko morroiari emoten asi yakozan. Orren ezustean artutako Mikel gaixoak, ezin egikean ulertu eraso aren zergaitia, eta gertatzen zana konturatu baiño len, erasotzailleek lurrera bota eben, eta anka-besoak lurrean tinkaturik, igige geratu zan, burua bakarrik erbilli egikeala. Orduan, areitariko boskarrena, sabel gaiñean jesarri yakon, eta ukabilkada basatiak aurpegian emon eutsazan.

Eraso aretatik, Mikel aalik indartsuen jarkiten zan, indarrak etenbarik makaltzen yakozala, eta arnasa ia artu eziñik. Boskarren erasotzailleak aurpegian emotsazan ukabilkadek gero ta min andia-go egiten eutsoen ezker, kordebagetzen zalakoa egin eban jarkiteari uko egiñez. Arein abotsakaitik nortzuk ziran jakingo ba'leu, bere buruari iñotsan mutillak... Baiña zital areik isiltasun osoan ziar-duen, aurretik erabagita, urrean.

Oparia kordebagetua zalakoan, gaiñean eukan erasotzailleak joteari itzi eutsan, eta orduan... onen eskua morroiaren arkondarapean sartu, eta txirrikiñari lotuta egoan zear-orratza zabaldua, ziz-kua kendu eutsan. Gero... Mikel'ek ez ekian zer jazo zan, zentzume-na laiñotuta, lo-zorro baten menpe bai'litzan iraun eban-eta.

Itxartu zanean, illuntasun betean izar urrutiek dardar egiten eben illargibako zeruan. Otz andia zan, eta soiña ikara biziak artuta, asieran, non egoan itaundu eutsan Mikel'ek bere buruari. Gero, laiño baten pean lez, gertaturikoa gogora etorri yakon, eta noizbait lurrean jesarrita, zekorraren sal-saria gordeten eban zizkua ostu egin eutsoela konturatu zanean, sumiñezko negar bateri emon eutsan, eta malkoak odolari naastuta erioazala, etsiak jota geratu zan. Zer esan egikean ugazabari lapurketeari buruz? Zaila izango litzakio Martiñ'eri morroiak iñotsana siñistea. Zer jazoko litzake orduan? Mikel gaixoa zorotzeko zorian egoan, zer egin ez ekiala, eta era onetan une luze batzuk iraun ebazan. Noizbait zutundu zan, eta zuur-zapiñoaz aurpegia txukatu, eta janzkitik lur eta autsa astindu ondoren, larritasun esan-eziñak jabetuta, etxerakoa egiten asi zan.

Ibiliten asi baiño ez, ustekabez, burutapen batek geldi-erazo eban, eta orduan tximistaren argitasunaz zertzelada bat argi agertu yakon. Zizkua ostu eutsanak, baekian zear-orratza bat az txirrikiñari lotuta egoala, eta au jakitekotan, Intxalde'koa izan bear... eta etxekoa izanik, ezin zeitekean beste iñor, Txomin baiño. Ondorio onetara eldu zanean, sumin basatia Mikel'ez jabetu zan. Baiña zelaz azaldu ugazabari, bere seme Txomin benetako lapurra zala? Zelan

egiztatu au, iñongo agerbiderik bage? Eta buruan korapillo au erabillela, bidean gora asi zan barriro.

Etixerantz ibilli ebillera, eta asierako atsekabea zeozer arinduta, Mikel bere gogoetak taiutzen asi zan. Berarentzat argi egoan, uga-zabak nekez iruntsiko leukela jazorikoaren azalpena, eta ostutakoa agertuko ez ba'litz, Intxalde'tik betiko alde egin baiño beste biderik ez eban ikusten. Oldozkun onek jasan-eziñeko larritasuna ekarri eutsan... Intxalde maitia betiko itzi, eta gaiñera, lapur zanaren suzmoaz beste iñora joan, egindakoaren kutsuak etenbarik lagunduko leuskiola... Baiña benetan naigaberik andiena ekarkiona, Edunetxu betiko galduko leukelaren oldozkuna zan. Orduko, umea amaika urtekoa zan, eta berak be lapurtzat artuko leuke, urrean. Miñarenmiñez, mutillari didar auxe biotz-biotzetik urten yakon:

—Ai ene Jaungoikoa, arren, ez nagizu itzi...!

Oiñazez zoro biurtzeko zorian oartzen zan, eta bidean gora loibiltari baten antzera joian. Orduko, Iturbe auzoa atzean itzi izan eban, eta Munabe'ko iturrira elduta, beronen ur ozkirrietan zaurituriko aurpegia garbitu eban, eta jarraian, etxerako azken bide-zatia beteteko gertatu zan. Ibilli ebillera, bustialdiak eta gabeko aizearen oztasunak eraginda, Intxalde'ko morroiaren oldozkunak euren einera etorten asi ziran, eta orduan zertzelada bat uxa-eziñeko indarrak bein eta barriro burura etorkion, eta auxe alegia:

Ostutako durua, Txomiñ'ek beretzat osorik gordeko leuke, bere lagunekin banatzea oso arriskutsua zalako, lapurketea zabaldu leiteke-ta. Gaiñera, dirua beragan eroango leuke, aurki, errian non ezkutatzeko ez ebalako. Burutapen au etorri yakonean, Mikel'ek ibillerea arindu, eta Intxalde'ra elduta, intxaur mardo bateko enborrean zapalduta, zelatari geratu zan. Gaba guztiz illuna izanik, Txomiñ'ek ez leuke ikusiko, eta etxeko oiñordea sukaldera sartu baiño ez, arrapalda baten jarraitu, eta an bertan janzkia arakatuko leuskio dirua birrartzearen.

Barrandari egoala ta ordu-lauren batera-edo, Munabe'ko bideokergunetik irudi ezabatsu bat agertu zan, eta andik laster, Mikel'ek Txomin zala egiztatu eban. Atadi-aurrean aurkitu zanean, morroiaren arritasunerako, etxera sartu bearrean, onen albo batetik ostendu zan. Isillean, Mikel aren atzetik oldartu, eta labeko orma baten aztamuka ziarduala, etxeko kantoitik ikusi eban. Luzaro barik, egitekoa buruturik, Txomin atadira bideratu zan. Orduan, Mikel lengo lekura biurtu, eta Txomin sukaldera sartua zala egiztatu ebanean, arrapalada baten labera joan, eta Txomiñ'ek erabillitako lekuan aztertzen asi zan. Labeko arri bat kili-kolo egoala laster oartu aal izan eban, eta atarata, diru txartelen mordoa agertu yakon. Poz neu-

ribakoak eraginda, zorionezko oiu bat ozta-ozta menperatuta, arria bere zuloan jarri, dirua aztamuka zenbatu, eta au doi-doi egoala ikusirik, arkondarapeko zizkura sarturik, etxera biurtu zan.

Sukaldera sartu zanean, Txomin sutondoan berotzen zan, eta etxekoandreak arkondara batzuk lisa-burdintzen ziarduan. Errose'k Mikel'en itxurea ikusi ebanean didar bat jaurti eban, eta ain zuzen be, ez zan gitxiagorako. Etxeko morroiak jantzia ta arkondareak itxurabakotuak ekarriz gaiñera, aurpegian arramaska ta odolbatu ugariak erakusten ebazan.

—Baiña, mutil —oiu egin eban Errose'k—, nondik ator olako itxura zantarra ekarteko, zèr jazo yak, baiña...?

Mikel'ek ondo ausnartuta ekarren bere itxuraren azalpena, eta onetaraxe jardetsi eutsan:

—Badakizu, Andrea, gaur Aratuste-Ingandea dogula-ta, zekorra salduta gero, Gernika'ko kale baten zear niñoala etxera biurtzeko asmoz, txolinduta etorren zanpantzar batek neugaz oztopo egin da gero, agiraka egin daust, nire errua zala ta ez zala, eta zertarako nebazan begiak etabar. Orduan aren lagun batzuk urreratu yakuz, eta ezustean danek eraso egin dauste, lurrera bota nabe, eta niri egundoko astifaldia emonda gero, joan dira nik ez dakit nora, edateari jarraitzeko, urrean.

Errose'k aulki baten gaiñean jesarri-erazo eban, eta ardurarik andienaz aurpegiko zauriak ur epelaz garbitu eutsazan. Bitartean, irriño bat ezpanetan, Txomiñ'ek morroia begizatzen eban, bere kautan auxe iñoala:

—Bai, guzurra galanta esan yautsak amari. Ikusiko yoagu, baiña, zelako ipuiña gerturik yaukakan aitari esateko, lapurreta azaltzeko orduan.

Andik laster, oi eban lez, Mikel esne-suillak artuta, kortara joan zan oiko jaisketea egiteko. Betekizun au eginda gero, eskaratzera sartu zanean, etxekojauna Edurnetxu'rekin etorria zan, eta oneiri barriro be esan bear eutsen Gernika'n jasandako sasi-erasoa. Nai-gabetu zan Edurnetxu Mikel'en aurpegian agiri ziran zauriak ikustean, eta auxe esan eutsan:

—Zeu lako mutil ona ta zintzoari olakorik egin bear be... Lotsabakuok...! An izan ba'nintz asto baltzarenak eta bost esango neutezan, bai orixe...!

Apariari ekiteko mai-inguruan jesarri ziranean, Mikel'ek zizkutik dirua atara, eta ugazabari emon eutsan. Martiñ'ek dirua zenbatu bitartean, Mikel'ek Txomiñ'eri begiratzen eutsan.

Oiñordekoaren itxurea itzela zan. Begiak maiean josita ebaza-

la, aurpegian zear gorpu-antzeko zurbiltasuna edatzen yakon eta eskuak dardarikatzen yakozan, arein ikarea jabetu eziñik.

Zenbaketea amaitu ebanean, ugazabak morroiari auxe esan eutsan:

—Ez yagok txarto, Mikel, nik neuk ez ñeukek iñoiz pentsatuko gure etxeko zekor ori orren ondo saldu engianik. Ogei milla pezeta, arraioa...!

Jarraian, Mikel'ek salketearen gora-beera zeatzak emon eutsazan, eta edeskia amaitu ebanean, Txomiñ'ek izan ezik, beste guztien goresmenak artu ebazan. Izan be, etxeko oiñordeak zurbil eta isillik zirauan, lotsatuz gaiñera lur-jota sentitzen zala. Baekian etxeko morroiak oiñordeak berak dirua kendu izan eutsala, eta orren zitalki jokatu ostean dana alperrik billakatu izan zanaren sentipenak, lotsaz gaiñera, amorrus betarik jarten eban. Arazoa argi egoan; morroia etxe-inguruan barrandari izanik, dirua labeko ezkutunean gordeten ebala ikusi, eta jaso eban.

Nekatuta egoala atxakiaz, Txomin aparia amaitzeke lotara joan zan. Mikel'ek soiña minduta eban benetan, eta aparia amaitu baiño ez, bera be ganbarako bere lo-gelara joan zan. Gau aretan, oi eban lez urrutiko amak agindutako iru Agur Mariak otoi eginda gero, biotzetik auxe urten yakon:

—Zergaitik daust orren gorroto andia, ene Jaungoikoa...? Nik ez dausat gorrotorik, baiña olan jarraitzekotan egunen baten, maite dodan etxe au laga egin bear izango dot, eta nik ez dot emendik joan gura...

Urte aretan, Mikel'ek ogei ta bat urte bete ebazan, eta Igande baten, Gernika'ko udaletxera joateko deia artu eban, urrengo urtean gudari-zerbitzua egiteko zan ezkerro, goibe-neurketaz batera osagi-llaren azterketea jasan bear izan eban.

OROITZETAN

Urrilla'ren azkenengo Igande aretan, Intxalde'ko atadian jesarrita, begi-aurrean zetzakion Gernikaldeko edertasunari jaramon egiteke, Mikel oldozkun itunetan murgilduta egoan. Jaiegun izanik, arratsalde aretan baeban eskubiderik Mendibe'ra jaisteko, eta lagunarteko autuan edo pelota-lekuan jarduteko. Baiña gaur gauza oneik ez eben erakarten, eta etxean geratu zan, maite-maite ebazan oroitzai emoten eutsela.

Baziran iru aste Edurnetxu joana zala. Bai, Bilbao'ko lekaimetxe batera sartu izan eben gurasoek, andereiño bateri zegokion ezikerrea artu egian. Ordutik, bazirudian Intxalde'k argia galdu izan ebala. Etxeko morroiaren ezpanetan irribar aula loretu zan, neskato zoragarriaren oroitzak gogora etorkiozala.

Bai, une aretan Edurnetxu'ren Lenengo Jaunartzea gogora etorkion. Egun zoragarria benetan, baita aztueziña be. Errira jatsi baiño len, Mikel'ek berak, zalpudiaren alboak lorakaz apaindu ebazan, Gorri garbitu ta ulea leundu eutsan, eta gero koskabilloak idune-inguruan jarri eutsazan. Zalpurdia eretirako margoztu izan eban, eta aipaturiko edergailluakaz, andiki baten zalpurdia emoten eban. Jantzki zuriaz atadian agertu zanean, Mikel abo zabalik geratu zan, printzesa ala aingeru baten aurrean aurkitzen ete zan bere buruari iñotsala. Gero eskua luzatu eutsan oiña jarri egian gurdira igoteko, eta jarraian, Martiñ'ek zaldiaren abo-ugalak artuta, emazte-alabearekin koskabilloen eresiaz inguratuta, bidean beera abiatu zan.

Jarraian, Mikel jaiegunetako janzkia ipiñi, eta Txomiñ'en atzetik errira joan zan. Eldu zanean, eleizea mukurru bete egoan, eta aal izan eban ondoen, Edurnetxu'gandik ez urrun kokatu zan. Neskatoren zoramena...! Mikel iñoizkorik zoriontsuen sentitzen zan, ain-

geru bat zirudian ugazabaiño bat izateagaitik. Eleizkizunak ordubete bat iraun eban, eta amaitu zanean, eleizpera arindu zan neska toaren agerpena ikustearren. Ondotik igarotean, Edurnetxu une batez gelditu zan, eta Mikel'en eskuari eutsita, abopear auxe esan eutsan:

—Mikel, Jaunartzean gogoan izan zaitut.

Eta gero, senitarteko ta ezagunen zorionak artu ondoren, Gernika'tik berariz etorritako gizon batek argazki batzuk egin eutsazan, eta gero zalpurdian gurasoen artean, etxera biurtu zan, loreen apainketaz eta koskabilloen txintxiñen artean.

Bazkari bikaiña izan eben egun aretan Intxalde'n, Mikel'ek iñoiz ez ezaguturiko lakoa. Arratsaldean Mikel errira jatsi zan, eta illuntzea barik Intxalde'ra biurtzen zala, Iturbe auzunetik igarotean, beste neskato-lagunekin jolasten ziarduan Edurnetxu batu yakon etxerakoa alkarrekin egiteko. Bidean gora joiazala, Mikel'ek sakeletik erestun bat atarata, neskatoari emon eutsan, auxe zirautsala:

—Eutsi, Edurnetxu, au lengo egunean Gernika'n erosi neban zuretzat. Izan be, ez da gauza andirik zuk au baiño zerbait obeagoa merezi dozu-ta, baiña danek zeozero orogarriztat emon dautsuen ezkerero, ez dot gura neurea barik geratu zaitez.

Erestun polita zan baita ona be. Erdian, odol-tanto antzeko errubi polita jarrita eroian. Ikusi ebanean, Edurnetxu atsegiñezko didarra jaurti, eta Mikel besarkatu eban auxe iñotsala:

—Oi Mikel, zu bai ona ta emonkorra...! Erestun au betiko gordeko dot, baiña au oso karua urtengo yatzun, aurki...

—Ez ainbeste.

Izan be, bezuza aretan aurreztutako diru guztia eralgi izan eban Intxalde'ko morroiak. Gaixoak ezin egikean diru askorik erabili, bere urte-sari osoa gurasoen etxerako zan-eta, baiña Martin ugazaba zorrotza izanik be, noizean bein eskupekoren bat emon oi eutsan. Eta aurreztutako dirua zertan erabili ez ekian ezkerero, erestuna erosteko gorde eban.

Edurnetxu'k erdiko atzamarrean sartu eban, baiña erestuna anditxuegia izanik, sakelera sartu eban auxe iñoala:

—Andiegia da orain, baiña anditu naitenean zure orogarriztat erabilliko dot.

Une batez isillik joan ziran, eta alako baten,

—Aizu, Mikel —esan eutsan neskatoak— gaur niretzat egunik zoriontsuena izan da. Jaunartu ondoren, etxeko guztien alde otoi egin dot, baita zure alde be. Ba al-dakizu zer eskatu dautsadan Jaungoikoari...?

—Zer eskatu dautsazu...?

—Ara ba... andia biurtu naitenean aberastasun andia emon dagistala. Bai, aberatsa izan gura dot.

—Ori, gizasemerik geienek nai daben gauza da.

—Baiña nik ez dot aberastasun ori niretzat gura.

—Zertarako ba...?

—Ara... inguru oneitako basetxerik ederrena zuretzat erosiko dot.

—Ori —irribarrez esan eutsan morroiak—, aspaldiko amesa dozu. Bein baten, bost urtekoa baiño ez zintzazala, orixe bera esan zeustan, eta ez dot egundo be aztuko. Begira, Edurnetxu, morroiak ez yake etxerik erosten. Neu lakoak diranak beste iñoren etxean lan egin bear dabe.

—Baiña nik ez dot gura morroi betiko izan zaitez, eta ori dala-ta, aberastu naitenean, inguruko etxaguntzarik ederrena erosiko dautsut, Mikel. Beste iñoren otsein izatea zuk ez dozu merezi, eta gaiñera zugandik urrun bizi nai ez dodan ezkerero, Mendibe'ko etxerik ederrena erosiko dautsut.

—Eskerrik asko Edurnetxu. Nik ez dakit Jaungoikoak orrenbesteko dirurik emongo ete dautsun, baiña dana-dala, etxaguntza eder bat opa izan daustazula, beti gogoan izango dot, eta orregaz bakarrik naikoa ordainduta nozu.

Autu au lau urte lenagokoa zan, eta orain Edurnetxu amabi urte beterik, etxetik joana zan... Ona emen gertaturikoa: adin onetara eldu zanean, Martiñ'ek eta Errose'k etxeko kutunaren etorkiari buruz amaika buruauste izan ebezan. Orduko, Intxalde'k onura andia emoten eban ezkerero, diruketa polita aurreztuta eben dirue-txean. Augaitik, eta etxaguntza Txomiñ'entzat izango litzaken ezkerero, ondo merezi ebala alabeari ezkontza on-ona emotea erabagi eben gurasoek. Beste semeari buruz, au da, Andoni'ri egokion alde-tik, ez eben iñongo buruausterik abadegai zintzo jarraitzen ebalako, eta au dala-ta euren ardura guztia alabeagan jarri eben. Eziketa ona artzekotan, edozein andereño baizen dotorea biurtuko litzake, eta orduan ezkontza ona egiteko gai be izango, eskontsari ederraz laguntzekotan batez be.

Senar-emazteak arazo au luzaro samar erabili eben, etxeko kutunak amabi urte bete ebazanetik batez be. Adin onetara ezkerero, Edurnetxu'k ezin egikean erriko eskolan jarraitu, azken mailla burutu ebalako. Onen ondorioz, gurasoek ez eben beste biderik ikusten, etxean geratu ala Bilbao'ko ikastetxe batera sartu baiño. Mendibe'ko "Baserri" dendako ugazabak, Edurne baiño urte bat zaarragoa zan Yone, bere alaba bakarra, Bilbao'ko lekaimetxe

baten sartu izan eben, eta au zala-ta, ikastegi orren gora-beera zeatzak artuta, Edurnetxu ara sartzea erabagi eben.

Mikel'ek, Urrilla'ren azken Igande aretan, Intxalde'ko atadiaren aurrean edatzen zan Gernikalde'ko zabaldi zoragarria begiztatzen ebal, ezin egikean iru aste lenago gertaturikoa burutik kendu. Urrilla'ren lenengo Igandea zan, eta urrengo egunean Edurnetxu Bilbao'ko ikastetxe aretara joateko zan. Ego-aizeak lits askoren margoz zabaldia edertzen eban, baiña begientzako aintza zan ikuspegi yaukalari ez eutsan jaramon andirik egiten. Biaramonean, Intxalde'ko aingerua beste iñora joango litzake, eta etxea edertzen eban argia itzungiko zan, ez ekian noiz arte. Mikel'ek berak be, andik illabete bitara gudaritza egiteko alde egin bear eban.

Intxalde'ko morroiak etxeko alabea maite-maite eban, baiña oraindik ez zan konturatzen zelako sentipenaz. Kutun bat maite dan lez maite eban, baita aingeru bat gurtzen dan antzera be, edo-ta bixi batek norberagan sortzen dauan ederrespenaz. Mikel'ek ez ekian zerk erakarten eban neskatoagana, baiña urrengo egunean joango litzakiola oldozkunak, naigabetzen eban iñoiz ez izandako atsekabez.

Arratsalde aretan, gogoeta oneitan murgilduta Intxalde'ko atadian egoala, esku bigun bat bere sorbaldan kokatu zan. Begiak jaso, eta bere ondoan Edurne ikusi eban. Onen begi eder, oztin, garbiak, kadenezko itxuraz begiztatzen eben, eta isillune baten ondoren,

—Mikel, jakingo ba'zendu —esan eutsan— zein lur-jota nagoan...!

—Zuretzat onuragarria izango da lekaimetxeko aspaldi ori, gauza asko ta jakingarriak ikasiko dozuz, eta gaiñera, aldiaren bidean andereiño edo señoita elegantea biurtuko zara.

—Nai dodana, Mikel, Intxalde'n bizi izatea da.

—Baiña etxera biurtuko zara datorren urteko udean.

—Gudaritza egiteko zeu be etxetik iñora joango zarala, amak esan eustan lengo egunean. Egia ete da ori...?

—Bai, datorren urtean joan egin bear dot.

—Zein luzerako...?

—Urtebete ta erdirako, baiña itsaslaritza ba'letorkit, orduan urte bitarako.

—Zer egingo dozu gudari-zerbitzua amaitu dagizunean...?

—Ez dakit, Edurnetxu, baiña ugazabak onartuko ba'nindu, Intxalde'n jarraituko neuke.

—Aitak onartuko zaitu, Mikel, etxe onetan danok maite zaitugu-

ta. Geienez, beraz, urte bi barruan emen izango zara barriro, baiña nik urte askotan Bilbao'ko ikastetxe orretan iraun bear izango dot.

—Onuragarria izango yatzu, Edurne. Urte batzuen buruan neskatilla dotore biurtuko zara.

—Nik ez dot neska dotorea izan gura. Zuen artean bizi izatea naiago dot.

Mikel'en ezpanetan irribarre bat agertu zan, eta,

—Baiña, Edurne —esan eutsan—, emakume dotore ta aberatsa biurtzen ez ba'zara, zelan erosiko daustazu zure Lenengo Jaurtzearen egunean, agindu zeustan inguru oneitako etxaldea...? Ez al-zara oriotzen...?

—Bai, Mikel, baiña anditu-ala, gero ta zaillago ikusten dot ori. Dana-dala, egunen baten aal izango ba'neu...

—Oba ameskeri ori burutik kendu dagizula bein betiko. Umeta-roa laster itziko dozu atzean, aldiaren bidean neska dotorea biurtzeko. Nik, ostera, betiko morroia izaten jarraituko dot.

—Mikel, zu ez zara morroi izateko jaio, ez orixe...!

Mutillak Edurne'ri begiratu eutsan, eta zirrara batek barne-muñetaraiño astindu eban. Neskatoaren begi ederrak malkoz beterik agertzen ziran. Illuntzea izan arren, etxeko kutunaren aurpegian beera malko dizdiratsuen ildo bi agiri ziran. Mingarri yakon Mikel'eri neskatoa edu onetan ikustea, eta beiak jatsi bear ebazala atxakiaz, kortara sartu zan.

Urrengo goizean, Gorri gurdira buztartuta egoan, kale-janzkiaz Edurnetxu agertu zaneko. Etxekoandreak estu-estu besarkatu eban bere kutuna, eta onen bide-zorroa gurdian jarrita, Mikel'ek ugalak erabillezala ta etxejoauna erdian jesarrita, bidean beera abiatu ziran.

Errirantz joiazala, ez eben berba askorik egin, bakotxa bere gogoetan murgilduta joian-eta. Mendibe'tik Gernika'ra joiazala, aitak neskatoarekin izketan asi gura eban, baiña alabea aldarte onean ez egoala ikusirik, berba egiteari uko egin eutsan, eta irurok isiltasun betean Gernika'rakoa egin eben.

Geltokira eldu ziranean, Mikel neskatoaren bide-zorroa artuta, ugazaba ta Edurnetxu'ren atzetik espaloira joan zan. Txartelak erosi bear ebazala-ta, Martin leiatillara joan zan, eta Mikel neskatoarekin bakarrik geratu zan. Malkoen laiñoa begietan igarten yakon Edurnetxu'ri, eta egoera larria zeozer arintzearen, Mikel'ek egun eder aretako eguraldiari buruz jardun eban, neskatoaren aurpegiari begiratzen azartzen ez zala.

Noizbait, Bilbao'rako trenan eldu zan, eta bide-zorroa artuta, Martin bagoira igon zan. Orduan, barruko bultz jarki-eziñak eragin-

da, neskatoak Mikel'en eskuari eutsita, begi ederrak morroiarenetan josirik, auxe esan eutsan:

—Agur, Mikel, gogoan beti izango zaitut.

Trena ibiltzen asi zan, eta espaloian igitzeke jarraitu eban Mikel'ek, begimenetik galdu zan arte. Gero, iñoiz ez ezagaturiko naigabezko sentipenez, Intxalde'ko morroia etxera biurtu zan.

Gabean biurtu zan Martin, eta lekaimetxeko gora-beerak emon eutsazan Errose'ri. Baiña egun aretan bazirudian ituntasun bakana Intxalde'z jabetu izan zala. Alako baten, barruko naigabea menperatu eziñik, Errose'k negarrari emon eutsan, auxe iñoala:

—Gure kutun maiteak, zer egingo dau bakarrik, etxetik urrun...?

—Ez zaituz larritu, Errose —esan eutsan Martiñ'ek—, Lekaimeren ikastetxe ori onenatarikoa ei'da, eta aldiaren bidean ez dogu damurik izango. Eziera ona artuta, gure alabea gazte karreradun batekin ezkontzeko gai izango da, diru-mordo bataz lagunduta izatekotan batez be. Nasaitu zaituz, beraz, etorkiak esango baidausku egunen baten zuzen gengozala gure kutuna ikastetxe on batera sartzeagaitik.

—Olan izango da, Martin, zuk diñostazun ezker, baiña gure Edurnetxu barik, etxe onek argitan asko galdu dau, eta aurrerantzean abi utsa lakoa egingo yaku.

—Baleiteke ori asikeran batez be, baiña gero ta pozago aurkituko zara, gure alabearen onerako izan dala gogoan artuta batez be.

—Ez dakit, Martin, baiña gure Edurnetxu gogo barik joan da, eta zuk ondo dakizu ori. Intxalde'ko zabaldira oituta, oraingo ikastetxea kaiola baten antzekoa billakatuko yako... Orrezaz gaiñera, etxean laguntza andikoa asten zanean, alde egin bear be... Baiña ez, ez naiten nirekoia izan, bere onerako izatekotan, ala bedi...!

Ordutik, astero, Edurne'k etxera idazten eban, eta gurasoek idazteko baldarrak izanik, Mikel'eri etorkion neskatoari erantzutea, eta etxekoan barriak emotea be. Morroiarentzat au guztiz atsegiña zan, eta beti irrikan egoan noiz Edurne'ren barriak etorriko litzaketzan begira. Martiñ'ek eta Errose'k esaten eutsoena jarten eban, eta gero bere kabuz, neskatoari atsegin izango yakonari buruz idazten eutsan, eta olan bazirudian alkarrekandik urrago egozala.

Iru aste igaroak ziran Edurnetxu joan zanetik, eta Urrilla'ren azken Igande aretan, Mikel Intxalde'ko atadian egoala, len aipaturiko senar-emazteen arteko autua gogora etorkion, eta izan be, etxekoandrea zuzen egoan, etxeak iñoizkorik itunen emoten ebalako. Zorionez, Intxalde'n bazan zeri eldu, eta egun osoan arazopetuta

egoteak gogoeta illunak uxatzen eutsazan. Onezaz gaiñera, bazan beste zer bat Mikel arrenkuraz beteten ebana: gudaritza, alegia. Urrengo urteko asiarean, Intxalde itzi bear izango leuke, oraindiño ez ekian nora, baiña laster gudalgaien zozketea gertatzeko zan, eta orduan egokiozan zertzeladak jakingo leukez. Batzuen aburuz, gudaritza gauza onuragarria zan, baiña geienen eritxiz asti-galtze ta ekandu onen etsai andia be bai. Mikel'ek ez ekian zergaitik, baiña gudaritzari ezkutuko bildur eutsan.

Azilla'ko Igande baten, bazkal-ostean errira jatsi izan zala lagunaren artean ordu batzuk emoteko, egun aretako goizean Bilbao'n gudalgaien zozketea izan zala jakifera eutsoen, eta bere abizenari lur-gudaritza egitea etorri izan yakola, eta pozik egoteko zala itsalaritza jaurri ez ekion, ostantzean urte biko zerbitzua etorriko litzakion.

Urte aretako egunak laster igaro ziran, eta Gabonilla aurretik Urtarrilla'ren 1'gnean, Urtebarrian beraz, Bilbao'n goizean gerturik egoteko mezua, artu eban erriko udaletxetik. Madrid'en bertan jardungo leuke, eta oneri buruz zeatzak emoten yakozan.

Gaboneko aurregunean, eta bere etxekoan artean urteko azken egunak igarotearren, Intxalde izteko zorian zala, Martiñ'ek urteko saria emon eutsan, eta diru guzti au jaiotetxeari laguntzeko zan ezker, onezaz gaiñera, gudaritza-aldirako eskupeko ona emon eutsan.

—Agur, Mikel —esan eutsan ugazabak—, tamala yauat etxetik ire joan bearra. Aske az Intxalde'ra biurtzeko ala ez, baiña jakin eik etxe onetako ateak iretzat beti zabalik yagozakala. Agur eta biotz on...!

Benetako tamala eutsan etxekojaunak morroiaren alde-egiteari, alako mutil zintzo ta langillea nekez idoroko litzakela ondo ekialako. Gaiñera, igarotako bederatzi urte areitan, berak oartu barik, Mikel gero ta biotzeanago sartu izan yakon.

Errose'k bidegiterako janari-zorrotxu bat emon eutsan, eta gero estu-estu besarkatu eban auxe zirautsala:

—Agur laztana, orain arte lez ona izaten jarraitu eik. Ez edan eta gorde zure burua lagun okerrakandik urrun. Agur Mikel, etxe onetan ire begira egongo gozak biurtu aiten arte.

Eta negarra ezkutatzearren, Errose sukaldera sartu zan. Izan be, Mikel etxe aretara morroitzat sartu zanetik maite izan eban, eta orain Intxalde'tik urrun joiala, semea bai'litzan maite ebala konturatzan zan, eta sukaldeko aulki baten jesarrita, negar mingotsari emon eutsan.

Gau aretan, Mikel Enkarterriko bere jaiotetxera eldu zan. Arre-

rarik onena egin eutsoen etxeok, urtebetea bazan azkenengoz etorri izan zala-ta. Bere arreba bik Bilbao'n neskametzat ziarduen, eta anai nagusia laster eskontzeko zan. Ain zuzen be, jaiotetxeak aldakuntza ona erakusten eban, eta aitari auxe aipatu eutsanean,

—Gure etxeko egoerea —esan eutsan aitak—, antxiña baten baiño askozaz ohea da, seme, eta izan be, neurri andi baten zure laguntzari zor dautsagu. Urterik-urte etxaguntza onen alogerea ordainduz gaiñera, aurrezki batzuk egin doguz, eta au dala-ta, piñudi orren atzetik dagoan erri-larradi ederra udalari erosteko gai izan gara, eta orain zortzi esne-bei azten doguz. Nik beti lez Aranguren'go papergintzan diardut, eta zure anai nagusiak etxea darabilan ezker, gure etorriak gorakada andia artu egin dabe. Datorren urtean zure anaia ezkonduko da, eta luzaro barik, nik uste, etxaguntza guztia erosteko gai izango gara, ugazaba saltzeko gerturik dago-ta.

Biaramonean, aitak esana benetakoa zala, Mikel'ek berak egiztatu aal izan eban. Bere anaiarekin, soloak, abelgorria, eta aurte-mein erositako larradia aztertu ebazanean, eta aldiaren bidean bere anaia baserritar zuurra ta langillea billakatua zala ikusirik, poztasunez bete zan. Izan be, luzaro barik etxaguntza erosteko gai izango litzakela agiri zan, eta orduan Mikel'ek ontzat emon ebazan Intxalde'n jasandako aalegiñak, lortutako ondoreak ikustean.

Orren pozik ez egoan, baiña, Yosune bere ama. Alde batetik arro sentitzen zan bere seme kutuna ain sendo ta ederra ikustean, baiña onen etorkiak arrenkuraz beteten eban. Etxera eldu ta egun bitara, au da, Egubarrian, Mikel sutondoan egoala, arratsalde otza zan-eta, Yosune bere ondoan jesarri zan, eta maitasunez begiztazten ebala,

—Aizu, Mikel —esan eutsan—, ikusi aal izan dozunez, oraingo gure egoerea ona da, eta ez gara etorkiaren bildur. Amar urte dira etxe onetatik joan zintzazala, eta mutil txairo, indartsua, biurtu zara, gitxitan ikusten diranetakoa. Arrenkuraz beterik nozu, baiña, seme, zure etorkiari buruz, orain arte zure buruarentzat gitxi egin dozulako. Morroi joan eta morroi etorri. Zeintzuk asmo dozuz, gudaritzatik biurtu zaitezanean...?

—Arazo orrek ez daust buruauste andirik emoten, Intxalde'ra, lengo lekura biurtzeko asmotan nozu-ta. Ona etorri baiño len, ugazabak pozik artuko nauala esan daust.

Yosune'ren aurpegian zear itzal baten aztarna edatu zan, eta mintzo atsekabetuaz,

—Baiña Mikel —esan eutsan—, ori ete da zure bizitzaren elbu-

ru guztia...? Gitxi gora-beera ogei ta iru urtekoa izango zara andik biurtu zaitezanean, eta garaia da zure etorkiaren jabe izan zaitez.

—Ez zaitez larritu, ama, egunen baten nire norabidea idoroko dot.

—Zure aldetik bideak ipinten ez ba'dozuz, txarto ikusiko dozu zure burua. Geuk, amak, semeak munduko onenetarikotzat zaituegu, baiña bene-benetan, Mikel, iñoren morroi izateko ez zara jai. Ondo ezagutzen zaitut, eta iñor gitxik dagike zurekin burua bat egin, ez adimen-argitasunean, ezta ontasunean be.

Mikel'en ezpanetan irribarre bat agertu zan, eta amari maitasunez begiratzen eutsala, auxe esan eutsan:

—Amak beti amak orain eta beti. Ez zaitez larritu; oraindiño gazte naz, eta egunen baten nire egitekoa argiro ikusiko dot.

—Aizu, Mikel, gudaritzatik biurtzean, zatoz artez-artez etxe onetara, eta orduan danon artean zuretzat egokiena ikusiko dogu. Entzun...?

—Bai, ama, biurtzean nire lenengo ikerpena zuentzat izango da.

Zeozar nasaituta, Yosune bere zeregiñetara biurtu zan, amaika asmo seme kutunarentzat buruan erabillezala.

Urte aretako azken astea iñoizkorik zorientsuena izango litzakelan, Mikel'en urrutiratzeak guztien gogoetan ituntasunaren itzala jarri ez ba'leu.

Urte-barrian, bazkalduta gero, etxeko bide-zorro zaar baten aldagarri batzuk sartuta, etxeokandik agertu zan. Anaiari besarkada estu bat emonda, amari beste estuago bat emon eutsan. Yosune'k ezin egikien malkoai eutsi, eta negar baten auxe esan eutsan:

—Agur Mikel, neure maitia. Zaindu zure burua, eta garbi iraun bai soiñez bai gogoz. Uri andi batera zoaz, eta alakoetan galtzori asko dago. Ezagutu ez dozuzan zirikaldu edo tentaldiak erasoko dautsue, seme, eta sendo ta zintzo iraun dagizun, zure alde otoi egingo dot egunoro. Zeuk be lotara baiño len, esan iru Agur Maria, zeruko Amak jagon zagizan. Lagun gaiztoakandik iges egizu, eta zer esanik ez neska lotsabakoakandik be. Agur Mikel maitia, eta egunen baten Jaungoikoak emon bekizu merezi dozun zoriona.

—Nasaitu zaitez, ama. Zure burubideai jarraituko dautset.

—Beste gauza bat, seme, noizean bein idatzi etxera asko esateko ez bazenduke be. Eutsi pardeltxu au; janari-apur batzuk sartu dodaz biderako.

Azken besarkadea alkarri emon eutsoen, eta Yosune negar

baten geratu zan atadian, semearen irudia biurgune baten atzetik galdu zan arte. Gero, ibilte neketsuz etxera sartu zan.

Aitak lagunduta, Mikel tren-geltokiraiño jatsi zan, eta laister, ondo ezagutzen eban Enkarterriko zabaldean zear abiatu, eta illunduta Bilbao'ra eldu zan. Astirik galtzeke lpar-geltoki izenaz ezaguturiko lekura joan, eta emen sargento batek zaindutako gudalgaitalde ugaritsuari batu yakon.

Gau-treanean Madrid'era joateko ziran, eta urten baiño len, gudalgai bakotxari janari-latontzi ta ogi bana emon yakozan. Noizbait, bagoi bereizitan egokiturik, egorantz abiatu ziran.

GUDARI-ALDIA

Ordua eldu zan apaltzeko, baiña Mikel jangartsua aurkitzen zan, eta alboko lagunek etenbarik berbetan baziarduen be, berak isillik zirauan oroitzetan murgildurik. Noizbait Miranda'ra eldu ziran, eta emen trena gelditu zan Errioxa-Aragoi aldetik etozanak artzeko. Laster egokitu ziran gudalgai barriak, eta areitariko bat Mikel'en ondoan jesarri zan. Jarraigoa abiatu zan barriro, eta etorri-barriak, antza, ezin egikean isillik luzaro iraun, eta,

—Oye, paisano, de ande vienes? Mecagüen tal...!

—De Bilbao

—Pues yo soy de La Rioja. Vaya fastidio, ahora a comer chuscos hasta que se nos caigan los dientes, ay que ridiez mecagüen tal...! Traigo una galipa que me comería un burro yo solico con albarda y tóo. Oye compañero, no tendrás algo de jalar por ahí...?

—Que te quieres desir...?

—A ver si tiés algo pa dar de jamar a este cura, paisano...!

Orduan Mikel'ek ulertu eutsan, eta janari-zorrotxua artuta, biok jateari emon eutsoen. Jaten asi baiño ez,

—Esto está de chipén, compañero —esan eutsan besteak—.

Pero güeno ya es hora de que nos conozcamos. Yo soy Adrián Rioja, pero en mi pueblito todos me llama El Txupi y pa mí será un honor que tu también me llames igualico, que ridiez...! Güeno, creo que debo explicarte primerico lo de El Txupi, lo cual te dará un ideica esata de un seguro servior. El caso es que en las fiestas de mi pueblo y en las de los alredeores, tóo quisqui me llama pa ir de chupinero, que aunque paizca cosa fácil, no lo es tanto, ridiez...! El caso es que lo paso cañón, pues me dan de jamar y además unos cuantos rialicos pal bolsillo, que el secretario del menucipio dice que son

pa gastos de representación. Pero a lo que íbamos, tuerta, pero por onde andaba yo...? Ah sí, lo de los cuetes. La verdá es que hay que saber echarlos, y el inorante que no sabe lo pué pagar caro, que ridiez...! Como le pasó al arcade de mi pueblo, que un día se empeñó en tirarlos él, y el caso es que uno se le encabronó, y le llevó dos dedos, y además le escoñó el puro Farias que llevaba pa atizale la lumbre. Y es que, mocé, aunque paice fácil, hay que cogerle el tien-to, que ridiez...! El caso es...

El Txupi, barritsu itzela baizen sabelandia zan, eta itz egin bitartean, Mikel'en ogitartekoai adore andiz eraso eutsen, eta asetu zanean, zigarro bat piztu, eta bere gora-beera zeatzak emoteari jarraitu eutsan. El Txupi, Naparra'ko mugatik ur egoan Errioxa'ko erri txiki batekoa zan. Gaixoak ez eban ezagutu gurasorik, eta erri-ko laguntzaz lurgin baten etxean lanean asi zan. Anditu zanean, eta iñoren agintzapean bizi nai ez eban ezkeru, bere kabuz lanean asi zan, eta esku trebekoa izanik, amaika konponketa egiteko gai zan, eta edozein etxetan tximistalaritza edo burmegintza-lanak egiteko ziranean, gure mutilla deitua izaten zan. Onezaz gaiñera, len aipatu dan lez, errialde aretako jai guztietara zirikolaritzat ziarduan. Etxe uts bateko ganbaran etzalekua eban, eta beraz, bere buruaren jabe bizi izaten zan, txoriak baizen jarei.

Bere gora-beeren edeskia amaitu ebanean, El Txupi'k auxe itaundu eutsan:

—Y Tú, paisano, de ande eres...?

—De un pueblo de Bizkaia.

—Ya se te conoce ya, quieres un vascuence, ridiez...! A mi pue-blico vino una vez un paisano tuyo, a arreglar el campanario de la iglesia, que estaba escoñao, y ridiez lo que nos costaba entendeile. Solfa icir: "Hoy te va a venir trumoi y tximistas con kaskabarra gran-de como nuses".

Orduko, egun aretako gora-beerakaz nekatuta, Mikel lo geratu zan, bagoiaren bilin-bolakak batetik bestera kulunkatzen ebela.

Goizean Madrid'era eldu ziran, eta sargentoak gudalgaiak ja-tsierazo, eta binako errenkada baten eratuta, bakotxak bere bide-zorroa eroiala, geltokitik urten ziran. Kanpoan berebilbus batzuk euren begira egozan, eta areitara sartuta, Madrid-inguruko gudalte-gi batera abiatu ziran. Uriko kaleak berebillen joan-etorriaz beterik egozan, eta andik ordubete batera-edo, gudaletxe andi zaar batera eldu ziran; oiñezkoen edo infanterikoa zan, eta axe izango litzake Mikel'en urtebete ta erdirako egon-lekua.

Gudaletxea lauki erakoa zan, eta erdian larrain edo patio eder andia egoan. Lauki orren iru aldeetan etxe luze bana ikusten zan,

eta laugarrena, au da, aurrekoa, atadi andi batek erdibitua zan. Ata-ditik ezkerretara zaintza-gudarietzako egon-lekua ta zigortuen espetxea egoan; eskumatara buruzagien gelak eta idaztegi oroko-rra. Etxe bakotxa iru maillakoa zan, euneko edo konpañia bana kokatzen zala. Gudaltegi aretan errejimiento bat egoan koronel baten agintzapean. Errejimiento ori gudatalde edo batalloi bik oso-tzen eben, bakotxa komandante edo taldeburu baten agintzapean.

Gudalgaiak eldu ziranean, larrañean lerroka eratu ziran. Guz-tiz, eun eta ogei bat izango ziran, eta amabosteko zortzi talde txiki-tan, euneko bakotxean banandu ziran. Mikel laugarren eunekora bialdu izan zan, eta zurubian gora joiala, baten batek jaketik teink egin eutsan. Biurtu zan, eta aurpegia irribarre zabalaz argituta, El Txupi ikusi eban.

—Ridiela —esan eutsan errioxatarrak—, paice mesmamente que haimos de andar junticos, mocé. No sabes cuanto m'alegro, me cagüen...!

Laugarren eunekoa, bigarren soruko areto andi, eder eta gar-bia zan. Sarjento batek "a formar!" esanez, lerro bitan jarri ziran. Gudari batzuk gudalgai bakotxari jantzi bana, zegokion aldagarrie-kin emon eutsoen. Negua zan ezkeru, janzki lodiak ziran, eta one-zaz gaiñera, soingaiñekoa, txapela, eta oiñetakoak, bakotxari etor-kion oe-ondoan jarrita emon eutsoen. Gudari-janzkiak ipiñita, kale-soiñekoa arasa estu baten sartu, eta giltzaz itxi ondoren, bakotxak bere giltza sakelean sartuta, beste egitekoen zain geratu ziran.

Gora-beera oneik jazo bitartean, eguberdia egin zan, eta turu-ta-jote batek otordua iragarri eban. Etorri barriak gudari zaarren atzean jarri ziran, eta sarjento baten agintza-oiua aditurik, zurubian beera beetxean egoan jatoki zabal batera sartu ziran, kabo batek agindu eutsen lekuan jesarriz. Bazkaria lapikoko bat azasi zan, eta gero sukalkiaz jarraitu eban. Jakiak ez ziran txarrak, baiña lagun askorentzat gertatzen dan janariaren txastapen berezia eben. Ontasuna erdipurdikoa bazan be, ugaria zan, goserik ez jasatekoa, izan be. Mai-azkentzat urresagar bana izan eben. Arratsaldean ordu ta erdiko atsedenaldea gudari guztiek izan eben, eta onen ostean, barriai, su-iskilloa, puntzeta, eta ugalak sargento batek emon eutse-zan.

Seiretan inguru, zerbitzubako izanik oraindiño, gudari barriak ordu biko epea aukeran erabilteko eskubidea eben. Geienak oster-atxu bat egiteko urten ziran, onein artean Mikel zala. Batzuk erri-berebilla artu eben uriko erdigunera joateko, eta beste batzuk oiñez abiatu ziran, asmo bereizirik ez eben-eta. Mikel'ek egurasketea

naiagoa eban ezker, oinkarien talde baten Madrid'eko inguru-kaleetatik sartu zan, erdigunera astiro-astiro urreratzen zala.

Olan joiala, norbaitek esku-zartada bat emon eutsan sorbal-dan. Biurtuta, El Txupi ikusi eban, eta,

—Mecagüen —esan eutsan errioxatarrak—, ya mi ha costao ya encontrarte, amigo vascuence. Oye, mocé, no tendras entavía alguna miajica d'aquel choricico tan güeno que nos zampamos ayer en el tren...?

Mikel'en ezetza entzutean,

—Pues es una pena, que me cagüen tal, mocé. La manduca del cuartel no estao tan mal, pero a este cura, digo a un servidor, el bandullo ya le está pidiendo más. Vaya vacaciones nos esperan, ridiez...!

Arratsalde aretan, El Txupi Mikel'en itzala biurtu zan. Ordubate bat igarorik, lagun biok biurtu ziran. Ardandegi baten aurretik igaroten zirala,

—Que te paice, mocé —esan eutsan errioxatarrak—, que entremos adrento p'a echar un traguico...?

Egarri ez zala Mikel'ek erantzun eutsan, eta ebazan diru urriak ganora andiagoko zerbaitentzat izango litzakezala. Ibilli ebiltzala, espaloiarene ondoan egoan kapar-dendatxu baten aurretik igaro ziran, eta guztitariko edariak salgai zirala ikusirik, El Txupi an egozan beste gudarien artean geratu zan, Mikel aurrera joiala. Alako baten, bere ondoan errioxatarra ikusi eban, eskuan ardao erdi-bete bonbil bat ekarrela. Mikel'ek arrituta auxe esan eutsan:

—Pero no has dicho, pues, que no tenías diñeros...? Como te traes eso ahora pues...?

—Lo he afanao a ese tío del tenderete.

Eta au esanik, bere biziko zurrutada bonbillari emonez, gertzen zan ardoa Mikel'eri eskiñi eutsan, auxe zirautsala:

—Quieres un tragico, mocé...? Pa icir verdá de vino tinto solo tiene el color.

—No, gracias —erantzun eutsan Mikel'ek—, pero por lo que te ha costao, no se puede pedir mucho más.

Ese j... tendero m'a estafao. Ay que ridiez, macagüen...!

Orduko, bere lagunaren berba zakarrak zirala-ta, Mikel ase egoan, eta auxe esan eutsan:

—Mira Txupi, si quieres ser amigo mio, déjete ya de palabrotas que no te quiero aguantar.

—Pues si oyesees chamullar a los de mi pueblo, cañones...! No hay en cinco leguas a la reonda más gracia pa icir las cosas, meca-güen...!

—Pues mírate, si no dejas de “afanar” a la gente, ni hablas mejor, búscate otro compañero.

—Güeno vascuence, no seas tan santico, ridiez...!

Autu onetan gudaletgira eldu ziran, eta andik laster, sarjento batek izenak irakurrita, eta kabo batek erantzunbako izenak artuta, jakokira joan ziran, eta suku ta arrainkia janda, baita sagar bana be, euntegira biurtu, eta oeratu ziran. Gabeko amarretan turutaren isil-jotea aditu zan, eta autu guztiak eten eginda, lotan asi ziran, besterik entzuten ez zala, gelako gau-zaindarien joan-etorrien oiñots mote-lak baiño.

Goizeko zazpiretan turutaren itxar-soiñua aditu zan, eta guda-riak jagita, garbitu ta jantzi ostean, jakokira jatsi, eta akeita-esne kati-llua ogi-opil batekin artu ondoren, barrero biurtu ziran euntegira. Mikel'ek ondo lo-egin izan eban, eta au zala-ta, adorez beterik oar-tzen zan.

Andik laster, ugalak ipiñita, sarjento batek errenkada baten binaka jarri zeitezala agindu eutsen gudaletgira. Gero, anditasuna-ren arauz eratu ebazan, eta Mikel garaienetakoko bat izanik, aurreko lekua etorri yakon, El Txupi azkenen artean izanda. Jarraian larrai-ñera jatsi ziran, eta emen sarjentoaren zaintzapean, lau kabok lenengo gudari-ikasketak emon eutsien, asarre-didarren eta amaika aifñenen artean.

Asikerean Mikel larritu zan ainbeste oiñu ta berba lodiak entzu-tean, baiña egunen bidean oitu zan, eta ez eutsen jaramon andirik egin. Eta olan egunik-egun, gudaletgira errenkada zuzena eratzen oitu ziran, eta gero eskuak ondo igituz, txairo ibiltzen ikasi eben, bai-ta sarjentoaren agintza-didar pean, ezker-eskumatara biurtu, baita itzulpen osoa egin be. Bazkal-osteko atsedendia amaituta, eune-kotegian bertan, sarjento batek abozko ikasketak emotsezan, su-iskilloaren zatien izenak irakasten eutsezala, esku-lerkaieen erabil-pena, gudari baten betekizunak aberriari buruz, buruzagiak eta iku-rraña zelan agurtu, puntzeta zelan erabili, zaindari egozanean zein-tzuk ziran gudari baten egitekoak eta debekuak, baita neurri oso urrian bere eskubideak. Arratsaldeko seiretan, egurasteko jotea aditzen zan, eta gudari geienak kale-janzkiak ipiñita, ordu biko urte-naldia euren aukeran emoteko izaten eben, Madrid'eko erdigunera joiazala geinetan. Zortziretan turuteak etxera-deia jotzen ebanean, gudari guztiak gudaletgira egon bear izaten eben, bakotxaren eunekotegian izen-deiari erantzuteko. Berandu eltzen zana zigortua izaten zan atzerapenaren giñoan.

Amabost egun igarorik, su-iskilloen erabiltearen ikasketak asi ziran, eta olan igarri barik, iru illabete igarorik, ikastaroa amaituta,

jaiegun baten gudaigai ikurriñari zin egitea etorri yaken, eta ordu-
tik gudariak billakatuta, biziera barri bat asi yaken. Oiko eginkizu-
naz gaiñera, eunekotegiaren garbiketea, sukalde lanak, lorketak eta
gudariak egokiezan beste betekizunak egin bear izan ebezan;
augaitik, gudaitegian bertan eta gudaletxetik urrun ez egoan espe-
txe bateko zaintza-zerbitzuak, astean bein egiten beartuak izaten
ziran. Zerbitzu oneik ogei ta lau orduz irauten eben, eta sei orduo
ordubete biko begirari-aldia etorten yaken arau zorrotzpetan, iski-
lloak su egiteko gerturik ebezala.

Ordu biko begirari-aldi oneik Mikel'eri aspergarri ta luzeak egi-
ten yakozan. Ereti oneitan bere gogoak Intxalde'ra egan egiten
eban, Mendibe'ko inguru eder-ederrak burutik kendu ezin, eta ain
sakon biotzean sartuta ebazan Intxalde'ko bazter zoragarriak batez
be. Etxe aretan zoriontsua izan zan, eta galdurikoak, orain erakar-
pen lilluragarriaz dei egiten eutsan. Baiña oroz gain gomutara etor-
kiona Edurnetxu'ren oroitzza zan, bere kutun eta ikasle zoragarria...!
Begirari-aldi areitan oroimenera amaika gomuta samur yatordazan,
eta etxe-min bizi-bizia bere izatez jabetzen zan; baiña oraindiño,
ondikotz...! bere gudaritza asia baiño ez zan, eta ia urtebete ta erdi
itxaren bear ain maite izaten eban Intxalde'ra biurtzeko. Gero, Edur-
ne'ren irudia agertzen yakon irribarretsu so egiten eutsala bere ain-
geru-begiakaz. Orain Bilbao'ko ikastetxe dotore baten, andereiño
bateri egokion eziketea artzen eban... bai, egunen baten lore ederra
biurtuta, berarentzat gurasoek asmatzen eben gazte karreradun
batekin ezkonduko litzake. Oldozkun au etorkionean, bera oartu
barik, sentipen bakana beratzaz jabetzen zan, itun eta zoribakoa
sentitzeraiño.

Oneik izan oi ziran begirari-aldi guztietan Mikel'eri geien eraso-
ten eutsoen oldozkun gazi-gozoak, egunak guztiz astiro igaroten
zirala. Batzutan, goizean goizik jagi-erazota, eunekoko lagunekin,
kapitan zaldidun baten agintzapean, ogei ta amar kilometro inguru-
ko ibillaldia egiten eban zabaldian zear. Bere Gernikalde'ko itxuratik
oso ezbaridiña bazan be, ibilketa areik oso atsegiñak gertatzen
yakozan, eta nekatuta biurtzen bazan be, era berean pozik oartzen
zan, eta gogokoak yakozan iñarkun areik egiteko beti gerturik egoan.

Arratsaldeetako egurastuetan, Madrid'eko erdigunera joan
bearrean, zabalditik osteratxu bat egitea naiago eban, eta aal eban
guztietan, bere euneko euskaldun batzukin, bi edo iru baiziran, bere
jasekoa zan Markiñalde'ko batekin batez be. Batzutan, eta ezkurrik
bage aurkitzen zanean, talde oneri El Txupi erasten yakon, zurrut
edo ogi-tartekoren baten begira. Euskeraz jarduten eben ezkeru,
auxe esan oi eutsen:

—Mecagüen, pero que jerga sus traéis compañeros...! Con lo
facilico qu'es icir las cosas en castellano, y vosotros, ay que ridiez...!
sus chamullais como los noruegos o esos que vienen por aquí a
ver cuadricos y a tomar el sol. A lo mejor sus estais riendo de mi,
que recontra...!

Barre egiten eben Mikel'ek eta bere lagunek. Noizbait, El Txu-
pi'ren sasi-asarrea baretuta, aldarerik onenean egurastuari jarraitu
eutsoen.

Bajoiazan aurrera asteak eta illabeteak. Bein baten, gudaite-
gian zortzi bat illabete igaro ebazala, eta arratsalde bateko abosko
irakaskintza amaitu zanean, sarjento batek auxe agindu eban:

—A ver, que formen ahora mismo todos los que sean labrado-
res...!

Amabost inguruko talde bat eratu zan, Mikel tartekoa izanik.
Sarjentoak banan-banan aztertu ebazan, eta Mikel'en itxura indar-
tsuak eraginda, alde batera dei egin, eta auxe esan eutsan:

—Escuchame bien, muchacho. El comandante Llanos necesi-
ta un buen jardinero, y por medio del capitán de esta compañía ha
solicitado los servicios de alguno que entienda de esas cosas. Yo te
he elegido porque te creo el mas fuerte. A cambio de tu trabajo que-
darás rebajado de todo servicio. Pórtate bien, pues el comandante
es un hombre muy serio y exigente, y no le gustan las trampas.
Mañana te presentarás a él a las 10, y te ordenará lo que has de
hacer.

Gau aretan nekez lo egin eban, oatzean batetik bestera iraul-
katzen zala, burua gogoeta atsegiñez beterik. Itxar-jotea aditu
zanean, egun zoriontsu baten asierea zala iruditu yakon. Goizeko
amar-amarretan, aal eban apainduen, gudaitegiko idaztegi oroko-
rrean aurkeztu zan, eta ango zaintza-gudari bateri, bere etortearen
zergaitia azaldu eutsan. Zaindaria ostenduta gero, laster agertu zan
barriro, eta areto apain batera sarrerazo eban. Mai eder baten
atzean, buruzagi edo komandante Llanos egoan. Tente geratzen
zala, Mikel'ek oiko aurkezpen eta agurra egin eutsazan. Buruzagiak
begikada sarkorraz so egin eutsan, eta bereala,

—Tu eres, entonces —mintzo aginkorraz esan eutsan—, el jar-
dinero que me manda el capitán de tu compañía, no es así? Bien,
desde mañana trabajarás de jardinero en mi chalet. Soldado: me
gusta seriedad y eficacia en todo, y si cumples bien no te pesará. A
cambio de ello quedas dispensado de todo servicio a partir de hoy
mismo. Díme, de donde eres?

—Yo vizcaino

—Donde has trabajado?

—En un caserío de criao he andao.

—Bien, ahora escúchame.

Jarraian, bere bizi-lekura eltzeko, Llanos buruzagiak guztitari-ko argibideak emon eutsazan. Lenengo metroa edo lurpekoa artu bear eban Madrid'eko egaletaraiño, eta emen erri-berebil bat amar miñutuz, buruzagia bizi izaten zan landetxez eraturiko auzo bateraiño. Gosaria artuta gero, egunero gudaltegitik urtengo litzake, eta arratsaldeko bostak arte lanean jardungo leuke. Gero, gudaltegiko sartze-joterarte azke izango litzake, aldia bere aukeran emoteko.

Arratsalde aretan, oiko egurasketea egiteko urten zanean. El Txupi ondoratu yakon, eta.

—Ya mai enterao ya, mocé —esan eutsan itxura itunaz—, que te vas p'ajardinero. ¡Ridiez que suerte la tuya, vacuence...! A mi me habia de tocar, ya, mecagüen...! Te vas a poner más gordico que l'alcaide de mi pueblo, que paice mesmamente un morcillón con patas. Mira mocé, pa ocho meses llevamos ya encerraicos en el cuartel y entavía no sé pa que c... sirve. Siempre a formar filas y a desformar con esa escopetica al hombro sin tirarle ni a una j... gonbilla. Otras veces chopo al hombro a recorrer treinta kilómetros a golpe de calcetín. Total pa ná; llegas a un puebluco, te endilgan el rancho u lo que sea, y otra vez pa casa la mar de contentos, igualico que si hubiésemos ganao la guerra. Ay que ridiez, mocé...! p'a esto mejor estaría en mi pueblo comiendo caparrones con chorizo y arreglando chapucicas.

Arratsalde aretan, zigarrotxuak erosteko ta zurrutada bat artu egian, Mikel'ek txin batzuk emon eutsazan. Intxalde'ko morroia oituretan oso neurtua zan ezkerero, oraindiño baebazan etxetik ekarritako diru gitxi batzuk, eta sarri askotan El Txupi'ri zeozer emon oi eutsan, errioxatarra errelari ta ardaozale andia zan-eta.

Egun aretan gudaltegira biurtzen zirala, Mikel'ek guztitariko burubideak emon eutsazan bere lagunari, onek biurrikeriren bat burutu egianaren bildur zalako. Gudaritza-aldiaren erdia igaroa zan arrezkerero, eta gauzak eroapenaz artzekotan, laster igaroko litzakela beste erdia be esan eutsan.

Mikel'ek bildur eutsan bere lagunaren arinkerari, eta egunen bidean sentipen ori gero ta andiago biurtzen yakon. El Txupi'k eziketaz ezibakoa umetarik artu izan eban, eta gudaritzak ekarkion joputasuna nekez jasaten eban. Txoriak baizen aske biziten oitua zan, irakatsi egioen gurasoak ezagutu barik, eta au dala-ta, bere buruaren jabe izaten eta arazoak beretara erabilten, bizitzaren oiko legea biurtu izan yakon. Onezaz gaiñera, ardaoz bustita aurkitzen zanean, asarre biziak artuta, edozein okerkeri egiteko gai zan.

Urrango egunean, eta urteteko egokion agiria sakelean eroiala, gozalduta gero, Cibeles enparantzaraiño oiñez joanda, emen esandako lurpekoa artu, eta Madrid'eko egaletaraiño. Leku onetan erribusa edo erri-berebillaren begira geratu zan, eta andik laster onetariko baten, esandako auzunera eldu zan. Leku txukun eta polita zan, gudari-buruzagientzat egiña zana bereiziki, eta ango bizi-leku bakotxa baratz batek inguratuta egoan.

Laster idoro eban Llanos buruzagiaren landetxe eguzkitsu ta zuriz margoztua. Ate-txiliñari eraginda, adiñeko emakume batek atea edegi eutsan, eta gudaria ikusirik,

—Orduan i augu etxejoaunaren zerbitzari edo asistente barria, eztok...? —esan eutsan—. Sar aite, mutil, bayagok bazterretan naikoa egiteko. Atzo bertan, negu osorako egurketea ekarri yauskuek, eta astirik galtzeke aren txikitzeari emongo yautsak. Ator nirekin.

Jarraian, etzeko atzekaldera lagundu eutsan, eta egurketea ta aizkora bat erakutsirik, lanerako janzki bat emon eutsan, eta gelatxu bat erakutsi eutsan soiñekoa aldatu egian.

Andik laster, aizkorea ustiatuz adorez baterik lanari emon eutsan, eta eguberdian inguru, andra dotore bat agertu zan, eta ebagiriko egurketea ikusirik, oneritxiz auxe esan eutsan:

—Ondo yagok, mutil. Nire senarra poztuko dok. Zorrotza ei'dok, baiña zuzena era berean. Bazkalostean, baratzaren jorratzeari ekingo yautsak. Aspaldi onetan zerbitzari barik izan gozak, eta beraz, baratza guztiz zikiña billakatu dok.

Ordu bietan neskame zaarrak dei egin eutsan bazkaitarako, eta sukaldeko mai baten inguruan biok jaten asi ziran. Asi baiño ez, neskame gazte bat agertu zan, eta eurekin jesarri zan bazkariari ekiteko. Jan bitartean, Mikel'ek aukera betea izan eban neskame biak aztertzeke, eta onein izenak ezagutzeko.

Adiñeko neskamea Juana eritxan, eta gaztea Gloria. Juana'k zerbitzarien burutzat ziarduan, eta ederra ez bazan be, oso langille ta garbia emoten eban. Berrogetak urtekoa zan, eta asikereatik, Mikel'eri atsegin billakatu yakon. Gloria, ostera, amazortzi urtedun ingurukoa zana, oso polita zan, gizonak erakarten dabezan orreitarikoa, barritsu ta alai. Begi ederrak zituan eta baekian zelan erabilli lilluragarrien agertzeko. Bazkaldu bitartean, Mikel etenbarik aztertzen eban, eta neskearen begien itxureak, atsegin aurkitzen ebala adierazoten eban, eta jateari itzi barik, onetaraxe iñoan:

—Jesús que pelmazos son los hombres. Cuando pasaba yo esta mañana por la calle Alcalá, se me ha acercao un fulano y ha empezao a endilgarme, cá cosa...! “Anda ya, le he dicho, eso se lo

dices a la gurriata de tu tía la cheposa" Pero ná, que el pollo aquel no paraba de decirme cá cosa...

—Si no mirases a los hombres como sueles hacerlo —Juana'k eten egin eutsan—, no te dirían esas cosas, so coqueta.

—Anda, y que la ondulen, señá Juana, que tó es por el palmito que tié una serviora, ¿verdad que si, chavea? —eratsi eban Mikel'eri saieska begiratzten eutsala.

Mikel'ek ez eutsan erantzun, eta begiak mai-gaiñean josita, jateari jarraitzen eutsan.

—Mira Gloria, no seas insustancial, y deja al chico en paz —esan eutsan Juana'k—, que no es de los que tu estás acostumbrada a tratar.

—Jolina, ni que fuese el marajá de Kapurtala. Sepa usted señá Juana, que una serviora de usted, esta acostumbrá a tratar con gente de mucho respe! Pues vaya...!

Edu onetan jarraitu eban bazkaria, eta amaitu zanean, Mikel'ek ebagitako egurra metatu, eta jarraian, baratzeko jorratzeari emon eutsan. Etxeko atzekaldean, lur-sail bat ortuariatzat mugatua zan, eta atxurra ustiatuz jorratzeari emon eutsan. Bostetan inguru, eta eguneko betekizuna amaitu izan zala, joan zeitekeala esan eutsan Juana'k.

Mikel janzkia aldatu, Madrid'era biurtu, eta emendik gudaltegi-ra oiñez abiatu zan, eguraldia ederra zan-eta. Orduetik, aspaldi zoragarria asi zan mutillarentzat. Etxe aretan zenbat-gura janari bere aukeran eban, eta onezaz gaiñera, baratzeko lana berarentzat erraza ta atsegiña zan. Llanos buruzagiaren emaztea txit arraia zan, eta bai beronek bai Juana giltzariak oso ondo erabilten eben.

Llanos senar-emazteak ez eben seme-alabarik, eta au zala-ta, sarri askotan etxetik-at jarduten eben, gizarteko biziareari emonda. Etxeko agintzea, beraz, Juana'ri etorkion, eta zerbitzari onek, egokion betekizuna, ondo bai ondo egiten eban.

Goizero, Gloria zeira joan oi zan eguneroko erosketea egiteko, eta eguberdiko etxera biurtzen zan. Iru zerbitzariak bazkalduta gero, ugazabai bazkaria mairatzea Gloria'ri egokion. Arratsalde askotan, Juana'k Mikel urira bialtzen eban mandatuak egiteko, eta olan egunak begi-keiñu baizen ariñak igaroten ziran. Askotan, Mikel'ek Gloria'ren begi andi, kiskaltsuak beragan josita oartzten ebazan, eta onek berak azaltzen ezin ekian arrenkura bakana eragiten eutsan. Neska ederra zan benetan, baiña barruko zerbaitek aregandik urrunen irauteko agintzen eutsan. Neska txatxala a, baiña, Mikel'en arduraeza ikusirik, mutillaganako gero ta erakarriago sen-

titzen zan, eta aal eban bide guztiakaz mutillaren maitasuna irrikatzen eban.

Izan be, gudaltegiako biziareaz bekaldeuta, oraingoa askozaz obea ta baketsuagoa zan, eta zelanbait Mikel bere buruaren jabe oartzten zan. Egunoroko betebearra, baratz eta lorategiaren zaintza zan. Gudalburuaren emaztea lora-zale porrokatua izanik, lorategi bikaiña jaritsi izan eban aldiaren bidean. Mikel'en egiteko beiñena, beraz, lorategia jagotea zan, eta ain zuzen be, ango larrosen edertasunak mutillaren ardurak agirian jarten ebazan. Onezaz gaiñera, ortuari be ordu asko emoten eutsazan, eta emen be, Mikel'ek bere eginkizuna ondo ezagutzen ebala nabari zan.

Eguraldi euritsua zanean, etxe-barruko lanetan ziarduan, eta bazan non eta zeri eldu etxe aretan. Sarri askotan, buruzagiaren emazteak Madrid urira laguntzailletzat eroian, erosketak etxera ekarteko lagundu egion. Emakume arraia zan, eta menpeko barik, etxekotzat erabilten eban, eta areago bere lorategia zein ederra azten zan ikusirik.

Mikel'entzat ba, gudari-aldian egoala kontuan arturik, ezin egi-kean bere egoerea txartzat artu, eta bere jardun-aldiaren erdia baiño geiago igaro izan zalaren oldozkunak poz andia ekartsan.

Bein baten, aita geisorik ebala-ta, buruzagiaren emaztea bazkal-ostean bere gurasoen etxera joateko, Madrid'era jatsi zan, trenaz ara joateko asmoz, eta berarekin laguntzailletzat Juana eroan eban geltokiraiño. Etxean, beraz, Mikel eta Gloria bakarrik geratu ziran. Arratsalde aretan Llanos buruzagia emaztea agurtzeko geltokian zan, eta illuntzerarte ez litzake etxeratuko.

Oi eban lez, Mikel'ek arratsalde aretan, baratzean oiko lanari emoten eutsan. Alako baten, etxeko leio batetik Gloria azaldu zan eta didar eta keiñuz Mikel'eri arin etorteko esan eutsan. Ezeren suzmorik bage mutilla etxera sartu, eta eskillaran gora joan zan, etxean atonketaren bat egiteko zalakoan. Gora eldu zanean, Gloria bere logelaren atean ikusi eban, eta neskea ikusi baiño ez, Mikel arrenkura bakan batek jota gelditu zan. Gloria erdi billutsik egoan, eta begiak irrikaren dizdirak piztuta, mutilla agertu zanean besoetara oldartu, eta musuka asi yakon, auxe zirautsala:

—Ven querido, pasa adentro y verás que bien lo pasamos tú y yo.

Ustekabez, Mikel'ek dana argi-argi ikusi eban. Bere bizitzaren lenengoz emakume batek zurikerietara eragiten eban, eta sukar antzeko zeozer bere izate guztiaz jabetzen asten zan. Une aretan bertan, zelan ez ekiala, Edurne'ren begi garbi ederrak laiño baten

artean agertu yakoan, eta bere amaren itzak aditu bide ebazan, soñez eta gogoz garbi irauntzeko zirautsala...

Mikel'ek orduan, neskearen besoai eutsi, eta beragandik erauzita, bultz indartsuaz uxatu eban. Alboka egíñez, Gloria oe-gaiñean jausi zan, eta amorruz irakiten auxe oiukatu eutsan:

—Conque me desprecias eh...? Te juro que te pesará lo que me has hecho, santurrón de la m...!

Mikel zurubian beera ariñeketan jatsi, eta baratzeko lanabesak artu ta gordeta, gudari-janzkia ipiñi, eta urira abiatu zan, jazorikoa ameskeria izango ez ete gogoan erabillela. Ezin egikean ulertu neska batek olan jokatu egiala, eta jazorikoa irudikeriren bat izango ez ete zan, bere buruari esaten eutsan. Izan be, ordurarte eroandako bizikereagaitik, Mikel bizikaspén edo esperientzi urrikoa zan, baiña gudaltegira eldu zanetik, gauzak beste ikuspegiak aurkezten joiakiozan, eta berak bizi izandako mundu garbian, baegozala ain garbiak ez ziran gauzak be ikasiko leuke.

Gau aretan arazo batek kezkatu eban, eta auxe, alegia: Gloria'rekin jazotakoaren ostean, zelan joango litzakiozan gauzak etxe aretan; etenbarik neskearekin bizi izateko bearrak, zelako ondorioak ekarriko leuskiozan. Alperriko buruaustea baiña...

Urrengo goizean oi eban lez buruzagiaren etxera joateko zorian zala, sargento batek, auxe esan eutsan:

—De parte del comandante Llanos, que te presentes en la oficina principal a las 10.

Au entzutean, kezka bakanak jota, amarrak arte berantetsia itxaron eban, eta ordua doi-doi zala, idaztegi nagusira abiatu zan. Luzaro barik ango gudari batek auxe esan eutsan:

—Dice el comandante que pases.

Mai andi eder baten atzetik begitarte illunaz, Llanos buruzagiak idazten ziarduan, eta oiko aurkezpena eginda, Mikel zain geratu zan. Luma itzita, buruzagiaren begi oztiñek tinko-tinko begiratu eutsen, eta unetxu baten ondoren, mintzo garratzaz, auxe esan eutsan:

—Nunca me imaginé que pudieras ser tan canalla. Gloria me lo ha contado todo. Me ha informado, de cómo abusando del favor de trabajar en nuestra casa, y del hecho de encontrarse sólo, quisiste abusar de ella de la manera más ruin y cobarde. Nunca pensé que pudieras ser capaz de hacer una cosa así.

Ona elduta, buruzagia isildu zan. Ezin egikean siñistu Mikel'ek entzuten ebana, eta aurpegi zurbillaz, larritasun itzelaren pean, tartailloka auxe esaten azartu zan:

—Mi comandante, yo no...

—Cállate, miserable, sino quieres que te mande al calabozo ahora mismo...! Cuando ayer por la noche volví a casa con Juana, al llegar encontré a Gloria presa de un ataque de nervios. La pobre nos contó lo que había ocurrido durante nuestra ausencia. Al principio ya no podía creerla y Juana aún menos, pero la pobre Gloria estaba tan desesperada que tuvimos que darle un calmante y Juana la tuvo que acostar.

Isillune bat, eta Llanos buruzagiak onetaraxe jarraitu eutsan autuari:

—He pensado detenidamente antes de venir, lo que procede hacer contigo, y he aquí mi decisión: volverás a tu compañía y harás como antes el servicio corriente. He avisado ya a tu capitán de la clase de pájaro que eres, y me ha dicho que te va a hacer andar más derecho que una vela. A partir de ahora ten pues, mucho cuidado. Y ahora márchate, no quiero verte ante mí ni un momento más.

Mikel'ek barriro be zeozer esan nai izan eban, baiña buruzagiak mintzo garratzaz auxe esan eutsan:

—¡Fuera, fuera de aquí inmediatamente...!

Gertatu yakona siñistu ezifnik, eta inguruan dana biraka ebilkioia, Mikel lo-ibiltari baten antzera urten, eta bere euntegira joan zan. Larri ta lur-jota oartzen zan, eta iñoizkorik etsien, errimin itzelak menperatu eban.

Arrezkero, gudaltegiko oiko biziareari emon eutsan. Agiri zan, Llanos buruzagiak, Mikel'eri buruz agintza zorrotzak emon izan ebazala, ordutik, oiko zerbitzuaz gaiñera, zeregiñik gogor eta nazkagarrienak edozein atxakiz baetorkiozalako. Barriro be, oiko gudaltegiko ta espetxeko zaintza nekagarriari emon bear, eta onetatik aske billakatzen zanean, ibillaldiak etorkiozan, eta ler eginda gudaltegira biurtzean, jakiñerazoten eutsoen, apalostean sukaldeko tresnak garbitu bear ebazala, edo antzeko bat. Bestetan, zaldien kortako satsa batu, metatu, edo orduak eta orduak larrañean gora ta beera gudal-jardunetan emon. Barriro be egunak aspergarriak baziran be, bajoiazan aurrera, eta zazpi illabete barruan etxera biurtzeko garaia etorriko litzakio.

Benetan poztu zana, El Txupi zan. Onek, Mikel'en laguntasuna billatzen eban, eta ain zuzen be, ez Intxalde'ko morroiaren lepotik bizi izateko, ez; zoritxarrez Mikel'ek gauza andirik ezin egikion emon-eta. Baiña batzutan jazoten dan lez, biok olde oso ezbaridiñekoak izan arren, lotura bakanak alkartzen ebazan. Ain txoriburu ta eskurakaitza izanik be, errioxarrak Mikel'eri arkondarea emongo leuskion onek eskatzekotan.

Llanos buruzagienean jazorikoa Mikel'en abotik jakin ebanean, asarratu zan benetan, eta auxe esan eutsan:

—A tí había de pasarte eso, mocé. ¡Mecagüen...! Tú que comulgas toicos los días de fiesta y eres más güeno que el pan, verte atrapao y caluniao por una zorróna volatinera. ¡Ay que ridiez...! De puro güeno que eres, hasta paices tonto, mocé...

Ordutik, arratsaldeko egurastaldi urrietan, Mikel'ek geienetan lanean ziarduan-eta, adiskide biok alkarrekin ebiltzan. Aspaldi aretan, El Txupi'ren biziareari aldakuntza andia etorri yakon. Errioxarra edozein konponketa egiteko gai zan, tximistalari ta burmegilletzat batez be. Bein baten, euneko kapitanaren etxean konponketa bat egin bear zala-ta, tximistalari bat eskatu eben, eta arako bere burua eskiñi eban gure Txupi'k. Ordutik, buruzagiren batenean zeozer atontzeko zanean, ara joian errioxarra. Lan oneik eskupeko ugari ekarkioen, eta augaitik oiko zerbitzutik aske izateaz gaiñera, baebazan beti ogerleko batzuk sakelean. El Txupi'k ezin egikean dirurik gorde, eta etorri baizen laster erre egiten eban, jan-edate ugaritan batez be, eta sarri askotan txolinduta biurtzen zan gudaltegira, doi-doi azken turuta-deia aditzen zanean.

Areitariko ereti baten, oso berandu biurtu zan, eta onezaz gaiñera ondo bustita. Ate-zaindariak zaintza-buruzagiari dei egin eutsan, eta jakitun ipiñi eban. Onek orduan, akar egiñez gaiñera, iru eguneko baituraz zigortu eban. El Txupi'k, baiña, asaldatu zan, eta buruzagiari erasotekoa egin eutsan. Zaindari batzuk menperatu eben, eta jarraian giltzapetu an bertako baitegian. Errioxarrak egiñikoa oso larria zan ezkeru, urrengo egunean guda-epaiketa baten aurrera eroan, eta onen ondorioz sei illabetez giltzapetan egoteko zigorra emon eutsoen.

El Txupi gaixoak zein gudal-espexera joateko zan ezagutu arte, bertako "prevencion" edo gudaltegiko baitegian iraungo leuke. Etsiak jota egoan errioxarra, eta etorri izan yakon zigorra jakin ebanetik, gau ta egun iges egin baiño besterik ez eban buruan.

Bere lagunari jazorikoa jakin ebanean, Mikel'ek naigabe andia artu eban, eta bere aalmenean egozan bide guztiakaz atxilloari laguntzen saiatu zan. Gudaltegian bertan zaintza-zerbitzua etorkionean batez be, abagunea ustiatuz, Mikel'ek ikertu oi eban, ogitarte-koak eta kebedarra edo tabakoa emotsazala bidebatez. Bere lagun gaixoaren egoerea egiztatzean, erruki eutsan benetan, eta aal eban giñoan laguna nasaitu zeiten aalegindu zan, jasapenez artzekotan sei illabetezko zigorraldia arin igaroko litzakiola esaten eutsala. El Txupi, baiña, ez etorren bat Mikel'ekin, eta auxe esan oi eutsan:

—Mira, mocé, yo no estoy dispuesto a pringar seis meses por

haber echao un traguico de mas, ¡Que ridiez...! En cuanti que pueda me largo de aquí como los cuetes qu'echaba yo por las fiestas de San Ustauquo patron de mi pueblo, y aluego qu'elechen el guante a este cura, ¡Ya, ya...! ¡A güena hora me habian de coger, ya...!

Gudaletzeko baitegian atxillo ziranak, arratsaldeko gudarien urtenaldia turutak jotzen ebanean, ordu beteko egurastaldia izan oi eben gudaltegiko larrain baten, eta zaintza-gudariak lagundutako, batetik bestera egurasteari emoten eutsoen, bearrezko iñarkuna artzearren. Gudari zaintzailleek agindu zorrotza eben atxilloekin berbarik ez egiteko, eta oneitariko baten batek igesari emoten nai ba'eutsan, bertan-bera tirokatzeko.

Arratsalde baten Mikel gudaltegian zaindari egoala, atxillotuekin oiko egurasketea egitea jaurri yakon. Bost giltzapetuak laguntzeko, lau zaintza-gudari izendatuak ziran, eta zaindarien ingururatu, zigortuek larraiñean gora ta beera ordu bete bat emon eben. Egurastaldia amaitu zanean, kabo batek baitegira biurtzeko agindu eban, eta zaindarien inguraturiko, zigortuak gudaletzeko ate nagusiaren ondoan egoan gudal-espexera biurtu ziran. Egun aretan, Mikel zaindariatik azkena zan, eta El Txupi bere ibillerea nagituz, atzeratu zan Mikel'en ondoan billakatu arte. Alako baten, errioxarrak auxe esan eutsan:

—Escucha, mocé, en cuanti que lleguemos a la Puerta Principal, en vez de torcer pa ir al calabozo, me najo derechico a la calle como está mandao.

Mikel'ek orduan, olakorik ez egiteko arrenkatu eutsan, ezer onik ez letorkioke-ta. Baiña errioxarrak,

—Yo no aguanto mas —esan eutsan—. Si quiés me pegas un tiro en cuanti que salga zumbando por la puerta, pero yo no estoy dispuesto a seguir en el trullo, ¡Recajo...!

Autu onetan ziarduela, aurretik joizanak eskumatara jo eben baitegira sartzeko. Une aretan bertan, El Txupi ta Mikel ate nagusiaren aurrean aurkitu ziran, eta tximista baizen azkar, errioxarrak igesari emon eutsan. Mikel'ek iskilloa goratu, eta begikada-bidean El Txupi artu eban. Amabost metrora egoan atea zearkatzeko zorian zan, eta ezin egikean utsik egin, baiña... une aretan barruko zerbait bere lagun gaixoa iltea eragotzi eutsan, eta su-iskilloa aren buru-gaiñetik zuzenduta, bost bidar su egin eban. Jaurtiki edo bala guztiak kalez bestaldeko etxé bateko bigarren bizitza-maillean jo eben. Orduko, atean begirari egoana ezusteak artuta, bere iskilloa erabilli gura ebanean, El Txupi gudaltegiko kantoi batetik ostendu zan. Aren atzetik zaintza-gudari batzuk ariñeketan urten jazarkuntzari emoteko, baiña luzaro barik esku-utsik biurtu ziran.

Jarraian sortu zan astrapalea zaila da azaltzea. Zur eta lur eginda, Mikel'ek su-iskilloa eskuetan eusten eban zer egin ez ekiala. Andik laster, "mauser" a iskillotegian lagata, zaintza-buruzagiak dei eginda onen aurrean aurkeztu zan. Arazoa oso larria zirudian benetan, eta ikara bakan batek artuta, buruzagiaren gelara sartu zan. Oiko aurkezpena eginda gero,

—El asunto se te presenta difícil, soldado —esan eutsan buruzagiak—, y tendrás que comparecer seguramente ante un tribunal con carácter sumarísimo. Me parece que te va a costar convencer al tribunal de que eres inocente, y ahora voy a hacer un parte de lo ocurrido, pero antes haz una declaración completa de los hechos.

Orduan Mikel'ek gertaturikoa azaldu eutsan, baiña El Txupi'k iges egiteko asmoa iragarri eutsala aipatu barik.

Azalpenaren ostean, buruzagiak amaika itaun egin eutsazan, eta zeatz batzuk eskatu ondoren, auxe irautsi eutsan:

—Soldado, mañana o pasado mañana a lo sumo, se celebrará el consejo de guerra, y te aseguro que te va a costar convencer al tribunal militar de que fallaste con el "Mauser" a uno que se escapaba tan de cerca. Como medida provisional y hasta que decidan instancias superiores, vas a quedar arrestado en el calabozo.

Larritasun andiak artuta, Mikel espetxe illun eta izugarri aretan giltzapetu izan zan. Miñutu batzuk aurretik, El Txupi atxillo izan zan leku itun berean. Orma baten luzerean oltza bat ikusten zan, eta onen gaiñean sunda erioen lastozko lastamarraga batzuk. Oneitari-ko baten gaiñean jesarri zan Mikel, eta aurpegia eskuen artean estalduta, oldozkun illunai emon eutsen; luzaro ez baiña, andik laster gela aretako lau giltzapetuek inguratu eben, eta danek abo batez zorion beroak emon eutsoezan, El Txupi il ez egiteagaitik. Onespen onek, baiña, Mikel areago larritu eban, eta izan be, zuzen egoan. Gudalkideek eurek errioxarra berariz aske joaten itzi izan ebal eritxikoa ba'ziran, zer uste izango eben guda-epaimaikoek...?

Gau izugarria jasan eban Mikel'ek oatze gogorraren gaiñean iraulkatzen zala lo egin eziñik. Goizaldea baiño len, amestxarren artean lo urduri batek artu eban. Noizbait, Edurne'ren irudi zoragarria agertu yakon, itz gozoak esaten eutsazala, baiña gogoan ebal neskatoak zirautsana, gudaltegiko turutak jagiteko soiñua jo eban. Andik laster gosaria artzeko atea zabaldu eben, eta atxilloai katillu bete kafesne ta ogitxu bana emon eutsiezan. Mikel'ek baiña, ezin eban iruntsi ez bata ez bestea, saman eraturiko korapillo batek eragozten eutsan-eta.

Bere lau gelakideek etenbarik itz egiten eben berba zantarrak jaurtiz, eta autu ganorabakoai emoten eutsiela. Areikandik aalik

urrunen egotearren, Mikel gelako txoko baten babestu zan, erri-miñaz beterik bein eta barriro Intxalde'ko bazter zoragarriak gogora ekarrezala. Eguberdia barik, espetxeko atea edegi zan, eta gudari batek jarraitu egiola esan eutsan. Andik laster, idaztegi nagusiko ate batera eldurik, laguntzailleak sartze-baimena eskatu eban, eta Mikel komandante edo gudal-buru baten aurrean aurkitu zan.

Gizon aren aurpegiak ostasuna iragarten eban, eta zergaitia jakin barik, gizon aregana erakarrita oartu zan Mikel. Une batez, gudalburuak Mikel'en aurpegiari tinko-tinko begiratu eutsan, eta onetan irakurten ebanaz nasaituta, antza, auxe esan eutsan:

—Soy el comandante Arenas, y me han encargado que actúe como defensor tuyo en el Consejo de Guerra que te habrá de juzgar mañana al mediodía, por la fuga del soldado Adrián Rioja. Ahora dame todos los detalles de cómo ocurrió la huída, pero sin ocultarme la verdad. Yo tengo confianza en tí, y tú debes de tenerla en mí. Cuéntame pues todo tal como sucedió.

Mikel jesarri zan, eta jarraian gudalburu aren erakarpenak irabazita, gertaturikoa gora-beera guztien barri emon eutsan, gudaltegian sartu zanetik ordurarte. Llanos gudalburuaren etxean jazorikoa be aztu barik. Arenas gudalburuak noizean bein txataltxu baten zeatzen bat idazten eban. Amaitu ebanean, gudalburuak auxe esan eutsan:

—Mira, muchacho, las cosas se presentan mal para tí. Todos saben en el cuartel que tu eres amigo del riojano, y también se sabe que eres tirador de primera. El hecho pues, de que fallases a tan corta distancia presenta todo cuanto ha ocurrido como un fallo intencionado. ¿Dime, por que no le acertaste...?

—No podía, mi comandante, no podía matarle. El era un buen chico aunque no era como los demás. A pesar de todo siempre le he querido.

—Mira, Miguel, cuando te interroguen en el juicio, no digas tal cosa. Dí que estabas tan nervioso que no acertaste a ponerlo en el punto de mira de tu fusil. Eso es todo lo que has de decir, y por lo demás procura hablar poco. De eso me encargo yo. Ahora vuelve a tu calabozo y hasta mañana en que te llamarán para acudir al juicio sumarísimo.

Gudalburuak txiliña jo eban, eta lengo gudariak lagunduta, Mikel espetxera biurtu zan. Andik laster, atxillotuai bazkaria banandu yakon, eta arratsaldean oiko ibillaldia egin eben alboko larraiñean, lau zaindarik inguratuta. Ibilli ebillela, oldozkun mingotsa etorri yakon, Mikel'eri, eta auxe alegia: aurregunean bera zan zaindaritzako bat, eta orain zaindutako atxilloa biurtua zan. Ordu gitxi ba-

tzuen epean, bere bizitzari iraultza izugarria gertatu izan yakon, eta au ainbat mingarriagoa zan, ain zuzen be, kontuan arturik sei illabete barik etxera joango litzakela...

Gau aretan nekearen-nekez loak artu eban, baiña atsedengarria izan bearrean, amestxarrez jazarturiko gau amaibakoa billakatu zan. Goizeko orduak astiro igaro ziran, Mikel'ek bein eta barriro bere buruari itauntzen eutsala, zelako zigorra etorriko litzakio. Bere zerbitzaldia luzatuko leuken epaia ba'letorkio izugarria izango litzake, etxera lenbailen biurtzeko baiño beste amesik ez eban-eta. Larritasun onek jazartuta, gelako atea edegi zan, eta zaindari batek lagunduta, epai-aretora bideratu zan.

Areto ederra zan, eta eldu zaneko, beterik egoan. Maipurua, gualtegiako koronela zan. Beean, aulki banatan jesarrita, komandante bi egozan: bata Arenas zan, bere aldeze begikoa. Bestea... orduan latz-ikara batek soin osoa astindu eutsan... Nor eta Llanos gualburua...! Ezpaibarik, au salatarizat eban.

Llanos gualburuak oiko begi zorrotz gogorakaz begiratzen eutsan, aurretiaz gaizkiletzat epaitzen ebala, aurki. Zorabio baten menpe, Mikel'eri aretoa biraka asi yakon, gizon arek bidebagekeriz ekarri eutsan larrialdia gogoraturik. Zer itxaron egikean, entzun be nai ez eutsan gizon zorrotz aregandik...? Gogoeta oneitan ziarduala, maipuruaren itzok Martin bere zerera ekarri eben, auxe iñoanean:

—Levántese el soldado Miguel Aretxalde.

Aginduta lez, Mikel jagi ta tente geratu zan.

Jarraian, koronelak El Txupi'ren igesari buruzko gora-beerak edestu ebazan, eta izan be, jazorikoa egin-egiñean edestu eban, iñongo alderdikerririk bage. Amaitu ebanean, auxe esan eban:

—Conocidos pues, los hechos, queda abierto el Consejo de Guerra contra el soldado Miguel Aretxalde. Ahora tiene la palabra el Ministerio Fiscal.

Llanos buruzagia Mikel'egana urreratu zan, eta begi zorrotzak mutillarenetan untzaturik,

—Diga el soldado acusado, si es cierto que el soldado Adrián Rioja era amigo íntimo suyo.

Mikel, baiña, bere aldezelek ondo irakatsita egoan, eta auxe erantzun eban:

—Amigos, amigos ya te éramos como otros muchos, pero tanto como desir íntimos... creo que no.

—Todos sabemos —jarraitu eban Llanos salatariak—, que érais grandes amigos, que solfais salir juntos, y que cuando debido a su conducta indigna de un buen soldado estuvo en el calabozo, le

solía dar tabaco y le traía algo de comer el soldado hoy aquí acusado. ¿Niegas todo esto...?

—Protesto, Señoría —ebagi eutsan Arenas aldezelek koronelari zuzenduz—, mi defendido no ha negado cosa alguna hasta ahora.

—Se admite la protesta - maipuruak erabagi eban.

Asarre utsaz, Llanos'ek ezpanak estutu ebazan, eta gero,

—Soldado Miguel Aretxalde —itaundu eutsan—, ¿No es cierto que tu eres tirador de primera...?

—Sí, Señor.

—Basta por ahora, la acusación no hace más preguntas.

Jarraian, taldeburu salatariak ereti aretan ate nagusian begirari izandakoaren ziñaltza eskatu eban, eta aurkeztu zanean,

—Diga el centinela, ¿vió la escena de la fuga del soldado Adrián Rioja...?

—Sí, mi comandante.

—¿Desde qué distancia le disparó el acusado?

—Desde unos quince metros

—¿A donde fueron a parar los balazos...?

—Al segundo piso de las casas de enfrente.

—Basta por ahora, soldado. La acusación ha terminado sus interrogatorios.

Jarraian, maipuruak auxe esan eban:

—La defensa tiene la palabra.

Arenas gualburua, Mikel'en aldezelek, jagi zan, eta,

—Diga el acusado —itaundu eutsan— ¿Es cierto que era muy amigo del soldado Adrián Rioja?

—Bueno, para mí era un amigo como te eran otros y...

—¿Que clase de persona era el soldado Adrián Rioja?

—Chico bueno ya te era, aunque algo loco ya te paresía...

—¿Conocía el acusado a la familia de Rioja...?

—No señor, pero huérano o así que era me había dicho.

—Diga, soldado ¿que ocurrió cuando se produjo la fuga?

—No se pues. Todo me empesó a jira-birar y como una cosa oscura o así se me puso y sin poder ver a qué, empesé a tirar y tirar.

—La defensa no tiene más preguntas que hacer.

Orduan maipuruak:

—Que empiece su alegato la acusación, y luego seguidamente lo hará la defensa.

Llanos gualburuak bere azalpenari ekin eutsan. Laburra izan zan, eta salakuntza guztian zear, bein eta barriz agirian auxe ipiñi

eban: lenengo maillako jaurtilari edo tiratzaille batek, "mauser" batez amabost metroko bitartera aurkitzen dan gizaki bateri, ezin dagikiola uts egin, eta beraz, Mikel'ek uts egin ba'eban, igeslaria lagun-miña ebalako zan ezpai barik. Onezaz gaiñera, ondo ekian berak lengo jazoera bat zala-ta, salatuagan uste onik ezin zeitekeala jarri, eta...

Ona elduta, Arenas aldezlea jagi zan, eta eten egin eutsan maipuruari zuzenduz onetaraxe:

—Protesto, Señoría. No hay ningún otro antecedente que pruebe que el acusado sea indigno de confianza.

—Se admite la protesta. Continúe la acusación.

Salatariak bere azalpenari jarraitu eutsan, beste zer garrantzitsurik eratsi barik, eta jarraian aldezleari txandea etorri yakon.

Onen aburuz, ez egoan ezer Mikel erruduna zala egiztatu egi-keanik. Ezpaibarik egia zan gain-gaiñeko jaurtilari edo tiratzaillea zala, baita jaurti-unean igeslaria ur egoala be, baiña ustekabez giza-seme bat erail bear dauanaren barruan jarri bear da, une larri orretan norberagan jazoten dana jakiteko. Danok ez dogu era bardiñean erantzuten, eta guztitariko jokaerak onartu bear dira, bai irmotasun beteaz jokatzek dabenak, bai larritasun utsaz soiña dardarrez eta begimen motelaz ekiten dabenak. Onezaz gaiñera, Mikel'en agrietan ez zala iñondiko obenik agertzen, eta au zala-ta, salatua errubakotzat epaitzea eskatzen eban.

Arenas taldeburuak bere salatuaren aldeko mintzaldia amaitu ebanean, maipuruak mai-gaiñean maillukada bat emonda gero, auxe esan eban:

—El juicio se suspende para que el tribunal dicte sentencia que esta misma tarde se dará a conocer.

Jarraian, Mikel zigor-gelara eroan, eta bere espetxekideen itaunai itz laburrez erantzunik, oiko txokoan jesarri zan oldozkun itzaltsutan murgildurik. Otordua zan ezkerero, andik laster oiko bazkaria banandu eutsien, baiña Mikel'ek janaria irunsi ez egikean ezkerero, ia txastau barik lagata, bere txokoan babestu zan, gogoeta illunai emoten eutsela. Arratsaldeko lauretan inguru, epai-aretora eroan eben ostera be. Ona elduta zutundu zeiten agindu eutsan maipuruak, eta larritasun itzelaren menpe, bere epaia entzuten asi zan.

Maipuruaren eritxiz, ezin zeitekean esan, Mikel'ek egindakoa berariz izan zala, baiña benetako gudari baten bikaintasuna une larrietan agirian azaltzen zan, eta oroz gain, edozein gudarik bere betebearra burutu egin bear ebala. Kontuan arturik, beraz, Mikel'en betekizuna, bere zaintzapean egoan zigortuen igesa zelan edo alan eragozteza zan ezkerero, eta ain ur egon arren betebear oneri salatuak

uts egin eutsala ikusirik, ekintza onek agirian jarten eban, gudari ona izan zeiten buruzagiakandik artutako irakaspenak, ez ebazala ondo bete, eta augaitik eta beste gudariantzat eredu izan zeiten, epaia auxe zan: amaitzeko peitzen edo faltatzen ziran bost illabeteak, gudaitegiko espetxean emon bear izango leukez.

Jarraian, bere alde zeozer esateko ba'eban, azaldu egian eskatu eutsan maipuruak. Mikel'ek, baiña, isillik iraun eban, eta orduan epaiketea amaitutzat emon zan.

Zigortuen gelara sartu-agiñean zala, Arenas taldeburuak, alde batera dei egin, eta auxe esan eutsan:

—Teniendo en cuenta que actuaba de fiscal el comandante Llanos, el juicio no ha ido tal mal como yo esperaba, pues irás a casa cuando cumplas el tiempo normal, es decir, dentro de unos cinco meses. De todas maneras como estar ahí encerrado se te hará muy largo, te puedo facilitar algún libro de la biblioteca. Dime, ¿qué te gustaría leer?

Mikel, une batez oldozkor geratu zan, eta jarraian, abelgorri ta landare-azkuntzako gaiak gogoen ebazala esan eutsan. Andik ordubete batera-edo, gudari batek, eskaturiko gaiak erabilten ebezan liburu bi ekarri eutsazan.

Arrezkerero, biziera aspergarri ta itunari asiera emon eutsan Mikel'ek. Zigorkideek ez eben erakarten. Zakar eta zantarrak ziran ezkerero, areikiko artu-emonetan ez eban atsegiñik aurkitzen. Onezaz gaiñera, Arenas taldeburuak liburutegitik ekarritako idaztiak, gogokoak ebazan, benetan, eta igarri barik basetxeko jardunerako guztiz onuragarriak ziran gaiak ikasten asi zan. Baiña olan eta guzti be, egunak astiro ta aspergarriak alkarri erraikioen.

Arratsalde guztietan, gudariak egurastaldia izateko urteten ziranean, zigortuek ordubeteke jareialdia izan oi eben egunero, eguraldia txarra ez zanean. El Txupi'k iges egin ebanetik, zaindareiek agintza gogorak artu ebezan, eta larrain bazterrutik ibilli ebiltzela, ezin egikioen itz bat bera be alkarri esan, eta iskillioakaz su egiteko gerturik inguratzen ebezan. Leku itxi aretatik ikusgaia ederra ez bazan be, atsegin yakon Mikel'eri ortzi urdiñari so egitea, eta amesen egoetan lntxalde'ra joian, gogo osoaz leku maitagarri aren txokoak laztantzen ebazala. Orduko, eguraldia ederra zan, eta bedarra eguzkipean usain bardinbageaz onduten egongo litzake, eta txori ta loreek bazterrak edertuko leukiez. Gogoaren sakonenean ori dana min artzeraiño sentitzen eban Mikel'ek, bere erri-miña gero ta andiago biurtzen zala. Baiña oroz gain eta yaukal, Edurne'ren irudi lraifia agertzen yakon, egun aretan Gernika'ko tren-geltokian, urrutian azkenengoz bere ikusmenetik galdu zan lez. Orain, ikastaroa

amaituta etxean izango litzake, eta bere irudi bardinbageak Intxalde'ko bazter zoragarriak edertuko leukez...

Gabero, zigor-gelako lastamarraga zikiñean etzanda, Intxalde'n igarotako gora-beera atsegiñak oroimenera banan-banan etorkiozan, eta olan amesen egoetan espetxe aretatik iges egiten eban; ikastaldia amaituta, Edurne kutunarekin zalpurdian jesarrita etxera biurtzen zirala, eta neskatoak egiten eutsazan itaunak, itxarten joakion adimenak eraginda.

Oroitz arein lillurak, oraingo egoera zitalaren gaiñetik amesen mundu batera eroian, eta olan, aldizka, batzutan lurgintza ta abelazkuntzari buruzko Arenas taldeburuak itzitako liburuen gaietan zear gogo beteaz murgiltzen zan, eta bestetan, egurastaldian eta oerazten zanean batez be, Intxalde ta Edurnetxu burura etorkiozan, eta onen lillurak uxatzen eutsazan oldozkun illunak.

Bein baten, illabete bat-edo atxillo zirauala, idazki bat eskuratu outsoen. Gudari zanetik lenego eskutitza, ain zuzen be. Norena izango ete bere buruari itauntzen eutsala, estalkia urratu, eta biotza taupada zorotan asi yakon... Bai, Edurne'ren idazkerea zan, garai bateko bere ikasle zoragarriaren idaz-tankerea ondo ezagutzen eban-eta. Barruko zauskada itzela jabetu eziñik, astiro-astiro itz bakotxa laztanduz eta bitxi bardinbakoa bai'litzan, irakurten asi zan. Ona emen, iñoana:

"Intxalde'tik Madrid'era.

Mikel maitia: ikastaroa amaituta emen naukazu barriro Intxalde maite-maitean, eta izan be, bederatzi illabete igarota gero, iñoizkorik maiteen dot. Irrikan izan naz azken illabete oneitan noiz etorriko litzakidan etxera joateko garaia, eta noizbait emen nagotzu iru illabeterako. Au zoriona...!

Gauza asko ikasi dot lekaimetxean, eta nire irakasleek badiño-ste, aldiaren bidean, etxetik ekarritako basa-usaiña kenduta, andereiño dotorea biurtuko nazala. Ez al-dakizu gauza bat...? Ara:

Bai aita-amak bai ikastetxeko lekaime irakasleek, oso garrantzitsutzat joten dabe andereiño fin-fiña biurtu naitela, egunen baten gizon apain eta aberats batekin ezkondu naiten. Ez dakit norekin ezkonduko nazan garaia yatordanean, baiña ez dakit Intxalde'tik urrun zoriontsua izango ete nazan. Siñistu egistazu, Mikel, baiña ikastaro guztian kaiola batera sartutako txoriaren antzera bizi izan naz. Ez dakit, egunen baten ezkonduko ete nazan, baiña Intxalde'tik urrun bizi izateko, naiago neuke, askozaz be, neskazar geratu.

Eta zu zelan bizi zara...? Lengo egunean aitarekin Gernika'ra jatsi nintzan, eta andik korreoz zorrotxu bete janari bialdu neutsun. Badakizu: etxeko gauza batzukaz, au da, urdazpi, lukainka, giarra,

baita neuk egiñiko, ikastetxean ikasi neban gozopil bat. Ori dana bialdu dautsut nitzaz aztu ez zaitez.

Badira egun batzuk etxean nazala, eta aldia tximista baizen arin igaro yat. Aita-amak asko eregauten nabe, datorren ikastarora joateko jarki ez naiten... Ai, Mikel, jakingo ba'zendu zein aldatz-gora egiten yatan ori...!

Etxean nagoan ezkerro, idatzi egistazu zure gora-beerak eza-gutu dagiguzan, aita-amak be gogoan bazaitue, eta sarri askotan zu zara gure autu-gaia. Guri idazten ez aztu, arren...!

Ettxera biurtu zaitezanean, ikastetxean izango nozu ikastaroa amaitzeko zorian, baiña laster batuko natzaizue, eta orduan batetik bestera joango gara antxiña baten egin genduan lez, ezta Mikel...?

Artu nire agurrik txeratsuen, eta urrengorarte

Edurne".

Idazkiaren irakurketea amaitu ebanean, begiak malkoz ezotuta, zarrastada itzelaren pean, Mikel'ek Edurne'ren idazkia ezpanetara eroan, eta mosu luzea emon eutsan. Aspalditik lenengoz, zigortaldi aspergarri aretan, zorian bakan batek jota aurkitzen zan, eta iñoizkorik gardenen eta ederren, Intxalde'ko bazter zoragarriak eta Edurne'ren begi sorgingarriak agertzen yakozan, eta bera, etxeko morroia, gogoan ebalaren sentipen aintzagarriak oraingo egoera larritik jareitzen eban, zigor-gelea jauregi eder biurtuz.

Arrezkerro, oiko gela-txokoan jesarrita, Mikel'ek bein eta barriro eskutitza irakurten eban, eta onen itz eta esaera guztiak biotzean ildaskatuak eroiazan. Orain, etxera biurtzeko peitzen edo faltatzen yakozan egunak eta illabeteak zenbatzen ebazan, eta gabero, Edurne'ren gomuta biaz lagunduta oerazten zanean, espetxaldiko egutegitik orri bat jalgi izan zala itxaropenaz egizatzen eban, baiña olan eta guzti be, egunak astiro ta aspergarriak alkarri erraikioen. Bein baten, baiña, jazoera bakan batek bere egoera zearo aldatu eban.

Egun aretan, oiko egurastaldia amaituta espetxeratuak zigorgelara biurtzen zirala, eta atadi nagusia zearkatzen eben une berean, gualtegi zama-berebil edo kamioi bat abiada bizian sartzen zan. Orduantxe bertan, eskuari oratuta neskato bi sartzen ziran, eta ikara bizian zer egin ez ekiela sarrera-erdian aurkitzen ziran. An egozan gudariak elbarrituak bai'legozan, begiak izuak artuta jazoera ikustatzen eben.

Alako baten, zapart itzela egiñez urren egoan Mikel oldartu yaken, eta bultz indartsuaz alde batera jaurti ebazan. Ikaraturiko

neskatoak txirindolaka jausi ziran, eta berebilla gelditu eziñik, tximista lakoa larrañean zear ostendu zan. Mikel neskatoekin naastuta jausi zan, baiña zorionez, irurok ez eben beste kalterik artu, jaus-tearena baiño.

Astrapala itzela sortu zan, guztiek didar bizitan gidariaren joera zentzunbakoa gaitzesten eta Mikel'ek egindakoa goresten ebela. Jarraian, Mikel bere zigorkideekin oi lez giltzapetu izan zan. Andik ordu erdira-edo, zigor-gelako atea edegi zan, eta kabo batek jarraitu egion agindu eutsan Mikel'eri, eta luzaro barik zaintza-buruzagiaren gelara sartu-erazo eban. Buruzagiarekin Arenas talde-burua egoan, eta Mikel agertu baiño ez, besarkada estu-estua emon eutsan, zauskada andi-pean auxe zirautsala:

—Gracias, muchacho, gracias, acabas de salvar la vida de mis dos hijas, y te prometo que no lo olvidaré.

Gero, bere zerera biurtu zanean, Arenas taldeburuak jazotakoa azaldu eban. Bere alaba bik inguruko ikastetxe baten ikasten ziar-duen, eta arratsalde aretan ikastaldia amaituta, aginlari bategandik etozan, eta gudaltegitik ur egoan ezker, eta orduko, ikastetxeko berebil guztiek zerbitzua amaitu izan eben ezker, neskato biak aginlariaren etxetik biurtzean, gudaltegira joiazan, andik laster aita-rekin berebillez etxera joateko. Arenas taldeburuak ez eban beste umerik alaba bi areik baiño, eta maite ebazan biziro.

Biaramoneko amabietan inguru, zigor-gelako atea edegi zan, eta kabo batek jarraitu egion esan eutsan Mikel'eri. Koronela zan gudaltegiko nagusiaren atean jota gero, eta sartzeko baimena arturik, Mikel koronelaren aurrean aurkitu zan. Onekin Arenas taldeburu edo komandantea egoala konturatu zan. Nagusi baten aurrean oikoa zan bere buraren aurkezpena eginda gero, koronelak auxe esan eutsan:

—Soldado Aretxalde; este regimiento no puede dejar de pasar por alto el acto heroico que realizaste ayer salvando con riesgo de tu vida la de dos niñas, que además son hijas del prestigioso comandante Arenas aquí presente. En consonancia, he decidido rehabilitarte de la pena que fuiste condenado en aquella ocasión, pues si bien entonces tu comportamiento fue indigno de un buen soldado, tu acción de ayer ha pagado con creces tu comportamiento de entonces. Por lo tanto, y haciendo uso de mis prerrogativas de jefe de esta unidad, te declaro rehabilitado y por tanto quedas en libertad.

Zarrastada andipean Mikel'ek ez ekian zer esan. Zelan edo alan eskerrak emotea lortu eban, eta pozez gaiñezka gelatik urten zan. Lengo bere eunekotegia edo compañaia biurtzen zala, Arenas

taldeburuak dei egin eutsan, eta onen idaz-gelara sartuta, Mikel jesarri-erazo eban, eta jarraian autu adiskidetsu bateri emon eutsoen.

Arenas taldeburuak Mikel'ek egindakoa saritu nai eban, eta au dala-ta, bere zerbitzari edo "asistente"tzat artzen eban. Llanos talde-burua bizi izaten zan guda-gizonen auzune berberan bera be bizi zan, baiña nasaitu zeiten, esan eutsan, bere etxea Llanos'enatik urrun izanez gaiñera, Llanos ez litzake azartuko orain, Mikel'eri iñongo kalterik egiteko. Mikel'en egunoroko betebearra auxe izango zan: goiz guztietan bere etxera joatea, ango ortu ta lorategi-lanetan jarduteko. Etxean bazkalduta gero, aske izango zan norain joateko, arrastiko sartze-joterako gudaltegian izatekotan.

Ezin egikean siñistu Mikel'ek, ordu gitxi batzutan, bere biziereari etorritako aldakuntza. Gau aretan, oeratu aurretik, oi eban lez Edurne'ren idazkia amaikagarren aldiz irakurri eban, eta itzez-itz begiakaz eta biotzez laztanduta gero, tolestu ondoren musu luzea emon eutsan. Urrengo egunean, arratsaldea bere aukeran emoteko eban ezker, Edurne'ri idazki bat igorriko leuskio berak eta etxekoek, Intxalde'ko morroiaren barriak artu egiezan. Eta izan be, asmo au bete eban, eskutitz luze ta zeatz baten bidez. Jakiña, mezu onetan izandako zigorra ez eban aipatzen. Idazki osoa itxaropenez beterik egoan, laster gudari-aldia amaituta, Intxalde'rako bidean izango litzake-ta...

Lengo egoereaz bekalde-tuta, oraingoa zoragarria zan, eta bere egitekoa ondo ekian ezker, Arenas taldeburuaren lorategi ta ortuak itxura bikaiña eskintzen eben. Etxe aretan Mikel semetzat artu izan zan, eta mutillak gero ta maiteago ebazan etxe aretakoak, alkarrekiko oneritxia sendotzen zala. Olan ba, ez-arian ez-arian egunak aurrera joiazan, eta noizbait Mikel'en gudaritza amaitu zan. Udako egun gogoangarria azaldu yakon, burnibiderako txartela ta gudaritza-agiria sakelean sartu ebazanean. Gudaltegia betiko itzi baiño len, Arenas taldeburuagana joan zan azken agurra emoteko, eta eskerrona adierazoteko. Komandanteak estu-estu besarkatu eban malkoai nekez eutsirik, auxe iñotsala:

—No sabes cuanto siento tu marcha, Mikel. En casa nunca te olvidaremos, y ahora vete, hijo, porque estoy a punto de llorar. Toma esto para el viaje.

Au esanik, barruan zeozer eukan estalki bat emon eutsan, eta alkarri barriro besarkatuz, Mikel gelatik urten, eta bere aukeran astirik eban ezker, bide-zorroa eskuan artuta, Madrid'eko erdigunera abiatu zan, eta emen Bilbao'rako txartela lortu eban. Gautu zanean, ogi-tarteko batzuk erosi ebazan, beste aparirako dirurik ez eukan-

eta. Geltokiko aulki baten gau-trenari itxaroten eutsala, ezustean, Arenas komandanteak emoniko estalkia gomutara etorri yakon, eta sakeletik atarata, edegi eban. Barrukoa ikusi ebanean, zur eta lur geratu zan, berak somatu ezin egikean ainbeste diru ikustean. Izan be, ez ekian diru areri zelako erabilte emon, eta baten bateri lagun-tzea biderik onena izango litzakela, esan eutsan bere buruari, orain arean bearrrik ez eban-eta.

Oldozkun onetan egoala, trena eldu, eta irugarren maillako leku baten egokitu zan. Andik laster iparrerantz abiatuta, begiak itxi, eta Mikel lo egiten saiatu zan. Zailla azaldu yakon, etxeko ta Intxalde'ko bazter eta biotzeko maiteek bere gogoa zorionez beteten eutsaelako, lo-gura uxatuz. Noizbait, trenaren firi-firika ta bilin-bolaka aspergarriek loa ekarri eutsoen.

Egunsentia barik otzak iratzarri eban, eta soiñaren ildura kentzeko, jagi, eta igaro-bidera urtenda ibiltzen asi zan. Alako baten, trenabiada gitxiturik, andik laster geltoki andi bat agertu yakon. Miranda zan, eta emen geldaldi luzea bere aukeran ebanez, beste burni-bideen lotunea zalako, jatsi zan eta zeozer bero artzea erabagi eban.

Kantinara sartuta, kafesne bero-bero eskatu eban. Mai-ondoan egoala eskaturikoaren begira, ezustean ondoan didar bat aditu zan, eta norbaitek besarkatu eban.

—¡Mecagüen, mocé, quien iba a icir que aqui mesmamente te había de encontrar pa darte un abrazo...!

Bai, El Txupi berbera zan, eta zirudianez, errioxarrak burua betiko lepotik, oiko txoriburu ardurabakoa zan. Mikel'ek beste kafesne bere lagunarentzat eskatu eban, eta gosalduta bitartean, El Txupi'k bere gora-beerai buruz jakitun ipiñi eban. Gudalategitik iges eginda gero, Madrid'en zear or-emenka egun batzuk emon ebazan zer egin jakin barik. Bere lengo bizibidea zala-ta, morroillolaritzan bazan nor, eta bere antzea ustiatuz, gabaz edozein berebilletara sartu oi zan, eta atzekaldeko jesarlekuan bere aukeran lo egiten eban. Egunsentia etorruta, berebilla itzi, eta or-emenka ebillen ogi-tartekoz janaritzen zala.

Laster, baiña, eukazan diru urriak urtu yakozan, eta ezinbestez jardun baten billa asi zan. Luzaro barik, etxegintza baten billaturikoa idoro eban, eta guztitarako gai zan ezkerro, abe ta zutoiñen burnilartzan betekizun polita aurkitu eban. Bere egitekoa, abeak indartze-ko erabilten dan burni-lanaren atonketea zan, eta zeregin au menperatu ebanean, diruketa politaren jabe billakatu zan. Illabete bi igarorik, baiña, erri-miñak jota, orduko lanari uko egin eutsan, eta Logroño'ra joan zan. Emen baiña, atxillo izatearen bildurrez, azartu

ez jaioterrira biurtzen, eta irabaziriko diruaz uriburua aretan aspaldi bat iraun aal izan eban.

Bein baten ardanegian egoala, ertzain batzuk sartu, eta bezero guztiai nortasun-agiria eskatzen asi ziran. Aal eban ezkutuen, irolara sartu, eta an emon eban ertzaiñak ostendu arte. Jazoera onek, baiña, bildurtu eban gure Txupi, eta bein betiko urtenbide bat idoro bearko leukela erabagi eban, iñongo nortasun-agiri barik egoan-eta. Buruari ekiñez, Ameriketara joatea erabagi eban, eta Bilbao'ko portutik ain zuzen be, jendeak iñoanez uri onetan orretarako zenbat-gura aukera idoro zeitekezan-eta. Olan ba, azken txiñakaz Bilbao'rako burnibide-txartela erosi eban, eta Miranda'ra elduta jatsi, eta kantinara sartzean Mikel ikusi eban. Edeskia amaitzean,

—Ridiez, Miguelico, ahora cuéntame lo que pasó endimpués de darme el bote de aquella jaula. Ya sé que me habrías dejao como un chicharrico de esos que venden metidicos en unas cajas redondas, si es que hubieses tirao a dar, porque tu eras el mejor tirador del cuartel, pero ya sabía que no me habías de tirar a matar, porque eres más güeno que el pan, y por eso aproveché aquella ocasión. Díme, mocé, que paso endimpués de darme el ole...?

Mikel'ek, aren ostean jazotako gora-beerak azaldu eutsazan, eta amaitu ebanean, trenera joateko ordua zanez, adiskide biak alkarrekin egokitu ziran, bidaia jarraitzeko. Mikel'en leku-ondoan baegoan beste bat utsik, eta an bertan egokitu zan El Txupi. Urren-gotariko erri baten gelatxuko beste bidariak jatsi ondoren, gure adiskideak bakarrik geratu ziran. Orduan kontu-kontari iñoren oztopo barik jarraitu eben biok. Orduña igarota gero, Amerika'tik bein edo bein errira biurtzeko asmatzen ete eban itaundu eutsan Mikel'ek.

—Entavía no lo sé, Miguelico. Mira, si no consigo hacerme rico me quedaré allí pa siempre. ¿Ande crees tú que puedo golver sin perricas...? Pa estar sin manteca me quedo allí, pero si me hiciese rico ¿Sabes lo que habría de hacer? Pues golvería al puebluco pa comprarme la finca del tío Pacorro que es la mejor, y luego no pararía hasta encontrar a mi madre, y ya lo creo que la encontraría, porque en habiendo tela se consigue tóo lo que uno quiera. En cuanti que la encontrase, la tendría sentaíca en un butaca de plumicas y la pondría criadas pa que no la faltase de ná y viva como una reina. Quien sabe la vida perra que llevará ahora la pobrecica, abandonada por aquel granuja de mi padre que la dejó antes de nacer yo. A lo mejor sería un señorico desos que tienen que hacer cuanto se les antoja, ay que ridiez...! pero mi madre de seguro que es una santica. Dicen que cuando nací me puso en un cestico a la

puerta de una casa, porque ella no tenía ni pa vivir, pero te aseguro, mocé, que cuando güelva hecho un indiano rico, la voy a forrar de pieles, sortijas y collaricos, porque la encontraré, aunque tenga que revolver cielo y tierra, que mecagüen...!

El Txupi olan ziarduala, Mikel'ek, bere lagunaren amaganako zintzotasuna ederresten eban, eta bere kautan iñoan, izaera ganorabako ta guzti, bere adiskidea mutil ona zala benetan.

Autu onetan ziarduela, trena Bilbao'ko geltokira sartu zan, eta lagun biak egokiezan bide-zorroak artuta, urten ziran. Alkarri agur esateko garaia zan, eta barruko bultz bakanari men egiñez, Mikel'ek, Arenas talde-buruak emondako dirua sakeletik atara, eta El Txupi'ri eskuratu eutsan, auxe zirautsala:

—Toma, Txupi, aqui tienes unos diñeros que te harán mas falta que a mí. Espero que para llegar a las Americas o así, ya tendrás.

Diruketea ikustean, errioxarra zur eta lur geratu zan, eta zauskada andipean Mikel besarkatu eban, auxe iñotsala:

—Gracias, mocé, que Dios te lo pague algún día!

Gero, begien malkoak ezkutatzearren, aurki, axea artu, eta kalean beera ibillera ariñez urrundu zan. Mikel'ek leku berean zirauan, El Txupi kaleko biurgune batetik ostendu arte. Jarraian, eta bere adiskidea gogotik kendu ezin, kafetetxe batera sartu zan, gosaria artzeko Enkarterriko trena artu aurretik. Illuntzea barik, jaiotetxe maitia begien aurrean aurkeztu yakon, eta aldatzak eragindako arnas-estua baretzearren, une batez gelditu zan inguratzen yakon edertasunak menperatuta. Etxeak, azkenengoz ikusi eban baiño itxura askozaz ohea eskintzen eban, eta agiri zan beretarrak egoera naikoa nasaian bizi izaten zirala. Alorrek eta larrak zabala-goak iruditu yakozan, eta etxea bera, zabaldiko orlegi bizian oso txukun bereizten zan.

Etzeko atadira eldu zanean, oles egin eban; andik laster ama agertu zan, eta pozez gaiñezka seme kutuna besarkatu eban. Aurreneko zarrastadea igaro yakonean, Mikel begiztatu eban zeatz-zeatz, eta,

—Oi, Mikel —esan eutsan—, zelako mutil ederra biurtu zaran azkenengoz ikusi zindudazanetik ona. Izan be, sendoagoa ta garaiagoa emoten dozu. Sartu, sartu zaitez barrura, eta bereala zeozer jan dagizun atonduko dautsut, baraurik egongo zara-ta. Jesarri zaitez eta aida baten jatekoa gerturik izango da.

Yosune pozik aurkitzen zan benetan bere kutuna ikustean, eta poza jabetu ezifnik semeari jaki arin bat atontzen eutsala, itz egiten eban etenbarik, batetik bestera joiala. Olan ba, arreba bat ezkondu izan zala jakin eban, baita Jose, bere anai nagusia laster ezkonduko

litzakela be erriko neska on batekin. Arrebarik gazteenak, erlijio-ara-zoetarako joera andia erakusten eban, eta luzaro barik lekaiame sarzoko asmotan zala. Jose bera bakarrik etxaguntza erabilteko gai zan ezker, aitak erriko papergintzan ziarduan, eta onen lan-sariaz eta etxeari ataraten yakon obariaz iñoizkorik ondoen bizi izaten ziran.

Autu onetan ziarduela, gau biurtu zan eta noizbait Mikel bere guraso ta anai nagusiarekin mai-inguruan jesarri zan apariari ekiteko. Alkarrizketa aretan bere anaiak etxaguntza ondo erabillean konturatu zan Mikel. Aal eban giñoan lur barriak erosten ebazan, eta agiri zan aldi estu ta larriak betiko joanak zirala bere jaiotetxetik. Pozik egozan danak, alkarri barriak emotsiezala, baiña Yosune'ren begietan kezka baten aztarna agiri zan, eta Mikel, bere seme kutuna begiztaten eban bakotxean, arrenkura bizipean begitarte illuntzen yakon.

Gau atsedengarria igaro ondoren, Mikel jagi zan, eta gosria artuta, Jose, bere anaiarekin mendian gora bideratu zan idiak gurdira buztartu ostean, kortarako azpigarri barria biltzearren. Bere anaiarekin etzeko lanetan egun bi emon ebazan, baiña irugarrenean, Intxalde'ra joateko gurari jarki-eziñak menperatu eban, eta urrengo egunean arako izango litzakela etzekoai jakiñ-erazo eutsen. Arrasti aretan etzeko atadian jesarrita zabaldiko edertasuna begiztaten eba-la, ama urreratu yakon, eta bere ondoan egokitu ostean,

—Aizu, Mikel —esan eutsan abots naigabetuaz—, zergaitik ez zara geratzen luzarago...? Zu beste iñoren morroi izateko ez zara jai, seme. Begira, orain basetxe asko utsik geratzen da, jendea lan-tegietako jardunak erakarrita. Erri onetan bertan, eta naikoa ur, orain asko ez dala, etxaguntza polita dauan basetxe bat ustu da, eta zeuk gura izatekotan, aitarekin biar bertan jabeagana joanda, artu-emonetan asi zaitez. Ziur naz sari egokian lortu zengikela. Badakit zure anaia gerturik dagoala bearrezko laguntza zuri emoteko, eta ezaugarritzat esku-diruz zeozer ordainduta, enparaua epeka ordaindu zeinke. Zer deritxazu orreri, seme...?

—Ez dakit, ama; ondiñokarren gaztea naz, eta iñongo etxaguntzak ez nau zirikatzen. Dana-dala, egunen baten nire esku izatea erabagiko ba'neu, zuen laguntza eskatuko neuke. Edozelan be, ugazabak agurtzearren Intxalde'ra biurtzea dagokit.

—Eta gero...?

—Gero, ama, Jaungoikoak erabagiko dau.

Begitarte itunaz Yosune'k asperen bat jaurti eban, bere buruari iñotsala zelako erakarpen bakanak bere semeari dei egiten eutsan, orren setatsu morroitzari lotzeko.

Urrengo egunean, etxeokandik agurtuta urteteko zorian zala, amak biderako zorrotxu bete janari eskuratu eutsan, eta,

—Agur Mikel maitia —esan eutsan— eroan egizu biderako atondu dautsudan zorrotxu au, eta ez aztu noizean bein zure barriak guri jakiñerazotea...

Besarkatu eban, eta seme kutuna agurtzean oi eban lez, begiak negar-arpuluakaz beterik, an geratu zan, bide-okergune baten ostean semea ostendu arte.

BIURPENA

Egun aretako arratsaldean, Iturbe auzunea atzean itzita, biotza pilpira bizian, Mikel bidean gora joian. Noizbait, Munabe'ko iturriaren ondoan egoan bide-okergunea igarorik, edertasun betean In-txalde agertu yakon. Arratsalde aretako eguzkipean, inguruko oial orlegian, ain maite eban etxea bitxi baten antzera bereizten zan. Zarrastada bakanak menperatuta, bide-zorroa lurreen jarri, eta une batez gelditu zan. Maitasunezko sentipen batek eraginda, ezpanetatik auxe iges egin yakon:

—Azken aldiotan etenbarik biotzean izan zaiataz, baiña zugandik urrun, zaran baizen ederra gogora ekartea zaila da benetan.

Jarraian, ames batetik iratzarrita lez, bide-zorroa artu, eta joran esangaitzak bultzatuta, úrrats ariñez etxerantz abiatu zan. Bere bizitzako urtebete ta erdi atzean geratzen zan; bizitzaren epe luze, utsa, itzalez beteriko bide latz, malkorra. Baiña orain ori dana atzean geratu izan zan, aztu-agiñean dagoan amestxarra izan bai'litzan. Aurrean aurkezten yakon etxean Edurne jaioa zan, umetarik ezagutu izan eban aingeru maitagarria, eta orduantxe, ataditik berak irribarre egiten eutsala iruditu yakon...

Laster eldu zan etxera, eta eup...! ozenaz oles egin ondoren, Errose atadian azaldu zan. Etxeko morroia ikustean, estu-estu besarkatu eban auxe zirautsala:

—Mikel, nire mutilla...! Laster etorriko zintzakiguzala somatzen neban. Gaur bertan bazkaldu bitartean zutzaz berba egin dogu. Ganbarako zure gela aspaldiz gerturik dozu. Ez genkian gudari-aldia amaituta, barrero etorriko ete zintzakiguzan ala zure etxean geratuko zintzazan. Au nire poza, Mikel...! Esan egistazu, ondo alzagoz...?

—Bai, ama. Nire gora-beerak jasan dodaz, baiña orain zuen artean, dana aztu egingo yat.

Urrats bi atzeraturik, Errose'k Mikel'en irudia begiztatu eban, eta gero,

—Ziur naz —esan eutsan—, zerbitzua aspergarria izango zala, baiña itxuraz beintzat, len baiño gizonago, elduago, emoten dozu. Artuizuz opor-egun batzuk, eta gero lanean asiko zara.

—Non dira ugazaba ta Txomin...?

—Egurketara joan dira, baiña laster izango dozuz emen. Ez al dakizu, Txomiñ'ek datorren urtean zerbitzura joan bear dauala...?

—Ez, ez nekian.

—Ara ba... Aurten gudaritzan sartzen da, eta datorren azaroan zozketea eginda gero, nora joango dan jakingo dogu. Au dala-ta, aspaldi onetan Martin oso kezkatua egon da, zu etorriko zintzakezan ala ez, buruan erabilliz. Ezin dagikezu asmatu zelako nasaitasuna artuko dauan ikusi zagizanean. Bai, aspaldi onetan arrenkura bizipean ikusi dot.

Autu onetan ziarduela, gurdibete egur ekarrela Martin eta Txomin azaldu ziran. Onek, beti oi izan eban lez, begitarte illunaz morroia begiztatu eban, eta idiak askatu bear ebazalaren atxakiz, laster ostendu zan. Martiñ'ek, ostera, pozezko oi bat jaurti ondoren, eskuak morroiaren soingaiñean ipiñita, pozez beterik begiztatu eban, eta irribarrez,

—Aizu, Mikel —esan eutsan—, morrosko ederra biurtuta zakust. Obeto esateko gizon egin-egiña. Au dala-ta, aurrerantzean "ika" bearrean "zuka" erabilliko zaitut, gurekin geratuko zarala uste dot-eta, ezta...?

—Bai, ugazaba, oraingotz beintzat, asmo orretan nozu.

—Ederto, Mikel. Lan-saria dala-ta, zure aukeran atonduko dogu zeuk merezi dozun giñoan, eta ziur naz pozik azalduko zarala. Orain txirrio edo dutxa bat artu dagikezu. Gurean be aurrerapideak sartu dira, eta aurtemein garbi-gela dotorea ur bero ta guzti ipiñi dogu.

Au esanez, atadiko ate barri bat erakutsi eutsan. Eskaratz zabalari zati bat kendu izan eutsan, eta ate aretatik garbi-gela eder batera sartzen zan. Laster, Errose azaldu zan legor-zapi ta jantzi-aldaketea ekarkiozala, eta andik laster gizaki barria sentitzen zala, Mikel urten zan.

Errose'k aparria atondu bitartean, Mikel subazterrean jesarri zan, aspaldiz oi eban lez. Edurne'ri buruz jakiteko irrikan egoanez, etxekonadreaki auxe itaundu eutsan:

—Aizu, ugazabandrea, Edurne'k ikastetxean jarraitu dau, ezta?

—Bai, Mikel. Datorren urtean andereiño bateri dagokion ezike-tea amaituko dau, amazazpi urte bete dagizanean. Aspaldi onetan Martiñ'ek eta biok, zer egin orduan, sarri askotan erabilli dogun arazoa da. Gure ustez, ez litzake egokia etxean geratu zeiten, bere etorkirako eragozpena izango litzake-ta. Gure ustez, andereiño laguntzailletzat jardunen bat idoroko ba'leu bide egokia izango litzake. Etxean baiño, Bilbao'n ereti ugariagoak aurkeztuko yakoz senar on bat idoroteko, eta gaiñera, ain zoragarria izanik, luzaro barik mutil aberats batekin ezkonduko daiteke ezpairik bage.

Errose'k etxeko kutunaren gora-beera oneik emotsazala, Mikel'ek igige ta isillik zirauan. Ustekabez, bere egoerearen egia lenengoz aurkeztu yakon, eta larritasunezko sentipen batek menperatu eban, Edurne Intxalde'tik-at bizi izateko zala konturatzean. Bere kutuna, besoetan batetik bestera eroian ume zoragarria, eta etxe aretan morroitzat sartu zaneke garaia gogora etorri yakon, baita erriko eskolatik biurtuta, mai baten aurrean zelan azaltzen eutsazan ikaskaiak urrengo egunerako. Bere bizitza guztia Edurne'rekin igaroa zan, eta aurrerantzean aldenduta bizi izango litzakezanaren oldozkuna, jasangatxa egiten yakon. Egunen baten mutil dotore aberats batekin ezkonduko litzake, eta aldiaren bidean Intxalde ta onen morroia batez be, betiko aztuko leukez. Zelako eskubidea eban, baiña, morroi ezain batek etxeko alabearen etorkian eskua sartzeko...? Iñongo eskubiderik, ain zuzen be, baiña oldozkun onek azaldu ezin egikean larritasuna ekarkion, eta Edurne barik Intxalde'k berarentzat erakarpenik ez ebala, lenengoz bururatu yakon.

Gogoeta illun oneitan murgilduta egoala, Martin sukaldean azaldu zan, eta,

—Aizu, Mikel —esan eutsan pozik—, atsegin andia artu dot lan egiteko etorri zarala jakitean. Begira, geurtz, Txomiñ'ek zerbitzura joan egin bearke dau, eta etxean norbaiten laguntza bearrezkoa dan ezkerro, zeuk gurekin jarraituko dozula jakiteak pozez beteten nau. Begira...

Jarraian, ugazabak ordain-baldintza barriak azaldu eutsazan, eta Mikel'ek ontzat emonda, itun barria itez onartu zan. Martiñ'ek morroitzaz-zaritzat eskiñitako baldintzak onak ziran benetan, baiña orrek Mikel'eri bost ardura emoten eutsan. Bere gogoaz arazo aretatik urrun ebillen, ordurarte iñoiz ez ezagaturiko naigabe bizipean aukitzen zala.

Gau aretan, ganbaran jarrita eban bere lo-gela txukunetik leioan zear zabaldua begiztatzen ebala, illundian errietako argi-mor-doak dizdir egiten eben dardarretan, beti lez, etxe aretara eldu zanetik gau guztietan egin oi eben antzera. Ikuskizun arek bakea

ekartsan, eta pozik egoan Intxalde'ra biurtu izanagaitik, baiña iñon bere gogoan arrenkura bakan bat sustraitzen asten yakon, eta lengo zoriona ez leukela ezagutuko iñotsan oarpen ezkutu batek.

Urrengo goizean, aurreko gabean ugazabarekin erabagi zanez, goizetik jagi zan, Martiñ'ek eta Txomiñ'ek egurketeari jarraitu egikioen. Gorri'k ikusi ebanean, pozezko irrintzi gozo bat az agurtu eban, eta musturraz aurpegia laztandu eutsan. Agiri zan, ain luzaro igaro arren zaldiak ez ebala aztu egin, eta morroiaren laztanak barriro artzean, aren begi andi, otzanek, zorionez dizdiratzen eben. Izan be, Mikel'ek etxeko besteak baiño maiteago erabilli izan eban, eta zaldiak morroia ugazabatatzat eukan, eta men egitsan itsuki.

Gero, aspaldian oi eban antzera, gurdari buztartu eta esnepegarrak Iturbe auzunera eroan ebazan. Emen, lengo ezagun eta adiskideak agurtuta, aurreguneko pegar utsekin biurtu zan. Etxera biurtutakoan, antxiñako ekanduari jarraituz, Gorri askatu eban, latziñetatik bere aukeran ibilli zeiten. Jarraian, etxeko egurtegia ia utsik egoala ikusirik, estalpean metatutako egurraren txikitzeari emon eutsan. Arratsaldean, kortako azpigarria aldatu, beste lan txikiak egin, eta gautu zaneke, larraditik abelgorria kortaratuta, beiak jatsi ebazan. Sasoi aretan baserrian egiteko andia zan ezkerro, egunoroko esne-lorketea eginda gero, soloetako ta bedar-ebateko lanai emon eutsen, baita lurgintza-lanabesak bearrezko eginkizunetarako gerturik egon zeitezan be. Agiri zan Martiñ'en eta Errose'ren poza Mikel etxera biurtu zanetik. Izan be, morroia ez zan geldirik egoten diranetakoak, eta iñurri antzera baekian beti zeri eldu, eta andik laster teillatua barriztuta, etxea kanpotik eta barrutik zurizkatua, eta zuredia konponduta, intxalde'k iñoizkorik ederren emoten eban.

Martin eta Errose morroiaren biurtzeaz poztu baziran, ezin dai-teke esan orixe bera, Txomiñ'eri buruz, eta au aal eban giñoan, beti gerturik aurkitzen zan Mikel'eri adierazoteko, etxeko morroia baiño besterik ez zala. Etxeko ugazabak argi ekusan seme ta morroiaren arteko etsaitasuna, eta au zala-ta, ezetariko auzirik bion artean jazo ez zeiten aalegintzen zan. Baiña etxeko semea geien asarratzen ebana, aita morroiagan jarritako uste ona zan. Diru-arazoetan batez be, beti azaltzen zan Mikel autatua; esaterako, Gernika'ko abelgorrien azokara bei edo zekorren bat saldu edo erosi bear zanean. Sarri askotan, Txomiñ'ek orren aurka eragoian, baiña bera zerbitzutik etorrira gero, arazoari ardura emongo leuskiola aitaren erantzuna zan beti.

Izan be, egoera onek nai-ta-ez buruauste andia ekartsan Intxalde'ko etxekojaunari. Onek ez eban ezelan be burura ekarri gura,

semea zerbitzutik etorri baiño len, morroia joan ekion, bera bakarrik etxaguntza ondo erabilteko, osasun aldetik gauza ez zalako. Ain zuzen be, urteak aurrera joiakiozan eta adore ta indarretan ez zan lengoa. Ezinbestekoa zan, beraz, Mikel'ek etxean iraun egian, semea gudarizatatzat biurtu arte beintzat. Gero... ikusiko leuke.

Garagarrilla'ren azkenengo egunetariko baten, Intxalde'ra Bilbao'tik idazki bat eldu zan. Edurne'na zan, eta eskutitz onetan, lkastaroa amaituta, uda emoteko etxera etorriko litzakiela azaltzen eban. Idazkia irakurrita, Martiñ'ek Mikel'eri auxe esan eutsan:

—Aizu, Mikel, etzi Edurne etxerako dan ezkerro, zalpurdia gertatuko dozu, eta Gernika'ra jatsiko zara, burni-bideko geltokian Edurne ta onen axea etxera ekarteko.

Albiste au entzutean, morroiari biotza taupada zorotan asi yakon, eta zenbatu-eziñeko oroitzak gogora etorri yakozan. Bere Edurnetxu maitia, antxiña baten zabaldian zear eroan egian, zelan besoetara oldartzen yakon, eta txoritxu baten antzera amaika itaun egiten eutsazan bere mintzo totelaz. Gero, Bilbao'ko ikastetxera baiño len, etxean izandako ikasle ernaia... Zelakoa izango litzake igarotako urte bi areitan ikusi ez eban neskatoa...? Orain, amasei urteko larrosa-pipilla biurtuta etxera etorten zan... Baiña... andereño eginda, betikoa izango ete, ala bere buruaz arroturiko neskatil orreitarikoa...?

Gogoan oldozkun oneik erabillezala, Mikel'ek larri ta urduri egun bi emon ebazan. Noizbait, bazkalostean Gorri gurdira buztartu, eta zarrastada andipean, Gernika'ra abiatu zan. Ordubete bateko aurrerapenaz eldu zan geltokira, eta berantetsia, espaloitik urrats biziakaz batetik bestera ibiltzen asi zan bere ezin-egona jabetu eziñik. Noizbait, Bilbao'ko trena oiko zarataz eldu, eta arnas-estuka gelditu zan.

Mikel'ek begikada ernaiaz gurdien erreskadea aztertu eban. Alako baten, neskatilla bat igikun ariñaz jatsi, eta ingurura begiratu-ta gero, urrats ariñez aurrera oldartu zan, auxe iñoala:

—Mikel, Mikel, banekian nire begira aurkituko zindukedazala...!

Urreratu yakon, eta morroiaren eskuak berenetan arturik, aurpegira begiratu eutsan bere oiko irribarre zoragarriaz. Mikel'ek bere ume kutunaren aurpegia aztertu eban, eta betiko neskato polita edo areago bazan be, ezin egikean azaldu aldakuntza bat, bere kutunagan oartzen ebala konturatu zan. Ego zabaldun eta galartzu batek apaindutako lasto-kapela eta jantzi zuri polita erabillezan. Mikel'ek irribarrez erantzun eutsan, eta orduan larrosa yaukala biurtzen asten zan lore-pipil baten aurrean egoala iruditu yakon. Edurne'k

oiko begikada maitekorraz begizatzen eban, eta atsegin andiz oartu zan Mikel, neskatoa betiko ume zoragarria zala.

Jarraian, neskatoaren axea gurdira ekarrita, biok Mendibe'rako bide-zabaletik abiatu ziran. Bidean gora joiazala, Edurnetxu gai batetik bestera txoria baizen alai joian. Bere gurasoakaitik itaunduta gero,

—Aizu, Mikel —galdetu eutsan—, orain esan egistazuz guda-rialdian izan dozuzan gora-beerak.

Llanos'en etxean gertaturikoa izan ezik, jasandako guztiak edestu eutsazan. Amaitu ebanean,

—Mikel —esan eutsan Edurne'k saieska begiratzen eutsala—, zuk burua betiko lepotik. El Txupi dalako orrek zuri ainbeste ezbear ekarrita gero, diru-mordo bat emoten dautsazu Ameriketara oztopo barik joan daiten. Ezin zagikedaz ulertu, Mikel.

—Zeuk be, orixe bera egingo zendukeala uste dot. Errioxarra barru-barrutik mutil oba-eziña da. Ba al-dakizu zertarako gura eban Ameriketara joan...?

—Zertarako...?

—Aberasteko, eta irabaziriko diruaz, ezagutzen ez eban ama idoro, eta erregin bateri dagokion bizierea emon. Ziur naz, El Txupi'k bere elburuak lortuko dauzala, ain ganorabakoa izan eta guzti, mutil langille ta maitekorra da. Zeuk be niretara jokatu zendukeala ziur naz.

—Bai, Mikel, zuzen zagoz.

Eta biok barre egin eben. Erria zearkatuta gero, Iturbe'rako bidean gora joiazala,

—Aizu, Mikel —itaundu eutsan Edurne'k—, artu al-zenduan nire azken oporraldietan Intxalde'tik igorri neutsun eskutitza...?

—Bai, Edurne, eta bene-benetan poztasun andia emon eustan, orduan zigor-gelan itxita aurkitzen nintzan-eta.

Mikel'ek esan nai ez eutsana, idazkia bere arasako bazter ezkutu baten gordeta eukala zan, eta ainbeste zabaltze ta tolestuz, idazkia lau zatitan urratzeko zorian zala.

Andik laster, Munabe'ko iturrira eldu ziran, eta Edurne'k morroiari an bertan gelditzeko eskatu eutsan, iturriko ur gozo ozki-riak edatearren. Edanda gero, bideari jarraitu eutsoen, aurrean Intxalde ta beronen inguruak edertasun betean agertzen yakiezala, udako arratsalde aretako aintzapean. Bere jaiotetxea ikustean, Edurne'ri begiak dizdiratu yakoan, auxe iñoala:

—Gure Intxalde dan ederra...! Etxekoek andereiño baten ezike-rea artu dagidan gura dabe, egunen baten gizon dotore aberats

batekin ezkondu naiten... Baiña nik ez dakit gure etxetik urrun zoriontsu izango ete nazan...

Au esanik, neskatoari asperen bat urten yakon, aurpegi polita illuntzen yakola. Zergaitia jakin barik, neskato kutunaren itzok entzutean, zorionezko zarrastadaren antzeko zerbait oartu eban Mikel'ek.

Etxeko kutunari abegi maitetsua egin eutsoen gurasoek, eta andik laster, oiko etxe-janzki bataz txori baizen alai agertu zan, txoko guztiak ikertzen ebazala. Agiri zan neskatoaren alaitasuna bere abia barriro ikustean.

Edurne'ren etorrereaz, Intxalde'k alaiagoa zirudian, baiña Txomiñ'ek, morroiaren aurka sentitzen eban gorrotoak, Mikel'eri etenbako buruausteak ekartsozan. Aalik eta artu-emon gitxien etxeko oiñordearekin izatea saiatzen bazan be, eziñezkoa zan teillatu berepean bizi diranak, iñongo igurtzirik ez izatea. Aal ebazan era guztia-kaz, Txomiñ'ek bere nagusitza zakar adierazoten eutsan, eta Mikel morroia zan ezker, ez ebala besterik egiteko men egitea baiño. Ezin egikean ulertu Mikel'ek, etsaitasun aren zergaitia, baiña len esana dan lez, gorroto aren sorpena bekaitza zan, arazo askotan morroiak lentasuna ebala ikustea, ain zuzen be. Arazo onek Martin naigabetzen eban, eta era guztiakaz gauzak leuntzen saiatzen zan.

Etxe-ostean egoan Muruzabal eritxan mendi-bizkarra sagasti biurtzea aspalditik asmatzen eban Mikel'ek. Muño au otadi utsa, igarogaitza zan, eta laureun bat sagarrondo azteko benetako lekua. Intxalde'ko morroiak igali-ondoan azkuntzari zaletasun andia eutsan, eta oneri buruz, asko irakurri izan eban. Etxeko oiñordearekin aalik eta zer-ikusirik gitxien izateko, Dagonilla'ko egun baten uga-zabari baimena eskatu eutsan, bere asmoa egi biurtzeko. Izan be, Intxalde'ko nagusia poztu zan, arazoak lekarkion onuraz gaiñera, gazte bien arteko artu-emonak gitxituko litzakezalako. Olan ba, baietza pozik emon eutsan.

Astirik galtzeke, Mikel'ek otadi usuari arratsalde baten su emon eutsan, eta andik egun batzutara, etxeko bei indartsuak buztartu, eta goldaketa neketsu bateri emon eutsan. Zorionez, lurra azkorra billakatu zan, baiña era berean arritsu izanik, geldi une ugari egin bear arriak banan-banan kentzeko. Onezaz gaiñera, abar eta sustriak baztertu bear izan ebazan. Jarraian, zazpi-ortzeko areaz lurra orraztu, eta au amaituta, narreaz mokillak autsi, eta bedarra erein eban. Guenez, laureun bat zulo sakon aitzurkatu ebazan sei bat metroko bitartera. Urtarrilla'ko ilbeeran landarak sartuko leukez, baiña bitartean, sustriaren onurako zulo-inguruko lurra illabetetan aize-

tuko litzake. Bere garaia elduta, landarak sartu baiño len, zulo bakotxan satsa ipiñiko leuke.

Sagarrondoan motari buruz, Mikel'ek naikoa oldozkun emon eutsan, eta noizbait, leku ta lurrari ondo etorkien iru sagar-mota autu ebazan: Errege-sagar, urtebete, eta boskantoi. Saltzeari buruz, ez egoan iñongo oztoporik; "Baserri" erriko denda nagusian salduko leukez, eta enparauak Gernika'n, illeroko lenengo astelen-zeian.

Azaldutako gertu-lanak amaitu ziranean, Dagonilla amaitzeko zorian zan. Aspaldi aretan ez eban abagune andirik izan Edurne ikusteko. Goizean esne-lorketea eginda gero, etxera biurtzen zanean, Muruzabal'era joian lurra atontzearren, eta eguberdian arin baten bazkaldu baiño ez, lanari jarraitzen eutsan illuntzerarte.

Bein baten, Muruzabal'en igaliondoentzat zuloak egiten ziar-duala, Edurne etorri yakon, eta eskuari oratzen eutsala, jausitako enbor baten gaiñean morroia jesarri-erazo eban, eta onen ondoan kokatu ondoren, auxe esan eutsan:

—Aizu, Mikel, zergaitik artu dozu lepo-gaiñean bear andi au...?

—Alde batetik, abelgorriarentzako bedar geiago izatearren, eta bestetik aalegin andi barik, sagarren bidez etxeko sarrera anditze-ko.

Une batez, Edurne oldozkor geratu zan, eta gero,

—Baiña, Mikel, bedar eta sagarren ekarriak ez dira zuretzat izango, aita edo nire nebarentzat baiño.

—Zuzen zagoz, Edurne, baiña morroi baten betekizuna, uga-zabarentzat aalik ondoen jardutea da.

Barriro be, neskatilla isildu zan, bekokian zimur bat eratzen yakola. Alako baten,

—Aizu, Mikel —esan eutsan aurpegiari begiratzen eutsala—, nik Intxalde'n betiko iraun zengiala gura izango neuke... baiña agiri da, zeu ta Txomin ez zariela ondo alkartzen, eta egunen bat etxetik joan zakiguzala bildur naz. Ori gertatuko ba'litz, benetan naigabetuko nintzake, beste neba bat bai'zintzazan maite zaitudalako, Mikel.

Arrats-beera zan orduko, eta ilten joian ozkorriak urre-gorritz edertzen eban neskatillaren adats joria. Begikadea urrutira zuzen-duta, Edurne'ren arpegiak itun-antzeko zerbait erakusten eban. Neskatillaren irudi aingerukoia, illunabarko kadentasunean biotze-raiño oartu eban Mikel'ek. Indarraldi itzela egiñez, Intxalde'ko morroia jagi zan, eta,

—Goazen, Edurne —mintzo itoaz esan eutsan—, goazen etxera berandu samar da-ta.

Neskatillea jagi zan, eta biok alkarren ondoan, isillik biurtu ziran etxera.

Iraillan danok arazopetuta billakatu ziran, Mikel batez be, irake-tea berak bakarrik egin eban-eta. Bigarren bedar-ebataldia egiteko garaia zan, eta aita-semeak ebate ta ondu-lanari emotsoela, koraiña artuta, Mikel mendian gora abiatzen zan egunoro ira-segari emote-ko. Iradia urrun samar egoanez, berarekin ogi-tarteko batzuk eroia-zan, eta illuntzean guztiz nekatuta etxera biurtzen zan. Intxalde'n ira asko erabili eroien, abelgorri asko azten zalako, eta au dala-ta, egu-raldiak lagaten ebanean etxeko morroiak buru-belarri iraketeari emoten eutsan. Segaldia amaitu zanean, gurdikada bete asko etxe-aurrean metatzen ziran pillo anditan.

Onetan eta beste lanetan ziar-duala, Irailla igarorik, Edurne'ri ikastetxera biurtzeko garaia etorri yakon. Urrilla'ren lenengo igan-dean etxeko guztiak besarkatuta gero, bere gauzak eroiazala Edurne etxetik urten zan. Mikel'ek neskatillaren bide-zorroa zalpurdian jarri eban, eta ugalak artuta, etxeko alabea ta morroia bidean bera abiatu ziran. Munabe'ko biurgunera elduta, Edurne'k zalpurdia gelditzeko agindu eutsan morroiari, eta atzerantz so egiñez, jaiotetxe-ari azken begiradea jaurti eutsan, eta,

—Intxalde dan ederra...! —esan eban begiakaz laztantzen eba-la— Goazen, Mikel.

Ez eben autu luzerik izan arrezkero, eta beste barik Gernika'ra eldu ziran. Mikel'ek bidai-txartela lortu eban, eta andik laster trena eldu zan. Morroiak bide-zorroa bagoira sartu, eta leiatilla-ondoan geratu zan, neskatoari azken agurra esateko.

—Aizu, Mikel —leiatillatik irautsi eutsan Edurne'k—, astero-astero idatzi egistazu aita-amaren alde, etxeko gora-beerak jakin dagidazan. Nik be astero idatziko dautsuet... Agur Mikel...!

Trena astiro urruntzen zala, Edurne'ren aurpegian beera malko andi bi agertu ziran. Mikel'ek leku berean zirauan, trena atzindu arte, eta gero itun eta goibel etxera biurtu zan. Bidean gora joiala, malko biek bustitako Edurne'ren aurpegi zoragarria ezin egikean gogotik kendu. Munabe'ko biurgune-ostean Intxalde agertu yakonean, etxea uts eta bakar iruditu yakon, eta orduan antzi baten antzera, auxe jaurti eban:

—Joan yaku Intxalde'ko lorea...!

Bajoiazan egunak aurrera, udagoiko arnasak bazterrak urrez-tatzen ebazala. Arto ta indiak uzta polita ekarri eben, eta jarraian aza ta azaloren landarak sartu ebezan, neguan batzeko. Baserrian lanak bakantzen ziran, eta Intxalde'koek etxe-barruko konponketari ta teillatu-atontzeari emon eutsoen. Noizbait, Azilla'n gudaritzaren zozketea gertatu zan, eta Txomiñ'eri itsas-zerbitzua jaurri edo etorri yakon. Augaitik urte biko jarduna izango leuke. Urte barrian, bide-

zorroa artuta, Txomin jaiotetxea itzi, eta biziera barria asteko urrundu zan. Noizean bein soillik, etxeokoi ikustaldi laburra egingo leuskie.

Intxalde'ko oiñordearen joateaz, Mikel'ek barruko dendu ta bakea birrirabazi ebazan, eta iñoizkorik baketsuen azaldu zan aspaldi luze bateri asiera emon eutsan etxeke morroiak. Lanean bete-bete saiatu bear izan eban Mikel'ek, garai aretan etxejoauna len baizen indartsua ez zalako azaltzen, baiña olan eta guzti be, pozik bizi zan, egindakoaren bikotxa egiteko be gai sentitzen zala. Astero etorkien Bilbao'tiko Edurneren eskutitza, eta au irakurrita, Martiñ'ek eta Errose'k alabeari iñotsoena idatzita gero, Mikel'ek bere kabuz guztitariko barriak idazkiari eratsi oi eutsazan. Noizean bein, ez sarritan baiña, Txomiñ'en izparrak etorkiezan, edo obeto esateko, diru-eskakizunak. Illabetero Mikel Gernika'ra jaisten zan, eta diru-bialketa bat egiten eban El Ferrol'era, uri urruntsu aretan Intxalde'ko oiñordeak ziarduan-eta. Igorritakoari, Intxalde'ko morroiak larregi eritxan, zerbitzuan bearrezkoa zana ondo ekian-eta, baiña bera ez zan nor eskatzen ez eutsoezan eritxiak emoteko.

Bitartean, Intxalde'ko etxaguntzaren ekarriak iñoizkorik andienak billakatu ziran, esne-saltzeari esker batez be. Muruzabal'go sagastian batzen zan bedarraren laguntzaz, bei-taldea anditu zan, eta onen ondorioz, diru geiago metatzen zan Martiñ'ek Gernika'ko diru-etxean jarritako kontu-agirian. Au zala-ta, etxejoaunak nasai ta itxaropentsu etorkiari begiratzen eutsan. Orduko, aren buruauste bakarra, semea etxera biurtzean gertatuko litzakena zan. Ondo baekian semea ta morroiaren arteko alkarteziña, baiña au urruntsu samar egoan aurretiko arrenkurai bide emoteko.

Negu aretan Mikel'ek laureun sagar-landara sartu ebazan Muruzabal'en len zabaldutako zuloetan, eta andik laster itxura ezin ohea erakusten eben. Uda aretan, oporraldia emoteko, oi eban lez Edurne etxera biurtu zan, eta beronen etortez, etxeak eta aldame-nak alaitasunez bete ziran. Pozez gaiñezka egizatzen eban Mikel'ek zelako andereiño polita biurtzen asia zan antxiña baten besoetan eroandako ume maite zoragarria. Eta udea begi-keiñu baizen arin amaitu zan.

MAITASUNA

Beste urtebete bat igaro zan, eta Edurne'ri ikastetxera biurtze-ko garaia etorri yakonean, Martiñ'ek eta Errose'k autu luze bateri emon eutsoen. Gora-beera guztiak zeatz aztertuta gero, auxe erabagi eben: ikastaroa azkenengoa izango litzakela, eta urrengo urte-ko oporraldia amaituta, Edurne'k Bilbao'n etxe on baten lagun-andereiñotzat jardungo leukela. Izan be, ikasketak amaituta, alperri-ko gauza litzake, iñork ezagutuko ez leuken alabea mendiko etxe baten gordetea. Ezkontza ona egiteko, abagune ugariagoak aurkeztuko litzakioz Bilbao'n bertan, etxean baiño.

Erabagi au mingarri azaldu yaken gurasoai, Errose'ri batez be, baiña alabearen on-izatea oroz gaiñetik egoan, eta bere ezkuntza-ren alde ainbeste diru eralgi ondoren, burubagekeri utsa izango litzakean asmoa bide-erdira soillik eroatea.

Olan ba, oi eban lez, Mikel'ek zalpurdiz eroan eban Edurne, azken ikastaroa bete egian, eta ereti onetan oikoa zana, Intxalde'ko morroia itun eta naigabez biurtu zan etxera.

Bizitzaren egutegiari bederatzi illabete igaro yakozan, eta uda pizgarriak zabaldi guztia edertasunez jantzi eban barriro. Arratsalde eder-ederra zan Intxalde'ko morroia Edurne'ren billa Gernika'ra abiatzen zanean. Larretatik usain gozoa lurrintzen zan, eta eguzkia-ren alaitasunak iñoizkorik dizdiratsuen argitzen eban zabaldia, dana bizitzaz gaiñezka pilpira gozoan sentitzen zala. Geltokira elduta, batetik bestera ibiltzen asi zan berantetsia. Noizbait, trena eldu ta gelditu zanean, Edurne jatsi ta bere oiko ibillera malguz urreratu yakon.

Etxeko kutuna ikustean, Mikel zur eta lur geratu zan. Edurne ez zan lengo neskato begiko ta polita. Aurrean emakume eder-ederra

ekusan, eta onen betsein urdiñen laztana ta aurpegi yaukalaren irri-barrea beragan untzaturik oartzean, biotza taupada zorotan asi yakon, eta zergaitia jakiteke, oiñaze esan-eziñak arimea zapaldu eutsan. Olan iraun eban zati batez, aurrean eban neskatilla ezezaguna bai'litzan-edo. Noizbait, Edurne'ren abots gozoa eldu yakon, onetaraxe zirautsala:

—Baiña Mikel, zer dala-ta orren itxura iñuzenteaz niri begiratzeko...? Ez nozu ezagutzen ala...?

—Bai, Edurne —erantzun eutsan morroiak ames batetik iratzarrita lez—.

—Orduan artu egistazu bide-zorroa ta goazen etxera.

Mikel'ek neskatillaren axea artu, eta laster zalpurdian jesarrita, etxera abiatu ziran. Bidetik joiazala, bere arritasunetik oraindiño biurtu barik, Mikel'ek aurrera begiratzan eban, alboan eroian neskatilla zoragarria arrotza bai'litzakion.

Etxeko morroia isillik zirauala ikusirik, Edurne txori baizen alaia izketan asi zan.

—Egunaren edertasuna, Mikel...! Niretzat ainbat ederrago etxerako garaia dalako. Ezin dagikezu asmatu, zein berantetsia aurkitzen nintzan etxera biurtzeko. Aurtengoa nire azken ikastaroa izan da, eta asko ikasi badot be, ondiñokarren zeuk dakizunetik oso urrun nagotzu. Zenbakiztia batez be, niretzat zailla izan da, eta askotan burura etorten yatan, zeu baizen ondo ta argi antxiña baten irakasten zeustana, orain be irakatsi ba'leuste, gauzak errazak billakatuko litzakezala. Dana-dala, ona emen Intxalde'tar Edurne, ande-reiño apaiña biurtuta.

Ona eldurik, barre egin eban, eta,

—Aizu, Mikel —jarraitu eban—, sarri-askotan burura yatorit zu benetako irakasle izango zintzakezala. Esan, aspaldi onetan gauzak ikasten jarraitu al-dozu...?

—Bai.

—Iñoren zerbitzari izan arren, asko dakizu, Mikel. Ain zuzen be, ez dozu morroi-itxurarik emoten. Zuri dagokizun bidea ez dozu artu. Bizi-bide ori ezinbestez artu dozu, bestelan...

Au esanik, Edurne'ri burura etorri yakon, umea zala zein sarri esana eutsan etxeko morroiari, ezkondu zeitenean, Mendibe'ko basetxerik ederrena erosiko leuskiola, eta au gogoratzean, irribarrez,

—Mikel —esan eutsan—, ez al-zara gomutaten umea nintzala, aberats batekin ezkondu neitenean basetxe bat erosiko neuskizula zein sarri agintzen neutsun...? Umeen gauzak... baiña aal izango ba'neu...!

Intxalde'ko morroiak isillik zirauan, eta Edurne'ren itzok entzutean areago goibeldu zan, burura etorkiola antxiña baten zein zoriontsua sentitzen zan, umeari orixe bera entzutean. Aspaldi bateko ames zoroak...!

Isillune baten ostean, Edurne'k barriro:

—Mikel, gaur lelotuta lez ikusten zaitut. Aita-amak eta Txomin zelan dagozan oraindiño ez daustazu esan.

—Guztiak ondo.

—Besterik ez...?

—Naikoa ez al-da...?

—Ez, ez da naikoa. Len etxera biurtzen gintzazanean, guztitari-ko gora-beerak emoten zeustazan, baiña gaur, ostera, asarre antzean ikusten zaitut, zer dala-ta...?

—Ezebez.

—Orduan ba, zuk isillik jarraitzen gura ba'dozu, or konpon, neu be isilduko naz eta kitto.

Au esanda, itxura asarrekoiaz Edurne isildu zan, eta alkarri itz bat bera be esan barik, etxera eldu ziran.

Edurne'ren biurpenak oiko alaitasuna ekarri eutsan etxeari, Errose'ri batez be, norekin itz egiteko ta jarduteko baeban-eta. Mikel, baiña, arrenkura andipean aurkitzen zan lenengoz, eta gau aretan bere gelatik zabaldua begizatzen ebala, barruko mintzo batek auxe iñotsan:

—Egunen baten gertatu bear ... Intxalde'ko alabea orain arte ume kutuntzat artu yok, baiña gaur lora yaukala biurtuta ikustean, emakumetzat maite yokala konturatu az...

Egia zan, Edurne'k beragan sortutako zarrastadea maitasuna zan, eta ain zuzen be, eziñezko maitasuna. Gau amesgarri arenean dana bake ta siltasuna zan. Mikel'en baitan, baiña, barruko mintzo batek bein eta barriro maitasun-zauria andiagotzen eutsan, onetaraxe iñotsala:

—Uste al-yok etxeko alaba kutuna iretzat izango dokala...? Mutil dotore ta aberats batekin ezkontzeko ezia dokan ande-reiño zoragarria, iretzat, Intxalde'ko morroi ezaintzat izango dokala uste al-yok zoro orrek...? Laga egik dana bertanbera, eta iges egik etxe onetatik, oraingo egoerea mingarriagoa biurtu yaikan baiño len. Iges egik, iges egik, bestela inpernuakoak ezagutuko dozak...!

Mikel'ek, baiña, baekian etxe aretatik une aretan ez litzakela joango. Gai zan, ain zuzen be, biotza miñetan eta oiñaze bizitan etxea izteko eta beste iñon bakea idoroten saiatu, baiña ezin egikion orain ugazabari alako saldukeririk egin, Txomin zerbitzutik biurtu zeiten arte, beintzat. Eta gero... Jaungoikoak indarrak emon-

go ba'leutsoz, Intxalde bein betiko itziko leuke. Bitartean, aalik eta artu-emon gitxien izango leukez Edurne'rekin.

Gero, oean etzanda lo egiten saiatu zan, baiña alperrik: Edurne'ren aurpegi zoragarria etenbarik agertzen yakon loa uxatuz. Noizbait, eta illargia ortzitik ostentzeko zorian zala, lo urduri batek artu eban.

Arrezkero, Mikel'ek bere erabagiari eutsi eutsan zindo, eta ain zuzen be, ez yakon zail gertatu, aspaldi aretan Intxalde'n zeri begira bazan-eta. Onezaz gaiñera, agiri zan ugazabari indarrak aultzen joiakiozala, eta morroiari oiko lana baiño geiago egiteko etorkion. Au zala-ta, Mikel goizetik gaberarte lanpetuta aurkitzen zan.

Irailla'n, lgotz mendian Eupeme Deunaren egunean, Gernika ta Markiñaldetik jendetza andia alkartzen zan ango baseleizan mezea entzuteko, eta gero illuntzerarte irauten eban dantzari emoteko. Urte aretan, Edurne'ren eragintzaz, jai aretara joatea erabagi eben Intxalde'koek.

Esne-pegarrak oiko orduan Iturbe'ra eroanda gero, janari-ediariak eurekin eroiezala, Martin, Errose ta Edurne zalpurdian jesarrita, bidean beera abiatu ziran. Berarentzat lekurik ezean, Mikel oiñez joian ibillera ariñez. Laster, baiña, atzeratu zan, eta ordu ta erdi igarorik, etxeakoak areitz baten gerizpean aurkitu ebazan, mendi-gorako bidea asten dan lekuan. Gorri zalpurdiarekin zugaitz batera lotuta, bidean gora abiatu ziran, atzetik Mikel'ek erraikiela jan-edariak bizkar-zorroan sartuta.

Eurok lez, gizoste andia leku guztietatik etorrita mendian gora joian, egun ederreko eguzkiak alaitasunez kutsuturik. Aldatzaren azkenengo zatia, arrizko mailladi luzez eratua zan, eta noizbait arnas-estuka baseleizaraiño eldu ziran.

Amabitan mezea entzunda gero, auresku ta ezpatadantzea ospatu zan, eta aldarerik onenean inguruko zelaian erromesak sakabanatu ziran bazkaltzeari gogoz emoteko. Intxalde'koak lizar baten gerizpean jesarri ziran, eta etxetik ekarritako janariari atsegiñez ekin eutsoen, noizbeinka, Errose'k atondutako limoi-edari ozkiri gozoa edanez. Bazkalduta gero, Martin bedarrean etzanda jarri zan biagoa egiteko, eta Errose erriko neskatil-talde batekin joan zan dantzan egiteko. Mikel, ostera, zer egin ez ekianez, or-emenka ibiltzen asi zan, eta noizbait, tontortxu bateko arri baten gaiñean jesarri, eta andik, beekaldean edatzen zan zabaldi ederrari begira geratu zan.

Edurne maite ebala oartu zanetik, neskeagandik aalik eta urrunen egoteko saiatzan zan. Ain zuzen be, arrezkero barruko bakea galdu izan eban, eta bere maitasunaren aurkako burruka latz baten

murgilduta bizi izaten zan. Sarri-askotan Intxalde betiko iztea burura etorkion, baiña ezin egikean Martin bakarrik laga, seme nagusia etxera biurtu arte beintzat. Gero, gerokoak esango...

Oldozkun oneitan zala, eta zabaldiko edertasuna begizatzen ziarduala, atzetik mintzo gozo batek bere senetara ekarri eban.

—Baiña, Mikel, zer zabiz emen bakarrik...?

“Baserri” dendako Yone zan. Neska polita eta etxeko alaba bakarra izanik, ogasun eta edertasunean erriko eskintza onenetariko zan. Neska onekin Mikel'ek artu-emon andia izan oi eban, etxeko ortuariak-eta denda aretan saltzen ebazalako. Yone'ri oso begi-koa gertatzen yakon Mikel, eta morroia izan arren, onen jasa ta txairotasunak ez eutsan iñori zor. Onezaz gaiñera, zenbakietan eta beste gauza askotan ondo ikasia zan. “Baserri”ko ugazabak be, begi ona eutsan Mikel'eri, mutil langille ta zuzena zalako, eta bere alabarekin bikote ederra egiten eban.

Yone ikustean, Mikel'ek irribarrez begiratu eutsan, eta.

—Kaixo, Yone, zer zabiz erromeritik orren urrun...?

—Orixe bera diñotsut. Non itzi dozu Edurne ba, orren bakarrik egoteko...?

—Ez dakit. Ortik ibilliko da, nire baimenaren bearrik ez dau-ta...

—Neu ba irrikan nozu dantzan egiteko, eta badozu nire baime-na dantzan egitera eroan nagizun.

Mikel'ek ez eban iñongo gogorik dantzan egiteko, baiña ezin egikion neskeari ezetza emon. Gaiñera, arrezkero, bere eskuari eutsita, Yone'k baeroian erromeria ospatzen zan lekura. Olan ba, ezinbestez, Intxalde'ko morroiak “Baserri”ko nagusiñekin, irraidan arinarin bat dantzan egin eban, eta jarraian, biribilketa baten eskuz-esku, batetik bestera ariñeketan jardun eben. Dantzaldia amaitu zanean, eta biok egarri ziran ezker, mai baten ondoan jesarrita edari otz bana artu eben. Amaitzean, Mikel joateko asmoz jagi zan, baiña Yone'k bere eskuari oratu eutsan barriro, eta,

—Aizu, Mikel —esan eutsan—, ondiñokarren goiz dan ezker, egin dagigun dantzan ostera be.

Eta barriro, beste dantzaldia biribilketa ta guzti egin eben. Jarraian, Yone'k gurasoakana eroan eban, eta oneik agurtuta gero, eurekin askaria izateko geratu zeiten eskatu eutsoen Mikel'eri, baiña onek, berandu samarra zala gogoraturik, nai-ta-ez joan egin bear ebala esan eutsen, eta Yone'ren eskaerak arren, Intxalde'koakana biurtu zan.

Andik alde egiten ebala, Yone'ren begi baltzaran ederrek mutillaren irudi eder, lerdinari, maitasunez erraikion. Baekian neskatil-

llak, morroi ezgauza zala diru aldetik begiratuta, baiña Yone'k dana itzita, munduko azkeneraiño jarraituko leuskio.

Itxalde'koek askariari ekiteko zorian ziran orduko, eta eguber-diko ondakin gozoai gogoz emon eutsoen. Danok ez, baiña, Edurne jangar aurkitzen zan, eta begitarte illunaz nekez iruntsi egikean jatekoa. Amaitu ebenean, Mikel'ek tresnak eta ondakiñak batu ebazan, eta lepoko zorrora sartuta, ibilte ariñaz mendian beera abiatu zan, zalpurdia gerturik eukiteko, ugazaba-ta eldu zeitezaneke. Alkartu ziranean, zalpurdian egokitu ziran goizean lez, Mikel'ek atzetik erraikiela oiñez.

Irailla izanik, Mendibe'ra eltzean illunabarra asi zan, eta Iturbe'n gora joian bidetik abiatu ziran. Edurne betillun eta isillik amaren alboan jesarrita egoan. Au alabearekin autu bateri emoten saiatua zan lgotz'etik biurtzen asi ziranetik, baiña alabeak orretarako gogorik erakusten ez ebala ikusirik, itz egiteari uko egin eutsan. Eta izan be, ereti aretan Edurne'k baebazan zioak asarre egoteko...

Arratsalde osoan Mikel'ekin dantzaldi bat bera be ezin izan... Baekian arazo onek garrantzirik ez ebala, berak be arratsalde guztia beste gazte galantek inguratuta iraun ebalako, onein artean Markiña'ko jauntxo aberats baten semea izanik, baiña... Umetarik Mikel bere jabetasuna bai'litzan begiratzen oitua zan Edurne, eta au zala-ta, aren betekizuna arratsalde aretan bein bederik berarekin dantzan egitea zan, baiña onen bearrean, Yone'kin dantzan egiten ikusi eban, eta gero biok alkarren ondoan jesarrita edari baten aurrean, eta au gitxi bai'litzan, "Baserri"ko nagusiñeak jan egin nai bai'leuan Mikel begiztatzen eban... Olakorik...! Eta gero dantzan egitera barrero. Zer uste izaten eban Yone'k, Mikel berea zala-edo...? Gaiñera, Edurne'k bere buruari autortu bear izaten eutsan, Yone neska eder-ederra zala, baita aberatsa be.

Oldozkun illun oneitan joian Edurne etxerako bidetik, gero ta asarreago sentitzen zala etxeko morroiaren aurka. Noizbait, bere sentipenai bide egiñik, zalpurdia gelditzeko eskatu eutsan aitari, nekatuta egoala-ta ain luzaro jesarrita joateagaitik, eta oiñez jarraitu nai ebala.

Jatsi zan ba, eta astiro ibilli ebillela, Mikel'ek laster atzemon eban. Biok alkarren ondoan aldatz-gora joiazan, baiña aspaldi aretan oikoa zana, Mikel'ek ez eutsan berbarik egiten. Isillaldia jasan eziñik, Edurne'k auxe esan eutsan:

—Ta, mutu biurtu al-zara...?

—Ez dot uste, gaur ni baiño barritsuagoa zareanik.

—Dirudienez, besteentzat gordeta dozuz zure berbak.

—Itz egiten daustenean erantzun be bai, orain zurekin egiten dodan lez.

—Baita dantzan egin be. Ikusi zaitut "Baserri"ko Yone'rekin txutxumuka ta barreka edari baten aurrean. Neska ederra da gero...! Mutu ez izanez gaiñera, begi ona daukazunik ezin ukatu. Jakingo dozu, urrean, neska ori oso aberatsa ei'da.

—Baleiteke, baiña ez dodaz iñoren diruak kontatzen.

—Egia izango da ori, baiña aberatsa dana danok dakigun gauza da, eta edertasunari buruz ori agiri da. Zer diñostazu...?

—Egia izango da, zeuk diñozun ezker...

Edurne asarre gorrian aurkitzen zan, eta barruko dendua galdurik,

—Eta gaiñera —jaurti eutsan irakite bizian— arratsalde osoan beragaz dantzan egin dozu, eta bein be ez zara nigana urreratu, gatx batek kutsututa-edo bai'nintzan... Esan, Mikel, zer dala-ta nigandik olan iges egin...? Zer egin dautsut, nirekiko jokaera ori erabilli dagizun...?

Illuntasunean zear Mikel'ek neskearen begi ederrak beragan untzatuta sentitzen ebazan, eta barrutik ezpanetara borborka etorkion maitasuna menperaturik, auxe esatea lortu eban:

—Niretzat betikoa zara, Edurne.

—Orduan zergaitik saiesten nozu...?

—Ez zaitut baztertzen, Edurne, baiña badakizu... Ugazaba ta biok bakarrik diardugu, eta etxean lan andia izanez gaiñera, aita ez da betikoa, indarrak makaltzen asi yakoz-eta...

—Baiña Txomin laster biurtuko da.

—Bai, eta orduan etxeko lanak erosoagoak egingo yakuz.

Azken itzok adore andi barik jaurti ebazan Mikel'ek, oiñordearen biurpenak aldi larriak ekarriko leukezala, barruko zerbaitek iñotsan-eta. Orduko, Edurne'ren asarrea baretzen asi zan, eta,

—Orduan zu —neskeak mintzoa gozotuz esan eutsan— betikoa izango zaiataz, ezta...?

—Bai, Edurne, betikoa izango naiatzu.

Orduko, etxera eldu izan ziran, eta astirik galtzeke, Mikel kortara sartu zan oiko jaisketea egiteko.

Egia iñoan Mikel'ek, guztiz lanpetuta ebillela esatean. Baiña onezaz gaiñera, Edurne'gandik aalik urrunen egoteko saiatzen zan. Zintzoa izanik, baekian Intxalde'ko morroiak etxeko alaba ederra berarentzat ez zala, eta oarpen mingarri onek etenbarik kezkatzen eban. Bere barruko zuzentasunak aalik ariñen Intxalde betiko lagatea eragiten eban, eta noizbait, Txomin etxera biurtu zeitenean, aukerako lenengo abagunea ustiatuz, etxe aretatik betiko joango li-

tzakela erabagia eban. Mingarri azaldu yakon, benetan, ebazpen au lortzea, baiña beste urtenbiderik ezean, egiterik zuurrena zan. Aугaitik, bere biotzaren ezkutua, ez leuskio ezelan be Edurne'ri adierazoko. Eta orretarako biderik ziurrena beragandik urrunen egotea zan. Ain zuzen be, artutako erabagi oneri zintzo erraikion.

Urrilla'n Edurne'k Bilbao'ko Andra zaar andiki baten etxean andereiño laguntzailletzat jardun egian, gurasoen asmoa zan, baiña... Gizonak ekin eta Jaungoikoak egin. joateko ta egun batzuk aurretik, Errose gatx batek jota billakatu zan, eta Edurne'k lagunduta, Gernika'ko osagille baten aolkuz, Bilbao'ko bereizlari bategana joan zan. Onek aztertuta gero, ebakuntza bat egin bearko leuskiola esan eutsen ama-alabai, min-bizi baten asierea zan-eta, baita aalik ariñen be, gatxa sustraitik atarateko egoerarik onenean aurkitzen zalako. Jakiñaren gaiñean ipiñita, Martiñ'ek baietza emon eban, eta astirik galtzeke ebakuntzea egin zan. Ondo azaldu zan dana, eta onen ostean, gatxaren azken aztarnak ezerezteko, Errose'k irrati-aldi baten ekintzea jasan bear izan eban. Aspaldi aretan, Edurne'k bere izaerea Intxalde ta geisotegiaren artean banandu bear izan eban. Astean iru egun emoten ebazan etxean, eta enparaua amaren ondoan.

Au zala-ta, Martin eta Mikel aspaldi batez euretara konpondu ziran, eta ez ain txarto, biok oitura neurritsukoak izanik, laster artaratu baiziran egoera barriari. Gabonilla'ren asieran, sendaldia amaituta, eta aurre-igarkizun onakaz ain zuzen be, ama-alabak etxera biurtu ziran. Geisotasunaren ondorioz, eta aspaldi batez Errose'k atsedean osoa izan egian, Edurne etxean geratzeko zan. Izan be, jaiotetxea maite-maite eban neskatillari, au gogokoa billakatu yakon.

Egutegiaren gurrupillak beste urte bateri asiera emon eutsan, eta onekin batera, gudaritza beteta Txomin etxera biurtu zan. Asikera berberatik, etxeko oiñordea betikoa zala oartu eban Mikel'ek. Aspaldiko oitureari jarraituz, etxekoak itz laburrakaz agurtu ebazan, eta morroiarentzat ez eban itz bat bera izan. Etxetik urten zan baiño argalagoa ta nekatuagoa emoten eban, bidaiak eraginda, aurki. Zana-zala, egunen bidean bere itxurea obatu zan, eta aspaldiko adorea lanari emon eutsan.

Txomiñ'egandik aalik urrunen egoteko saiatzen zan Mikel, baiña teillatu baten pean bizi diranentzat ori ez da erraza. Baekian Txomiñ'ek, Intxalde'ko ugalak eroateko garaia ur egoala, eta augaitik, etxeko morroia gero ta zakarrago erabillen. Oartua zan baita be, aitaren beerakadeaz, eta bere aukeran egozan bide guztiakaz Intxalde'ko ugalak berarentzat nai ebazan. Baiña...

Bein baten, beien azpigarria barriztuta kortatik urten-agiñean zala, atadian egozan aita-semeen autua entzumenera etorri yakon. Ezustez artuta, Mikel ate-ondoan gelditu zan, eta,

—Aita —Txomiñ'ek iñoan—, gudaritzara joateko nintzanean, andik biurtzean etxeko agintaritzara emongo zauskidala berba emon zeustan, eta egia esateko etxe onetan oindiño ez dot ezer erabilten. Badirudi, etxeko morroia baiño eskubide gitxiago dodala, oindiño diru ta beste arazoetan, esku-sartzerik ez daukat-eta.

—Dana elduko yatzu, seme, ez larritu. Etxeko arazoetzaz jabetu-ala, eskatzen dozuzan aalmenak banan-banan emongo yatzuz.

—Begira, aita, oindiño ez naz nor Gernika'ko diru-etxeko kontuan ogerleko bat bera be sartu ta atarateko, eta gaiñera, jaiegunetan lagunarterako dodazan diru-apurrak, ume baten antzera eskatu bear dautsudaz.

—Baiña, seme, badakizu Intxalde'ko etxaguntza zuretzat osorik izango dala. Itxaron apur baten, gauzak ondo erabilten ikasi dagizun arte.

—Beti diraustazu lelo bardiña. Baiña zelan ikasi eretik emoten ez ba'daustazu...? Etxeko morroi ezgauza orrek badau dirua erabilteko eskubiderik. Nik ostera...

—Aizu, Txomin, Mikel'eri dirua sartzeko eskubiderik emon dautsat, baiña ez atarateko.

—Neuk ba, ezta sartzeko be. Badirudi, gurera gosez ilda etorri zan morroi kokolo orrek, etxeko oiñordeak baiño begirune geiago merezi dauala, baiña egunen baten, baita laster be, dagokion lekuan ipiñiko dot...

—Txomin, arren, ez olakorik esan...!

Baiña amorraturiko mutilla sukaldera sartu zan, ateari danbada itzela omonez.

Etxeko guztiak lo egitera joanak zirala gau aretan, sutondoan jesarrita, Mikel'ek begiratze galduaz egurren garrai so egiten eutsen. Ezin egikean len entzuniko autua burutik kendu. Txomin etxera biurtu aurretik, baekian Intxalde betiko itzi bear izango leukela, eta gau aretan arazoa iñoizkorik argien ekusan. Etxeko oiñordeak len baiño zakarrago erabillen, eta etxetik-at igortzen ez ba'eban, aitaren bildurrez zan, baiña zelan edo alan egunen baten eretia aurkeztuko litzakio, eta orduan iñongo erruki barik kanpora botako leukela.

Oldozkun illun oneitan Intxalde'ko morroia sutondoan egoala, etxe aretati alde egiteko garaia eldu izan litzakiola, gero ta argi-ago ikusten eban. Izan be, auxe bakarrik izango litzake etxe aretara bakea ekarriko leukena. Onezaz gaiñera, aita-semeak gai ziran

etxeko egitekoak ondo beteteko, eta Martiñ'ek urteen bidea erakusten baeban be, oraindiño bazan nor lanak ondo egiteko, eta gaiñera, bere zakartasuna ta guzti, Txomin betiko mutil langillea azaltzen zan, eta bien artean etxaguntzeak ez leuke oztoporik ezagutuko.

Baiña Intxalde'ko morroia gau aretan geien eragintzen ebana etxetik joateko, Edurne'ganako maitasuna zan. Azkenengo ikastaroa amaituta Gernika'ko geltokian ikusi ebanetik, neskatilla zoroki maite ebala oartua zan, eta arrezkero, bide guztiakaz biotzetik erauzten saiatu bazan be, dana alperrik, gero ta maiteago ebalako. Egunoroko lanaren-lanez, aren gomutea gogotik zeozer uxatzen baeban be, gabaz oean etzaten zanean, aren oroitz lilluragarriak ez eban bakean izten, eta artega iraultzen zala, bere egoeraren larritasuna agirian aurkezten yakon, barruko mintzo batek auxe iñotsala:

—Zoaz betirako etxe onetatik, Edurne zuretzat iñoiz ez da izango-ta. Uste al-dozu Intxalde'ko alaba kutuna etxeko morroiarentzat izango danik...? Andereiño baten ezierea artu dauan Edurne zoragarria, gazte aberats karreradun batentzat izango da, eta ori ondo dakizu ezain orrek. Kaikua, besteren kaikua...! Alde egin etxe onetatik berandu izan baiño len, bestelan gero ta zaillago biurtuko yatzu...

Gau aretan sutondoan bakarrik egoala, etxekoen arteko bakearren, eta bere maitasunagaitik, Intxalde'tik alde egin bearko leukela, iñoizkorik argien ekusan. Urrengo egunean, eskaratzeko mai-gaiñean txarteltxu bat lagako leuke bere erabagiaren azalpenaz, eta iñor agurtu barik, Intxalde'tik betirako joango litzake. Gero, bere jaiotetxean aspaldi bat iraungo leuke, bitartean egitekoa argi ikusi arte.

Gaba aurrera joian, eta berandu samar izanik, oera joateko gertatzen zanean, esku baten zirkin leuna sorbaldaren gaiñean oartu eban. Burua biurtu, eta Errose bere ondoan ikusi eban. Etxekoandreak errukitsu begiratzen eutsan, eta beste aulki baten jesarten zala,

—Esaidazu, Mikel —itz egin eutsan maitero—, zer dala-ta orren berandu emen bakarrik egoteko...? Aspaldi onetan arrenkura baten pean zakust, eta orrek arduratzen nau benetan, semetzat zaitudalako. Irautsi egidazu dana, Mikel, eta neugan izatekotan, lagunduko dautsut.

Intxalde'ko morroiak ez ekian zer esan, baiña Errose'ren begikada maitekorrari ezin zeitekion jarki, eta soak sutan jarrita, auxe esan eutsan:

—Ara ba... Txomin biurtu danetik, etxe onetan oztopoa nazala konturatzen asi naz, eta egunen bidean soster ori gero ta andiagooa egiten dala, agirian dagoan gauza da. Aspaldi onetan arazoari

dagokion ardurea emon dautsat, eta noizbait etxe onetatik joateko erabagia artu dot gaur. Biar bertan...

Au entzutean, begietan malkoak ebazala, Errose'k Mikel'en eskuai oratuz, didar baten auxe esan eutsan:

—Mikel, Jaungoikoarren, ez zaitetz joan, ez gagizuz itzi...! Bildur naz, bildur naz...!

Aurpegia eskuen artean estalduz, Errose'k negarrari emon eutsan. Mikel'ek ez ekian zer egin, eta noizbait auxe esaten azartu zan:

—Baiña, ugabazandrea, zeren bildur izan...? Etxekojauna ta Txomin, badira gai etxaguntza au bear dan lez erabilteko. Gaiñera, bearrezkoa izatekotan, Txomiñ'ekin ondo alkartu daiten beste morroi bat ekarri dagikezue.

Errose'k malkoz beteriko aurpegia Mikel'eganantz biurtu eban, eta,

—Ez, Mikel, ez —negar baten esan eutsan—, suzmo illun batek jota nozu. Txomin gurea, ez da etxetik zerbitzura joan yakuna, ez, ango bizikereak-edo, bestelatu egin dau. Beti zeozer okerra izan da, eta zeuk nik baizen ondo dakizu, baiña aldiaren bidean arteztuko litzakigularen itxaropen bizia izan dot beti. Orain, baiña, etsiak jota nago, griña gaizto baten pean ez ete dagoan nire buruari itauntzen dautsadala. Etxe onetakoakan iñoiz ez ezagaturiko oiturak beragan sustraitzen asi ez ete diran, kezka betarik nozu...

—Nasaitu zaitetz, ugazabandrea. Nik beintzat ez dautsat zeuk azaltzen daustazun griña gaizto ori iragarri. Dana lengora biurtuko da, eta ni joanda gero, gauzak errazagoak izango dira...

—Ez, Mikel, arren...! Bene-benetan diñotsut: ez gagizuz itzi orain, gauzak zertan amaitzen diran ikusi arte, beintzat. Zuk badakizu semetzat zaitudala... jarraitu etxe onetan, bear zaitugu-ta... Begira... ni ondiñokarren jasandako ebakuntza dala-ta, ez naz ondo sentitzen, eta aspaldi batez makal iraungo dot. Augaitik, Edurne andereiño baten ezkuntzari jarraitu bearrean, etxean geratu da neuk eskatuta. Onezaz gaiñera, Martin ez da betikoa, aspaldi onetan indarretan asko galdu egin dau-ta. Etxe onen erabiltea, beraz, Txomiñ'egan datza, baiña arrenkura bizipean nagotzu, nire semea lengoa ez dalako. Ez gagizuz itxi, Mikel, arren...!

Intxalde'ko morroiak maite eban Errose benetan, amatzat izan be, onek beti semetzat erabilli izan eban-eta. Mikel be, zergaitia jakin barik, bildur bakan batek jota egoan, eta Errose'k itarauntzunik arrenkura berbera be aspaldi aretan oartzten asia zan. une batez oldozkor iraun eban, eta gero irribarreka,

—Nasaitu zaitez —esan eutsan—, aal dagidan artean zuekin emen izango nozue.

Errose'ren itxura naigabetuak bakeari bide egin eutsan, eta ezkerrenez gaiñezka, etorria baizen isillik, urrats neketsuz bere gelara igon zan. Andik laster, pozik eta naigabez batera, ilbilte malgu ta isillaz, Mikel ganbarako bere lo-gelara abiatu, eta ukalondoak leioan kokaturik, gogoeta sakon bateri emon eutsan. Izan be, Edurne'gandik ur egoteak zorion bakana ekartsan, baiña aldi berean, neskatilla zoragarria beste batentzat izango litzakelaren oldozkunik, samiñez bete eban. Berak, aberastasunezko etorki nasaia eskiñi aal ba'legio...! Zoritxarrez, sendi ezeuki baten kimu ezaiña zan, eta bizitzan zear morroi baiño besterik ez litzake izango. Noraiño maite eban bere kutunak ba'leki...! Baiña au eriotzeraiño eroango leuken ezkutua izango litzake, eta onetan bizitza joango balitzakio be, iñork ez leuke ezer jakingo.

Egunak bajoiazan aurrera, eta Intxalde'n, gauzak astiro ta etenbarik aldakuntza bat jasaten asi ziran. Etxeko oiñordeak morroiari eutsan gorrotoa, gero ta agiriago egiten zan, eta Martin gazte biak alkargandik aalik eta urrunen aurkitu zeitez an aalegintzen bazan be, ezin egikeazan bion arteko artu-emonak eragotzi. Ereti oneitan Txomiñ'ek Mikel'eri itz egiten eutsanean, aalik eta erarik gordiñean erabilten eban, eta bere izenaz berba egin bearrean, "i morroi" esaten eutsan, aal eban itz gogorrenakaz erabilten ebala, adibidez,

—Aiko, morroi, egik au edo bestea, baiña arin baten, orretarako ago emen-eta.

Mikel'ek agindutakoa egin oi eban, Txomiñ'en erabilteak mintzen baeban be. Sarri-askotan, dana bertanbera itzi, eta beste iñora joatea burua etorkion, baiña bereala Errose'ri itz emondakoa gomutara etorkion, eta gogo txarraz bazan be, burua makurtzen eban.

Egunen bidean, oartzen asi zan Mikel, semeari buruzko Errose'ren arrenkurak benetan oiñarrituak zirala. Izan be, Txomin ez zan gudaritzara joan zan ber-bera, eta Intxalde'ko morroia oiñordearen arazoetan sartzen ez bazan be, agiri zan jaiegunetako gabea, zeozer bustita etxera biurtzen zala. Oiko oitureari jarraituz, jaiegunetan etxeko gazteak Mendibe'ra jaisten ziran arratsaldea lagun artean emoteko. Martin eta Errose etxean geratzen ziran geienetan, gero ta etxezaleago biurtuta, adiñaren legeari jarraituz. Bazkalduta gero, Txomin errira joian, eta andik ordubete batera-edo janzki barriaz eta ondo orraztuta, eguzki dizdiratsuaren antzera Edurne agertzen zanean, etxeko morroiak zalpurdia gerturik eban, etxeko alaba zoragarria errira eroateko.

Ikastetxetik azkenengoz biurtu zanetik oi eban lez, Mikel'ek ez

eutsan berba askorik esaten neskatilleari, eta isiltasunean bilduta, errirakoa ta etxerakoa egiten ebazanean, Edurne'k noizean bein iñotsanari, itz urriakaz erantzuten eutsan. Neskatillearentzat agiri zan bere Mikel betikoa ez zala, eta beste neska eder batentzat izaten asten zala. Bai, "Baserriko" Yone'k, neska aberats eta begikoak, edozein atxakiz Mikel'ekin berbatan jarduten eban, eta begi illunkara ederrakaz mutilla laztantzen eban bere jabetasuna bai'litzan. Edurne'k ezin egikean olakorik jasan, txikitarik etxeko morroia berari bakarrik egokion gauzatat ikusten oitua zan-eta. Augaitik, eta etxeko morroiaren berba urriakaitik, Edurne'ri jaiegunak jasan-eziñak billakatzen yakozan, eta onezaz gaiñera, berarentzat errian mutilletan aukera gitxi izanik, apur-apurka errira joateari uko egiñik, gurasoekin etxean geratzen asi zan.

Au zala-ta, Mikel errira bakarrik joian, eta ardandegiek erakarten ez ebenez, beste lagunekin pelota-lekuan ziarduan, eta gero enparantzan une labur batez dantzan egin ondoren, eta neskekin autu laburra izanik, illuntzea baiño len etxera biurtzen zan, beiak garaiz jaistearren. Txomin, ostera, Gernika'ko bidea laster ezagutzen asi zan, eta erri onetan lagunarte zaratatsu ta alaiakin jaiegunetako arratsaldeak emoten ebazan, bere asmotarako Mendibe orain estuegia zan-eta. Olan ba, astiro-astiro, gudaldian ikasitako ardandegietako giro ganorabakoa gero ta atsegiñago biurtzen asi yakon, berandu biurtzen zala etxera, gurasoak lotan ziranean. Au zala-ta, Edurne aren begira egoan beti eta ez zan oeratzen nebea etxera etorri arte. Izan be, neskatilleak zuur jokatzen eban, ostantzean, sarri-askotan zurubian gora joateko, oiñordeak txarto ikusiko eban bere burua, arrebearen laguntza barik oeratzeko.

Augaitik, eta gurasoek semearen jokabidea oartu ez egien, igandero Edurne'k Txomiñ'en biurpenari itxaron oi eutsan, josketalanaren bat esku-artearen ebala. Gau baten, zurubian gora laguntzen eutsala, oi baiño edanago izanik, Txomiñ'ek mailla baten oztopo egin eban, eta beekalderaiño txirindolaka jausi zan. Jauskerek sortutako zarateak oean egoan Mikel erakarri eban, eta jazorikoaz konturaturik, Edurne'ri lagundu eutsan nebearen gorputz kankailla oera eroaten. Ekintza onen bitartean, mozkorraren lurriñen artean, erdizka bazan be, Mikel alboan ebala konturatu zan, eta mintzo totelaz onetaraxe asi zan:

—Ken adi morroitzar ori, ez ni ukutu ire esku zantarrakaz... azteria ez dot artu gura-ta... zorritsu, besteren zorritsu...

Arrezkero, jaiegunoroko gabetan, Mikel'ek be Intxalde'ko oiñordearen biurpenari itxaron oi eutsan, eta bearrezkoa izatekotan, aren soin lazoa zurubian gora eroian.

Egoera onetaz, baiña, Errose konturatua zan, eta oean atzarri, estu ta larri iraun oi eban, semea etxera etorri arte. Gaixoak ez eban ezer esaten, baiña agiri eban aurpegi ta begietan, jasaten eban naigabe sakona. Oraingo kinka larria baiño len, oartua zan semea gudaritzatik etorri ta laster, lengoa ez zala, eta bildur bakanak jota, etxetik joan ez zeiten Mikel'eri eskatu eutsan. Ezagutzen eban bere seme ta morroi arteko alkarteziaña, eta etxeko etorkia zala-ta, argi-argi ikusten eban Mikel iñoizkorik bearrezkoen zala. Bein baiño sarriagotan, burura etorri izan yakon, mintegiana abadetza laster beteko leuken bere seme Andoni'ri etxera dei egitea, baiña gero damututa, uxatzen eban oldozkun ezegoki au. Ezin egikean ezelan be, Jaungoikoari eskiñitako semea kendu, eta au otu izatearen oldozkun soillak lotsaz beteten eban, eta bere aukeran eban bide bakarrari, au da, otoitzari, buru-belarri emoten eutsan. Martiñ'ek lengoa iraun ba'leu, orduan gauzak beste itxura bat eskiñiko eben, baiña bere senarra orain ez zan nor, etxaguntzak eskatzen eban lan aztuna, berak bakarrik burutzeko. Agiri zan baita be, ardaorako zaletasunaz batera, semeak lanerako adoretan galtzen ebal. Intxalde'ko itxaropen bakarra, beraz, Mikel'egan zetzan, baiña Errose gaixoa bildur ezkutu batek jota bizi zan.

Naigabe onein artean, Errose'ri itxaropen eta poztasuna ekartsazana, Edurne bere alaba kutuna zan. Onegan bere uste osoa jarrita eban, eta sarri askotan azaltzen eutsazan bere arrenkurak, eta izan be, Edurne amaren naigabeak aalik ondoen uxatzen saiatzen zan. Len izandako ebakuntzatik, Errose bajoian apurka-apurka sendatzen, eta indarrak irabazita gero, alabea Bilbao'ra barriro igortzen asmatzen eban, andra dotore ta aberats baten laguntzailletzat jardun egian, eta bidebatez, eretiak aurkeztuko litzakioz mutil onen bat ezagutzeko. Edurne'k, baiña, ez eban olakorik entzun gura, jaiotetxea maite-maite ebalako, eta aita zala-ta, onen osasun-beerakadeak larritasun andia eragiten eutsan. Onezaz gaiñera, Intxalde'ko alabea konturatzen ez bazan be, biotzaren atean sentipen barri batek dei egiten eban, batzutan zorion-zero bateraiño eroiana, eta bestetan atsekabezko oxin baltzera... Baiña laga dagigun ezkutu au, bere garaia etorri arte.

Egunen urrats geldi-eziñak aurrera joiazan, eta uda aretan, oikoa zan lez Andoni etxera biurtu zan illabete bat oporretan emoteko, Saturraran'go abadegaitegira joan baiño len. Ogetabi urteko mutil eder eta maitekor au, urte bi geroago abadetzeko zan. Onen etorrereak, etxea illuntzen eben odeiak zelanbait uxatu ebazan, eta etxeko lanetan aal eban giñoan ziarduan. Laster oartu zan Andoni bere anaiaren ardo-zaletasunaz, eta itz gozoakaz griña orretatik

bide onera ekarten saiatu zan. Bazirudian, bere laguntzari esker gauzak zeozter artezten zirala, baiña zoritxarrez, oporretako illabete ori arin igarorik, etxetik joan eta laster, Txomin lengoa azaldu zan.

Lagunen eragintzaz, uda aretan Gernika'ko pelotalekua ikeretzen asi zan, eta baratxe-baratxe demarako griñak menperatu eban. Asikeran, aitak lagunarterako emotsan diruaz posturak egiten ebazan, eta bere zoritxarrerako, lenengo dematan diru-mordo bat irabazi eban, eta jokorako irrika zoroak artuta, ezarpenak gero ta andiagoak biurtu ziran. Joku-sareetan jausten dana, baiña, nekez urten daiteke, eta auxe jazo yakon Intxalde'ko Txomiñ'eri. Batzutan irabazi, eta bestetan irabazitakoa ta geiago galduz, ez eukana jokatzen asi zan, galdurikoa noizbait irabaziko leukelakoan.

Dematan ziarduan bitartean, adimen zorrotzaz jokoari jarraitzearren, Txomiñ'ek ez eban lengo beste edaten, eta au agiri zan ezkerero, etxekoak nasaitasun andiz oiñordearen onerako aldakuntzea oartzen eben. Errose'k batez be, zorionezko sentipenaren pean bere semea lengoa izaten asten zala uste izan eban. Laster igarri eban Txomiñ'ek amaren beraganako uste ona, eta eretia ustiatuz, garaia zala etxeko diru-arazoetan esku-sartze izateko eskubidea, aal eban giñoan bein eta barriro amagan ereintzen asi zan.

Egoera zoriontsu aretan, Errose'k ezin egikion bidezkoa zirudiana semeari ukatu, eta bere kabuz, bearrezkoa zan senarraren baimena lortzen saiatu zan. Izan be, aldi aretan naikoa makal oartzan zan Martiñ'ek, emaztearen eragintzari amor emon eutsan, eta bein baten semeak lagunduta, Gernika'ko Aurrezki Kutxan eban kontu agirirako eskubide betea emon eutsan. Garai aretan kontu orren gainkiña irurogei milla ogerlekokoa zan. Egun zoriontsua billakatu zan Txomiñ'entzat, eta bearrezko agiriak aita-semeak izenpetuta gero, etxera biurtzen zirala, jokoan zenbat-gura irabazteko bidean egoala uste izaten eban Intxalde'ko oiñordeak.

Orain, baiña, eskuko atzamarrakaz dirua zenbatzeko bearrik ez eban Txomiñ'ek, eta irrikaz posturak edo demak andika jarten asi zan. Bide irristakor onetatik, batzutan irabaziz eta besteetan irabazirikoa ta geiago galduz, etxeko kontu agiria aldatz-beerako bidetik joanda, egun baten gainkiña uts billakatu zan, eta ezin bez bez Intxalde'ko oiñordeak zor-agiriak izenpetzen asi zan...

Gure aberriko udagoi gardena barriro elduta, zabaldia urrezko aintzapean iñoizkorik amesgarrien edatzen zan. Iraketea egitearren, egun areitan Mikel mendi-gora joan oi zan goizetik, eta illuntzean Intxalde'rakoa egiten eban. Areitariko arratsalde baten, gurdi bete ira ekarrela, ibillerea idien urrats nagiai egokituz, Mikel etxera biur-

tzen zan. Ibilli ebillela, Intxalde'ko morroia oldozkun atsegiñetan murgildurik joian, eta izan be, baebazan zioak pozik oartzeko. Urte batzuk lenago Intxalde-atzetiko otadian berak landaturiko sagastia, lenengoz igali bikaiñez beterik ikusten zan. Onezaz gaiñera, bazirudian Txomiñ'en olde biurria zeozer zuzentzen asten zala, eta onen ondorioz, bion arteko artu-emonak len baiño askozaz errazagoak biurtuak ziran, eta ain zuzen be, egoera onetan zer-ikusi andia izango eban aitag emoniko diru-erabiltearen aalmena.

Egun aretako ortzi aratzean, morroiari agertzen yakon odei bakarra, Edurne'ri eutsan ordainbako maitasuna zan. Baekian, etxeko neska zoragarria gazte andikiren batentzat izango litzakela, eta etxeko alabearen irudi kutuna, bere gogoetatik erauzten saiatzen bazan be, dana alperrik billakatua zan. Mikel mutil zuzena izanik, argi ekusan nai-ta-ez Intxalde'tik alde egin bearko leukela, eta orain batez be, etxeko arazoak zuzentzen joiazala zirudienean, etxean iraungo leukelaren Errose'ri emondako berbak, orain ez eban beartzen, gauzak benetan aldatu izan ziran-eta. Aro aretan etxeko lanak arintzen asten ziran ezkerero, udagoiaren amaitzeaz batera, Intxalde betiko lagako leuke, bere biotza ler egiteko zorian aurkitu bazeiten be.

Oldozkun oneitan joiala, Intxalde baiño len aurkitzen zan azken bide-okergunea artzeko zala, Mikel zur eta lur geratu zan. Bide-okergunea artzeko zorian, Edurne ikusi eban. Negar-zotiñak aren soin liraiña astintzen ebela, Mikel ikustean oldartu yakon, eta aurpegia morroiaren bularrean jarrita, auxe esan eutsan negar baten:

—Mikel, Mikel, au bai ezbearra, gureak egin dau...

Mutillak ezin egikion ulertu neskatillak iñotsanari, eta asiera baten bere buruari itaundu eutsan, etxeko alabea zoratu ez ete zan... Onen negarra, baiña, baretzen ez zala ikusirik, eskutik artu eban, eta bide-ondoko mukur baten gaiñean jesarri-erazo eban, bere ondoan egokitzen zala. Gero Edurne bere zerera biurtzen zala ikusirik, auxe itaundu eutsan.

—Orain Edurne, esan egistazu zer gertatzen dan.

Edurne'k burua jaso eban, eta negar-antuluakaz estaliriko begi eder-ederrak Mikel'enetan untzaturik, onetaraxe asi zan:

—Bazkalostean aita-amak eta irurok autu nasai bateri emoten geutsala, Gernika'ko pelotalekuko ordezkaria zala azalduz, gizon bat sukaldera sartu da. Nor zana adierazota gero, gauza mingarri batek ekarrela esan dausku, eta jarraian mamira joan da. Esan dausku, jokoan egiñiko zorren ondorioz, Txomiñ'ek pelotalekuko zaintzari, irurogei milla ogerleko zor dautsazala, eta eurok, zaintzakoek, arazo gutzia onez-onean atondu nai eben ezkerero, aste bateko

epea emoten euskuela zorra garbitzeko, ostantzean Txomin espetxera sartuko leukiela. Aitag orduan, bere kontu agirian zorra ordaintzeko beste baekala esan dautso, eta biar bertan diruketa ori eroango leuskiela. Baiña ai ene...!

Onaiño eldu zanean, negarrak itota, Edurne'k edeskia eten bear izan eban. Entzundakoa ia siñistu eziñik, eta soiña izerdi otz batek bustita ebala, Mikel'ek bere buruari itauntzen eutsan, entzuten ebana egia izango ete litzaken... Gero, Edurne'ren mintzo itoa onetaraxe jarraitu eban:

—Baiña ai ene...! aitaren eskintza entzutean, ordezkariak esan dautso, Aurrezki Kutxako kontu agiria utsean egoala. Aitaren aurpegia ikusi ba'zendu...! Aldigatx batek jota zirudian, bein eta barriro auxe iñoala: "Ori eziña da, eziña...! Amak ukalondoak mai-gaiñean jarriak eta aurpegia eskuakaz estalia, negar mingots bateri emoten eutsan. Pelotalekuko ordezkariaren aburuz, egindako zorra garbitzeko bide bakarra, Intxalde baituran jarri baiño beste urtenbiderik ez egoala esan dausku, ostantzean erruduna kartzelara sartuko leukiela. Orduan aitag baitura egiteari baietza emon dautso. Datorren astean, Gernika'ko baratarianean, bearrezko agiriak izenpetuko dira.

Une batez Edurne isildu zan, eta gero mintzo itoaz, onetaraxe jarraitu eban:

—Mikel, gure Intxalde lur-jota dago, baiña aita areago. Ikusi ba'zendu bere aurpegia, pelota-lekuko mezularia etxetik urteten zanean...! Areitz tantai batek oñezturiak jota emoten eban, eta sorura jausteko zorian aurkitzen zanez, amak eta biok ia narrazka zurubian gora eroan eta oeratu dogu. Arrezkerero, an datza isil-isilik begi gartsuakaz sabaiari begira ta begira. Esaidazu, Mikel, zer egin dagikegu...?

Intxalde'ko morroiak ez ekian zer esan. Begiak lurrean josita, eta ezpanak estu-estu, iñoiz ez oaturiko larritasunak menperatzen eban. Zelan edo alan, Edurne'ren atsekabea arintzearen itzen billa saiatzen zan, baiña ezin egikeazan idoro. Otu yakon bakarra, auxe izan zan:

—Nasaitu zaitez, Edurne. Asiera baten diran baiño txarragotzat artzen dira ezbearrak, baiña gero gauzak euren zerera datoz. Goazen etxera, ordua da-ta.

Etxera joiala, sumin basati batek menperatzen eban. Etxeko oiñorde arroak jokorako griñak artuta, erriko etxaguntzarik ederrena zan, eta mendiko egian kokatuta bitxi bat zirudian Intxalde ta onen lur joriak, ondapenera eroan izan ebazan, guraso ta etxekoen egoereari jaramonik egiteke. Zital alena...! Ordurarte ez eban iñoiz alako

amorrubia oartu, eta idiak buztarritik askatu bitartean, eskuak dardarikatzen yakozan. Jarraian, idiak etxe-ondoko ur-askan eda nerazorik, kortara sartu ebazan.

Idiak askan lotu, eta oi eban lez arein bizkarra igurtzita gero, kortatik urteteko zorian zala, abelgorriaren azpigarria barritzeko, Txomin atzeko atetik azaldu zan. Etxekaltea ikustean, sumiñezko irakitepean, Mikel aregana joan, eta begiai txinpartak eriezala,

—Egia al-da...? —itaundu eutsan.

—Egia, zer...? —Txomiñ'ek erdeiñuz erantzun eutsan.

—Pelotalekuan etxeko etorkia jokatu dozula...? —agiñak esturirik argitu eutsan Mikel'ek—.

—Eta iri zer, morroitzar ori...? Ez yok iñongo eskubiderik niri kontuak eskatzeko, ergel, babalasto orrek. Eta orain ken adi nire aurretik, kokolo ori...!

—Zital eta etxekalte bat zarala esan barik, ez naitzu joango. Etxekoen geroa arrisku gorrian jarri dozu, eta izan be, giltzapetu zagiezan merezi dozu.

Au entzunik, sumiñezko lerdea eriola, esku biakaz sardea erabilliz, Txomiñ'ek eraso eutsan, auxe iñotsala:

—Madarikatua bedi etxe onetara etorri intzan eguna...!

Mikel alde batera saiestu zan; teinkada indartsu batz sardea eskuetatik erauzi eutsan, eta kortako beste txokora jaurti ondoren, jarraian, gazte bien arteko ukabil utseko burruka itzela sortu zan. Astiro baiña etenbarik, Mikel'en ukaldiek euren biziko sarraskia egiten eben etxeko oiñordearen aurpegian. Sumin itsupean, onek, baiña, ez eban atzerarik egiten, eta aurpegian beera odola parrastaka eriola, aal eban giñoan jarkiten zan. Ezin egikean, baiña, luzaro iraun, eta laster ezinbestez alboka egiten ebala, aurpegia besoakaz estaldu eban. Alako baten, ezustez, morroiaren ukabilkada itzelak okotzpean jo eban, eta tximista batek jota lez, konortea galduta lurrera amildu zan. Arnas-estuka, une batez Mikel aren ondoan geratu zan, baiña Txomin bere senetara biurtzen ez zala ikusirik, izuzko zirrara batek menperatu eban, eta zer egin ez ekiala, arin baten urten, eta bereala suil bete ur ekarrela, aurpegiaren gaiñean isuri eutsan, eta jarraian odolduriko aurpegia txukatu. Alako baten, Txomiñ'en soiña igitzen asi zan, eta noizbait begiak edegi ebazan. Mikel'ek naitasunezko asperen bat jaurti eban, eta orduan bere eginkizuna argi-argi agertu yakon...

Intxalde'tik alde egin bear betirako. Etxeko oiñordearekin izandako burrukaren ostean, ez egoan beste urtenbiderik, eta gaiñera, Edurne'ganako maitasun zoro ta eziña bere biotzetik erauzteko,

urruntasuna osabiderik onena izango litzake... Olan uste izaten eban, beintzat, Intxalde'ko morroi zoribakoak.

Ariñeketan bere gelara biurtu, eta kaleko soiñekoz jantzi zan. Gero, txataltxu baten esku dardartsuz, auxe idatzi eban:

“Barkatu egistazue, baiña egindakoaren ostean, etxe au betiko laga bear dot. Burrukan egin dot Txomiñ'ekin, eta basaki erabilli ondoren, ezin dot etxe onetan jarraitu. Agur”.

Gero, arrapalada baten sukaldera jatsi, eta txataltxua mai-gaiñean itzita, etxetik urten zan. Ozkarbiko gau otzaren zear amaibako izarrek ñir-ñir egien, morroi naigabetuaren oiñaze bizia baretu nai bai'leuen. Urrats ariñez bidean beera abiatu zan, eta andik laster bere irudi txairoa illuntasunean ezabatzen asi zan. Maitasunaren-maitasunez etxera biurtu zeiten bildurrez, ez eban burua atzerantz zuzendu nai, eta noizbait atsekabe bizian, Munabe'ko bide-okergu-netik ostendu zan.

Andik laster, Edurne sukaldera yatsi zan, eta mai-gaiñeko mezua ikusirik, dardar baten irakurri eban. Amaitzean, negar-zotin garaiteziña biotzean gora iges egin yakon, eta etxetik urtenda, bidean zear begiratu eban. Gabeko bakartasunean ez zan ezer ikusten ez entzuten, eta etsiak jota malkoak aurpegian beera eriozala, itz oneik iges egin yakozan:

—Mikel, zergaitik joan zara...? Biurtu zaituz, maite zaituz-eta... Zein zoribakoa sentitzen nazan jakingo ba'zendu...! Etxe onetan danok bear zaitugu, baiña nik batez be, nire maite ori...!

Mikel etxetik betiko joana zala konturatu zanean, iñoiz ez lako larritasun batek menperatu eban. Bapatean jakin eban Mikel'ek bere bizitza guztia bete izan ebala, eta oartzen eban asarrea beste neskatillekin ziarduanean, “Baserriko” Yone'kin batez be, berarentzat bakarrik nai ebalako zan. Morroia Intxalde'ra etorri zan lenengo unetik, Mikel ziurtasun eta indarra izan zan berarentzat. Gero, anai nagusizat artu eban, eta urteen bidean adiskide ta maisutzat. Orain ordea, galdu izan ebala egiztatzean, oroz gaiñetik eta betiko maite izango leukela, lenengoz oartzen zan.

Edurne negarrez geratu zan bideari so ta so egiñez, baiña gabeko lenengo itzalek oro estaltzen eben, eta noizbait, etsiak jota, iñoiz ez ezagaturiko naigabe larripean, etxera biurtu zan.

ETXEKALTEA

Arrezkero, bazirudian zoritxarra ta ituntasuna Intxalde'z jabetu izan zirala. Egunek astiro jarraitu eutsoen alkarri, etxe aretan berba gitxi aditzen zala, eta are gitxiago barreen alaitasuna. Martiñ'ek amar urtez zaarrago emoten eban, eta or-emenka ebillen lanari lotuta aal eban giñoan, baiña agiri zan osasunaren beerakadeak ez eutsala adore andirik emoten lanerako. Intxalde'ko etxejoaunak beti izan zan berba urriko gizona, baiña orain ituntasun larriak jota, barruan ez eban itxaropenik sentitzen, bere gogoetan itxita bizi izaten zala. Aren elburu bakarra, etxea zelan edo alan ondapenetik ataratea zan, baiña ondo ekusan guztiz zailla izango litzakiola. Arba-soakandik jarauntsiriko etxaguntza ederra ondapenera joan zeitekealaren oldozkun larriak zorozeraiño zapaltzen eban. Egoera estu ta itogarri onetan, itxaropenezko eragintza indargarria ez eban oarzen.

Errose aren baten edo gaizkiago aurkitzen zan. Bere senarren arrenkurak kutsatuta bizi zan, baiña geien mintzen ebana, Martiñ'ek osasunean jasandako beerakadea zan. Senarra isil eta bere baitan itxita begikadea utsean galduta ikustea, eroan-eziña gertatzen yakon. Intxalde'ko etxeoandreak, ostera, ebakuntzaren ondorioetik polito bizkortzen joian, eta au zala-ta, etxe-barruko zeregiñak ondo beteten ebazan, baiña bizitzarako guraria, pozik bizi izaten zalakoa egiten baeban be, itzungiten joiakion.

Eduerne, aitaren ondo-izateetik dilindan bizi zan, eta onen geriza biurtua zan, leku guztietara laguntzen eutsala, eta maitasun biziz erabilela. Kanpotik betiko irribarre gozo ta alaia erakusten eban, baiña ezin egikean Mikel'en irudi txairoa gogotik kendu, eta bakarririk egoanean, begi ederrak ituntasunez beteten yakozan, bere mai-

tasun-miñean iñoizkorik ederren zirudiala. Ez eban uste andirik Mikel barrero ikusiko leukela, baiña olan eta guzti be, barruko txokoren baten, Intxaldeko morroia bein edo bein ikusiko leukelaren joran zoroa beratzaz jabetzen zan. Oiñazetan bizi bazan be, maitasun arek bizitza edertzen eutsan. Mikel beti maite izango leuke, beti...

Pelotalekuko ordezkaria zoritxarreko bela mezularitzat Intxalde'ra etorri eta astebete batera, Gernika'ko baratariaren aurrean, emazteak lagunduta, Martiñ'ek baituraren agiriak izenpetu ebazan, semeak egiñiko zorraren baibentzat. Egun aretan bertan etxera biurtu baiño len, Martiñ'ek semeari emondako dirua erabilteko eskubidea kendu eutsan. Baituraren baldintzak guztiz zorrotzak ziran. Korrituaren eunekoa, orduan erabilitakorik andiena zan, eta sei illabetero ordaintzeko baldintzaz. Epe au igarorik, korritua ordaintzen ez ba'zan, arturenduna Intxalde'ko etxaguntzaz jabetu leiteke. Senar-emazteak zalpurdiz etxera biurtzen zirala, Martiñ'ek ezin egikeazan barruko arrenkurak uxatu. Andik sei illabetera baituraren eunekoa ordaintzeko zan, ostantzean... Errose be oldozkun baltzetan murgilduta joian. Alako baten, argi-argi burutapen bat etorri yakon. Zergaitik lenago gomutara ez...?

Izeko neskazar batek itzitako arizti eder-edarra aspalditik jabetzen eban Errose'k. Dalako baso-sailla Munitibar'en egoan, eta ordurarte bizi izateko bearrezkoa ez yakon ezkerro, ia aztuta eban. Arratsalde aretan senarrarekin etxera biurtzen zala, ustekabez gomutara etorrita, Martiñ'eri auxe esan eutsan:

—Aizu, Martin, oroituko zara, aurki, izeko lgone'gandik nik jarauntsiriko Munitibar'ko arizti ederra.

—Egia esateko, aztuta neukan. Zein andia dan be, ez naz gogoratzen.

—Ogei ta amar gizalan-edo ebazala uste dot. Dana-dala, dago-kion agiria etxeko kutxa baten gordeta dagoalakoan nago.

Une batez senar-emazteak isildu ziran, eta,

—Entzun, Martin —jarraitu eban Errose'k—, zer deritxazu baso-sail orren saltzeari...?

—Olakorik ez yat egundo be burura etorri. Uste al-do zu urruntsu dagoan arizti orrek asko balioko dauanik...?

—Ez dakit ba, baiña ara joan ezkerro... Zeozer artzekotan, gure etxeko baitura arindu geinke.

—Ez aztu, Errose, gure baitura irurogei milla ogerlekoko danik, eta basa-bazter orren ordaiñez jaritsiko geunkezan apurra-kaitik...

—Izeko zanak ba, beti gorai patzen eban Munitibar'ko bere

ariztia. Zugaitz ederrez estalduta izanez gaiñera, bidetik ur samar ibar emonkor baten jarrita egoalako.

—Olan izango da zeuk diñozun ezkerro, baiña...

Eta era onetan, Munitibar'ko ariztia autu-gaitzat artuta, senar-emazteak etxera eldu ziran. Edurne'k oiko abegi txeratsua egin eutsen, eta Martin bideko bilin-bolakak zirala-ta, nekaturik aurkitzen zanez, laster oeratu zan. Kaleko janzkia erantzi ta etxekoa sartu baiño ez, Errose'k kutzako aztertzeari emon eutsan, eta noizbait, azpikaldean zerrenda gorri bat azaldu zan.

Apalostean, eta Edurne'k ontziteria adalako arradapean garbitzen ebala, Errose'k jabetasun-agiria eskuratu eutsan Martiñ'eri. Au, agiria astiro irakurten asi zan, eta irakurri-ala, gero ta zudu andiagoa oartzen eban. Ain zuzen be, bere emazteak esanda lez, ogei ta amar gizalanekoa zan, eta an agertzen ziran zeatzen arauz, leku on baten zetzan.

Gora-beera oneik ondo ausnartuta gero, andik iru egunera erri-berebillean, Errose Munitibar'era joango litzakela erabagi eben senar-emazteak, eta ango udal-idazkariarekin baso-saillaren saltzeari buruz jardungo leukela. Izan be, gauzak Intxalde'koek uste izan baiño ariñago garautu ziran, eta andik amabost egun igarorik, udal-idazkariaren mezuari jarraituz, Errose Munitibar'era biurtu, eta idazkariaren aurrean, erosle batekin sal-erospeneko ituna itzez onartu zan. Arratsalde aretan zorionez gaiñezka, Markiña'ko erri-berebillean Errose Mendibe'ra biurtzen zala, gau aretan Martiñ'ek zelako poztasuna artuko leuken buruan erabilen Intxalde'ko etxekoandreak.

Orren pozik, baiña, ez zan sentitzen Txomin, bere semea. Jokoan egindako zorra estalgetu zanetik, apaldua izan zanaren oarpenaz bizi zan. Txiki-txikitarik, Txomin arrotasunaren oparia izan zan, eta bere anditasunezko ames zoroen ostean, ezagutzen eben guztien aurrean etxekalte burubakotzat billakatu izateak lotsaz beteten eban, eta au gitxi bai'litzan, ez eban iñongo esku-sartzerik etxeko arazoetan. Jaiegunetan, arribil baten antzera or-emenka ardandegiz-ardandegi ebillen, lagunuen lepotik aal eban eran edanez, orretarako dirurik ez eukan-eta, aitzak Aurrezki Kutzako kontu agirirako eskubidea atzera kendu eutsalako. pelotalekuaren aurretik igaroten zan bakotxean, ango barrutik etorkiozan burrunbak eta bitartekoen didarrek postureak aldarrikatuz, bere onetatik ataraten eben.

Etxeko bearrak gogo txarraz bazan be, zelan edo alan beteten ebazan. Mikel joan zanetik, beien jaisketea ta goizoroko esne-peg-

rren lorketea berari egokiozan, baiña eginkizun oneik adore barik egiten ebazan, eta lengo bere bizikerea oraingoarekin bekaldetuz, jasangatxa billakatzen yakon. Intxalde'ko bazter aspergarritik beste iñora egan egin aal izango ba'leu...! Baiña zelan, beti ezkur barik egoan-eta...? Lagun-artean egoanean, sarri askotan jazarten eban zoritxarra aipatzen eban, guztien aurrean bere burua adur gaiztoaren oparizat azalduz. Pelotalekuko posturetari ain zoribakoa izan ez ba'litz, noraiño elduko ez litzakean...? Lagun batzuk, etxea izteko ta itsasoan zear mundu barriak ezagutu egiazan eragiten eben, baiña diru barik, bizitzaren garraztasuna...!

Norabarik ebillen Txomin zer egin ez ekiala, etxeko giroa gero ta ta jasan-eziñago billakatzen yakon. Alako baten, baiña, etxean jazoera baten suzmurrak oartzen asi zan, eta entzumena zorrotzuz, or-emenka Munitibar'ko baso-saillaren gora-beera batzuk batu ebazan, eta sarri askotan bere buruari iñotsan aren diruaz berak egingo ez leukena...!

Illuntze aretan Errose pozez lertu-agiñean intxalde'ra eldu zanean, barri-ekarle andia zalakoan, Txomiñ'ek lo-gelaraiño jarraitu eutsan, eta entzumen ernaiaz ate-ondoan jarri zan. Illuntze-orduko oi eban lez, Martin oean zetzan, eta poz baten Errose'k auxe esan eutsan:

—Arazoa erabagita dago, Martin. Erriko idazkariak esan daust, Munitibar'ko zerrategiko nagusia ariztia erosteko gerturik dagoala, baita sari onean be. Begira, ogei ta amar gizalanakaitik berrogei ta amar milla ogerleko emongo dauskuz. Au bai zoriona...! Diru orregaz gure baitura garbitzeko, amar milla ogerlekoen faltan geratuko gara, eta laster, beraz, Txomiñ'ek egindako zorra kittu egingo dogu.

—Mutil barrabasa...! —erantzun eutsan Martiñ'ek— ez neuke iñoiz pentsau, gure semeteriko batek, orren burubage jardungo leukenik. Batzutan nire buruari itauntzen daust, gure seme ori bigu-negi ezi ez ete dogun...

—Ez larritu, Mikel, joanak joan, eta orain poztu zaitez, gure etxeko baitura laster garbituko dogu-ta.

—Zuzen zagoz, Errose. Aspaldi onetan, gaur lenengoz alaitu yat biotza. Dana-dala, beste morroi bat etxera ekartea pentsau bear dogu-edo...

—Mikel baizen ona ta indartsua ba'litz...!

—Ez uste, Errose, bera lengo beste morroi bat idoroko dogunik. Bein baiño sarriago zakar eta zuzenbako erabilli dot, baiña urteen bidean ia semetzat maite izatera eldu naz. Txomiñ'ekin izandako burrukea jazo ez ba'litz, oindiño gurekin egongo litzake, eta nik neuk beintzat, gauzak argiago ikusiko neukez.

—Txomiñ'ek esan euskunez, kortan beien azpigarria barritzan ziarduala, ezustean, Mikel'ek atzetik eraso eutsan, eta zoro antzera sardaren kirtenez jo eban konortea galdu arte...

—Niri dagokidan aldetik ba, olakorik ez dot siñisten. Mikel ez da iñori etoien antzera ustekabez atzetik oldartzen yakon orreitari-koa. Ori Txomiñ'ek diñoana da, eta gure morroia etxetik joan dan ezkeru, egia ez dogu iñoiz ezagutuko.

—Ez gaitez larritu, Martin, gaur egun pozgarria izan dogu-ta. Ekaitzaren ostean eguzkia iñoizkorik ederren agertuko yaku. Len esan dautsudanez, zerrategiko nagusi ori gure ariztia erosteko gerturik dago, eta izan be, ordaintza esku-diruz izango da, eta nire jabetasun-agiria, baita zeuk idatziz emoniko baimena, lege-barruan dagozan ezkeru, etzi arrastian bere etxera joan naitela, eta diru-txarteletan erosleak ordainduko daustala esan daust idazkariak.

—Orduan etzidamu —ebagi eutsan Martiñ'ek—, Gernika'ra jatsita, gure baiturea orrenbestez gitxituko dogu, eta gauzak nik uste lez jarraitzekotan, onik urtengo gara.

Edu onetan senar-emazteak euren autuari jarraitu autsoen. Txomiñ'ek, baiña, naikoa ondo entzun izan eban guztia, eta atehondotik aldentzen zala, gogoeta sakon bateri emon eutsan. Maltzurkeri ta guzurretan Txomin ez zan edozelakoa, eta arazoa beretara konpontzea erabagi eban, eta izan be, gau aretan oera orduko, egitekoa ondo ausnartua eban.

Ordaintza-eguna elduta, egubardia barik Txomin errira jatsi, eta emen Markiña'rako erri-berebillan bazkal-orduko Munitibar'en zan. Eroslearen etxeko elbideari buruz itaunduta, aren etxera abiatu zan, eta somatua lez, erosleak bazkaltzen ziarduan.

—Zer nai dozu, mutil —itaundu eutsan zerrategikoak—.

—Begira, Jauna —apal eta lotsakor erantzun eutsan Txomiñ'ek—, ni Intxalde'ko Errose'ren semea nozu. Gaur, sal-erosketaren dirua jasoteko zala, esan daust amak, baiña zoritxarrez, ondoez batek jota etxean lotu bear izan dau, eta bere orde diruaren billa joan neitela agindu daust. Emen dago berak izenpetutako arte-agiria.

Erosleak agiria artu, eta begiraldi laburra emon eutsan. Txomin maltzurak aurregunean atondutako txartel onetan, ariztia erosten ebanegandik, saltzailleak berrogei ta amar milla ogerleko ariztiaren ordain-sarizat artzen ebazala baiezten eban Errose'k. Mutil zitalak ontzat emoten eban, berak itxuraturiko amaren izenpetzeari, erosleak ez leuskiola ardura andirik emongo, eta olan jazo zan.

Diruaren billa joan-agiñean zala, erosleak mutillaren begiai tin-ko so egiñez, auxe esan eutsan:

—Aizu, Txomin, lengo egunean, Intxalde'ko semeak pelota-dematarako zaletasun andia ebala, arandangian nire ezagun batek esan eustan. Egia al-da ori...?

Bide irristakorretik joiala bereala konturatu zan Txomiñ, baiña zorionez, bazirudian erosleak ez ekiala ezer Intxalde'ko baiturari buruz. Errubako baten itxuraz, eta begiak lurrean josita, apal-apal auxe erantzun eutsan:

—Jauna, damu dot bein edo bein lagunen eskaerai jaramon egin izatea; badakizu, barregarritzat artu ez izatagaitik eta ori. Baiña aspalditik uko egin dausat oitura zantar orreri, eta zin egin dot, munduko urre guztiagaitik be, pelota-leku baten barrero ez nabela ikusiko.

—Ondo diñozu, gazte. Dematan dabillena etxekalte biurtzen da, eta azkenean bere burua galtzeraiño be. Zagoz emen apur baten, eta bereala ekarriko dausut dirua.

Andik laster, zorrotxu baten dirua ekarrela azaldu zan eroslea, eta dirua Txomiñ'en aurrean zenbatuta gero, alkarri bostekoa emonda, gaztea urten, eta taxi bat eskatuta, Bilbao'ra artez-arteaz joan zan, eta urrengo egunean, Ameriketa'ra joian itsasontzi baten, ames-zorroz beterik, lur barrien billa abiatu zan, atzean ondapena ta amaibako samintasuna lagaten ebazala.

INTXALDE'KO LOREA

Arratsalde aretan Munitibar'etik etxera biurtzen zala, Errose'ren oiñaze bizia ta etsipena zelakoak ziran adierazoteari, uko egingo dausagu. Irakurlearen irudimenak, edozein azalpen baiño beteago ulertuko dagike, Intxalde'ko senar-emazteen oiñaze izugarria, semeak egindako marrokeria jakin ebenean. Etxeko egoerea larría zan benetan, eta etorkia illun baiño illunago aurkezten zan. Etxean orain ez egoan iñor Intxalde'ko egunoroko eginkizuna bete egikeanik, gizon gazte baten indar eta adorea uts egiten eben-eta.

Kinka larri onetan geien jasaten ebana, Martin etxekojauna zan. Betekizun aginkortzat, uxa-ezintzat oartzen eban etxeko jabetasuna ondorengo bateri emotea, berak bere garaian aitagandik artu izan eban lez. Orain, baiña, nori emon, eta gaiñera, zer emon...? Etxean alaba kutuna baiño besterik ez eban, eta onezaz gaiñera, andereiño billakatzeko ezi izan zan, egunen baten gazte karreradun aberats batekin ezkontzeko, ez baserriko lan zakarretan jarduteko. Eta au gitxi bai'litzan, Intxalde ondapenera epaitua zan, baiturako korrituari sei illabetero aurre egiteko zan-eta. Aren eunekoa andienetarikoa izanik, baekian Martiñ'ek ordain-epari uts egitekotan, oiñetxea beste iñoren jabetza billakatuko litzakela. Bera lan egiteko gai izan ba'litz...! Baiña Intxalde'ko etxekojauna gaitz senda-eziñak jota egoan, egunik-egun makaltzen zala, eta ondo bai ondo ekian berak, mundu onetan luzarorako ez litzakela izango. Izan be, ez eutsan bildur eriotzari, baiña bere jaiotetxearen azken negargarriak, eta emazte-alaben etorki illunak larritzen eban.

Errose emakume zangarra zan, eta len izandako geisotasunetik etenbage sendotzen zalaren egiztapenak adoretz beteten eban. Baiña aren buruaustea bere senarra zan. Argi oartzen eban onen

osasan-beerakadea, eta barruko oiñazea Intxalde'ko ondapena aurretik igartean. Au zala-ta, bide guztiakaz Martin adoretzen saiatzen zan, gaixoak errazoi andiak ez baebazan be senarraren arrenkurak uxatzeko. Baiña aal eban giñoan, alai ta barritsu azaltzen zan beti, gauza atsegiñak soillik zirala bere autu-gaia.

Intxalde'ko kutuna, Edurne, lenengo unetik oartu zan etxeko egoera larriaz, eta aika barik bere aalmenean egoanari buru-belarri emon eutsan. Olan ba, eta Errose'ren betekizun nagusia bere senarraren ondo-izateari begiratzea izanik, Edurne'rena aal eban giñoan etxeko lanai emotea zan. Egunoroko beien jaisketea ta zaintza bere gain artu eban, eta goiz guztietan, Gorri gurdia buztartuta, betiko oitureari jarraituz, Iturbe'rako bidea artu oi eban esne-pegarrak eroateko. Gaiñera, beste lan zakarrak gizon baten kemenaz bete oi ebazan, onein artean etxeko ortuaren zaintza izanik. Bedar-ebateari ezin emon egikeanez, abelgorria larradian alatzen zan goizetik gaberarte. Intxalde'ko Lorea...! Nork ezagutu len artutako andereño baten eziera, Edurne'ren oraingo esku-barren latz eta atzazkal zirtzilletan...!

Baiña olan eta guzti be, giro zakar aretan Edurne lora zoragarri baten antzera bereizten zan, eta zabalduko biziera arek, neskearen edertasuna agirian jarten eban. Sarri askotan etxeko ataditik Muna-be'ko iturriraiño edatzen zan bidea begizatzen eban, eta menperatu-eziñeko asperen bat iges egiten yakon, Mikel'en irudi txairoa gogoratzean. Bera joan ez ba'litz...! Egunen baten biurtuko ete litzake...? Noraiño maite eban berak ba'leki...! Baiña ez, bere Mikel maitea betiko joana zan, joana, eta eutsi-eziñeko malko eder bi begietatik aurpegian beera jausten yakozan.

Edu onetan zirauan Intxalde'ko bizitzak, eta noizbait, lenengo sei illabeteko epea igaro zan, eta onekin batera, baituraren korritua ordaintzeko bearra aurkeztu be. Etxeko sarrera bakarra esnearen obaria zan aspaldi aretan, baiña lengo beste ez izanik, kontu zeatzak eginda gero, ordaintza-bearrari aurre egiteko, buztar-idiak eta iru bei saldu bear ziran, etxerako bost bei geratzen yakiezala.

Bigarren ordaintza-epea urreratu zanean, agiri zan Intxalde'ko azkena ur egoala. Bein baten illuntzean, Errose'k etxeko sapailotik Martiñ'eri oera laguntzen eutsala, kinka larriak eraginda, etxeko jaunak emazteari auxe esan eutsan:

—Errose, gaur buruari ekin eta ekin iraun dot. Illabete bi barruan bigarren ordaintza egin bear izango dogu, eta ain zuzen be, nire ainbaketearen arauz, oraingo onetan, bost beiak, Gorri, gurdia eta lanabesak saldu bear izango doguz, eta...

Ona elduta, arnas-estuak beartuta, Martin isildu zan. Onen larritasuna ikustean,

—Ez zaitez atsekabetu, Martin —esan eutsan Errose'k—. Laga dagigun gure arazo ori Jaungoikoaren eskuetan, eta gero gero-koak...

—Bai Errose, orixe baiño beste biderik ez dot ikusten, baiña gure kutunaren etorkiak da orain kezkatzen nauana. Gaixoa naikoa ta lar etxearen alde aalegintzen da, eta gaiñera, etxe onetan laster ez da zeri begira izango. Auxe da, beraz, nire erabagia...

Arnasa artzearren une batez isildu zan Martin, eta gero,

—Edurne Bilbao'ra joango da —autuari jarraitu eutsan etxeko jaunak—, eta egondako ikastetxean jardun bat eskatuko dau, esaterako, andra baten andereño laguntzaillea-edo...

—Zuzen zagoz, Martin —eten egin eutsan Errose'k aren arnas-estua oartzean—, eta bidenabar, ereti ugariak izango dauz dago-kion gazte aberatsen bat ezagutzeko. Bai Martin, zuzen zagoz, eta gaur oeratu baiño len Edurne'ri esango dautsat.

Aginduta lez, apalostean Errose'k alabeari,

—Aizu, Edurne —esan eutsan—, aitak eta biok zuri buruz berba egin dogu, eta gure erabagia, Bilbao'n jardun bat billatu dagizula da...

—Baiña, ama —alabeak eten egin eutsan—, aita dagoan egoerean zelan zuek biok bakarrik itzi...?

—Begira, Edurne, auxe dogu biderik onena. Laster etxe onetan ez da izango zeri eldu, bigarren ordaintza-epeari aurre egiteko abelgorri ta lanabes guztiak saldu bear izango doguz-eta. Zure aita zaintzeko ta ortuan barazki batzuk batzeko naikoa ta lar nozu. Zuk, ostera, Bilbao'n dirurik irabazi dagikezu, eta au onuragarria izan daiteke, bearrezkoen gaiak erosteko, aitarentzako osakaia batez be.

Edurne une batez oldozkor egon ondoren,

—Bai, ama, zuzen zagoz —erantzun eutsan—, gerturik nozue joateko.

—Gaiñera, nire alabatxu orrek, an abagune ugariak izango dozuz mutillen on bat ezagutzeko, baita egokitzeotan ezkontza on bat egiteko be. Basabazter onetan, ostera...

—Ama, nik ez dot ezkondu gura. Emen bizi izatea da nire naia, eta egoera larri au amaitu daitenean, ona bizi izateko etorriko naitaizue.

—Edurne, laga dagigun gure etorkia Jaungoikoaren eskuetan.

—Bai, ama, baiña larri ta naigabez beterik itziko zaituet.

—Zurekin bizi izatea baiño, ez dogu beste nairik, alabatxu. Biar

bertan atondu zure gauzak, eta etzi goizean goizik Bilbao'ra joanda, ikastetxeko lekaiameai aurkeztuko zaiakez, eta ziur naz zure ezkuntzari dogokion jardunen bat emongo dautsuela.

—Bai, amatxu.

Alde egiteko eguna etorri zanean, gurasoakandik agurtuta, eta bidezorrotxua eroiala, Eduene'k etxea laga eban. Munabe'ko iturri-ondoko bide-okergunera eldu zanean, axea lurrean itzita, jaiotetxea begiztatzeko biurtu zan eta bere Intxalde maitia luzaro begi-biotzaz laztandurik, malkoak eriozala, Mendibe'rantz jatsi zan, eguzkia Illuntzar mendi-atzetik jagiten zanean. Intxalde'ko alaba kutuna ez zan iñoiz ain zoribakoa oartu. Jaiotetxea ondakin utsa laster biurtuko zan; aita gaixoa ez zan luzarorako; amak egunik-egun ondapen guztia bizi izango leuke, eta bera gurasoak itzita, uri andi ezaugue batera abiatzen zan, bizitzarako jorana galduta. Mikel etxean ba'litz... baiña joana zan ez ekian nora, eta bere atzetik Edurne'ren maitasun bizia joiakion itxaropen barik. Intxalde'ko lorearen atseka-be larria...!

Eguberdi aretan Bilbao'ra elduta, astirik galtzeke ikastetxeko lekaiameakana joan zan, eta amak iragarrita lez, baietz esan eutsoen, alargun aberats batek andereiño laguntzaillea bear ebala, eta jardun ori egokitzat artu ezkeru, andreari jakiñerazoko leuskioela. Edurne'k jardun ori onartu eban, eta arratsalde aretan bertan, etxe apain eder bateko atea jo eban.

ANDEREIÑO LAGUNTZAILLEA

Kontxa Andrea, alargun aberatsa, jauregi-itxurako etxe zoragarrri baten bizi zan. Bera bakarrik izan arren, sukaldariñe ta neska-meaz gaiñera, baebazan berebillaria edo txofer eta onen emaztea bere zerbitzurako. Azken au etxeko giltzaiña zan. Etxe aretan, dana arin, isillik eta ondo egiten zan.

Ugazabandrea irurogeitsu urtekoa zan, eta baziran amar urte alargundu zanetik. Bere senarrak, itsasontzilari ospetsu batek, aberastasun andia itzi eutsan il zanean. Aberatsa izan arren, gero ta bakartiago sentitzen zan, eta augaitik, andereiño laguntzaillea artzea erabagi eban, izparringi ta aldizkariak irakurri egitsazan, eta kalera orduko, laguntzaille egokia izateko be. Ikastetxe ezagun bateko lekaiame nagusiari eskatu eutsan, bere asmotarako andereiño egokia billatu egion.

Arratsalde aretan, egon-gelara sartuta, neskameak auxe esan eutsan:

—Andrea, lekaiameek igorritako andereiño bat etorri da.

—Sartu daitela, eta ekarri egistazu ona.

Andik laster Edurne sartu zan, eta Kontxa Andreak,

—Orduan zu zaitut lekaiameek bialitako andereiñoa...?

—Bai, Andrea.

Alargunak zeatz-zeatz begiratu eutsan, eta Edurne'ren edertasun eta apaltasunak erakarrita,

—Zein adiñekoa zara...? —itaundu eutsan.

—Ogei urtekoa, Andrea.

—Nongoa zara...?

—Gernikalde'ko Mendibe erriko basetxe batekoa.

—Dirudienez baserritarra izateko eziera ona artu dozu.

—Gurasoak niri buruz asko aalegindu dira.

—Ori agiri dagoan gauza da. Orain jatsi zaitez beeko maillara, eta neskameak zure lo-gelara lagunduko dautsu. Gero, zatoz ona gaurko izparrak irakurri degistazuzan.

Eta beste barik, Edurne'k jardun barriari emon eutsan. Bere eginkizuna erraza ta atsegiña zan, eta auxe alegia: egunoro gosalduta gero, ugazabandreaken gelara sartu, eta alkarrizketa laburra- ren ostean, astiro ta mintzo argiaz, eguneko barriak eta iruzkiñak irakurri oi eutsazan. Eguberdia baiño len, Kontxa Andreari janzten laguntzen eutsan, eta jarraian, biok erriko egurastegitik otordurarte oiko osteratxua eginda, etxera bazkaltzeko biurtzen ziran. Otordu onetan, Edurne, Kontxa Andreaken maikidea zan, eta arratsaldean biok barriro kalera, erosketak egiteko, edo eleizkizunen batera. Beste batzutan, ostera, ugazabandreak astean birritan iker-lagunak etxean artzen ebazan aparirarte. Eguneroko apalostean, alkarriz- keta bateri emonda gero, Edurne'k Kontxa Andreari oeratzen lagun- du oi eutsan.

Eginkizun onein ordaiñez, Edurne'k ille-sari ona artzen eban, eta aita geisorik egoala-ta, amabosteroko Larunbat arratsaldean, bazkaldu ta bereala burnibidez Gernika'ra. Emendik Intxalde'ra gu- rasoak ikertzeko, eta urrengo egunean, lgandeko arratsaldean, Bil- bao'ra biurtu oi zan. Artutako sariaren bidez, Edurne'k aitak bear ebazan osakaia ekarrezan, baita diru-enparauaz, etxean bearrez- koak ziran gauzak be, onein artean jangai aukeratuak aitak gogoz artu egiazan, jangar aurkitzen zan-eta. Aldiaren bidean, Edurne Bil- bao'ra igorri izatea aparta ona izan zala egiztatu zan, etxekoak orain askozaz obeto bizi ziran-eta.

Edurne'ren arraitasun, edertasun eta gozotasunak, laster iraba- zi eben Kontxa Andreaken ederra, eta bion arteko loturea, gero ta sendoago biurtzen zan. Sarri askotan, eta eguraldia ona zanean ba- tez be, ugazabandreak etxeko berebilla eskatzen eban eta Edur- ne'rekin Bizkaï'ko toki ikusgarriak ikertu oi ebazan. Txango oneik neskatillaren gogokoak ziran, itsasaldea geien bat, ordurarte itsa- soa ezagutu ez ebalako. Eguraldia otz edo euritsua zanean, jaiegu- netan biok zine edo antzokira, jakiña, Edurne'k Intxalde'ra joaterik ez ebanean.

Olan eta guzti be, biziera ona ta atsegiña bazan be, Edurne ez zan zoriontsua. Amabostero Intxalde'tik biurtzen zala, ezin egikean aitaren egoerea burutik kendu, gero ta makalago ikusten ebalako. Agiri zan aren beerakadea ikustaldi batetik urrengora. Onezaz gai- ñera, Mikel'en gomutak noiznai ta edonora jazarten eban, eta aren irudia beragandik sustraitik erauzten saiatzen bazan be, dana alpe-

rrik. Bazirudian, aldiaren bideak eta urruntasunak Intxalde'ko mo- rroiganako bere maitasuna andiago egiten eutsoela. Olan ba, neska zoragarriaren begi argi ederrak, aurpegiaren bikaintasuna nabar- mentzen eben kaden alako bataz estaliak agertzen ziran, bere lillura andiaготuz.

Iru bat illabete etxe aretan zirauala, bein baten Kontxa Andrea ikertzearren loba bat etorri zan. Mutil gazte ta atsegin au, asmalari edo injiñeroa zan, eta lantegi andi baten ziarduan. Bere eginkizuna zala-ta, sarri askotan atzerrira joan bear izaten eban, eta urteera bakotxean aste batzuk emoten ebazan. Areitariko bidai batetik eto- rria zala, oi ebanez, izekoa ikertzera joan zan. Oikoa zana, bazkal- tzeko geratu zan, eta ugazabandreak dei eginda, Edurne eurekin bazkaltzeko jatokira sartu zan. Augustin eritxan gaztea neska zora- garria ikustean, lilluratuta geratu zan, eta bazkaldu bitartean ezin egikeazan begiak neskatillagandik alderatu. Edurne'ren edertasu- naz gaiñera, laster oartu zan mutilla neska xalo, zuurra ta atsegiña zala, eta bazkaria amaitu baiño len oso begikoa gertatu yakon. Edurne ez zan berba andikoa, baiña iñoan guztia zentzuz beterikoa zan, bere edertasun eta erakarpina andiaготuz.

Andreaken agindu bat beteteko, neskatillea urten zanean, Au- gustiñ'ek izekoari guztitariko itaunak egin eutsazan areri buruz, eta izekoak aal eban ondoen ekiazan gora-beerak emon eutsazan. Mutillak egiñiko itaunen arabera, agiri zan neskatilleak zudua piztu izan eutsala, eta lobearen jakin-naia aal eban giñoan beteten ebalako, Kontxa Andrea poztasun bereizi bat oartzen asi zan, beronek be Edurne benetan ederresten ebalako.

Arrezkero, len oi eban baiño sarriago izekoa ikertu eroian Au- gustiñ'ek, eta biotzaren arazoak eskutatzen zaillak diran ezkerro, Kontxa Andreak laster estalgetu eban lobearen bere etxera ekartan ebanak, eta izan be, poztu zan. Diru-egoerea alde batera itzita, Au- gustiñ'ek nekez jaritsiko leukean Edurne baiño emazte osoagorik. Diruaren arazoa, baiña, ez zan beiñena, etxe aberatsekoa izanez gaiñera, Augustiñ'ek bere garaian izekoaren ondasun guztiak ja- rauntsiko leukezalako.

Egunen bidean, eta Edurne'ren barruko doaiak agiriago jarten zirala, Augustin gero ta maiteminduago sentitzen zan. Izekoak es- kura ebazan bide guztiakaz lobearen laguntzen eutsan, eta olan, gaz- tea etxe aretara egunoro etörten asi zan, eta bidebatez Kontxa An- drea ta Edurne'rekin askaria artzen eban. Lobearena benetan joiala ikusirik, ugazabandreak neskatilla egunoro urten-erazoten eban, au edo bestea ikusi edo entzun egian, eta jakiña, osteratxu oneitan Augustiñ'ek laguntzen eutsan.

Laster oartu zan Edurne Agustiñ'en maitasunaz, eta ordutik mutillaren laguntasuna neketsua billakatu yakon, eta aal eban neurrian, gai ariñak autugaitzat artu oi ebazan barrukoak uxatuz, baiña mutillak be, gauzak beretara eroan nai ebazan, eta bein baten, egurastetik etxera biurtzen zirala, Augustiñ'ek ustekabez, auxe autortu eutsan:

—Aizu, Edurne, aspalditik gauza bat zuri esateko gurariz nabiltzu, eta orain arte isillik gordetea lortu badot be, gaur ezin dagiket zeuri esan barik jarraitu. Edurne... maite zaitut bene-benetan.

Edurne'k entzun gura ez ebana zan, eta begiak lurrean untzatura, ibiltzeari isillik jarraitu eutsan, aurpegia lotsa-gorritzen yakola. Neskeagandik erantzunik jaso ezean, Augustiñ'ek barriro:

—Ez ete daustazu ezer esaten, Edurne...?

—Izan be, zuk esanikoak ezustez artzen nau, Augustin. Olakorik ez litzakidan iñoiz burura etorriko.

—Zergaitik ez...? Ezkontzeko garaian ez al-zagoz ba...?

—Bai, baiña...

—Zer, baiña...?

—Alde batetik buruan erabilli ez dodan arazoa dalako, eta besetik nire aita ta jaiotetxea kinka larrian aurkitzen dira. Egoera onetan arazo orrek ez nau bape arduratzen.

—Ezkonduko ba'zintzaz aipatzen dozuzan arazook ez litzakez txarragora joango.

—Ba'leiteke, baiña nire gogoan orain ez dago orretarako.

—Jakin bear dozu jakin, ezkontzekotan zure gurasoen egoera obaten saiatuko nintzakela, Edurne. Artu gogoan nire eskintza, eta gero erantzuna emongo daustazu.

Egun aretan eta urrengoetan, Augustiñ'en eskintzari buruz ez zan besterik esan, baiña Edurne estu ta larri egoan, egunen baten arazoa barriro etorriko litzakiola ondo ekian-eta. Mutil ona ta zintzoa zan Augustin, baita itxura onekoa be, baiña biotzari dagokionetan, onek aukeratzen dau, eta Edurne'ren biotzak Mikel baiño ez eban besterik maite, eta Intxalde'tik joana zala urte betea igaro izan arren, aren oroitzak bizi-bizi irauten eban bere gogoan. Au zala-ta, oso mingarria gertatzen yakon neskeari egoera barria, eta naaspil aretatik jareitzen saiatzen bazan be, ezin egikean urteera idoro. Etxe aretako jardunari uko egin, eta beste barri bat billatzea biderik zuzena izango litzakean, baiña au ez zan erraza, eta gaiñera, illeroko saria bearrezkoa zan aitari egokion laguntza emoteko. Egoera onetan, Edurne'k ez ekian zelan jokatu, eta noizbait ezinbestez, arazoa berez atondu zeiten erabagi eban.

Arrezkeroko aspaldi batez, Augustiñ'ek ez eutsan bere maita-

suna aipatu barriro, eta bion arteko artu-emonak adiskidetsuak jarraitu eban. Egoera au, baiña, guzurrezkoa zan, eta jazoteko zana jazo zan izan be. Areitariko egurastu baten, Augustiñ'ek maitasunez gaiñezka begiratzen eutsala, auxe esan eutsan:

—Ta, Edurne, oroituko zara, aurki, orain illabete bi gitxi gorabeera nire maitasuna autortu neutsula, eta emaztetzat nai zaitudala. Zer diraustazu gaur eskintza orreri buruz...?

Edurne'ri gogoan laiñotu yakon, estu ta larri une batez isillik iraun ebala, bere erantzuna taiutu naiez. Noizbait auxe esan eutsan:

—Begira, Augustin, kendu burutik asmo ori. Ezin naiteke izan dagokizun emaztea, eta niretzat zure eskintza dedu andia bada be, ezin dagiket onartu. Aztu nagizu, Augustin...

—Baiña zergaitik ezin nagikezu onartu...? Neugan ete dago zeozer zapuztu nagizun...?

—Ez, Augustin, mutil ona ta begikoa zara, baiña...

—Baiña zer...?

Une batez neskeak isillik iraun eban, eta gero mutilla aalik eta gitxien mintzeko, auxe esan eutsan gozoki:

—Beste bat maite dot, Augustin.

Au entzunik, asmalari gaztea naigabearen-naigabez zurbildu zan, eta bere buruaren jabetasuna birrirabazi ebanean,

—Nor da bera —itaundu eutsan lur-jotako itxuraz—, nor da zure kutun ori...?

—Orrek ez dau iñongo garrantzirik, Augustin. Laga dagigun arazo ori, eta Jaungoikoarren aztu nagizu...

—Arren, esaidazu nor dan bera...

—Etxeko morroia izan zana.

—Etxeko morroia...? —Augustiñ'ek arrituta—. Morroi bat dala-ta, ezgauza dan bategaitik, zapuzten nozu...? Ezin dagiket olakorik siñistu.

—Nik ezagututako gizonik zoragarriena zan, eta konturatu barrik nire biotzaz jabetu zan.

—Non dago bera orain...?

—Ez dakit. Nire nebearekin burrukan egin ondoren, orain urte bete ta erdi etxetik joan zan.

—Eta non dagoan ez dakizula, ezta zugana barriro etorriko ete dan be morroigaitik izten nozu...?

—Ez dot uste nigana iñoiz biurtuko danik, baiña nik ezin dagiket aztu.

—Eta berak maite zaitu...?

—Ez dakit. Berak ez eustan iñoiz ezer adierazo-ta.

—Ez al-do zu uste, aldiaren bidean ni maite izatea lortuko dozu-la...?

—Ezin dagikizut esan, Augustin. Orretarako berak nire gogotik ostendu bear izango leuke, eta ez dakit olakorik jazoko ete dan. Dana-dala gure artu-emonak eten egitea, biontzat onena izango litzake nire ustez.

—Ori ezelan be ez, Edurne. Egunen baten bera agertuko ba'litz, zuen erditik kenduko nintzake, baiña laga nagizu, bitartean, orain arte lez jarraitu dagidan.

Edurne'k ezin egikion eskaereari uko egin, eta gazte bien arteko artu-emonak len lez jarraitu eben. Aspaldi aretan, baiña, Intxalde'ko alaba kutunak, baeban naikoa buruauste. Len aipatua lez, etxekoak eta aita batez be ikustearren, Edurne amabostero Intxalde'ra joian, eta bidebatez aitari bearrezko osakaiak ekarkiozan. Bidaia, burnibidez egin oi eban Gernika'raiño, eta emendik erri-berebillez Mendibe'ra, eta gero oiñez etxera. Bere andereiño laguntzaillearen egoera ez-oitua kontuan arturik, Kontxa Andreak amabostero opor emoten eutsan Larunbatero arratsaldetik Igandeko gaberrate, etxekoak ikertu egiazan. Olan ba, Edurne'k Intxalde ta etxekoen barri zeatzak ekiazan, eta baiturea egin zanetik urtebete ta erdi igarro zan ezker, ondo bai ondo ekian korrituak ordaintzeko irugarren epea ur egoala, eta onekin batera Intxalde'ko ondapena. Aurreko epe biak ordainduak ziran, etxeko abelgorria ta lanabesak salduz, baiña irugarrena ordaintzeko ez egoan zeri eldurik, eta au zala-ta etxea ta onen lurak nai-ta-ez enkantean salduko litzakez.

Auxe zan benetan, Edurne'ren buruauste ta samintasuna... Nora joango litzakez gurasoak orduan...? Jaiotetxearen ondapenak Martiñ'en azkena ariñagotzen eban geisotasuna zan. Baekian Edurne'k aita bizien batek jota zala, baita luzarorako ez litzakela izango, baiña oiñetxearen ondapena zan aitari arimea marraskatzen eutsan benetako biziena. Gero, beste korapillo bat etorkion neskatillari, eta auxe alegia: gurasoak non egokitu. Eta itaun oneri ikusten eutsan erantzun bakarra, Gernika'ko zaartegia zan. Geisorik egoan aita aguretxera sartu, eta Mendibe'n izaniko etxe aberatsenetako etxe-kojaunaren azken egunak, alako leku otz, itzaltsu, eta txiroan amaitu bear be...!

Igande aretako gabeen etxetik biurtuta, ugazabandreaki oera laguntzen eutsala, barruko naigabeari eutsi eziñik, Intxalde'ko alabeari malkoak eriozan, eta oneik ikustean,

—Zergaitik, Edurne —itaundu eutsan Kontxa Andreak—, zure malkook...? Aita gaizkiagotu yatzu-ala...? Alabatxu orrek, esaidazu zerk mintzen zaituan.

—Begira, Andrea, aitak beti lez darrai, baiña orain larriena auxe da: etxeko baituraren irugarren epea laster beteko da, eta aren korritua ezin dagikegu ordaindu. Augaitik gure etxea enkante agirian salduko da, eta gurasoak zaarren etxera sartu bear izango dodaz. Ai ene...!

Kontxa Andreak, Edurne nasaitu zeiten itxaron eban, eta orduan onetaraxe itz egiten asi zan:

—Begira, Edurne, ni ez naz nor zuen arazoetan sartzeko. Baiña Augustiñ'ek zuri buruz zeozer esan daust, eta nire lobeza maite-maite dodan ezker, auxe eskintzen daustut: berarekin eskontzekotan, nire ondasun-arduraduna enkante orretara bialduko dot, eta Agiñalde'ko etxaguntza erosi ta ezkon-saritzat emongo daustut. Zer deritxazu orreri...?

Une batez Edurne zur eta lur geratu zan, entzunikoa siñistu eziñik, eta gero, barruko zuzentasunak eraginda,

—Eskerrikasko, Andrea —erantzun eutsan—, baiña Augustin gazte on-ona ta atsegiña izan arren, ez dot maite, eta berarekin ezkonduko ba'nintz, ori saldukeria izango litzake, beste bat maite dot-eta.

—Ez zaitez larritu orregaitik, Edurne. Ezkontzak ezkontideen arteko lokarriak sendotu egiten dauz, eta zuek biok bikote zorionsua billakatuko zarie. Zure etxeko morroiganako sentipena, aldiaren bidean ostenduko da, eta onezaz gaiñera, ez dakizu non dagoan ezta maite zaituan be. Zure kinka larrian Augustin ez onartzea itsu ta zentzunbagekeri utsa litzake. Pentsaizu zure aitaren etorkiaz be, eta uste dot dagokizun erabagia artuko dozula. Oraindiño aurretik dozuzan aste bi oneitan, ausnartu ondo guzti ori, eta orren ondoren aukeratu dagizuna jakiñerazoko dauskuzu. Orain, Edurne, gabon eta biar arte Jaungoikoak lagun.

—Agur Kontxa Andrea, eta eskerrik asko.

Aste bi areitan, Edurne estu ta larri bizi izan zan. Eguneroko egurastaldian, Augustin iñoizkorik maitekorren azaldu zan, eta ezkontzearen arazoa ez eutsan aipatu be egin. Egunak, baiña, alkarri erraikioen, eta etxera joateko Larunbata etorri zan. Arratsalde aretan, Augustiñ'ek Atxuri'ko geltokiraiño lagundu eutsan. Trena abiatzeko zorian zala, begiak neskearen aurpegitik kendu eziñik, asmalari gazteak auxe esan eutsan:

—Agur Edurne maitia, ez daustut esan bear, biar arratsaldean emen izango nozula zure ezpanetatik erabagia entzuteko. Orduan, munduko gizonik zorionsuena biurtu nagikezu. Agur, maite ori...!

Burnibidean zear jarraigoa abiatu zan gero ta ariñago, oiko arintasuna jaritsi arte. Jarlekutik, egan egiten zirudien soloak, base-

rriak eta basoak, Edurne'k begiztatzen ebazan. Iñoizkorik larrien oartzen zan gaixoa, zer erabagi, zer aukeratu ez ekiala. Bere etorkia jokalaria baten posturea lez aurkitzen zan. Berak ezin egikion maite ez ebanari maitasuna eskifii, eta bestetik ezin jasan gurasoak zaar-tegira sartzea. Bitariko edozein aukerapen berarentzat mingarria zan, eta izan be, gerturik egoan oparia izateko, baiña zein izango litzaken egokiena...? Edurne gaixoak begiak itxi ebazan, eta otoi bizi bat sortu yakon barru-barrutik.

MIKEL'EN IGESA

Intxalde itzi ebanean, Mikel artez-arte Gernika'ra bideratu zan, eta erri onetako ostatu merke baten gaba emon eban. Oso txarto lo egin ondoren, gosalduta gero erriko enparantzan jesarri zan, bere egoereari buruz erabagiren bat artzeko. Baebazan dirutan txin batzuk, baiña ez luzaro bizi aal izateko beste. Jardunen bat, beraz, jaritsi bear izango leuken. Olako gogoetan ziarduala, Mendibe'ko ezagun bat andik igaro zan, eta,

—Kaixo, Mikel —esan eutsan— zer yarabilk emen jesarrita...?

—Benetan esateko, lan baten billa naiabik.

—Zer ba, Intxalde'ko ire jarduna itzi al-yok...?

—Bai, eta dirurik ez yoadan ezkeru, ezinbestez lan bat idoro bear yoat.

—Bayakiat ba, iretzat non yagoken bear yokan lana. Ara... Zornotza'ko burni-lan baten nire anaietako batek yiarduk, eta yirudikanez langilleen billa yabiltzak. Zergaitik ez yok andik osteratxu bat egiten...? Polito ordaintzen ei'yoek.

Arratsalde aretan bertan, Mikel burnidez Zornotza'ra joan zan, eta aipaturiko burni-olan bere burua eskifii eban edozein lanetarako. Izan be, esku-lanaren bearrean egozan dalako lantegian, eta beste barik onartuta, urrengo egunean leku aretan lanean asi zan, errian bertan gela bat ostatutzat artuta.

Jardun barria ez eban guztiz gogokoa Mikel'ek, zabaldiko aize garbian lan egiteari oitua zalako, baiña langille ona izanik, egitekoa ondo beteten eban, eta laster eginkizuna menperatu eban. Jaiegun baten ostatuan bazkaltzen egoala, piñu-mozketeari emoten eutsan maikide bat, bere jardunari buruz azalpenak emoten asi zan, guztitariko gora-beerak maikideai emotsezala. Asieratik Mikel lillaratuta,

mozketariak iñoanari ardurarik andienaz jarraitzen eutsan. Izan be, lan zakarra zan baiña ondo ordaintzen eben. Piñudi edo lerdoietan lanean ziarduen aste guztian, eta lgandeetan opor-eguna izanik, bakotxak bere aukeran igaroten eban. Mikel'en jakin-naia oartzean, mozketa-riak guztitariko azalpenak emon eutsazan, eta amaitu eban, berarentzat piñu-mozketan jardunen bat izango ete litzaken itaundu eutsan Mikel'ek. Baietz esan eutsan besteak, eta nai izatekotan, urrengo egunean talde-buruagana lagunduko leuskiola. Urrengo egunean, beraz, burnigintzan lan-ukapenaren agiriak bete-ta, nasaitasunezko sentipenaz, aurreguneko ezagun barriarekin, Durango'ra joan zan, emen, baltzu zurketariaren idaztegian barrezko agiriak betetearren. Izan be, idaztegi aretako nagusiak, Mikel'en itxura ikusi baiño ez, beste barik onartu eban, eta jarraian, ango ogipeko batek mozte-lekuraiño, berebillez eta gero oiñez lagundu eutsan.

Lekua ler ederrez beteriko basoa zan, eta eldu baiño ez, Mikel lanean asi zan. Taldea bost lagunekoa zan, eta onetarexe alegia: kapataza edo talde-buruua, eta onen agintzapean egozan lau moztaille. Eginkizuna gogokoa azaldu yakon Mikel'eri, zabaldian lan egitera oitua izanez gaiñera, izadia benetan maite ebalako. Lana goizaldearekin batera asten zan, eta illuntzerarte irauten eban. Aparia eginda, nekearen-nekez etzan eta bereala loak artzen ebazan, Ordaintza, abespeluan edo ainbestean izaten zan, eta beraz, arloari buru-belarri emoten eutsoen, lan-bitarteko etenaldi bakarria eguber-diko otordua izanik. Dirua polito irabazten eben, eta onezaz gaiñera, lgandea kenduta aste osoan mendian irauten ebenez, dirua eralgiteko eretirik ez izanda, nai-ta-ez aurrezki politak egiten ebezan, kontuan arturik batez be, ostaturik ez zala ordaindu bear.

Taldeak kapar baten lo egiten eban, bakotxak artamalutazko lastamarraga bat oetzat ebalu, eta artulezkoa baizen biguna ez bazan be, egunoroko jardunak oerik gozoena biurtzen eban. Egunsentia egiten zanean, jagi, zenbat-gura urdantzaki kafesnez aldizkatuta, eta mozketa-lekura joiazan. Urten baiño len, lapikotzar bete baba, urdai eta txistorraz ondo lagunduta, su geldian astiro egosi zeiten ipinten eben, eta bosteko taldea ebate-lekura abiatzen zan, oiko motozerrak eta aizkorak eroiezala. Talde-buruaren agintzapean, motozerradun bik lerrak beekaldetik ebagiten ebezan, eta aizkoradun bik adarrak kentzen eutsiezan, enborrak billustu arte. Boskarren lagunak enborrak luzerean agindutako neurrian ebagiten ebazan. Enbor mardulak zerrategietarako ziran, abe, ol, etab. biurtzeko; ertaiñak, ostera, miatz-euskarrizat eta papergintzarako

erabilten ziran. Enborrok bide-ondoan metatzen ziran, pilloa zutoin bik eutsita, mendian beera txirrindolaka joan ez zeitezan.

Mikel'en taldekoak euskaldun jatorrak ziran, eta oso ondo alkar artzen eben, lanari buru-belarri emoten eutsoela, abespeluari onurarik andiena atarateko. Ingandeetan, moztaille areik jai izanik, bakotxak bere zaletasunaren arauz emon oi eban. Mikel urren egoan errira bere lagunekin jaisten zan, eta mezea entzunda gero, bazkari merke bat artu ondoren, mendira barriro arratsaldea bakarrik igaroteko eta urrengo asterako indarrak irabaztearren. Arratsalde oneitan, mendiko tontorreraiño igoten zan, eta Gernikalde-inguruko mendiak atzo-miñaz begizatzen ebazan, ara Oiz, Sollube, Bizkargi, Atxispes, Illuntzar... Azken onek batez be, erri-min bizi-bizia sortzen eutsan, bere biotzeko Intxalde gomutara ekartsola, eta oroz gain Edurne zoragarria. Ezin egikean bere kutuna gogotik kendu, ez lanean ziarduala, ez amesen besoetan egan joanean.

Gau baten, leku zoragarrian kokatua Intxalde lako basetxe eder-edarra amesetan ikusi eban. Atadian zutunik Edurne egoan, besoak beraganatz luzatuak, eta auxe iñotsala:

—Mikel, Mikel, zatoz neugana... Begira zelako etxea erosi dautsudan onen etxekojauna izan zeitezan. Ez al-zara gomutaten...? Bein baten umea baiño ez nintzala, basetxe bat erosiko neuskizula agindu neutsun, eta ona emen agintzaria beteteko gerturik natortzula.

Jarraian, eskua emon eutsan basetxea ikusi egian, baiña ozta-ozta aren esku biguna ukutzen ebalu, itxartu zan. Gau osoa iraun eban Mikel'ek lo egin eziñik, amaika gomutapen gozo etorkiozala, esaterako, Edurne ume izanik ikastolara eroianean, eta gero etxean ikaskaiak egiteko laguntza emotsala. Intxalde'tik joan zanean, Mikel'ek uste izan eban, aldiaren bidean neskatillearen oroitz ezabatu edo makalduko litzakiola, baiña etsiak jota, gero ta maiteago ebalu egizatzen eban orain. Zoro bat baiño besterik ez zala, sarri askotan bere buruari esaten eutsan, eldueziña zanatzaz ames egiteagaitik, baiña bere maitasuna naimenaren gaiñetik egoan.

Sarritan, zer billakatuko zan Intxalde burura etorkion. Txomiñ'en ekintza zitalaren ostean, gauzak euren zerera etorri, eta etxeko oiñordea egindakoaz damututa, bide zuzenera biurtuko litzakean, aurki, eta orain oiko eginkizunetan jardungo leuke, danok igarotakoa aztu egiñik. Izan be, Intxalde etxe aberatsa izanik, len egindako joku-zorra, kitaturik billakatuko zan onezkero. Eta Edurne...? Gurasoen naiari jarraituz Bilbao'n izango litzake, ezkontza on baten bidez, artutako ezkontzari egokion onurea ataratearren. Oldozkun au mingarri azaltzen yakon Intxalde'ko morroi izanari, eta oroitz au

etenbarik gomutan eroian, iñoiz bakean izten ez eban eztenkada baten antzera.

Egunak aurrera joiazan, eta sei bat illabete igarorik, talde-burua beste iñora igorri izan zan, eta onen burubideari jarraituz, baltzuko arduradun nagusiak talde-buru izendatu eban Mikel. Orain, bere taldeko erantzulea Mikel biurtu zan, eta ardura andiagori irabaztea aren baten dagokion ezker, Mikel'en lan-saria euneko berrogei ta amarrez goratu zan. Olan ba, gure mutillaren irabazpideak gorakada ona artu eban, eta bere aurrezki-kontua aren giñoan anditu zan. Mikel'ek arazo guztietan erabili oi eban ardura ta zuzentasunaz jardun barriari emon eutsan, eta nagusiak gero ta ederretsiago eban.

Mozketa-lanetan urtebete bat inguru bete ebanean, baltzuak Elorrio'ko Intxorta mendira Mikel aldatu eban, lerdoi andi ta eder baten jarduteko. Orduko, eta eralguntzarik egiten ez eban ezker, Durango'ko Aurrezki Kutxatik, Elorrio'kora dirua aldatu ebanean diru-mordo baten jabea zala egiztatu eban Mikel'ek arrituta. Ain zuzen be, diruak ez eutsan atsegin andirik emoten, bere bizitza elburu ta itxaropenbakoa zan-eta. Egunen baten etxe bat erosiko leuke...? Zertarako, baiña...? Bere kutun barik ez eban iñongo base-terik gura... Oraingo jardunean jarraituko leuke, eta lanari uko egiteko sasoi etorriko litzakionean, diruketa baten jabe biurtuta, Enkarterri'ko jaiotetxean azken urteak mutilzar igaroko leukez, eta dibebatez bere ama be aalik eta zoriontsuen egin.

Eta leku barrian jarduten ebala, sei illabete igaro ziran. Oi eban lez, Mikel jaiegunetan Elorrio'ra meza entzuteko jatsi ta bazkaldu ondoren, arratsalde-erdian kapardira biurtzen zan. Areitariko Igan-de baten, erriko jaiak zirala-ta, idi-probak ospatzen ziran, eta kirol au gogokoa yakon ezker, leiaketara joatea ebatzi eban. Onen ete-naldi baten, eta edari otz bateri ekiten eutsala, esku bat sorbaldan kokatu yakon, eta abots ezagun batek, auxe esan eutsan:

—Kaixo, mutil, aspaldiko...!

Mendibe'ko Jokin izeneko baserritarra ezagutu eban, eta,

—Kaixo, Jokin, idi probak ikustera, ezta...?

—Bai, Mikel, eta zu zelan zaitut emen...?

—Or, goiko mendian piñu-mozketan diardut.

—Ta, pozik...?

—Bai, pozik esan bearko.

—Aspaldi luzetxua da Intxalde itzi zenduanetik, ezta...?

—Urte bete ta erdi inguru.

—Eta ordutik ez zara errira biurtu...?

—Ez, mendian emon dot denbora guztia.

—Biurtuko ba'zintzaz ez zenduke ezagutuko lengo Intxalde ederra.

—Zer ba...?

—Ara... Txomiñ'en burubagekeriaren ondorioz, kartzelara sartu ez egien, Martiñ'ek etxea ta etxalde osoa baituran ipiñi bear izan eban, zorraren korrituak sei illabetero ordaintzekotan. Danok uste genduan, egindakoaren ostean, Txomiñ'ek etxeko lanari benetan emongo leuskiola, eta aldiaren bidean baiturea ta onen zergak gar-bituko litzakezala, eta izan be, zorra arintzeko asmotan, etxekoan-dreak Munitibar'en jabetzen eban arizti ederra saltzen erabagi eben, eta salerosketea berbatuta egoanean, amak joaterik ez ebala esanez, Txomin lotsabakoa eroslearen etxean azaldu, agiria izenpe-tu, eta dirua artuta anka egin eban, dirudianeaz, Ameriketara-edo...

—Egia izango ete...? Eten egin eutsan Mikel'ek entzuten ebana siñistu eziñik.

—Ez da izango ba...? —jarraitu eban Jokiñ'ek— Ordutik etxe-kojaunak ez dau burua jaso aal izan, eta lanerako gauza ez izanik, lenengo sei illabeteko ordain-epea eldu zanean, etxeko ganaduaren erdia saldu bear izan eban, eta bigarrenari aurre egiteko beste erdia, baita lanerako lanabesak be saldu bear izan ebazan. Arrezke-ro, Intxalde ederra eriotzara epaitua zan, eta gurasoi laguntza emoteko, Edurne, etxeko alabea, Bilbo'n neskame-edo sartu ei'zan. Biar Astelen zortzi, irugarren ordain-epea amaitzen da, eta diru-eza dala-ta, Intxalde, len erriko etxalderik aberatsena, pelota-lekuko arduradunek baiturea enkantean salduko dabe... Beña zer gertatzen yatzu, mutil...?

Jokiñ'ek iñotsana entzun bitartean, Mikel'en aurpegia zurbiltzen asia zan, eta izerdi otzak jota, zorabio baten menpean, lurrera ez jaustearren, edategiko mai-eskudeleari oratu bear izan eutsan. Apurka-apurka, Mikel'ek bere jabetasuna birrirabazi eban, eta noiz-bait mintzo totelaz,

—Aizu, Jokin —Itaundu eutsan—, noiz izango da enkante ori...?

—Biar zortzi, nor geiagoko emote ori Gernika'ko udaletxean ospatuko da.

Dema-bitartekoen didarrak barriro aditzen ziran, beste idi-buz-tarria plazaratzen zanean, baiña arri-narrazterako zudua galduta, Mikel'ek erritarra agurtu eban, eta Elorrio'ko kaleetatik norabarik ibiltzen asi zan. Zelan ez ekiala, mendian gora abiatu, eta illuntzean kapardira eldu zaneke, bere egitekoa ondo zeaztua eban. Gau are-tan lo egin barik iraun eban, bere gogo naigabeturik, Intxalde ta ain maite ebazan etxe aretakoak kendu eziñik.

Egunsentia barik jagi zan, eta taldeko lagun bat burutzat izendaturik, agindu batzuk emon eutsazan, eta astirik galtzeke Elorrio'ra jatsi zan, ozta-ozta Aurrezki-etxeko ateak edegiten ziranean. Bere kontuaren gainkiñea eskatu, eta seireun milla laurlekotik gorakoa zala esan eutsoen. Diruketa onen ordain-agiri bat eskatu eban, beste erri batera joan bearrean zala-ta. Andik laster, ordain-agiria sake-lera sartu, eta Durango'ko baltzu-arduradunari, arazo oso garrantzitsu batek beste leku batera joaten beartzen ebala urrutizkiñez esan eutsan. Jarraian, taxi baten Gernika'ra abiatu zan.

Amaikak-edo izango ziran eri orretara eldu zanean, eta astirik galtzeke, Aurrezki-kutxara abiatu zan, eta emengo nagusiarekin alkar-ikuste bat eskatu eban. Bereala aren aurrean aurkitu zan, eta artez-arte arazoari elduz, auxe esan eutsan:

—Begira, Jauna, entzun dodanez, gaur zortzi Mendibe'ko Intxalde basetxea ta beronen lur guztiak enkantean salduko dura. Egia al-da ori...?

—Bai, egindako baiturea ta dagokiozan korrituak eta zergak, epe orren barruan jabeak ordaintzen ez ba'dauz. Baiña, aizu, gazte, beste gorabeerarik emon aurretik nor zaran jakin gura dot. Badakizu, gure etxeak ez dauzaz olako barriak edonori emoten.

—Intxalde'ko etxejoanaren alde natortzu.

—Baiña nor zaitut...?

—Etxe orretan urte askotan morroitzat jarduna nozu, baiña gaur ori ez dator arira. Intxalde'ko Martiñ'en izenean nago emen.

Itzok esanik, ekarren diru-agiria erakutsi eutsan. Au ikustean, Aurrezki-kutxako ordezkariak, zur eta lur geratu zan, eta begiruneri andienaz, auxe esan eutsan:

—Jauna, zure aukeran nagotzu.

—Begira, Jauna, ona etorri naitzuz, Intxalde'ri buruzko guztia jakiteko, eta auxe batez be: zenbateraiño igoten diran baitura bera ta degokiozan korritu ta zerga guztiak.

—Dakizunez, gaur zortzi ordaintza-epea beteten da, eta egun orren aurretik oraingo jabeak zorra garbitzen ez ba'dau, Intxalde enkantean salduko da. Gaur egunean zenbateraiñokoa dan dalako zorra, ezin dagikizut esan, eta au jakiteko baratariagana jo bearko dozu zeatz guztiak jakiteko, baiña gitxi-gorabeera laureun milla laurlekokoa izango da bataz beste.

—Erabilli al-dagiket zure urrutizkiña baratariari galde egiteko...?

—Nai ba'dozu neronek itaungo dauzat, ezagunak gara-ta.

—Ederto.

Ordezkaria jagi ta urten zan. Andik laster azaldu zan barrero auxe iñotsala:

—Baratariak diñoanez, zor guztia laureun ta amabost milla laurlekokoa da. Dirudienez, korritu andia itundu zan baitura egin zanean, eta au dala-ta, zergak oikoak badira be, geiegitxu azaltzen da.

—Begira, Jauna, seireun eta ogei ta bost millako diru-agiri onen bidez, oraintxe bertan kontu agiri bat zabaldu nai dot etxe onetan. Laureun eta amabost milla laurleko, diru-txarteletan emongo daustazuz oraintxe bertan, eta enparaua kontu agiri orretan geratuko da, gero egin bear izango dodaz beste ordainketarako.

Au esanik, ordezkariari diru-agiria emon eutsan esandako kontu agiria edegi egian, eta Mikel'ek eskaturiko esku-dirua artu eban. Orduko, eguberdia zan, eta oraindiño astirik egoan ezkerero, baratarigana joan zan. Onek bereala artu eban, eta,

—Zerk zakaz ona...? itaundu eutsan —jesarri zaituz, arren.

—Begira, Jaun barataria, Intxalde'ko Martiñ'en alde nator, egindako baitura, onen korritu ta zerga guztiak garbitzeko.

Arriatasuna marrastu yakon baratariari aurpegian, eskaera au entzutean. Une batez itxura bakanaz begiratu eutsan Mikel'eri, eta,

—Oker entzun ez ba'dautsut —esan eban— baiturea kitatu gura dau Intxalde'ko Martin orrek, ezta...? Ain zuzen be, eta barkatu egistazu, gazte, uste neban enkante ori nai-ta-ez ospatuko litzakela, baitura orrek gaizkabiderik ez ebala-ta, etxejoan ori ezkurrik bage dagoala bala-bala dabillelako.

—Bai, baiña egunokaz ezuste bat jazo da, eta emen dozu dirutan zorra garbitzeko beste. Esan daustenez laureun eta amabost millako laurlekokoa da, eta emen dozu diruketa ori. Zenbatu egizu mesedez.

Au esanik, Mikel'ek dirua mai-gaiñean jarri eban. Ekusana siñistu ezinik, barataria dirua zenbatzen asi zan. Amaitu ebanean, eta zorra garbitzeko diru lain egoala egizaturik, jagi zan, eta,

—Egon emen apur baten —esan eutsan—, dagokion baitura-garbitketearen agiria atondu dagizudan. Emon egistazuz zure izena ta nortasunaren gora-beerak.

Mikel'ek eskaturikoa emon eutsan, eta barataria urten zan. Andik laster, agiri bat ekerrela agertu, eta jarraian agiria onetaraxe irakurten asi yakon:

“Nire aurrean, Juan Etxebarria, uri onetako barataria izanik, Intxalde'ko Martin etxejoanaren ordezkariatzat, Aretxalde'tar Mikel, ogei ta zortzu urtedun, ezkongea, Zalla'n jaiotakoa, eta Mendibe'ko uritarra dana, nire aurrean aurkeztu da, Intxalde basetxeak bere

gain dauan eta 712gn zenbakiaz sartuta dagoan baiturea, dalako Martiñ orren izenean garbitzeko. Aipaturiko baituraren zorra, korrituak eta zergak kontuan arturik, laureun eta amabost milla pestakoa izanik, dalako Aretxalde'tar Mikel'ek, Intxalde'ko Martiñ'en izenean aipatutako diruketea eskuratzen daust, baituradunai, au da, Gernika'ko pelota-lekuko baltzuari aren izenean emon dagiodan. Oraindik, beraz, dalako Intxalde basetxea aipaturiko zorretik jarei geratzen da.

Eta nik neuk, uri onetako baratariak, goian azaltzen danaren egizat, nire izenpeaz zin dagist dagokiozan guztitariko egiztapenerako.

Gernika'n Etxebarria'tar Juan izenpetuta."

Baratariak agiria eskuratu eutsan Mikel'eri, eta bostekoa emonez, auxe esan eutsan:

—Ez dakizu, gazte orrek, zein pozik egiten nauan baitura-jareipen onek. Basetxeak maite dodaz benetan, nerau be baserritarren seme nozu-ta. Onezaz gaiñera, ezaguna dot Intxalde'ko etxekojau-na, eta jaiotetxea bere jabetasuna barrero biurtzen dala jakiteak, poz andi-andia emoten daust. Zorionak, gazte ori, arazo onetan zer-ikusi andia dozula somatzen dot-eta.

Mikel'ek irribarre egin eutsan, eta beste barik, zurubian beera kalera abiatu zan, bere barruko poza nekez menperatzen egikeala. Orduko, otordua zan, eta jatetxe batera joanda, bazkari arin bat eskatu eban, arratsalde aretan amaika gauza egiteko asmotan zalako, eta beraz, ez eban asti-galtzerik.

Arratsaldeko lauretan inguru, Mendibe'ra eldu zan, eta artez-arte, Pruden, erriko abelgorri-jardunlariagana jo eban. Sal-erosle au Mikel'ek aspaldiko ezaguna eban, eta gizon arteza izanik, danek ederresten eban, iñori ziria sartzeko gai ez zalako. Zorionez, etxean zan Mikel'ek atea jo ebanean, eta Intxalde'ko morroi izana ikustean, pozak eraginda besarkatu eban auxe iñotsala:

—Aspaldiko, Mikel maite ori, oraindik bizi al-zara...? Jesarri zaitez apur baten emen, mai-ondoan, eta esaidazu zerk zakazan nire etxera. Nondik ibilli zara, baiña...?

—Ortik izana nozu piñu-mozketeari emonda, baiña laga dagigun arazo au beste eretirako. Orain jakin gura dodana, auxe da: Intxalde'ko egoereari buruz barri zeatzak emon dagistazuzala.

—Intxalde lur-jota dago, Mikel. Gorpu bat baiño besterik ez dala esango neuke. Txomin, etxekalte madarikatu arek ondatu eban gure erriko etxalderik ederrena. Orain sei illabete, etxeko abelgorriaren enparaua ta lanabesak, Martiñ'ek aginduta saldu nebazan. Arrezkero, Intxalde ederra illobia biurtu da, eta datorren astean

enkante agirian salduko da, eta onen ondorioz, Martiñ'ek eta Errose'k Gernika'ko zaarren etxera joan bear izango dabe. Gaixook...!
—Ori ez da jazoko. Gaur bertan Martiñ'en izenean baiturea kitatu egin dot.

Pruden'ek gaztea zoro biurtu izan bai'litzan begiztatu eban, eta,

—Baiña zelan daiteke ori...? —itaundu eutsan— Martiñ'ek ez kurrik ez dau-ta...

—Orain laga dagigun ori alde batera.

Une batez biok isillik irau eban. eta,

—Aizu, Pruden —isillunea eten egiñez esan eutsan Mikel'ek—, zugandik gauza bat nai dot, eta auxe da: etzi beranduenik, sei esnebei eder, gazte, ernalduta, baita buztar-idi pare indartsua Intxalde'ra eroango dozu, diruari begiratu barik, au da, bikaiñetarikoak izango dira. Onezaz gaiñera, bidebatez, idi-gurdia, goldea, iru-ortza, naba-saia, amar zaran eta amabi esne-pegar ekarriko dozuz.

Pruden'ek gaiok txatal baten idatzi bitartean, Mikel'ek txalo bat bekokian jo, eta auxe esan eutsan:

—Zaldi da gurditxua be aztu egin bear...! Agindutakoari zaldi ta dagokion orgatxua eratsiko dautsazu, eta aal izatekotan —lengo zaldia ren gomutea etorkiola—, zaldi gorria izango da.

—Izan be —erantzun eutsan Pruden'ek —Nabarniz'en zalditalde gorria salgai dago, eta areitariko gorri eder bat erosiko dautsut, Illuntzar mendian azitakoa, ain zuzen be.

—Orain esaidazu gitxi gora-beera agindutakoaren balioa, ordaindu degizudan.

Pruden'ek bein eta barrero batuketea egin eban, eta,

—Orain gaiok dabizen preziotan, gitxi gora-beera ogei ta amar milla ogerlekotan urtengo yatzuz.

Mikel'ek diruketa orren agiri bat izanpetu, eta auxe esan eutsan:

—Emen doatzuz ogei ta amar milla ogerlekook, eta geiago bear izatekotan, enparaua emongo dautsut eskaturikoak Intxalde'ra ekarri dagistazuzanean. Ez begiratu diruari, abereak bikaiñetarikoak izango dira.

Mikel jagi zan, eta kalera urteteko zorian zala,

—Aizu, Mikel —esan eutsan Pruden'ek—, zu zaran lez izan ez ba'zintzaz... beste edonork enkante-egunari itxaron egingo eutsan, eta baiturearen prezioan edo apur bat geiago ordainduz, Intxaldez jabetuko zan.

—Ori egundoko saldukeria izango litzakean —erantzun eutsan Mikel'ek asarre-itxuraz—. Jaungoikoaren lege, Intxalde Martiñ'ena da, eta ez beste iñorena. Niri dagokidan aldetik, olan izango da,

orretarako diru guztia urtuko balitzakit be. Eta ez bedi arazo oneri buruz besterik esan. Erabagia lez, etzi abelgorria-ta Intxalde'ra eka-
rriko dozuz.

—Bai, Mikel, nasaitu zaitez eta etzirarte.

Beste barik, gaztea Pruden'en etxetik urten, eta errian zear mendian gora abiatu zan. Laster itzi eban atzean Iturbe auzunea, eta biotza pilpira bakanak astinduta, urrats arifñez bideko azken okergunea igarorik, Munabe iturrira eldutakoan, une batez gelditu zan. Leku onetatik mendiko egian kokatuta, Intxalde ta onen etxaguntza guztia ikusten zan. Arimaren sakoneneraño maite eban txokoa ikustean, naigabe bizia Intxalde'ko morroitzaz jabetu zan. Etxeak utsik zirudian, bedar ziztrin eta asunez inguratuta. Teillatuko zati bat jausteko zorian ikusten zan; aspalditik landubako alorrek eta ortua, eremu utsak ziran, eta larradiak egokion ebataldia alperrik itxaroten eban, nork koraiña erabilliko leuken ez egoan-eta. Ez zan beste otsik entzuten, aizearen suzmurra zugaitzen adaburuen arte-
tik igarotean baiño.

Samintasunak jota, urrats arifñez ibilteari emon eutsan Mikel'ek barriro. Urreratzen zan giñoan, bidea sasiz estutua agertzen zan, eta aspaldiz gurdiek erabillia ez zan ezkerro, guztitariko bedarrakaz estalduta egoan. Noizbait etxera eldu, eta une batez gelditu zan. Atadi-aurrean oillo-talde batek azpikoa erpeakaz eragiten eban, noiz-
zean bein karakaren bat jaurtiz. Etxea isil-isillik egoan obi biurtua bai'litzan. Orbanakaz akasturiko etxeaurrea une batez begiztatu eban Mikel'ek, eta gero, bere soak ormetan gora jagiten ziran sasi ta asunetan kokatu ziran. Ezustez, aspaldiko bere txoko maitia olan ikustean, sumin basatiak eraginda, alboko estalpera joan, eta erdoi-
turiko koraiña bat artuta, zoro biurtu izan bai'litzan ebateari emon eutsan. Aren zartada indartsuenpean, etxaurrea laster garbitu zan, eta jarraian, alboko orma bateri ekin eutsan. Lanari buru-belarri emonda egoanez, eta lanabesaren ebate-otsa zala-ta, baltzez jantzi-
riko irudi bat urreratzen yakola ez eban oartu. Errose, Intxalde'ko etxeoandrea zan. Goian, Martiñ'en ondoan aurkitzen zala, ebate-
otsa aditu eban, eta guztiz arrituta, zergaitia jakitearren jatsia zan.

Ezin egikean siñistu ekusana. Izango ete...? Bai, bera zan, oiko txairotasunaz bedar ziztrin areik moztuten ziarduana... Ezin zeite-
kean beste iñor izan Intxalde'ko morroia baiño, eta didar bizitan ol-
daru yakon, auxe iñotsala:

—Mikel, Mikel nire mutilla...!

Mikel'ek besoetan artu eban, itz bat bera be esan eziñik. Aur-
pegian beera Errose'ri malkoak mara-mara eriozan, eta burua muti-
llaren bular sendoan jarrita, bein eta barriz auxe zirautsan:

—Mikel, nire mutilla, zein luzaro etxera etorri barik...! Uts emon
dautsugu etxeko guztiok. Emen egon ba'zintzaz, ez gendukez gure
buruak ikusi oraingo egoera larrian. Berandu etorri zara, Mikel, Intxal-
de betiko galdu dogu-ta...

Noizbait buru-jabetasuna irabazita,

—Ez larritu, ama —esan eutsan Mikel'ek—, Intxalde ez da gal-
duko, laster jakingo dozuenez. Txukatu egizuz malkook, eta goazen
Martiñ'egana jazorikoa azaldu dagiodan.

—Gure Martin gaixoa ez da luzaroko izango. Osagillea astero
ikertzera yatorko, baiña bizien txar batek jota dagoan ezkerro, ez da
salbabiderik. Illabete batzutarako baiño ez, eta pentsaizu egoera
larri orretan gure Intxalde'ko azkena ikusi bear be...! Auxe da
geienbat larritzen dauana, au da, bere aitagandik yarauntsiriko
etxaldea pikotara joana ikustea, eta etxea iraun-erazo dagian iñon-
go ondorengoari emon eziñik. Auxe da, benetan. Martin illobira
daroan gaitzik larriena. Onezaz gaiñera, Intxalde itzi bear eta nora
joaterik ez, Mikel. Jaungoikoarren, ez zaitez joan barriro Martiñ'ek
bizirik iraun dagian artean, beintzat...

—Baiña, ama, ez dot uste ondo ulertu ete daustazun. Intxalde
ez da Martiñ'en eskuetatik pikotara joango. Gaur bertan arazo ori
bein betiko atondu da. Goazen gora, eta jazorikoa azalduko dautsuet.

—Goazen, Mikel, Martiñ'en poztasuna zu ikustean...!

Etxera sartu, eta zurubian gora senar-emazteen gelara abiatu
ziran. Oi eban lez, etxejoauna etzanda egoan, eskuak bular-gai-
ñean tolestuta, eta begiak itxita.

Lo-gelara sartzean,

—Aizu, Martin, zu ikustera nor datortzun...! —esan eutsan Erro-
se'k.

Etxekojaunak begiak zabaldu, eta bere ondoan etxeko mo-
rroiaren irudi ezabatsua ikustean, amesetan izango ez ete uste izan
eban, aren aurpegiari zur eta lur begiratzen eutsala. Orduan,

—Ugazaba —esan eutsan Mikel'ek —ez al-nozu ezagutzen...?

—Mikel, nire mutilla, berandu zatoz, baiña, Intxalde ondatua
da-ta. Etxetik joan ez ba'zintzaz... Orain gureak egin dau. Zu etxetik
joan eta seme etxekaltea ostendu zanetik, zure begira egon gara,
baiña alperrik, eta egunik-egun gure etxe au ondamentira joan ya-
ku, Mikel. Lenago biurtu ba'zintzakiguzan...!

—Baiña, ugazaba —erantzun eutsan Mikel'ek—, Intxalde zeu-
rea da orain eta betirako. Entzun egistazu ondo...

Eta jarraian, lau itzetan Mikelek piñu-mozketari egokion bere
jarduna azaldu eutsan, baita zelan aurregunean Elorrio'n, Intxalde'n
jazoten zana, erriko ezagun batek jakifñaren gaiñean ipiñi eban, eta

onen ondorioz, goizean bertan Intxalde'ko baiturea Martiñ'en ize-
nean garbitu izan zala. Onezaz gaiñera, aste aretan bertan etxeko
iraupenerako bearrezkoa zan abelgorria ta lanabesak etorteko zi-
ran. Laster, beraz, Intxalde betikoa izango litzake.

Au dana entzun bitartean, etxekojaunaren aurpegiak zoriona-
ren aztarnak erakusten ebazan, eta Mikel'ek azalpena amaitu eba-
neko, aspalditik lenengoz, Martiñ'en aurpegi zurbillean zear odola-
ren bizitasuna ikusi zan. Alako baten, baiña, bere alaitasuna illundu
zan eta,

—Aizu, Mikel —esan eutsan oldozkor—, izan be, Intxalde'ren
baiturea zure diruz erosi dozu, beraz, Intxalde ez da neurea.

—Ez, ugazaba, baiturea zure izenean garbitu izan dan ezker-
zurea da. Intxalde asabakandik artu zenduan, gure errian oikoa dan
lez, eta nire ustez, Jaungoikoaren legepean zeurea da. Nik ipiñiriko
dirua, egiten dautsudan maillegu bat baiño besterik ez da, eta egu-
nen baten Intxalde'ri atarako yakon obariatatik ordainduko yat. Na-
saitu zaitez, beraz, ugazaba, eta ez zaitez larritu alperriko buruaus-
tez. Eta orain etxe onetan egiteko naikoa dan ezker, banoa lanari
bear dan lez ekiteko, eta izan be kortatik asiko naz, egiteko beiñena
da-ta.

Izan be, lan ori bearrezkoa zan abelgorria laster etorteko zala-
ko. Mikel'ek gaberaño buru-belarri jardun eban, eta Errose'k iruga-
rrenez dei egin eutsanean apaltzeko, lan egiteari uko egin eutsan.

Errose'k, zorionez gaiñezka zirudian, baiña zeru aratz aretan
odei baltzak agertzen ziran. Alako baten,

—Aizu, Mikel —esan eutsan Errose'k—, noiz arte geratuko za-
ra etxe onetan...?

—Ez larritu, ama, dana atondu arte emen izango nozue.

—Zu joaten ba'zara ez da atontzerik izango, Mikel.

—Etorkirako diranak laga dagiguzan euren garairako. Aizu,
ama, zer diñostazu Edurne'ri buruz...?

Larri-larri egoan Mikel bere biotzekoari buruz zeozer jakiteko,
eta Errose'ren ezpanetatik dilindan egoan. Une batez isillik iraun
eban Errose'k, eta gero,

—Gure kutuna —esan eutsan— etxeko kinka larria ikustean,
Bilbo'ra joan eta andereiño laguntzailletzat etxe baten asi zan, alar-
gun aberats baten zerbitzurako. Edurne'ren irabazteari esker, etxe
onetan jarraitu aal izan dogu, etxeko bearrian premiatsuenai aurre
egiteko, eta Martiñ'ek bear izan dauzan osakaiak erosteko. Gurekiko
maitasun utsaz, ain maite dauan etxe onetatik urrundu
zan iñongo jarkipenik bage. Aita geisoagandik alde egitea ukapen

itzela izan arren, etxetik joan zan gure laztana, jardun barri orren
bidez guri laguntzeko.

—Eta zelan azaldu da jardun barri ori...?

—Naikoa ondo Jaungoikoari esker. Etxe ona gertatu da, eta
ugazabandreak oso ondo ta maitetsu darabil. Amabostero etxean
dogu asteburua gurekin emoteko, eta izan be, bera datorrenean ba-
dirudi eguzki izpi batek etxe goibel onetako ituntasun eta itzalak
uxatzen dauzala.

—Noiz dagokio etxera etortea...?

Itaun au egitean, Mikel'en biotza taupada zorotan asi zan.

—Datorren Larunbaten emen izango dogu arratsaldean, eta
lgandeko bazkalostean Bilbo'ra biurtuko da.

Mikel'ek ez eutsan beste itaunik egin, eta orduko berandu sa-
mar izanik, Errose bere lo-gelara igon zan, eta gazteak sutondoan
iraun eben, etorkirako asmoak egiñez, eta bere maite kutuna go-
goan laztanduz. Gero, ganbarako bere lo-gelara joan zan, eta buru-
si ta izara barriakaz atondutako oera sartu aurretik, antxiña baten
egin oi ebanez, leiatillan zear baserrien argiakaz zipriztindutako
Gernikalde'ko zabaldi ederra begiztatu eban.

Urrengo egunean, egunsentiaz batera jagi zan, eta gosari ariña
artuta, etenbako lanari emon eutsan. Lenengo, korta egokitu eban,
etorteko zan abelgorriak leku egokia izan egian. Zorionez, ira-meta
andi bat osorik aurkitu eban, eta onen bidez kortako azpigarria ba-
rritu eban. Arratsaldean errira jatsi zan etxea egokitzeo gaiak eros-
tearren, au da, teillak, igeltsu, kare, ol batzuk, unteak etab.

Urrengo goizean gaiok gurdi baten eldu ziran, eta astirik galtze-
ke, etxe-konpontze ta apainketeari emon eutsen, baita alboko estal-
pean bearrezko egokitze-lanak egiten jardun eban.

Beste egun bat jaio zan, eta adore barrituaz Mikel'ek bedar-
ebateari emon eutsan. Iñozkorik adoretuen egun guztia lan onetan
emon eban, eta eguzkia Errigoitia'ko mendien atzetik ostentzen za-
nean, sail guztia moztuta agertzen zan. Mutilla indarren muga-
n oartzen zan, baiña aldi berean zorion bakan batek jota. Egun aretan
bertan, urrengo egunean abelgorria-ta, etorriko litzakezalaren me-
zua igorri eutsan Pruden'ek.

Egunoro Errose'k eta Mikel'ek etxekojauna sapailora ataraten
eben, eta besaulki eroso baten jesarrita, Martiñ'ek bere etxaguntza
begi itxaropentsuakaz laztantzen eban. Ain zuzen be, Intxalde'ko
morroia biurtu zanetik, Martiñ'ek kemen barri bat az berpiztuta ziru-
dian. Baiturea egin zanetik amaika nekaldi ta naigabe jasan ebazan
Intxalde'ko nagusiak. Bai, eriotza nai izateraiñoko oiñazeak. Baiña
orain, Martin benetako jabea oartzen zan barriri, eta azken egunak

agure-etxean igaro bearrean, bere Intxalde'n emongo leukezalaren oarpenak, zorion andiaz beteten eban. Orrilla'ren (Maiatza) azken egunak ziran, eta eguzki betean sapaillotik bere etxaguntzaren aldakuntzea begiztatzen eban, Mikel'en joan-etorriak jarraituz. Mutil a bere semea ba'litz...! Amabi urteko mutiko a morroitzat Intxalde'ra etorri zan eguna, askotan gomutaten eban. Argala, lotsatia, eta indar gitxikoa iruditu yakon orduan, eta atzera bialtzeko zorian egoala, mutiko aregan ikusten eban zerbaitek, onartzera bultzau eban.

Martiñ'ek ez ekian zer zan mutikoa onartzera eragin eutsana... baiña orain argi ekusan benetako bultzadea mutikoaren goseti-itxurea izan zala, eta errukiak ukututa, morroi ezaiña onartzea erabagi eban. Aldiaren bidean, baiña, laster oartu zan, mutikoak Intxalde'ri emotsana beronetatik artzen ebana baiño amar bidar andiagoa zala. Mutil arekiko zorrotz eta gordin izan bazan asikeran, bera oartzeke maite izaten asi, eta urteen bidean semetzat maite izatera eldu zan.

Etxeko morroiaren joan-etorriak begiztatzen ebazala, Martiñ'ek bere buruari galde egiten eutsan, zelan ordainduko leuskion on-egiña. Piñu-mozketa jardun neketsuan irabazitakoa, Intxalde ondapenetik atarateko, aiko-maikotan ibilteke, emon izan eban etxeko benetako semea izan bai'litzan, bere buruaren etorkiari begiratzeko.

Ona elduta, asperen bat iges egin yakon Intxalde'ko etxeko jaunari. Bere semea izan ba'litz... Miñezko keiñua marraztu zan bere aurpegian, bere benetako semea, oiñorde etxekaltea gomutara etorri yakonean. Bigarren zitalkeria egin eutsanean aserre ta barka-eziñezko zauzkada batek menperatu eban, baiña egunen bidean eta etorri yakonagaitik lur-jota aurkitu arren, barkatu izan eutsan, eta berak eta Errose'k gogoan eta otoitzetan bizi-bizi eben, eta larregi zigortu ez egian Jaungoikoari eskatzen eutsoen.

Etxea ondamentitik jareki ikustean, itxaropen indargarriak artuta, Martin adore barriaz piztuta egoan, eta bere inguruko gauzatarako zudu andia sentitzen eban. Baekian Martiñ'ek eriotzak luzaro barik eroango leukela, baiña oraingo adoreak eriotzaldia geroratzen eutsan, bizi izateko zioak bazituan-eta.

Gabero, etxeko lanak burututa, Mikel'ek autu luzea izaten eban etxeko jaunarekin, egindakoaren eta etorkirako asmoen barriak emotsazala. Sarri askotan, burubideak eskatzen eutsazan ugazabari, eta onek bere burua ederretsia ikustean, poz bakanak menperatuta oartzen zan. Izan be, Mikel'ek ondo bai ondo ezagutzen eban bere egitekoa, baiña ugazabari poz emotearren onen onua eskatzen eban. Bere senarraren adore barria ikustean, Errose'k morroia-

ren biurpena bedeinkatuz gaiñera, otoiz egiten eban barrero joan ez zeiten.

Bere zoriona txastatzen ebala, baiña, Martin arrenkura batek jota oartzen zan, ots, Intxalde'ri dana emon eutsan morroiari zelan ordaindu, eta au zala-ta, etenbarik arazo au buruan erabillan korapiltoa askatu naiez. Apurka-apurka, baiña, bere irudimenean asmo bat eratzen asi zan, eta azkenean beste urtenbiderik ikusi ezik, asmo oneri buru-belarri emon eutsan. Bildur zan pot egingo ez ete leuken, eta augaitik bein baten Errose jakiñaren gaiñean ipiñi eban, eta onen ederrespina jakitean, aurrera eroateko gertutu zan. Ondo billakatuko al litzake...! Baiña biurtu gaitezen atzera, eta ikusi dagigun Intxalde'ko biziera barria zelan garatzen zan.

Pruden'ek aginduriko lez, aste aretako Barikuan, erosiriko sei bei ederrak, buztar-idiak, zaldi gorria, gurdiak eta lanabesak, eguberdia barik azaldu ziran. Orduko, kortea gerturik egoan eta ganbelak bedarrez gaiñezka. Azkena lotu eban zaldi gorriari, burua ta idu-nea laztandu eutsazan Mikel'ek, eta zorion bakanaz iruditu yakon, aspaldiko Gorri berbera etxera biurtu izan zala. Arratsalde aretan, Arresibe'ko larra jori ezoan, beiek eta zaldia bazkatzeari emotsoen, axe euren betiko lekua izan bai'litzan. Goldearen atzetik idi indartsuak zirikatuz, Mikel'en "aida" ozenak entzun zeitekezan. Iraduz ebillen Intxalde'ko morroia, lenbailen arto ta indiabaren ereintza egitearren, Lorailla'ren azkena baizan, eta beraz, sasoi zeozer igarora. Sapaillan jesarrita, abelgorriaren murrusek, eta alorren gertu-lanak inguraturik, bakez eta iitxaropenez gaiñezka sentitzen zan Martin, eta oartzeke, barru-barrutik, Mikel etxera etorri zan eguna bedeinkatu eban.

Larunbateko arratsalde aretan, Bilbao'tik Gernika'rakoa trenez eginda, Edurne Mendibe'tik etxera abiatzen zan. Astiro joian aldatzgora, aurkezten yakon egoera larria burutik kendu eziñik. Alde bate-rik, ondo ekian Intxalde'ko alaba zoragarriak, ez leukela beste iñor maite izango bere biotzeko Mikel baiño, baiña bestetik gurasoen ondo-izatea bere gurariaren gaiñetik egoala, barruko zintzotasunak iñotsan, eta au zala-ta, azken aldiotan Edurne arrenkura andipean bizi zan. Urrengo egunean, Igandean, Bilbao'ra eldu zeitenean, Atxuri'ko geltokian Agustin bere begira egongo litzake, eta orduan nai-ta-ez erantzun bat emon bear izango leuskio. Zein baiña...? Azkenean, barruko zintzotasunari jarraituz, bere buruari uko egin bear, baiña... Oldozkun oneitan murgilduta joiala, urrengo egunerarte aukerarik ez egitea ebatzi eban Edurne'k. Alako baten, aldatza amaituta, Munabe'ko iturri-ondoan aurkitu zan, eta bideko azken

okergunea atzean itzita, Intxalde'ko alaba kutuna arrituta gelditu zan, zarrastada andipean biotza pilpira zorotan ebilkiola...

Bere buruari itaundu eutsan Edurne'k, amesetan izango ete zan ekusana. Etxea zaar-barritua ikusten zan, teillatua atonduta eta etxaurrea zuriz dizdiraka. Zabaldia ikustatzuz etxeko sapaillotan aita jesarrita egoan. Arresibe'ko larradian bei-talde ugaritsuak alatzen ziarduan, eta buztar-idién atzetik goldea erabilliz, irudi makur batek alorrek ildokatzen ebazan. Goldelari aregan zerbait ezagun antzekoa egoala iruditu yakon Edurne'ri, eta zarrastada bakanak eraginda, ibillerea arindu eban. Alako baten, goldelaria zutundu zan, eta neskatillea ikustean, bertanbera dana itzita bidera urten yakon. Orduantxe ezagutu eban Edurne'k, eta zorion neurribage batek menperatuta, pozez zorotu-agiñean, zer egin eta zer esan ez ekiala, gelditu zan. Bai, Mikel etxera biurtu izan zan, eta berarekin batean Intxalde'k aspaldikoa zirudian, eta uste on adoregarriak artuta, Edurne etxeko morroiagana oldartu zan, didar auxe iges egiten yakola:

—Mikel, Mikel...!

—Edurne...! —erantzun eutsan mutillak biotza maitasunez ler egiteko zorian.

Aurrez-aurre gelditu ziran biok, alkarri begiratu baiño besterik egin eziñik. Noizbait, Edurne'k,

—Oi, Mikel —esan eban—, zergaitik itzi zenduan gure etxea...? Joan zintzazanetik etxe onek ez dau zorionezko egun bat bera be ezagutu. Emen izan ba'zintzaz...!

—Nasaitu zaitez, Edurne, dana atonduko da-ta.

—Baiña zelan etorri zaiakuz barriro...?

—Begira, Edurne, lengo lgandean jakin neban...

Jarrian, Mikel'ek jazotakoa edestu eutsan. Amaitu ebanean,

—Baiña zeuk irabaziriko diruaz —esan eutsan neskatxak—, guretzat erosi dozu Intxalde...? Zelan guretzat erosi, eta ez zuretzat...?

—Jaungoikoaren legez Intxalde zure aitarena da. Ugazabari dirua aurreratu baiño ez dot besterik egin.

—Baiña zelan ordainduko dautsugu diruketa ori...?

—Ez zaitez larritu orregaitik. Intxalde'k obari andia ekarriko dau orain. Aizu, Edurne —alkarrizketea saiestu naiez Mikel'ek— ez al-dakizu, Gorri berbera dirudian zaldi gorri batek beien artean bazkatzen diarduala...? Zatoz eta ikusi egizu.

Gazte biak zaldirantz joiazala, sapaillotik begizatzen ebazan Martiñ'ek, eta alako baten, aurregunetan izandako arrenkurak bapatean igesi joan yakozan, eta abopean, auxe jaurti eban:

—Ondo urtengo ete...?

Igande zoragarria igaro eben Intxalde'koek. Goizean, Mikel'ek Gorri zalpurdia buztartu, eta Errose ta Edurne erriko mezataro eroan ebazan. Eguraldi ederra zan, eta zabaldiko lillurak itxaropen barriak ama-alabai ta morroiari emotsezan. Meza-ostean, pozez gaiñezka aspaldiko ezagunak agurtu ebazan Mikel'ek. Bala-bala ebillen errian, azken unean Intxalde gaizkatua zala, eta ain zuzen be, Mendibe'n danak poztu ziran. Alako baten, Edurne asarrez bete zan, eta izan be ez zan gitxiagorako. Beragandik urrun ez egoan Yone, "Baserri" dendako alabea Mikel'eri urreratu yakon, eta beronekin autu bizi bateri emon bitartean, bazirudian begiakaz mutilla irusteko zorian zala. Bere buruari ez eutsan autortu gura Edurne'k, betidanik Yone'ri bekaitz izan eutsala, neska onegan Mikel'en maitasunerako leikide andia igarten ebalako, eta areago neska eder eta aberatsa izanik. Edurne'k umetarik etxeko morroia bere jabetasuntzat artu izan eban, eta mutilla beste edozein neskaekin izketan ekusanean, zergaitia jakiteke asarratzen zan.

Noizbait, Errose azaldu zan, eta irurok zalpurdiz etxera biurtu ziran. Bidean gora joiazala, Edurne'k isillik iraun eban, baiña etxera barik Yone gogotik kenduta, iruren arteko autuan sartu, eta etxera eltzean alai ta barritsu azaltzen zan.

Bazkalduta gero, oi eban lez, Edurne'k Bilbao'ra biurtzeko abiamenak egin ebazan. Arratsalde aretan, baiña, oi-ez-lako atsegiñak artu eban. Atadi-ondoan zalpurdia gerturik ebala, Mikel begira egoan, eta gurasoai azken agurra esanik, gazte biok bidean beera abiatu ziran. Bide-zati batez isillik iraun eben, baiña alako baten, barruko oroitzak gorde eziñik,

—Gomutan dozu, Mikel —irautsi eutsan Edurne'k—, zein sarritan nindarozun bide onetatik erriko ikastolara...?

—Bai, Edurne, gogoan daukadaz egun pozgarri areik.

—Esan, Mikel, zelakoa nintzan orduan...?

Une batez morroiak isillik iraun eban, eta,

—Neskato zoragarria zintzazan, maitekorra ta txori baizen alaia —esan eutsan mutillak—.

—Eta orain zelan ikusten nozu...?

Mutilla zer esan ez ekiala, aurrerantz begiratu eban ezer esatera ausartzeke, barruko ezkutua ez agertzearen, aurki, eta zaldiaren ugaldia ziurtatzeko atxakiaz, gelditu zan une batez.

Bidaia birrasita gero, Edurne'k barriro:

—Aizu, Mikel, gogoratzen ete zara bide onetatik giñoiazala agintzen neutsuna...?

—Bai, Edurne. Aberastu zeitezanean basetxe eder bat erosiko zeunskidala.

Au gogoratzean, mutillaren ezpanetan irribarre bat piztu zan.

—Zelako gora-beerak eskintzen dauskuzan bizitzak, Mikel...! Nik zuri basetxe bat erosi bearrean, zeu zara guri Intxalde emon dauskuzuna...

Asarre antzean Mikel'ek auxe esan eutsan:

—Jaungoikoarren, Edurne, ez bedi orreri buruz besterik esan. Ugazabari maillegu bat egin dausat, eta egunen baten aurreratze ori biurtuko yat.

—Mikel, ez niri guzurrik esan, ondo bai ondo ezagutzen zaitut eta. Nik baiño obeto dakizu ezin izango dogula zor ori garbitu, Gaiñera, maillegu orren agiririk ez da iñon.

—Gure artean ez da orren bearrik, Edurne.

—Urrengo baten, aitari eskatuko dausat zor orren agiri bat egin dagizula...

—Edurne...!

Mikel'en aurpegiak asarre biziaren aztarnak erakusten ebazan, neskeari begiratu eutsanean. Gero, asarrea joanda, mintzo bigunagoaz auxe eratsi eban:

—Arren, Edurne, ez kezkatu areago zure aita. Itzi egizu arazoa dagoan lez, ondo baidakit bera arrenkurak jota dagoala gauza ori dala-ta. Nik ez dot diruaren bearrik, eta ugazabak diru ori bear izan dau berea dana birreskuratzeko. Itzi dagigun, beraz, arazoa dagoan lez. Gaiñera, badakizu aita luzarorako ez dala. Saiatu gaitez ba, aren azken egunak aalik eta zoriontsuen biurtzeko.

Edurne'k era bakanaz begiratu eutsan, eta ezpanak edegi ebazan zerbait esateko itxuraz, baiña azken baten isildu zan, eta beste barik Gernika'ra eldu ziran. Zaldia zugaitz batera lotu ondoren, geltokira sartu, eta trenaren begira gazte biok gora ta beera ibiltan asi ziran. Mikel'ek zeozer esateko eban, baiña ez ekian zelan ekin arazoari. Trena, baiña, laster eltzeko zan, eta au zala-ta, gelditu zan neskeari auxe zirautsala:

—Aizu, Edurne, gauza bat esan bear dausut, eta auxe da: uko egin dagiozula Bilbao'n dozun jardunari. Iñoren neskamea izateko ez zara jaio, Intxalde'ko erregiña izateko baiño, eta areago aitak bear zaituanean. Betseiñak baiño geiago maite zaitu, aren kutuna beti izan zaiakoz-eta. Onezaz gaiñera, etxeko egoera barria dala-ta, lan asko dago bazterretan, eta zure amak ezin dagikio danari eldu, aitak ardurarik andiena bear dauanean batez be. Laga egizu guztia, eta biurtu zaitex etxera lenbailen, Edurne, danok bear zaitugu-ta...

—Bai, Mikel, laster zuekin izango nozue... Agur...

Trena eltzen zan orduantxe, eta zarrastada andipean Edurne'k Mikel'en begietan ordurarte ez ezagaturiko argi barria ekusala irudi-

tu yakon. Trena abiatzen zan jadanik, eta Edurne'k leiatillatik Mikel'en irudi txairoari begiratu eutsan ikusmenetik galdu arte, eta aspalditik lenengoz zorion bakana beratzaz jabetu zan.

Atxuri'ko geltokira eldu zanean, bere begira egoan Augustin urreratu yakon, eta,

—Arratsaldeon Edurne —maitetsu esan eutsan—, ordu bete bat zure begira emon dot. Esan, maite orrek, zein erabagi artu dozun...

—Damu dot zu mintzea, Augustin, baiña etxean aldakuntza arrigarria gertatu da.

Jarraian, Edurne'k Agiñalde buruzko jazorikoa edestu eutsan, eta amaitzean, neskeak,

—Damu dot benetan, Augustin, damotsudan naigabea, baiña Agiñalde'k bear nau orain, etxean lan asko dago-ta. Gaiñera, aitak ez dau luzaro iraungo, eta bere azken egunetan aren ondoan ego-tea nire betekizun uxa-eziña da.

—Orduan, betiko galtzen zaitut, beraz...?

—Iñork ez daki bere zoriona non dagoan, Augustin. Egunen baten, merezi dozun andregaia idoroko dozu, eta ain zuzen be, ni baiño egokiagoa. Intxalde'rako naz, eta ara biurtu bear dot, etorkiak ekarri dagistanari aurre egiteko. Agur, Augustin, idoroko al dozu merezi dozun zoriona...!

Une luze batez isillik iraun eben, eta noizbait Edurne'k jarduten eban etxera eldu ziran. Naigabe itzelaren pean Augustiñ'ek alde egin eban, emakume yaukal bat betiko galtzen ebalaren sentipe-naz.

Gau aretan, Edurne'k Kontxa Andreari jazotakoaren barri zeatzak emon eutsazan, eta amaitu eban,

—Aizu, Edurne —esan eutsan Andreak—, ez dakizu zelako atsekabea dakarstan diñostazunak, galtzen zaitut-eta, baiña bene-benetan zure eginkizuna aita geisoaren ondoan dago. Esan egistazu, Edurne maite orrek: etxeko morroia maite izaten irauten ete dozu...?

—Bai, Andrea.

—Eta berak maite al-zaitu...?

—Ez dakit. Oraindiño ez daust orren zantzurik emon. Beti isilla ta barrukoia izan da, eta areago gaiñera etxeko morroia izanik.

—Aren jokabideak maite zaituala adierazoten dau, Edurne. Maitasunak eragindako batek soillik egin dagike olako ekintza.

—Intxalde ta aitaganako maitasun utsaz egin dau ori, neronek ondo dakit-eta. Mutikoa baiño ez zala gurera etorri zan, eta berea bai'litzan Agiñalde maite izatera eldu. Nire gurasoak maite dauzala

agiri dagoan gauza da, baita ni bere arreba txiki kutuntzat maite izan nau beti, ezagutu ninduanetik, alegia, eta geroago erri-ikastolara nindaroala, eta arrezkero be, bardin. Ez dot iñoiz ezagutu, nik gura izaniko edozer niretzat jaritsi ez egian...

—Begira, Edurne, nik benetan ezagutzen zaitut barrutik, eta ondo baiño obeto dakit edozein gizonari zoriona ekarriko zeunskiola. Eta itxuraz, aingeru baizen ederra zara; ez larritu beraz, aren zurekiko sentipenak dirala-ta. Maite izan ez ba'zengiz munduko gizonik itsuena izango litzake.

—Olan uste izango dozu, Andrea, baiña errian bada aren atzetik beti dabillena; Yone izeneko neska eder-ederra ta aberatsa. Ez dakit ba...

Kontxa Andreak irribarrez begiratu eutsan, eta

—Ez larritu, Edurne —esan eutsan—, ezkondu zaitezenean zure senarra ekarriko daustazu etxera, ezagutu dagidan. Dirudienez, mutil ederra ta zintzoa da, ezta...?

—Bera baiño txairoago ta ederragorik ez dot egundo ezagutu. Indartsu ta malgua da, eta ez dautso iñoiz lanari uko egiten, baiña beragan nabarmenena, alde guztietatik darion zintzotasuna da. Bere ondoan nagoanean ez naz ezeren bildur, eta egin dagiana egin dagiala, azkenean beti zuzen egoala azaltzen da. Batzutan baderitxat oi-ez-lako itxuraz begiztatzen nauala, baiña ez naz ames egitera azartzen... Yone gutartean agertuko ez ba'litz...

—Aztu egizu Yone dalako neska ori, Edurne. Orain, nekatuta zagozan ezker, apaldu baiño ez oeratu zaitez. Biar zure ikastetxera dei egingo dot, zu lako andereiño laguntzalea bialdu dagisten, eta ona ezker, biurtu zaitekez etxera. Tamala dot tamala, zure laguntzari uko egin bear, baiña zuretzat aita geisoa beiñena da.

Andik egun batzutura, Edurne'k ondo ezagutzen eban bera lako neska bat Kontxa Andreak igorri eutsoen, eta pozik baita naigabetua batera, Edurne'k ugazabandreaki egur esanik, Intxalde'ra biurtu zan.

UGAZABAREN AZKEN NAIA

Etxeko alabearen biurpena laguntza andia azaldu zan etxeko guztientzat. Egiteko andia zan etxean orain, eta baserrian lan beteko sasoi izanez gaiñera, Mikel'ek baeban naikoa buruauste, Intxalde lengora biurtzeko. Korteia egokitu ezker, teillatu osoa zaarbarritu bear izan eban, baita onen abe batzuk ta zuredi-zati andi samar be, berak etxetik alde egin ebanetik etxean ez zan iñongo atontzerik egin-eta. Onezaz gaiñera, abelgorria zaindu, jatsi, esnepegarrak antxiña baten lez Iturbe'ra egunoro eroan, bedarra ebagi, ondu ta metatu, alorrek eta etxeko ortua zaindu, egurketea ta iraketea egin etab. Augaitik ez eban artu-emon andirik izan Edurne'rekin. Otorduetan soillik Errose ta Edurne'rekin autu labor bateri emotsan, eta bereala lanera barriro.

Agiri zan Martiñ'en osasuna beerantza joiala, baiña bere egoera mingarrian Intxalde gaizkatu izan zalaren oldozkun itxaropen tsuak noizean bein bazirudian indar barriak emotsazala, eta osagilleak iragarritako baiño luzaroago irauten eban. Emazte-alabak gau ta egun zainduta, ez zan unerik bat bera be bakarrik geratu zeiten. Gau-beilan izanikoak egun ez egiten eban, betekizun onetan ama-alabak aldizkatzen zirala.

Uda izanik, esne-lorketea eginda etxera biurtzen zala, Mikel'ek ugazabea besoetan artuta sapailora atara, eta oiko besaulki eroso baten gaiñean jarten eban, urruneraiño edatzen zan zabaldua, soloetako lanak eta abelgorrien bazkaldia ikusi egiazan. Baekian Martiñ'ek eriotza luzaro barik etorriko litzakiola, baiña orain oldozkun onek ez eban larritzen, Intxalde ondamentitiek urtenda, baekian gizon zintzo baten eskuetan egoala, eta egoera onek iraun egian egitasmo bat buruan erabillen. Ondo urtengo al zan...!

Illunabarra asten zanean, Mikel'ek ugazaba barriro bere beso indartsuetan artu, eta oera eroan oi eban. Jarraian, oe-buruaren ondoan egindakoaen barri emoten eutsan, baita etorkirako ebazan asmoak azalduta, burubidea eskatzen eutsan, eta bion artean egokiena ebazten eben. Ekintza onek Martiñ'eri poztasun itzela ekarkion, oraindiño etxeko erabilterako gai sentitzen zan-eta. Baiña agiri zan etxekojaunak egunik-egun makaltzen zala, eta aldi luzerako ez litzakela izango. Onezaz gaiñera, eragozpen andiaz itz egiten eban, gero ta zailago zala iñoana ulertzea bere arnas-estua zala-ta. Gau baten oiko alkarrizketea izaten ebela, Martiñ'ek auxe esan eutsan:

—Mikel, agindu egistazu... aaleginduko zarala Intxalde onik atarateko...

—Bai, ugazaba, nasaitu zaitez. Etxe au nirea bai'litzan maite dot-eta.

—Ez niri ugazaba esan, Mikel, askozaz naiago dot aita esan dagidazun...

—Bai, aita.

—Begira, Mikel, askotan merezi ez zenduan eran erabilli zaitut... Gogoan dot egun baten zelan emon neutsun zartako bat bidegabez... gero jakin neban ez zintzazala erruduna... Bai, zorrotz erabilli zaitut beti... eta zuk maitasun eta lan egiñez... beti ordaindu daustazu, Mikel... Eta orain gure alde egin dozuna... seme askok aitaren alde ez leukie egingo...

—Ez olakorik esan, aita. Zuzen eta zintzo erabilli nozu beti. Begira... etxe onetara eldu arte ez neban goserik kendu. Zuk eta Errose'k semetzat artu ninduzuen, eta lan egiten irakatsi zeusten. Berbaturiko urte-saria emonez gaiñera, jaiegunetarako sakel-dirua emon lagun-arte denbora emoteko be, baiña oroz gain, geien bear nebana, ots, maitasuna, esku-beteka emon daustazue. Alde onetatik zor andi-andia dautsut.

—Eskerrik asko, seme, diñostazunagaitik... Eta orain, aitu ondo auxe... mezu bat bialduko dozu abade-mintegira,,, gure Andoni lenbailen etorri dakigun... il baiño aurretik ikusi gura dot-eta... Au bai mutil zintzo ta ona... Jaungoikoak bere zerbitzurako nai izan eban... eta orain pozik nago... bai, laster mazakotuko da... Aizu, Mikel, egunen baten Jaunak zure semetariko bateri dei egingo ba'leutso... emoiozu beste barik... ori zorion andi-andia baida gurasoentzat...

Etxekojaunak une batez isildu zan arnasa artzearren, eta gero,

—Beste gauza bat, seme... biar Gernika'ra joanda... barataria etxera ekarriko dozu nire azken-naia azaldu dagiodan... eta au egiñik, abadea ekarriko daustazu... eleizakoak artu dagidazan... Il nai-

tenean ez negarrik egin... baiña nire alde otoi egizue... auxe baiño beste lorarik ez dot gura-ta...

—Bai, aita, zuk esana lez egingo dogu. Orain lo egin biar indartsu itxartu zaitez.

Gero lo-zorro batek Intxalde'ko nagusia artu eban, eta Mikel gelatik urtenda, Edurne sartu zan gau-beilari emoteko.

Aginduta lez, Mikel urrengo egunean Gernika'ra baratariaren billa zalpurdiz joan, eta bidebatez mintegira urrutidazki bat zuzendu eban Andoni'ren etorrerea eskatuz, aita il baiño len ikusi egian. Gernika'n lenbailen etorri zeiten baratariari eskatu eutsan, ilteko zorion zan etxekojauna ikusi egian onen azken-naia legeztatzeko. Bertanbera dana itxita, barataria ta Mikel aalik ariñen Mendibe'ra abiatu, eta luzaro barik Intxalde'ra eldu ziran.

Geisotasunaren miña kentzeko ainbeste sendakaiak artzeagaitik, etxekojauna lo-kumaren menpe egoan, eta Errose'k iratzarrita, buruko batzuen bidez erdi-jesarrita ipiñi eben ama-alabak, eta Errose, Martin eta barataria geratu ziran bakarrik. Orduan, Intxalde'ko etxekojaunak bere azken-naia itzez esaten asi zan.

Nekez aditzen yakon iñoana, eta eten-aldi ugariak egin bear izan ebazan, baiña oe-buruan egoan Errose'k arek esana itzez-itx baratariari birresaten eutsan, eta noizbait dana idatzita geratu zan. Orduan, idatzirikoa baratariak irakurri eban, eta Martiñ'ek ontzat emonda, baratariak bere izenpetzeaz legeztatu eban, eta jarraian Mikel'ek Gernika'ra eroan eban zalpurdiz.

Biaramonean Mendibe'ko abadea etorri zan, eta autortu ondoren, Martiñ'ek eleizakoak artu ebazan. Gau aretan bertan Andoni mintegitik etorri zan, eta aitarekin luzaro jardun eban adoretzen saiatzen zala.

Andik iru egunetara, senarra jagoten ziarduan Errose'k etxeko gutzai dei egin eutsen, Martin azkenetan egoala esanez. Arrapalada baten, Edurne, Andoni ta Mikel gelara sartu, eta oe-inguruan jarri ziran. Andoni'k azken otoitzak esaten ziarduan, Intxalde'ko nagusiak begiak edegita Edurne'ren eta Mikel'en eskuak artu eta alkartu nai ebazan une berean, il egin zan.

Olan amaitu eban bere bizitzazen bidaia Intxalde'ko etxekojaun jator eta zintzoak, arbasoakandik jarauntsiriko etxea ta onen etxaguntza, Jaungoikoagandik etorritako doaitzat ebanak, eta onen erabiltearen kontu estu ta zeatzak emon bear ko leukezala. Ain zuzen be, bizitza laburtu eutsoen amaika naigabe jasan bear izan ebazan, eta bera errudun ez bazan be, jaiotexearen alde izandako oiñazea itzela billakatu yakon. Intxalde barne-muiñetaraiño maite eban, eta aren alde bizitza emoteko gerturik egoan iñondik etorrita-

ko morroi ezain, txiro baten bidez, Intxalde ondapenetik urten izan zan, eta igarotako atsekabeak aztuta, etxejoaunaren eriotza gozo ta itxaropentsua izan zan.

Urrengo egunean eleizkizunak eta lur-emotea gertatu ziran, eta jarraian itun eta isillean etxeoak Intxalde'ra biurto ziran. Mikel'ek ama-alabak errukitsu begizatzen ebazan bidean gora joiazala zalpudiaren bilin-bolakak astinduta. Benetan maite izan eban ildako ugazaba, baiña bere samintasuna Errose ta Edurne'renakin ezin zeitekean kideku. Bera lanean buru-belarri jarduteko zan, eta orrek zelanbait bere oiñazea arinduko leuke. Emazte ta alabearen pairamena, baiña, berea baiño sakonagoak izanez gaiñera, etxeo txoko guztiek oroimenera ekarriko leuskiez senar eta aita zanaren gomuta biziak. Mikel'ek, Edurne'ren malkoz beteriko ta izandako arduraz argalduriko aurpegia saieska begiratzen eban errukiz beterik. Bere aurpegi zoragarria eskuetan artu aal izan be'leu, eta Intxalde bizi-bizi maite izanik be, askozaz areago etxeo lora kutuna maite ebala, esan aal izan ba'leutso...!

Intxalde'ko biziareak apurka-apurka oiko itxurea artzen eban. Etxejoaunaren utsa nonai ta etenbarik oartzen zan. Orain, aren zaintza-bearra amaituta, ama-alabak ondo irabazitako atsedinari noizbait emotsoen. Iñongo geldi-unerik ez ebana, baiña, Mikel zan. Udazkenean naikoa lana dago baserrian, eta oi lez etxeo morroia, egurketa, gaztainketa, sagarketeari etab. emotsen. Urte batzuk le-nago berak sorturiko sagardia guztiz emonkorra azaldu zan, eta saldu aal izateko baiño geiago batuta, enparauaz sagardo-egiteari ekin eutsan, upel bete andi bi batzen ebazala. Barriro be, aspaldi lez, Gernika'n zabaldutako etxeo kontu agiriak gorakada andia artzen eban, eta Intxalde'ko larri-aldia betiko joana zala esan zeitekean, etorki itxaropentsu batek ziurtasuna edatzen ebala.

Mikel, baiña, artega ta arrenkura illunean bizi zan, orain bere ondoan eban Edurne burutik kendu ezin, eta egoerari zelako urten-bidea emongo leuskion jakin barik. Nekatuta oeratu arren, orduak eta orduak itxartuta emoten ebazan urtenbiderik egokiena billatuz, baiña ezin egikean egoera naasi aretan argiro ikusi, eta azkenean arazoa berez atondu zeiten erabagi eban.

Intxalde'ko nagusia il eta iru bat aste igarorik, legeztaturiko azken naiaren aldaki bat eldu zan etxera. Gau aretan, apalduta gero, Errose'k auxe esan eban:

—Aizu, Edurne, ona emen aitaren azken naia gaur bertan baratariak igorrita. Irakurri egizu.

Mikel urteteko jagi zan, baiña orduan,

—Zeuk be entzun egizu, Mikel, zeuri dagokizun zeozer be badiño-ta —esan eutsan etxeoandreak.

Edurne estalkia urratuta gero, mintzo astiro ta gozoz onetaraxe irakurten asi zan:

“Etxebarria'tar Juan, Gernika'ko barataria nazan onen aurrean, eta Intxalde'ko Martin etxejoauna nire aurrean izanik, bere azken naia auxe dala adierazoten dau: “lurralde onetako foru ta ekanduari jarraituz, Intxalde bere lur guztiekin nire alaba Edurne'ri oso-osan lagaten dausat, urrengo baldintza betetekotan, eta auxe alegia: Aretxalde'tar Mikel'ekin, orain arte izandako etxeo morroiarekin ezkondu daitela. Baldintza au beteko ez ba'litz, orduan etxea ta etxaguntza salduko litzakez, eta baturiko dirua Edurne ta Mikel'en artean erdibanatuko litzake”.

Eta nik neuk Gernika'ko baratariak goian esandakoa zin dagit Etxebarria'tar Juan'ek izenpetua”

Mintzo dardartsuz eta aurpegian beera malkoak eriozala, azken naia irakurrita, Edurne isildu zan. Mikel'ek zauzkada itzelaren pean zer esan ez ekiala, lurrera begiratzen eban. Alako baten isil-unea eten egifirik, Errose'k auxe esan eban:

—Arazoa, beraz, zuen artean ebatzi bear da. Nik ez dot emen zer esatekorik, eta zuek biok askatasun osoaz dagokizuen erabagi dagizuen, banoa lo egitera. Gabon, biar arte Jaungoikoak lagun.

Au esanik, Errose zurubian gora ostendu zan. Une luze batez gazteek isillik iraun eben. Erabagiteko ordua eldu izan zala oartzen eban Mikel'ek, eta bere egitekoa azkenean argi ikusita, jagi zan eta maite-maite eban neskatillaren aurrean zutunik, auxe esan eutsan abots leun eta dardartsuz:

—Entzun, Edurne. Ez dozu nirekin ezkondu bear Intxalde jabetzeko. Begira: niri dagokidana bedi zuretzat. Egia esateko, odo-lez Intxalde'ko leiñukoa zara, eta beraz, etxea ta onen lurak zugana biurto bear dira. Beste aldetik, ezkontza benetako gauza da, eta baldintzarik bage askatasun osoan artu bear dan aukerea. Izan bedi, beraz, Intxalde zuretzat beste barik...

Edurne jagi zan, eta Mikel'en aurrean jarrita, begietara so egiten eutsala,

—Esaidazu, Mikel —itaundu eutsan—, zer egingo dozu emendik joaten ba'zara...?

—Niretzat erraza da: piñu-mozketeari emongo dausat barriro. Mendietan neban lengo jardunetik alde egin nebanean, niretzat an leku bat beti izango neukela esan eustan nagusiak...

Edurne'ren begiak Mikel'enetan untzatu ziran, eta erdi-asarrez auxe esan eutsan:

—Baiña, Mikel, zorotu al-zara...? Ez ete zara konturatzen, zeu barik Intxalde pikotara joango danik...?

—Askozaz larriagoa da norberaren gogoaren aurka ezkontzea.

—Ez al-dozu ikusten, baiña, Intxalde'k etsi-etsian bear zaituanik, Mikel...? Ai ene, itsu ori...! Ez ete zara konturatzen neuk be etsi-etsian bear zaitudanik, beti-beti maite izan zaitudalako, eta zu izan ezik ez nazala ezkonduko beste iñorekin...? Ez ete nozu maite izaten apur bat bederik...?

Biotza taupada zorotan ebilkiola, zorion neurribagepean, Mikel'ek Edurne besarkatu eban auxe iñotsala:

—Maite ete zaitudan diraustazu, maite orrek...? Betidanik biotzean izan zaitut, Edurne. Ume zintzazanean, zeruko aingerutzat izan zindudazan. Gero, nik ez dakit zelán, Bilbo'ko ikastetxetik etxera biurtzen zintzazan bein baten, nire bizitzako emakume bakartzat maite zindudazala konturatu nintzan, eta arrezkero nire gogo guztiak bete dozuz. Eta maitasun onek zoribakoa egiten ninduan. Zelán azartu morroi ezain izanik, etxeko alaba kutun maitagarriraiño...? Izar oratu-eziña irrikatzen neban, eta augaitik nire biotzetik erauzi nai izan zindudazan, baiña alperrik, gero ta maiteago niretzat beti. Baiña orra or, ezustean, izar yaukal ori yatordala. Au bai zoriona...!

Aurrera jarraitu eziñik, Mikel une batez isildu zan, eta gero, Edurne'ren begi oztin ederretan bereak jarraitu, auxe esan eutsan:

—Esaidazu, Edurne kutun orrek, ni maite izatera zelán eldu zara...?

—Ez dakit, Mikel. Beti maite izan zaitut, eta izan be, etxe onetara etorri zintzazanetik, oso ondo gomutaten ez nazala, be, txiki-txikia nintzalako. Orduan, guztiz aaltsua dan neba zoragarri nagusitzat maite zindudazan, baiña bein baten... Gogoan ete dozu, Igotz'en Eupeme Deunaren egunean ospatu zan jai...? Ara ba, egun aretan "Baserrí" dendako Yone'kin bein eta barríro dantzan egiten eta berbetan jarduten ikusi zindudazanean, orduan bertan niretzat oso osorik gura zindudazala konturatu nintzan. Arrezkero, Yone maite ete zenduan etenbako zalantzapean bizi izan naz. Ez dakizu oldozkun onek sortzen eustan amorrua...!

—Oker zengozan, Edurne. Yone ta biok beti lagun onak izan gara, besterik ez. Zu zaitut gur egiten dodan nire bizitzako emakume bakarra. Edurne maite kutun orrek, jakingo ba'zendu noraiño ta zelán maite zaitudan...!

Bere begi sorgingarrien so maitekor luze bat az erantzun eutsan, eta jarraian Errose'gana igon ziran, artutako erabakiaren barri emoteko. Errose'k gazte bien aukerea ezagutu ebanean, pozaren pozez,

—Bedeinkatu zagiezala Jaungoikoak —esan eutsen—. Orain benetan esan daiteke Intxalde ondamentitik urten dala. Begira, maiteok, Martiñ'ek buruan erabilen arazo bakarra zuei buruzkoa zan, eta gure autuetan arrenkura ori beti azaltzen eban. Nasai egoteko nirautsan, Jaungoikoaren eskuetan egoan arazoa zala, eta aren borondateak dana atonduko leukela azken baten. Badakizue noraiño maite eban aítak Intxalde. Bizitza baiño areago izan be. Aren zoriona zerutik, gure etxea onik atara dala ikustean...!

Au esatean, aurpegian beera Errose'ri zorionezko malkoak eriozan. Isil-isillean esan-eziña jasan izan eban gaixoak, eta aspalditik lenengoz, orain bizitzak irribarre egiten eutsan.

Jarraian, iruren artean ezkontzari buruzkoa erabili zan, eta noizbait, illabete baten barruan eztegua ospatuko litzakela, bat etorri ziran. Gazteak alkar ondo ezagutzen eben, eta alperrik izango zala, beraz, ospakizun ori geroratzea.

Azilla'ko eguraldi ederreko eguna izan zan, Mikel eta Edurne ezkondu ziran Mendibe'ko eleizean. Intxalde'ko aide ta ezagun batzuekin, Mikel'en guraso ta anai-arrebak tartekoak izan ziran. Mezakotu barria zan Andoni'k ezkondu ebazan. Danek ederretsi eben emaztegiaren edertasun dizdiratsua, eta senargaiaren jasa ta txarrotasuna. Izan be, bazirudian bata bestearekin alkartzeko jaiok zirala. Ezkongaien ama-bitxia zan Yosune'k, Mikel'en amak, aurpegia malkoz bustita ebala, Jaungoikoari eskerrik biziena emoten eutsan, bere seme kutunak noizbait, merezi ebana jaristen ebalko. Aurregunean, senar eta seme-alabekin Intxalde'ra elduta, onen etxaguntza aberatsa ikusi ebanean, arrituta geratu zan, eta areago Edurne zoragarria ezagutu ebanean. Orain, gazte eder bi areik aldararen aurrean ikustean, esker-otoitza biotz-biotzetik sortu yakon.

Eztegu-bazkaria, Gernika'ko jatetxe on baten ospatu zan, eta illuntzean, ezkon-barriak Bilbao'ra joan ziran, amabost eguneko eztegu-bidaia asteko. Ezin zeitekezan luzaroago Intxalde'tik-at izan, etxeko egitekoak zirala-ta. Bitarte aretan, Iturbe auzuneko ezagun batek bein jaiste ta esne-lorketea egingo leukéz.

Bost illabete igaro ziran, eta udabarriak zabaldi osoa edertzen ebala, illuntze baten, oiko lanak eginda, une batez atsedean artzeko, Mikel bere emaztearen ondoan etxeko atadian jesarri zan, eta oi eban lez maitasunez beterik begiratu eutsan. Edurne'k Mikel'en eskuak lastundu ebazan, eta olan alkarri begiratzen eutsoela, leun-leun, Edurne'k auxe esan eutsan:

—Ez dakizu gauza bat, Mikel...? Azur barrietan nozu...

Mikel'en biotza taupada zorotan asi zan, eta emaztearen aurpegi liraiña eskuetan artuta, didar baten, auxe esan eutsan:

—Edurne maite orrek, gizonik zoriontsuena egiten nozu...! Egunen baten Intxalde'ri jarraipena emongo dautson zeure ta nire semea...! Oroitzen al-zara, Edurne maite orrek...? Neskatotxu izanik erriko ikastolara zindaroadazanean, egun baten basetxe bat erosi-ko zeunskidala esan oi zeustan, eta begira, nik maiteen dodan etxea emon daustazu...

—Ez, Mikel, zuk niri emondako etxea da. Zeuk irabazi dozun erriko etxerik bikaiñena...

—Niretzat, Intxalde zuk emoniko etxea da, zure jaiotetxea, zure leiñuari dagokion abi ederra. Baiña ez ori bakarrik; etxea baiño askozaz geiago balio dauan bitxia, etxeko bitxia zaran ori emon zaiataz, zeu Intxalde'ko Lorea...! Eta ori naikorik ez bai-litzan, gure etxeari jarraipena emongo dautsan semea dakarstazu... Izan be, Edurne, bedeinkatua bedi etxe onetara etorri nintzan eguna...!

Une batez isillik iraun eben alkarganako maitasunaz jabetuta. Alako baten, Edurne'k,

—Aizu, Mikel, zein izen ipiñiko dautsagu seiñari...?

—Neska izatekotan, Edurne jarriko neuskio.

—Eta mutilla izanik...?

—Zer deritxazu, Martin, zure aitaren izena...?

—Oba ez, Mikel...!

Illundua zan orduko, eta zabaldian erri ta baserrietako argi-txortak dizdir egien, eta ortzian izar urrundariet asperen isilletan Intxalde bake betean urrumatzen eben...

IDAZTOSTE

Emen amaitu bear izango neuke Intxalde'ri buruzkoa, baiña urte batzuk geroago jazo ziran gora-beerak, edeski onekin zer-ikusi andia daben ezketiño, egoki deritxat idaztoste baten antzera erastea.

Bost urte igaro ziran Mikel eta Edurne ezkondu ziranetik, eta iru kimu barrik Intxalde ta onen aldamenak alaitzen ebezan. Edurnetxu, zaarrena. Martintxu, eta Mikeltxu, au etxeko kutun maitagarria. Mikel etxekojaunaren lanari esker, etxeko aberastasuna etenbarik geitzen zan, eta amaren laguntzaz Edurne'k etxeko eginkizunak eta umeak ondo erabillezan.

Zorion-abi aretan, baiña, bazan guztiz zoriontsua ez zana, eta aspaldian etxetik joandakoa uts emoten ebana. Errose gaixoak ezin egikean, etxekalte ta zitala izaniko semea burutik kendu. Bene-benetan oiñaze larriak jasan ebazan Intxalde'ko etxekoandre zaarrak, baiña munduko gizakirik zantarra izanik be, ama batek biotzeko txoko ezkutu baten leku bereizia gordeko dau joan zan semearentzat. Etxekoen artean ez zan etxekaltearen izena aipatzen, baiña danek gomutan eben, eta oroitz onek Errose'ren biotz amatarra zauritzen eban. Non egoan jakingo ba'leu zelan edo alan bere alde aalegintzeko...! Eta izan be, amaren igarmena zuzen egoan, etxetik iges egiñiko semea kinka larrian aurkitzen zalako... Ona emen jazorikoa.

Gurasoai egiñiko lapurketa burututa gero, berrogei ta amar mila ogerlekoek emotsoen aalmenaz, Argentiña'rako bidai-txartel bat erosi eban, eta andik egun batzutara Santurtzi'n ontziratu zan. Itsasbidai bare ta atsegiña azaldu zan, eta barruko txoko baten mintzo ezkutu batek egindakoa gaitzesten baeutsan be, lagunarteko biziera zoro batz biotzeko ar aspergarria zapaltzen saiatu zan.

Benetako biziera bateri emotea erabagi izan eban Txomiñ'ek, eta eroian diruketaz, burutsu jokatzaz aberastasun andia jaristea. Bajoian ontzi aretan argentiñar gazte oso begikoa zana, eta onen erakarpenak irabazita, Raul dalako au eta Txomin adiskide miñak billakatu ziran. Luzaro barik adiskide barriari bere asmoen barri emon eutsan. Maitekor eta benatsu, ezer egin baiño len bera jakitun ipiñi egian eskatu eutsan Raul'ek, mundu onetan jaunaren itxuraz lapur asko egoalako. Berak baekian etorri andiko amaika arazo, dirua ziurtasun guztiakaz jarteko, diru-arazoetan jende garrantzitsuekin artu-emon andia eban-eta. Pozik agindu eutsan Txomiñ'ek, dirua erabilli aurretik burubidea eskatuko leuskiola.

Raul begikoak guztitariko begirunez inguratzen eban Txomin, eta bidebatez amaika burubide zuur eta zentzudun emotsazan, baita Argentiña'ko bizierari buruz barri ugariak be. Ordurarte lagunik zintzoentzat eban Txomiñ'ek, eta egun osoan zear Raul'ek guztitariko adeitasunez inguratzen eban azkero, egunik-egun onekiko eraspina andiagotzen yakon. Ez ekian, baiña, Txomiñ'ek, Raul jokozale porrokatua zala, eta oeratu baiño ez, onoimen guztien eredia zanak ontziko joko-aretoan goizalderarte, erruleta tramankuluari burubelarri emotsala.

Egunak arin igaro ziran, eta Buenos Aires'era elduta, Txomiñ'ek lagunari ostatu bat esondu edo errokomendatu egitsan eskatu eutsan, eta arjentiñarrak atsegiñik andienaz Belgrano kaleko ostatu txukun bateraiño lagundu eutsan. Arrezkero, Raul ostatu aretara etorkion egunoro, eta "La Nacion" egunkariaren iragarkiak alkarrekin aztertzen ebezan. Gero, arratsaldean, Raul'ek uri andi aretako ikusgarriak erakusten eutsazan.

Bein baten, aipaturiko iragarkiak aztertzen ziarduela, Raul'ek didar bat jaurti, eta auxe esan eutsan:

—Mira ché, eso sí que parese un asunto macanudo...!

Au esanik, iragarki bat erakutsi eutsan. Lauki baten jakiñerazoten zan, "tambo" edo esne-azienda bat irurogei beitaldekoa zana, salgai egoala, Buenos Aires'etik irurogei bat kilometrorra, eta gorabeera zeatzak jakiteko, Rivadavia kaleko idaztegi batera joateko. Raul'ek lagunduta, aipaturiko idaztegiara joan zan, eta laster egoan gizon arranditsu baten aurrean. Gizaki arek, saltzeko zan "tambo"ren goralpen itzelak azaldu ezketiño, oso merke saltzeko egoala, eta esan zeitekeala, eun aukeren artean noizean bein bakarrik aurkezten dan mauka itzela zala, eta izan be, oraindiño eroski arek salgai irauten ba'eban, benetako gizon zorionsua izango litzakela. Jarraian, urrutizkiñez dei bat egin, eta eskegi ebanean,

—Has tenido suerte, viejo —esan eutsan—, esa flor de tambo aun está en venta.

Jarraian azaldu ebanez, eun milla pesotan salgai egoan, eta baietza emotekotan, baibentzat erdia emon bear izango leuke, eta beste erdia jabetasun-agiria eskuratzean. Orduan Raul tartetu zan, eta dalako tamboa erosi aurretik ikertu bear ebela, esan eutsan onibar-bitartekoari. Baietza emonda, urrengo egunean lekua aztertuko leukiela erabagi zan.

Urrengo egunean joan ziran ba, Raul eta Txomin berebillez, eta andik ordubete batera-edo, etxaguntza eder baten aurrean aurkitu ziran. Lenengo, jaubea ikusi gura ebela, baiña bazkatzen ziarduan bei-taldearekin egoala, eta ara joan zeitezala esan eutsien. Joan ziran ba, eta dalako jaubea esandako tokian ikusi, eta salketearen baldintzai buruz jardun eben. Jaubeak guztitariko goralpenak bere azindari egin eutsazan, baiña zoritxarrez zaarra izanik, il baiño len bildutako dirua gozatu nai eban, osterantzean, munduko diru guztiagaitik bere tamboa ez leukela salduko. Jarraian, lurak ikertu ebezan, eta gero, ordu aretan utsik egoan korta eder eta apaiña be. Ainbeste zoragarriak ikusi ondoren, Raul eta Txomin Buenos Aires'era biurtu ziran, berandu zala-ta. Txomin adore itzelaz jota egoan, eta gau osoa emon eban lo egin barik.

Biamonean, Raul'ekin Rivadavia kaleko idaztegiara biurtu zan, eta baibentzat salsariaren erdia emon eban, eta andik iru egunera, jaubearen aurrean jabetasun-agiria emongo litzakiola, esan eutsan onibar-bitartekoak. Iru egunok igarota, Txomin berantetsia idaztegi aretara joan zan Raul'ekin. Eldu zanean, jaubea ta bitartekoa agiri legeztatuarekin begira egozan, eta enparauko dirua emonda, Txomin zorionez gaiñezka urten zan.

Ostaturaiño lagundu eutsan Raul'ek, eta agurtzean, urrengo egunean billa etorriko litzakiola, eta biok azindariaren jabetasun-artze egingo leukiela, esan eutsan. Ames gozotan emon eban gaba Txomiñ'ek. Biamonean, aldarerik onenean, Txomin bere lagunaren begira ate-ondoan jarri zan. Baiña orduak igaro, eta Raul'en zantzurik ez. Kezka larri bat Txomiñ'ez jabetzen asi zan. Eguberdia igaro zan, eta arratsaldean arrenkura jasangaitzaren pean, Rivadavia kalea aztertu eban. Kale au ogei bat kilometrokoa zan, eta lengoetan idaztegiara taxiz joana zan ezkerreko, eta etxeko zenbakia gogoratu ezin, galduta aurkitu zan kaletzar aretan. An edo emen dalako etxea idoroten ebala iruditzen yakon, baiña idaztegi madarikatua ez zan inondik agertzen.

Lur-jota, gabeen ostatura biurtu zan, eta gau guztia etsipenak artuta emon eban. Urrengo goizean taxi batez, lengo egunean iker-

turiko tambora abiatu zan, eta zelan edo alan, noizbait, ara eldutea jaritsi eban, baiña aratu zanean txundituta geratu zan. Etxaurrean iragarki au irakurri zeitekean "Escuela de Ganadería del Estado". Orain gomutaten eban Txomiñ'ek, lengo egun aretan, etxe aretara atzekaldetik urreratu izan zirala. Zorabioturik eta etsipen utsaz biraoka, etxe aretara sartu, eta emen azaldu eutsoen, iru gaizkilleen marrokeri-oparia izana zala.

Buenos Aires'era biurtzean, berak gurasoai egindako lapurke-tea, berari lotsabako batzuk ordaindu-erazo eutsoela bururatu yakon, baiña areik ez ziran bera baizen alenak, areik ez leukie euren gurasoai egin, berak, Intxalde'ko oiñordeak aita ta amari egiñikoa. Bazan, izan be, alde andia bera ta irukotearen artean. Oneik ezezagun bateri ostu izan eutsoen, baiña berak, guraso gaixoai dirua ta itxaropena kendu izan eutsezan zaartzaroaren atean. Jaiotetxe ta gurasoekiko Judas billakatua zan, eta beragan, bere gogoan, betiko madarikaziñoa eroan bear izango leuke. Ainbeste zitalkeri ta gaiztakerien ondoren, lapurtutako diru madarikatua urtu izan zan, eta orain bere buruarekiko iguin neurribakoa sentitzen eban.

Uriburura eldu zanean, norabarik, kaleen artean ibilkunde alde-rrai bateri emon eutsan, eta egunsentian, berak ez ekiala zelan, bere ostatuko ate-ondoan aurkitu zan. Egun batzuk jangar eta nakar emon ebazan, baiña dirua laster amaitu yakon, eta ostatuko jau-been burubidez, Belgrano kalean egoan "Laurak Bat" euskal etxera jardun baten billa jo eban. Andik egun batzutara, Tandil errialdeko tanbo baten, morroi bat bear ebela esan eutsoen, eta aren zuzenbide ta gora-beerak artuta, trenez joan zan. Dalako Tambo edo esne-azienda, ez egoan Tandil uri anditik urrun, eta euskalduna zan nagusiak aberkideak ederresten ebazan ezkeru, morroitzat artu eban beste barik.

Olan ba, Intxalde'ko nagusia izateko jaio izan zanak, morroitzaren jardun latza ezagutu eban. Txomiñ'ek, baiña, bizitzarako adorea galdu izan eban, eta betekizunak egiten baebazan be, langille ja-tortzat ez zan nabarmentzen. Eta itxaropenbakoai askotan jazoten yaken lez, edateari emon eutsan, eta astegunetan edaten ez baeban be, jaiegunetan "pulqueria" dalako ardandegietan arratsaldea emoten eban, eta illuntzean zearo mozkor eginda, etxera biurtzen zan. Ez eban bere osasunaren alde ardurarik txikiena be artzen, eta aldiaren bidean gibelego gaitzak artu eban, eta lan egiteko gaitasuna galduta, ezgauza billakatu zan.

Tambo aretako nagusia gizon zuzena zan, eta bere egitekoa ondo ausnartu ondoren, Txomin guztiz mozkortuta etxeratu zan gau baten, berebillean artu, eta Buenos Aires'era eroan eban.

Urrengo eguneko goizean Bilbao'rako itsas-bidesaria erosi, eta oraindiño bere senetara biurtu barik, irugarren maillako txartela sa-kelean sartuta, ontziratu eban, eta andik laster aberrirantza abiatu zan Txomin.

Itsasoko bidaia geisorik emon eban Txomiñ'ek, eta Bilbao'ra eltzean, berarekin zer egin ez ekian ontziko nagusiak, aren egoerea salatu, eta onen ondorioz erri-geisotegira eroateko mezua artu eban. Sartzerakoan, nortasun-agiriak aren gora-beerak azaltzen ebazan ezkeru, nongoa zan jakin eben, eta urrengo egunean, geisotegiko arduradunak Mendibe'ko udala jakiñaren gaiñean ipiñi eban.

Igandeko illuntze aretan, Intxalde'ko eskaratzean amama Errose'k iru billobai aparia emotsela, eta etxeko atadian aulki banatan jesarrita, Mikel'ek eta Edurne'k autu nasai bateri emotsola, erriko abadea Munabe'ko bidetik etorkiela ikusi eben. Zer izango ete alkarri itauntzen eutsoela, abadea eldu zan, eta,

—Arratsaldeon, senar-emazteok —esan eutsen—, ez da ma-kala ez, emenditiko ikuspegia.

—Jesarri beldi, Jauna —esan eutsan Edurne'k—. Zerk dakar berori gure etxera...?

—Alkate Jaunaren mezu batek nakar zuenera. Bilbao'ko erri-geisotegitik, an geisorik dagoala Intxalde'ko Txomin jakiñerazoz, mezu bat eldu da gure udaletxera, eta zuek jakitun egiteko natortzue. Gaur goizean barri ori jakitean, zuen anaia ta nire abadekidea dan Andoni'ri mezu bat bialdu daustat, eta arin baten geisotegira joango litzakela esan daust. Uste dot zuek be jakin bear dozuela, eta orre-gaitik etorri naitzue.

Jarraian, Mendibe'ko abadeak geisotasunaren buruz ekiazan gora-beerak emon eutsezan, eta senar-emazteak askatasun osoan egitekoa erabagi egien, errira biurtu zan.

Joan zanean, Edurne'k senarrari auxe esan eutsan:

—Zer egingo dogu, Mikel...?

Une batez Mikel'ek oldozkor iraun eban, eta,

—Guri dagokiguna, Edurne, niretzat argi dago, eta joanak joan etxe onetako semea da. Biar bertan goizean geisotegira joango naz, eta berarentzat ondoen ikusi daitena, egingo dogu.

—Etxera ekarriko ete dozu, Mikel...?

—Ekarteko moduan ba'lego, ekarriko dogu. Biar ni etxetik ur-tenda, jazorikoa amari arduraz esango daustazu, zarrastada andirik artu ez dagian.

Barruko eragintzari jarki eziñik, Edurne Mikel'en basoetara ol-dartu zan, auxe iñoala:

—Oi, Mikel, Gure Jaunak bedeinkatu zagizala...! Ekarrizu ona lenbailen guztien arduraz osatu daiten. Amaren poza, galduriko semea ikusi dagianean...!

Urrengo goizean Mikel geisotegira eldu zan, eta Andoni gelako ate-ondoan ikusi eban.

—Egunon Mikel —ezkon-anaiak esan eutsan—, orain lotan dazta. Gau osoa bere ondoan beilan emon dot. Oso artega dago, baiña bere zerera laster biurtuko dala uste dot. Bart ikusi ninduean negar baten asi zan, eta berea Jaungoikoaren zigorra zala bein eta barrero iñoan. Orain gozaltzera noa, eta lotan balego be, zaindu egizu aren loa. Gero egitekoa erabagiko dogu.

Sartu zan Mikel, eta aulki baten jesarrita beilan geratu zan. Alako baten, Txomin itxartu zan, eta begiak Mikel'egan untzatuta,

—Zu, zu emen... Etxeko morroiaren mamua ete zara...?

—Ez naz iñoren mamua, Mikel berbera baiño. Nasaitu zaitez, Txomin.

—Ez dakit zelan nagoan emen. Oba Argentiña'n bertan il ba'nintz, baiña ugazaba arek, senetara etorri barik nintzala, itsasontzi batera sartu, eta ona igorri ninduan. Ez naz ezertarako gauza, Mikel. Beti arroputz madarikatua izan naz, eta gaiñera gorroto izan dautsut beti. Ba al-dakizu zergaitik...? Ni baiño askozaz gizonago zintzazalako...

—Arren, Txomin, ez esan gorroto izan daustazunik. Ori, zeugandik ezelan be entzun nai ez neukena da. Zu laguntzearren emen nozu, eta anaitzat artu gura zinduket. Gorrotoak ez dau iñongo zorionik ekarten.

—Ez, orain ez dautsut gorrotorik izaten. Zeozer ba'neuko, nire buruarekiko gorrotoa izango litzake. Ez, ez dautsut gorrotorik, Mikel. Bizitzak merezi neban baizen zakar erabilli nau, eta orain apurtuta, lur jota, aberrira biurtu naiatzue. Egindako kaltea garbitu izango al dot...!

—Begira, Txomin, ondiñokarren gazte zara, eta bizitzaldi luzea aurrean dozu. Gertaturikoa be, amak maite-maite zaitu, eta irrikan dago zu besarkatzeko. Zu barik, Txomin, bera ez da merezi baizen zoriontsua; Orra or ba, bizi nai izateko zio andi bat, baita egindakoa zelanbait ordaintzeko be, amaren azken egunak alaituz.

Begiak itxi ebazan Txomiñ'ek, amaren irudia gogora ekarteko, antza. Une batez biok isillik iraun eben, eta gero,

—Andoni'k dana esan daust —esan eban begiak edegiten ebazala—, au da, zelan Edurne'ren senarra ta Intxalde'ko nagusia billakatu zaran, eta zelan nik etxeari ekarri neutsan ondapena zeuk

atundu dozun. Izan be, Jaungoikoak etxera ekarri zinduzan, nik egindako kaltea zeuk zuzendu zengian...

—Aizu, Txomin —eten egin eutsan Mikel'ek—, ez zaitez larritu orain, olako gauzak gogora ekarriz. Joanak joan, eta orain zure osasuna beiñena da.

Une aretan Andoni sartu zan, eta Mikel'eri jakiñerazo eutsan, osagillea euren begira egoala. Joan ziran ba, eta sartu ziranean, gibel-bereizlari arek auxe esan eutsen:

—Zuen senitarteko orrek gibela geisotasunak artuta dauka, baiña ondiñokarren gazte dan ezkerro, osatu daiteke. Orretarako, baiña, edateari betirako uko egin bear dautso.

—Eroan ete dagikegu etxera...? —itaundu eutsan Mikel'ek— Gure etxea leku baketsu ta osasuntsua da.

—Bai, eroan dagikezue noizgura, baiña edateari buruz esanaz gaiñera, txatal baten, bete bear izango dauzan jan-arauak idatziko dautsuedaz. Esandako neurriak gordetektotan, apurka-apurka indartuko da, eta basetxeko oiko lanetan neurritz jardun dagike.

Jarrain osagilleak jan-arauak idatzi ebazan, eta geisosa barrero aztertuta gero, etxera eroan egien baimena emon eban.

Astirik galtzeke abiamenak eginda, Txomin berebil batera sartu, eta irurok Mendibe'ra joan ziran, emendik etxerakoa zalpurdiz egiteko. Eldu ziranean, Errose euren begira egoan atadian, eta zorionezko malkoak mara-mara eriozala besarkada luze-luzea etxera biurturiko seme etxekalteari emon eutsan. Gero, Edurne'k besarkatu eban, eta bere iru seme-alaba aurpegigorri ta ederrak erakutsi eutsazan.

Egunen bidean eta ama ta arrebearen zaintzapean, baita etxeko janari osasuntsuaren bitartez be, Txomin indartu zan uste izandako baiño len, eta laster etxeko lanetan jarduteko gai izan zan. Eta olan, Intxalde'ko etxekojauna izateko jaio zanak, etxeko morroitzat ziarduan. Mikel'ek aalik arduratsu ta gozoen erabillen, eta illeko lansari bat emon nai izan eutsan, baiña aalegin guztiak arren Txomiñ'ek ez eban ezelako dirurik artu gura.

Etxera biurtu zanetik, Txomin eredugarria billakatu zan. Jaiegunetan meztatik etorrita gero, egun osoa etxean emoten eban umee-kin jolasten edo egurasten, baita amarekin berbetan be. Errose zorionsua sentitzen zan galduriko semea bide onetik ebillela ikustean, baiña etxeko nagusia izan bearke zana, iñongo etorki barik etxeko morroi biurtuta ikusteak, esan-eziñeko naigabea emotsan, eta auxe zan bere zorioneko zeruan, odei illunak jarten ebazana. Egoera aretan bere semea ezin zeitekean ezkondu, ezta, beraz, sendi bat oiñarritu be.

Mikel'eri be, ezkon-anaiaren oraingo egoera zoribakoa etenbarik burura etorkion, eta barruko zerbaitek zeozer egitera eragiten eban. Sarri askotan Edurne'rekin arazo oneri buruz eragoion. Bein baten, emazteari auxe esan eutsan:

—Zer egin geinke, Edurre, Txomiñ'en gaurko egoera ezaiña arintzeko...? Aspaldi onetan gero ta kezkatago nagotzu, maite ori. Gure egoerea oba-eziña da, gero ta aberatsago biurtzen gara-ta. Diru-mordo bat gure aurrezki-kontuan dogu, eta zure nebari laguntzearren emon gura dautsadan lan saria ez dau artu gura, len egin-dako kaltea, ordaindu bear daua esanez...

—Aizu, Mikel —eten egin eutsan Edurne'k—, ez al-dakizu Iturbe auzunean Matxiñena etxea bere lurraz salgai-edo dala...? Lengo egunean mezik urtetean, orko auzuneko Marikruz'eri olako zeozer entzun neutsan. Zergaitik ez dautsazu arazo orreri ardura emoten...?

—Biar bertan ekingo dautsat orreri. Baiña bada-ezpadakoan ez dagigon iñori esan zein asmotan gabiltzan.

—Bai, Mikel, zuzen zagoz.

Laster jakin eban Mikel'ek, Matxiñena bere lurrekin salgai egola, aren jaubeak ondorengorik ezean, zartzaroa Gernika'n emon nai, eta orretarako etxe barri bat an erosi izan ebala. Jabeagana joanda, Mikel'ek sal-erostearen baldintzak eskatu eutsazan. Izan be, oneik egokiak irudituko yakozan, eta auxe eskiñi eutsan Matxiñena'ko etxejoanari: diruketearen erdia esku-diruz, eta enparaua epeka. Senar-emazteak ziran saltzailleak, urrengo astean erantzuna emongo leuskioela jakinerazo eutsan, baita auxe eratsi eben: esandako baldintzetan abelgorria, lanabesak etab. sartzen zirala.,

Etxera biurtzean, Mikel'ek Edurne jakintun ipiñi eban, eta onek baietza pozik emon be. Gau aretan etxe guztiak oeratuak zirala, bakarrik geratu ziranean, Mikel'ek Txomiñ'eri auxe esan eutsan:

—Aizu, Txomin, ez derixat ondo darabiltzun biziereari. Zu ez zara iñoren morroi izateko jai, eta are gitxiago sortu zintzazan etxean.

—Nik ez dot besterik eskatzen, egindako kaltea ordaindu baiño. Pozik nago, eta areago danok maite nozuela ikusirik.

—Begira, Txomin, ogei ta amabi urtekoa zara orain, beraz, bizitzaren betetasunean zagoz. Onezkero sendotu zara, eta gizon guztien antzera, ezkondu sendi bat sortzea dagokizu, bestelan etorki antzua izango dozu, edozein mutilzarraren antzekoa. Gaiñera, amak ezer esaten ez badau be, orixe da naigabetzen dauana. Maite zaitu benetan, eta zu olan ikustea jasan-eziña egiten yako.

Edurne'k eta biok be ezin zagikeguz olan ikusi, Txomin, Jaungoikoarren, jara emioizu zure buruari...!

—Zer egin dagiket ba...?

—Begira, Txomin, Matxiñena etxea bere berrogei gızalanekin salgai da. Ondo ezagutzen dozun etxalde ori, abelgorri, gurdi ta lanabes guztiakin batera saltzen da, eta nire ustez, zuretzat ezin egokiagorik.

—Baiña ez al-dakizu ezkurrik bage nagoala...?

—Ara... sarreratzat jabeak eskatzen dauana, Edurne'k eta biok ipiñiko dogu, eta enparauko dirua, zeuk epeka, urtean ainbeste, etxaguntzari atarako dagizunaz garbituko dozu. Zu bazara nor Matxiñena ondo bai ondo erabilteko, baita edozein beste etxalde be.

—Ez dakit ba... pentsau egin bear dot.

—Begira, Txomin, amagaitik baiño ez bada be, baietza emon bear dozu. Egunen baten, amak zure alde egindakoa ordaindu nai ba'dautsazu, eta emon zeuntsazan atsekabeak garbitu, arren, onartu egizu...! Ama ez da zorionsua izango emen morroitzat ikusi zigizan bitartean. Zure ona gura dau oroz gaiñetik, zu etxejoan biurtuta ikusi, sendi maitekorak inguratuta.

Une batez Txomiñ'ek isillik irauan eban, eta gero,

—Emon egistazue egun batzuk nire erabagia artu dagidan.

Egun orreik igarota, etxe guztien pozerako, Txomiñ'ek baietza esan eban. Salerosketea bereala gertatu zan, eta andik laster baratariaren aurrean sal-sariaren erdia ordainduta, Txomin Matxiñena'ko jabea billakatu zan, bost urtez urteroko sari bat ordaintzekotan, enparauko dirua garbitu arte.

Mikel'en laguntzaz alorak erein ebazan, eta andik laster Txomiñek lanari emon eutsan buru-belarri, eta aldiaren bidean osasuna irabazita, bera bazala nor basetxe bat erabilteko ikusirik, bere buruarekiko uste ona sendotzen joiakon, eta bizitza beste ikuspegi baikorragotik ikusten asi zan. Onen ondorioz, oiko biziereari emonda, urtebetea ozta-ozta igarorik, Mendibe'ko neska maratz batz maiteminduta, andik sei illabetera emaztetzat Matxiñena'ra ekarri eban. Benetako gizona zan orduko, eta egiztatu aal izan eban, zuzentasuna zorionerako giltza dala.

Egutegiko orriak jalgiten joiazan, eta neguko gau gordin baten, Mikel eta Edurne sutondoan autu nasai bateri emotsoen. Goiko sorutik, etxe biloba kutuna loak artu egian, Errose'k obauba baten eresia aletzen eban. Alako baten, Edurne'k begi ederrakaz senarrari maite-maite begiratu,

—Mikel —esan eutsan—, aspaldi onetako amaren zoriona...! Txomin ezkondu zanetik badirudi zorionsua izaten asi dala. Baziru-

dian abesten aztu izan yakola, baiña aspaldi onetan antxiña baten oi eban lez, etxe onetan aren soiñuak aditzen dira barrero.

—Zoriona iñork ez berak aiña merezi, baita zeuk be Intxalde'ko nire Lora zoragarri orrek...!

Edurne'k senarraren eskuak laztandu ebazan eta,

—Oi, Mikel, nire ondoan izan zaidazan artean...

—Bai, maite ori; Intxalde'ko morroiaren maitasuna zurea betirako izango da.

—Naiago dot Intxalde'ko etxejojaunaren maitasuna...

Mikel'ek Edurne bereganatu eban, eta mosu maitekorra emon eutsan.